

KEREXETA

JESUKRISTO'REN  
BARRI ONA

(LAU EBANJELIOAK)

1966

## EGILLEAREN BESTE ZERBAIT

- 1.—ORBELAK (1958).
- 2.—BITARGI (1960).
- 3.—JESUKRISTO GURE JAUNAREN BARRI ONA (1960-1961).
- 4.—APOSTOLUEN EGIÑAK (1961).
- 5.—EGUNEROKO MEZA (1963).
- 6.—COGARTEAK (1963).
- 7.—DIDAJE (Amabi Apostoluen Irakaspena). — APOSTOLUEN SINISKITZA (1965).
- 8.—APOSTOLUEN EGIÑAK ETA IDAZKIAK (1965).
- 9.—ALKARTASUN BARRIKO ITZAK ETA GAIK (1965).
- 10.—ARGI-BIDE TXIKIA (Zugazti-Kerexeta). (1965).
- 11.—JESUKRISTO GURE JAUNAREN BARRI ONA (Ebanjelioa gipuzkeraz. Kerexeta-Zugazti). (1965).
- 12.—JESUKRISTO'REN BARRI ONA (Lau Ebanjelioak). (1966).

*Zuzenbide onetara egin  
zure eskabideak:*

**Jaime de Kerexeta**  
ELORRIO (Bizkaia)

*edo-ta*

EDILI, S. A.  
Diputación, 1  
Tel. 21-92-72  
B I L B A O

Euskal Biblioteka Labayru



1016237

RELIGIÓN / N. 35



KEREXETA'TAR JAIME

# JESUKRISTO'REN BARRI ONA

(Jerusalen'go Biblia'tik euskeratuta)

1966

NIHIL OBSTAT,  
Dr. A. Cruz de Omaetxebarria

IMPRIMATUR,  
† PAULUS, Episcopus Flaviobrigensis  
Bilbao, 21 Iulii, 1966

Depósito Legal. S. S. 873/66

G. IZARRA - Peña y Goñi, 13  
SAN SEBASTIAN - Año 1966

## "JESUKRISTO'REN BARRI ONA"

EUROPA'KO IZKUNTZETAN



Albania	:	Engjilli i Krishtit Jesu.
Alemania	:	Evangelium Jesu Christi.
Bearne	:	L'Evangeli de Jesus Crist.
Bretaña	:	Aviel Jezus Krist.
Bulgaria	:	ЕВАНГЕЛИЕ НА НОУС ХРИСТОС.
Dinamarca	:	Evangelium Jesu Kristi.
Eslobakia	:	Evangelium Jezusa Krista.
Eslobania	:	Evangelij Jezusa Kristusa.
Estonia	:	Jeesuse Kristuse evangeelium.
Finlandia	:	Jesuksen Kristuksen evankeliumi.
Flandes (flamenkoz)	:	Evangelie van Jesus Christus.
Gales	:	Efengyl Iesu Crist.
Gaztelera	:	Evangelio de Jesucristo.
Grezia (antxiñakoa)	:	Εὐαγγέλιον τοῦ Ἰησοῦ Χριστοῦ.
Grezia (oraingoa)	:	Ἡ Καινὴ Διαθήκη Ἰησοῦ Χριστοῦ.
Holanda	:	Het Evangelie van Jezus Christus.
Hungria	:	Jézus Krisztus Evangéliuma.
Inglaterra	:	Gospel of Jesus Christ.
Irlanda (Eskozia'koa)	:	Soisgeul Iosa Chríost.
» (Galai'koa)	:	Soiscéal Iosa Chríost.
Italia	:	Evangelo di Gesu Cristo.
Katalanez	:	L'Evangeli de Jesucrist.
Kroazia	:	Evanoelje Isusa Krista.
Lateraz	:	Evangelium Iesu Christi.
Letonia	:	Jezusa Christa evangeliums.

Lituania	:	Jézaus Kristaus evangélia.
Lusazia'ko Serbia	:	Evangelium Jezusa Khrystusa.
Noruega	:	Evangelium Jesu Kristi.
Polonia	:	Ewangelia Jezusa Krista.
Portugal	:	Evangelho de Jesus Cristo.
Prantzia	:	Evangile de Jésus-Christ.
Rumania	:	Evangelhie de Jesus Cristo.
Rusia	:	ЕВАНГЕЛІЕ ПАНЦЯ ХРИСТА.
Serbia	:	ЕВАНГЕЛІЕ ПАНЦЯ ХРИСТА.
Suezia	:	Evangelium Jesu Kristi.
Turkia	:	Hazret-i Isa-i Mesihin Incili.
Txekia	:	Evangelium Jezise Krista.



## S A R R E R A

EVANGELIUM itzak, BARRI ONA adierazoten dau.

Iragarritako Barri au, Jaungoikoak egindako agintzari guztien betetzea da, gizadi guztiarentzako Salbatzaille bat bialtzea: KRISTO.

Auxe da Jaungoikoak gizonai egin daikeen iragarterik pozgarriena: «Il eta biztu zan Kristo'gan urten gara onik pekatutik, eriotzatik, geisotik, miñetik; eta Kristo'gan irabazi dautsagu Deabruari».

Iragarte au egin eutsen Kristo'k Apostolui bere bizi-tzaren eta berben bidez, eta, batez be, bere Eriotza ta Biz-tueraren bidez.

Geroago, Barri On au baserririk baserri ta uririk uri iragarten eben Apostoluak, eta astiro-astiro azia erriaren bizitzan sartu zan.

Orduan, Jesus'engandik zuzenean edo Jesus'egaz batera bizi izan ziranen agotik eta bizitzatik ikusi ta entzun izan ebena idaztea nai izan eben Jaungoiko-erriaren gizon batzuek.

Eta orreik idatzi ebenetik (Luk. 1, 1), Elizak beretzakotzat lau artu ebazan; lauron egilleak, barriz, Mateo ta Yon, Markos eta Lukas dira: lenengo biak, Apostoluak, eta beste biak Apostoluen ikasleak.

Ebanjelari bakotxak «Barri On» bakarra emon dausku: Jesus. Baiña, bakotxak bere eratarra, berak ikusi dauanez, eta alde batzui beste batzui baiño garrantzi aundia goa emonez. Orrela, Mateo'k Mesias lez eta antxiñako

agintzarien betetzaille lez ikusten dau Kristo; Markos'ek, mirarigille lez eta deabruen azpiratzaille lez; Lukas'ek, Salbatzaille errukior lez eta beartsuen eta pekatarien adiskide lez; eta Yon'ek, Jaungoikoaren Seme Bakar lez, gugaitik aragia artu ta Grazia, Argia ta Bizitza emoten dauskuzala.

Jaungoikoaren Gogoak edo Espirituak berak emon dautso bere Elizari BARRI ON au, aitaturiko lau Ebanjelarion bidez, guri Jesus Salbatzaillea ezaguerazorik.

Lau Ebanjeliook dira Alkartasun Zaarreko azken-muga. Mezako Opari deuna ospatzean be, beti irakurten dogu Barri Onaren zatiren bat, eta begirunerik aundienaz irakurri be, Jaungoikoaren itza da-ta. Barri Ona irakurtean, Kristo bera somatzen dogu gure artean. Gerkar-Elizan, Barri On liburua altara-gaiñean egoten da beti, Eukaristiaren ondoan.

Gure etxeetan be, aparteko tokiren baten egon bear litzake: gure bizitzak aldatzeko ta guri zeruko bidea erakusteko libururik santuena ta egokiena dan ezkerro. Jesukristo'ren Barri Ona da, izan be, idatzi dan libururik ederrrena, bikaiñiena ta jaungoikozkoena, eta gure Eliza Amak eskuetan jarten dauskun idaztirik begikoena, maitekorrrena ta irakurgarriena.

Ori dala-ta, alegin biziak egin dodaz, euskeraz jarrean, al bait ulertterazena izan dadin. Alan be, ba-dakit guztien gogoia beteko ez dodana, guztiok azikera bardiña ez dogu-ta, euskerari buruz batez be.

Gai onetzaz, nire Eguneroko Meza liburuan esan neba-na diñot barrero be: arrigarriak egingo litzakezala urte batzuen barruan, umeai eskoletan euskeraz irakatsi ezkerro.

Gaur egunez - len izan ez ba'da be -, izkuntzari bizi-tza emoteko oiñarririk sendoenak eskoletan eta ikastetxeetan dagoz. Ondotxo dakie ori izkuntzalari irakasleak.

Jakintza edo kultura emoteko, euskera ez dala gauza

esan dau norbaitek. Jaungoiko-jakintzarako beintzat ba-da gauza. Jaungoiko-jakintza ez da, gero, bera azalezko kultura! Beste jakintza-gai guztiak lortzeko, barriz, zabaldu daitezala orretarako bear-bearrezko diran ate ta bide guztiak, eta orduantxe ikusiko dogu euskera kultura emoteko gauza dan ala ez.

Azkenez, euskal-biurtze au, Jerusalem'go Biblia izenekotik egin dot. Beraz, bertoko esakerak aztertu nai dagizanak, aitatu dodan liburu ori euki bear dau aurrean.

Eta besterik ez.

Aurrekoak lez, izan daitela lan au be Kristo Jaunaren aintzarik aundienerako, Elizaren gorapenerako, eta gure Erriaren onerako.


Elorrio'n, 1966, Jorraitak 10,  
Jesukristo Jauna biztu zan eguna,  
geure eguna.

**KEREXETA'TAR JAIME**

**EUSKALTZAINDIKOA**







## JESUKRISTO'REN BARRI ONA

### Mateo Deunak dakarrenez

Mateo Ebanjelaria Apostoluen artekoa zan. Alfeo'ren seme onek, Lebi izan eban izena. Kafarnaum'go zergategian egoala, Jesus'ek dei egin eutsan; eta arek, maia ta dirua bertan-bera itxi ta Jaunari jarraitu eutsan (Mat. 9, 9-13).

Jesus zerura igota gero, Palestina'n iragarri eban Barri Ona. Zer egin eban gero? Ez dakigu ziur-ziur. Batzuek diñoenez, Etiopia'n zabaldu ei'e ban Barri Ona. Elizak aren eguna Iraillaren 21'garrenean ospatzen dau.

Apostoluen egunetatik dakigunez, Barri Ona idatzi eban, arameoz, bere erritarrak erabilen izkeraz. Geroago, gerkerara biurtu izan zan, gerkeraz orduan geien berba egiten zan izkuntza-ta. Gerkeraz izan ziran idatziak Alkartasun Barriko beste idazki guztiak be. Guri, gerkeraz idatzitakoa eldu yaku bakarrik, arameoz idatzitakoa galdu egin zan-eta.

Mateo'ren Barri On au, judar kristautentzat izan zan idatzia, judar sinisgogorren kontra; orrexegaitik darabiz Alkartasun Zaarreko ainbeste idaz-txatal.

Ebanjelari onek, Jesus erriak itxaroten eben Mesias edo Kristo'a zala adierazoten dau, eta Aren Eliza, "Zeruetako Erreiñua", Kristo'ren benetako Erreiñua dala.

Jesus Umearen barri labur-labur emon ondoren (1, 1-2, 23), Jesus'ek Galilea'n egin ebazan mirariak azaltzen dauz (4, 12-18, 35). Gero, Jerusalem'erako bidean (19, 1-20, 34) eta Jerusalem'en bertan egin ebazanak (21, 1-25, 46). Azkenez, Jaunaren Nekaldi, Eriotz eta Biztuera dakaz (26, 1-28, 20).

Barri On au, Kristo'ren 50'garren urtean idatzi eban, eta Palestina'n idatzi be.

## I

**Jesukristo'ren jatorria** (Luk. 3, 23-38).

<sup>1</sup> Abrahan'en belauneko Dabid'en seme dan Jesukristo'ren jatorria: <sup>2</sup> Abrahan'ek Isaak sortu eban; Isaak'ek Jakob sortu eban; Jakob'ek Juda ta onen anaiak sortu eban; <sup>3</sup> Juda'k, Tamar'egandik, Fares ta Zara sortu eban; Fares'ek Esrom sortu eban; Esrom'ek Aram sortu eban; <sup>4</sup> Aram'ek Aminadab sortu eban; Aminadab'ek Naason sortu eban; Naason'ek Salmon sortu eban; <sup>5</sup> Salmon'ek, Errahab'egandik, Booz sortu eban; Booz'ek, Errut'egandik, Obed sortu eban; Obed'ek Jese sortu eban; <sup>6</sup> Jese'k Dabid erregea sortu eban. Dabid erregeak, Urias'en emazte izan zanagandik, Salomon sortu eban; <sup>7</sup> Salomon'ek Erroboam sortu eban; Erroboam'ek Abia sortu eban; Abia'k Asaf sortu eban; <sup>8</sup> Asaf'ek Josapat sortu eban; Josapat'ek Joram sortu eban; Joram'ek Ozias sortu eban; <sup>9</sup> Ozias'ek Joatam sortu eban; Joatam'ek Akaz sortu eban; Akaz'ek Ezekias sortu eban; <sup>10</sup> Ezekias'ek Manases sortu eban; Manases'ek Amon sortu eban; Amon'ek Josias sortu eban; <sup>11</sup> Josias'ek Jekonias eta onen anaiak sortu eban, Babilonia'rako erbestaldian. <sup>12</sup> Eta Babilonia'rako erbestaldi ondoren, Jekonias'ek Salatiel sortu eban; Salatiel'ek Zorobabel sortu eban <sup>13</sup> Zorobabel'ek Abiud sortu eban; Abiud'ek Eliazim sortu eban; Eliazim'ek Azor sortu eban; <sup>14</sup> Azor'ek Sadok sortu eban; Sadok'ek Akim sortu eban; Akim'ek Eliud sortu eban; <sup>15</sup> Eliud'ek Eleazar sortu eban; Eleazar'ek Matan sortu eban; Matan'ek Jakob sortu eban; <sup>16</sup> Jakob'ek Maria'ren senar Jose sortu eban; eta Maria'gandik, Kristo deritxon Jesus jaio zan (\*).

<sup>17</sup> Beraz, Abrahan'egandik Dabid'eganaiño, amalau belunaldi dira; Dabid'egandik Babilonia'rako erbestaldiraiño, amalau belaunaldi; eta Babilonia'rako erbestaldetik Kristo'ganaiño, amalau belaunaldi (\*).

**Jesus'en sortzea ta jaiotza.**

<sup>18</sup> Jesukristo'ren jaiotza olantxe izan zan: Jesus'en ama Maria'k, Jose'ri ezkontzeko berba emonda egoan; eta, alkarregaz bizi izan baiño len, Espiritu Santuaren egíñez seindun (*umedun*) aurkitu zan. <sup>19</sup> Jose'k, aren senarrak, zintzoa zanez eta a salatu nai ez-ta, emaztea isilik iztea erabagi eban. <sup>20</sup> Baiña, asmo onetan ziarduala, amesetan Jaunaren aingerua agertu yakon, eta auxe esan eutsan: «Jose, Dabid'en seme ori: ez bildurtu Maria emaztetzat artzen: beragan sortu dana, Espiritu Santuagandik dator-eta. <sup>21</sup> Seme bat ekarriko dau argitara, eta izena Jesus ezarriko dautsazu: bere erria pekatuetatik Berak atarako dau-ta». <sup>22</sup> Guzti ori, Jaunak igarlearen agoz aurretiaz esan eban au bete zedin jazo zan: <sup>23</sup> *Begira: neska (birjiña) bategen sabelean semea sortu ta argitara ekarriko dau, eta izena «Emmanuel» ezarriko dautsoe* (\*). Izen onek, «Jaungoikoa gugaz» adierazoten dau.

<sup>24</sup> Jose'k, amesetatik iratzartu zanean, Jaunaren aingeruak agindu izan eutsanez egin eta bere emaztea beragaz artu eban (\*); <sup>25</sup> eta onegaz ezkontzeko artu-emonik izan bagarik, seme bat izan eban, eta izena Jesus ezarri eutsan (\*).

## II

**Aztien\*** (erregeen) **gurtza.**

<sup>1</sup> Erodes erregearen egunetan, Juda'ko Belen'en Jesus jaio zanean, azti batzuk eguzki-sortzaldetik Jerusalem'era etorri ziran (\*), <sup>2</sup> esanez: «Nun dago judarren errege jaiobarria? Eguzki-sortzaldean Aren izarra ikusi dogu-ta, gur egitera gatorkioz». <sup>3</sup> Ori entzunik, Erodes erregea larritu egin zan, baita aregaz batera Jerusalem guztia be. Abadeburu ta erriko idazlari guztiak batu-erazo eban, eta

\* Azti: mago.



Kristo'a nun jaioko zan itandu eutsen. <sup>4</sup> Areik auxe esan: eutsoen: «Juda'ko Belen'en, olantxe dago igarleak idatzita-ta: *Eta zu, Belen, Juda'ko lurralde ori, ez zara, ez, Juda'ko erri nagusien artean erririk txikiena: zeugandik ur-tengo da buruzagia-ta, nire erri Israel'en artzain izango dana* (\*)».

<sup>7</sup> Orduan, Erodes'ek aztiak ixillean dei egin eutsen, eta izarra noiz agertu izan yaken jakin eban arekandik. <sup>8</sup> Gero, Belen'erako bidean jarri ebazan, auxe zirautsela: «Zoaze, eta jakin egizue ondo umea nun dagoan; eta aurkitu dagizuenean, iragarri egidazue: neu be bera gurtzera joan naiten». <sup>9</sup> Areik, ba, erregearen berbok entzunda gero, joan egin ziran. Eta ara!, sortzaldean ikusi izan eben izarra aurretik yoakien, umea egoan toki-gaiñera eldu ta bertan gelditu arte. <sup>10</sup> Izarra ikustean, poz aundiz bete ziran. <sup>11</sup> Etxean sartu ziran; umea ikusi eben bere ama Maria'gaz; eta auzpazturik, gurtu egin eben. Gero, euren kutxak zabaldu ta opariak eskiñi eutsoezan: urrea, intzentzua ta mirra. <sup>12</sup> Gero, Erodes'egana ez biurtzeko burubidea amesetan artuta, euren errialdera beste bide batetik biurtu ziran.

### Ejipto'ra igesi.

<sup>13</sup> Areik alde egin ebenean, Jaunaren aingerua Jose'ri amesetan agertu yakon, eta auxe esan eutsan: «Jagi zaitetz, umea ta bere ama artu ta Ejipto'ra iges egizu, eta zagoz an neuk esan dagitzudan arte: umea ilteko, Erodes aren billa ibilliko da-ta». <sup>14</sup> Jose jagi, umea ta onen ama artu, eta Ejipto'ra baztertu zan, <sup>15</sup> eta antxe egon zan Erodes'en eriotzararte, Jaunak igarlearen agoz aurretiaz esandako au bete zedin: *Nire semeari Ejipto'tik egin neutsan dei* (\*).

### Umetxo errubageen eriotza.

<sup>16</sup> Orduan Erodes, aztiak iruzur egin\* izan eutsoela ikustean, asarre gorritan jarri zan, eta Belen'en eta inguruetan izan zeitekezan urte birik beerako ume guztiak ilteko agindu eban, aztiakandik jakindako sasoa gogoan artuez. <sup>17</sup> Orduantxe bete zan Jeremias igarleak aurretiaz esandako au: <sup>18</sup> *Deadar bat entzun da Errama'n, negar eta garrasi aundia: Errakel da, bere semeakaitik negarrez, eta ez dau pozbiderik nai, ez dira bizi-ta* <sup>1</sup>(\*)».

### Jesus, Nazaret'era.

<sup>19</sup> Erodes il zanean, Jaunaren aingerua Ejipto'n Jose'ri agertu yakon, <sup>20</sup> eta auxe esan eutsan: «Jagi zaitetz, artu egizuz umea ta bere ama, eta zoaz Israel'go lurraldera: umea il nai ebenak, il egin dira-ta». <sup>21</sup> Jose jagi, umea ta onen ama artu, eta Israel'go lurraldean sartu zan. <sup>22</sup> Baiña Judea'n errege, Erodes'en orde z onen seme Arkelao egoala jakitean, ara joateko bildur izan zan; <sup>23</sup> eta amesetan burubidea artuta, Galilea'ko lurraldera baztatu zan; <sup>24</sup> eta Nazaret izeneko errian bizilagun gelditu zan, igarleak aurretiaz esandako au bete zedin: *Nazaretarra egingo dautsoe dei* (\*).

### III

#### Yon Bateatzaillea Jordan'en agerizen da (Mk. 1, 2-8; Lk. 3, 1-18).

<sup>1</sup> Aldi aretan, Yon Bateatzaillea agertzen da, Judea'ko basamortuan auxe iragarten ebala: <sup>2</sup> «Garbatu zaitetze, zeruetako Erreñua ur dago-ta». <sup>3</sup> Auxe da Isaias igarleak diñoanean iragarritakoa: *Basamortuan deadarka diarduanaren abotsa: Atondu egizue Jaunaren bidea, zuzendu Aren bide-zidorrak*.

\* Iruzur egin: engañar.

<sup>4</sup> Yon, gamelu-ulez jantzita ebillen, gerrian naruzko gerrikoa eroian eta aren janaria matxingorrikoak\* eta basozetia ziran. <sup>5</sup> Jerusalem'dik eta Judea guztitik eta Jordandurralde guztitik aregana etozan; <sup>6</sup> eta euren pekatuak autorturik, Jordan-ibaian aregandik bateoa artzen eben.

#### Damurako deia.

<sup>7</sup> Pariseo ta saduzeo asko bere bateoa artzera etozela ikusirik, auxe esan eutsen: «Nok irakatsi dautsue, sugeku-meoi, zuekana etorteko dan asarreari iges egiten? <sup>8</sup> Egizuezu damu-frutu egokiak, <sup>9</sup> eta ez egizue asmakeririk sortu zuen barruan, «Abraham dogu aitatzat» esanez. Ba-dirauntsuet-eta: arri orreitatik Abraham'en semeak atarateko lain ba-da Jaungoikoa. <sup>10</sup> Onezkero, aizkora arbola-zusterrai ezarrita dago; arnari (*frutu*) onik ekarri ez dagian arbola, ebagia ta sutara jaurtia izango da. <sup>11</sup> Nik, bai, uraz bateatzen zaituet damurako; baiña, nire ondoren datorrena, ni baiño altsuagoa da, ta Ari oiñetakoak eroateko be ez naz ni nor; Berak bateatuko zaitue Espiritu Santuaz eta suaz (\*). <sup>12</sup> Galbaea bere eskuan dauko, eta bere arloa garbitu egingo dau; bere garia garautegian batuko dau; gari-lastoa, barriz, ezin itxungi (*atzamatu*) daiteken sutan erreko dau» (\*).

**Jesus'en bateoa** (Mk. 1, 9-11; Lk. 3, 21-22; Yn. 1, 31-34).

<sup>13</sup> Orduan, Jesus Galilea'tik Jordan'era etorri zan, Yon'egana, onek bateatu egian. <sup>14</sup> Yon'ek, barriz, galera-zo egiten eutsan, esanez: «Neu naz ni zuk bateatu bear nozuna; eta zeu zatoz nigana?». <sup>15</sup> Baiña Jesus'ek erantzun eutsan: «Egiten itxi egidazu orain, zuzenbide osoa betetea dagokigu-ta». Orduan, Yon'ek itxi egin eutsan. <sup>16</sup> Jesus bateatuta gero, bereala uretatik urten egin zan. Eta zeuruak zabaldu egin ziran, eta Espiritu Santua uso-irudiz ja-

\* Matxingorrikoak: langostas de campo.

tsiten eta Aren gaiñera etorten ikusi eban, <sup>17</sup> zerutik abots batek iñoan artean: «Auxe da atsegin dodan nire seme kutuna».

#### IV

**Kristo'ren barau ta zirikaldiak** (Mk. 1, 12-13; Lk. 4-13).

<sup>1</sup> Orduan, Jesus Espiritu (Santuak) basamortura eroan eban, deabruak zirikatu egian (\*). <sup>2</sup> Eta berrogei egunez eta berrogei gabez barau eginda gero, gose izan zan (\*). <sup>3</sup> Orduan, tentatzailea urreratu yakon, eta auxe esan eutsan: «Jaungoikoaren Semea ba'zara, esan egizu arriok ogi biurtu daitezala». <sup>4</sup> Baiña Jesus'ek esan eutsan: «Idatzita yagok: *Gizona ez dok ogi utsez bizi, Jaungoikoaren agotik urtendako edozein berbaz baiño*». <sup>5</sup> Orduan, deabruak Uri Santura (\*) daroa, Jaunaren Etxeko gaillurrean jarten dau, <sup>6</sup> eta auxe dirautso: «Jaungoikoaren Semea ba'zara, jaurti egizu zure burua goitik beera, idatzita dago-ta: *Zaindu zagiezala aginduko dautse bere aingeruai, eta euren eskuetan eroango zaitue, zure oiñak arriven baten labanik egin ez dagian*» (\*). <sup>7</sup> Jesus'ek esan eutsan: «Baita idatzita be ba-yagok: *Ez dok ire Jaungoiko Jauna zirikatuko*» (\*). <sup>8</sup> Barriro be, deabruak beragaz mendi aundi-aundi batera daroa, lurreko erreñu guztiak eta arein edertasuna erakusten dautsaz, <sup>9</sup> eta auxe dirautso: «Guzti au emongo dautsut, auzpaz gurtzen ba'nozu». <sup>10</sup> Orduan, Jesus'ek dirautso: «Alde emendik, Satanasl, idatzita yagok-eta: *Eure Jaungoiko Jauna gurtuko dok, eta gurtu be Bera bakarrik gurtuko dok*» (\*). <sup>11</sup> Orduan, deabruak banean izten dau. Eta ara!, aingeru batzuk etorri yakozan, eta otseindu egiten eben.

**Galilea'ra biurtzen da** (Mk. 1, 14-15; Lk. 4, 14).

<sup>12</sup> Yon atxillotu egin ebela entzun ebanean, Jesus Galilea'ra baztertu zan. <sup>13</sup> Eta Nazaret itxirik, Zabulon eta



Neftali'ko mugetan, itxasondoan dagoan Kafarnaum'go bizilagun egin zan; <sup>14</sup> Isaias igarleak aurretiaz esandako an bete zedin: <sup>15</sup> *Zabulon lurraldea ta Neftali lurraldea, itxas-bidea, Jordan-aruzkoa, atzerritarren Galilea!* <sup>16</sup> *Illunetan etzunda egoan erriak argi bizi bat ikusi dau; eriotz-gerizpeko lurraldean etzunda egozanai, argi bat sortu yake* (\*). <sup>17</sup> Arrezkero, auxe iragarten eta esaten asi zan Jesus: «Garbatu zaitzeze, zeruetako Erreñua ur dago-ta».

**Lenengo ikasleak** (Mk. 1, 16-20; Lk. 5, 1-11).

<sup>18</sup> Galilea'ko itxasondoan ebillela, anai bi ikusi ebazan: Pedro eritxon Simon, eta onen anai Ander, sarea itxasora jaurtiten, arrantzaleak ziran-eta; <sup>19</sup> eta auxe dirautse: «Etorri zaitzeze nigaz, eta nik gizon-arrantzale egingo zaituet». <sup>20</sup> Eta areik, berealaxe, sareak alde batera itxirik, jarraitu egin outsoen.

<sup>21</sup> Aurrera jo eban, eta beste anai bi ikusi ebazan: Zebedeo'ren Santiago ta onen anai Yon, euron aita Zebedeo'gaz txalupan euren sareak konpontzen ziarduela; eta dei egin eutsen. <sup>22</sup> Eta areik, berealaxe, sareak eta aita alde batera itxirik, jarraitu egin outsoen.

**Jesus'ek Galilea-zear irakasten diardu**  
(Mk. 1, 39; 3, 7-8; Lk. 4, 14-15-44; 6, 17-18).

<sup>23</sup> Jesus Galilea osoan zear ebillen, arein sinagogetan irakasten, Erreñuko Barri Ona iragarten, eta errian edozein geiso ta gaitz osatzen. <sup>24</sup> Aren izen ona Siria osoan zabaldu zan; eta edozein geisok eta gatxek jota egozan guztiak, deabrudunak, alditsuak eta elbarridunak ekarten eutsoezan, eta osatu egiten ebazan. <sup>25</sup> Eta Galilea'tik, Dekapolis'tik, Jerusalem'dik, Judea'tik, eta Jordan-aruzkotik laguntalde aundiak jarraitu eutsan.

## V

**Zoriontasunak** (Lk. 6, 20-23).

<sup>1</sup> Laguntaldea ikusirik, mendira igo zan; eta jesarri zanean, bere ikasleak urreratu yakozan. <sup>2</sup> Eta agoa zabalduz, irakatsi egiten eutsen, esanez: <sup>3</sup> «Zoriontsuak gogozko txiroak (*beartsuak*), zeruetako Erreñua eurena da-ta. <sup>4</sup> Zoriontsuak otzanak, lurraren jabe egingo dira-ta. <sup>5</sup> Zoriontsuak negar egiten dabenak, poztuak izango dira-ta. <sup>6</sup> Zoriontsuak zuzentasunaren gose-egarri diranak, asetuak (*betreak*) izango dira-ta. <sup>7</sup> Zoriontsuak errukiorrak, errukia jadetsiko dabe-ta. <sup>8</sup> Zoriontsuak biotz-garbiak, Jaungoikoa ikusiko dabe-ta. <sup>9</sup> Zoriontsuak bake-zaleak, Jaungoiko-seme izena emongo yake-ta. <sup>10</sup> Zoriontsuak zuzentasunagaitik aurrean erabiliak, zeruetako Erreñua eurena da-ta. <sup>11</sup> Zoriontsuak izango zaree zuok, nigaitik iraindu ta aurrean erabili zagiezanean, eta guzurrez zuen kontra nai dagiena esan dagienean. <sup>12</sup> Poztu ta alaitu zaitzeze: zuen saria zeruetan aundia da-ta; orrelaxe erabili ebezan aurrean zuen aurreko igarleak be» (\*).

**Gatz eta argi**

(Mk. 9, 50; Lk. 14, 34-35; Lk. 11, 33; Mk. 4, 21; Lk. 8, 16).

<sup>13</sup> Lurraren gatza zaree zuek. Gatza gazatzen ba'da, berriz, zerez gazitu? Ezetarako be ez da, kanpora jaurtiteko ta gizonen ankaperako baiño. <sup>14</sup> Munduaren argia zaree zuek. Mendi-tontorrean dagoan uria, ezin gorde daiteke. <sup>15</sup> Argi iziotua be ez dabe imillaun-pean\* ipinten, argi-ontziaren gainean baiño, etxean dagozan guztiak argi egin dagi(ts)en. <sup>16</sup> Bego orrela ditziz zuen argia gizonen aurrean, zuen egintza onak ikusi dagiezan, eta zeruetan dagoan Aita goratu dagien.

\* Imillaun: celemín.

**Legea bete.**

<sup>17</sup> «Ez uste izan Legea ta Igarleak kentzera etorri nanzanik; ez naz kentzera etorri, betetera baiño. <sup>18</sup> Bene-benetan dirautsuet: Legeko «i» bat edo izpitxo bat kendu baiño lenago igaroko dira zerua ta lurra, guzti-guztia bete arte. <sup>19</sup> Beraz, onetariko agindurik txikiena ausi, eta gizonai orretara austen irakatsi dagi(ts)ena, zeruetako Erreñuan txikiena izango da; aginduok bete ta beteten irakatsi dagiana, barriz, aundia izango da orrelakoa zeruetako Erreñuan.

**Zuzentasun barria antxiñakoa baiño gorago**

(Lk. 12, 58-59).

<sup>20</sup> «Ba-dirautsuet-eta: Zuen zuzentasuna idazlari ta Fares-aldekoena baiño aundiagoa ez ba'da, ez zaree zeruetako Erreñuan sartuko.

<sup>21</sup> Entzun dozue antxiñakoi esandako au: *Ez dozu iñor ilgo*; eta iltzaillea auzitegian errudun izango da. <sup>22</sup> Nik, barriz, auxe dirautsuet: Bere anaiaren kontra asarratu daitena, errudun izango da auzitegian; eta bere anaiari *kirten ori* esan dagiona, errudun izango da batzarrean; eta *donga ori* esan dagiona, lezako (*inpernuko*) sutarako errudun izango da. <sup>23</sup> Beraz, zure oparia altaran eskintzean, eta zure anaiak zure kontra zerbait ba-daukala gogoratzen ba'dozu an, <sup>24</sup> itxi egizu zure oparia an, altara-aurrean, eta zoaz lenengo zure anaiagaz bakeak egitera; gero, barriro etorri ta eskiñi egizu zure oparia. <sup>25</sup> Zure arerioagaz adiskidetu zaitez arin, bidean aregaz zoazan artean: arek epailleari ta epailleak ertzaiñari\* emonda, giltzapean sartua izan ez zaitez. <sup>26</sup> Benetan dirautsuet: ez zara andik urtengo azkenengo txanpona ordaindu arte.

**Seigarren agindua**

(Mt. 18, 8-9; 19, 9; Mk. 10, 11-12; Lk. 16, 18).

<sup>27</sup> Entzun dozue esandako au: *Ez egin ezkontza-naas-*

\* Ertzain: erri-zain = alguacil, guardia.

*terik* (\*). <sup>28</sup> Nik, barriz, auxe dirautsuet: Emakumea lizunkeriz begiratzen dauan edonok, bere biotzean aretzaz ezkontza loitu dau. <sup>29</sup> Beraz, zure begia pekaturako bide ba'yatzu, atara ta jaurti egizu zugandik: obe dozu zure gorputz-ataletariko bat galtzea, zure gorputz osoa su-lezara (*inpernura*) jaurtia izatea baiño. <sup>30</sup> Eta zure eskumako eskua pekaturako bide ba'yatzu, ebagi ta jaurti egizu zugandik: obe dozu gorputz-ataletariko bat galtzea, zure gorputz osoa su-lezara jaurtia izatea baiño (\*).

<sup>31</sup> Beste au be esanda dago: *Bere emaztea itxi dagianak, ezkontzauste-agiria emon dagiola* (\*). <sup>32</sup> Nik, barriz, auxe dirautsuet: Bere emaztea izten dauanak – aragikeriagaitik izan ezik –, emaztea ezkontza naasteko arriskuan jarten dau; eta itxitako emazte orregaz ezkontzen danak, ezkontza naasten dau.

**Bigarren agindua.**

<sup>33</sup> Aurretikoak esandako au be entzun dozue: *Ez dozu guzurrez ziñik egingo\**; zure ziñak Jaunari beteko dau-tsazuz, ostera. <sup>34</sup> Nik, barriz, auxe dirautsuet: Iñola be ez egin ziñik, ez *zeruagaitik*, Jaungoikoaren Errege-jarleku da-ta; <sup>35</sup> ez *lurragaitik*, Aren oiñazpikoa da-ta; ez *Jerusalem'gaitik*, Errege aundiaren uria da-ta. <sup>36</sup> Ezta zeure buruagaitik be ez egin ziñik, zure ule bat bera be ezin zuritu edo baltzitu daikezu-ta. <sup>37</sup> Zuen izkera «bai, bai, ez, ez», izan bedi, orren gaiñerakoa, barriz, gaiztakeritik dator.

**Beste aibesteko ordain-legea** (Lk. 6, 29).

<sup>38</sup> Entzun dozue esandako au: Begi-ordain, begi; agin-ordain, agin (\*). <sup>39</sup> Nik, barriz, auxe dirautsuet: Ez egin gogorrik gaiztakeriari; eta eskumako matraillan jo zagizanari, eskiñi egiozu bestea be; <sup>40</sup> jantzia zuri kentzearen, auzitegira eroan nai zagizanari, emon egiozu soingaiñekoa be; <sup>41</sup> eta milla oinkadako bidea ibiltzen beartu

\* Zin egin: jurar.



zagizanagaz, egizu aregaz bi milla oinkada. <sup>42</sup> Eskatu dagitzun edonori, emon egiozu; eta zerbait ordainiez emon dagiozula gura dauanari, ez egiozu ukatu.

#### **Arerio-maitakuntza** (Lk. 6, 27-36).

<sup>43</sup> «Entzun dozue esanda dagoan au: Zure lagun-urkoa maite izango dozu (\*), eta zure arerioari gorroto izango dautsazu. <sup>44</sup> Nik, barriz, auxe dirautsuet; Maite egizuez zuen arerioak, egizue otoitz aurrean zarabillezen alde: <sup>45</sup> bere eguzkia on eta gaiztoen gainera ataraten eta euria on eta gaiztoen gainera ekarten dauan zeruko zuen Aitaren seme izan zaitez. <sup>46</sup> Izan be, maite zaituenak maite ba'dozuez, ze sari izango dozue? Zerga-batzailleak eurak be ez dabe, ba, orixe egiten? <sup>47</sup> Eta anaiak bakarrik agurtzen ba'dozuez, zer egiten dozue geiegikorik? Jentillak eurak be ez dabe, ba, orixe egiten? <sup>48</sup> Beraz, izan zaiteze bikaiñak, zeruko zuen Aita bikaiña danez.

## VI

#### **Limosna egikera.**

<sup>1</sup> «Zuen egite onak ez egin, gero, gizonen aurrean, oneik ikusi zagiezan!; bestela, zeruko zuen Aitaren saririk ez dozue izango. <sup>2</sup> Beraz, limosna egin dagizunean, ez atara aurretik turuta-otsik, azalutsak sinagogetan eta kaleetan egiten dabenez, gizonak goratu dagiezan; benetan dirautsuet: artu eben euren saria. <sup>3</sup> Zuk, barriz, limosna egin dagizunean, ez dagiala zure ezkerak jakin zure eskum(e)ak egiten dauana: <sup>4</sup> orrela, zure limosna ixillean geldituko da; eta ixillean ikusten dauan zure Aitak ordainia emongo dautsu.

#### **Otoikera.**

<sup>5</sup> «Eta otoitz egin dagizunean, ez zaiteze azalutsak la-koak izan; orrelakoen atsegina, sinagogetan eta kale-bu-

ruetan zutik otoitz egitea da, gizonak ikusi dagiezan; benetan dirautsuet: artu eben euren saria. <sup>6</sup> Zu, barriz, otoitz egin dagizunean, sartu zaitez zure gelan eta, atea itxita gero, otoitz egiozu an ixillean dagoan zure Aitari; eta ixillean ikusten dauan zure Aitak ordainia emongo dautsu.

#### **Benetako otoitza. — Aita gurea** (Lk. 11, 2-4).

<sup>7</sup> «Eta otoitz egitean, ez egin berba ta berba, atzerritarak lez: oneik, berba ta berba eginda, entzunak izango dirala uste dabe-ta. <sup>8</sup> Zuek, barriz, ez zaiteze izan arelakoak: ba-daki zuen Aitak zuek bear dozuena-ta, zuek Ari eskatu baiño len.

<sup>9</sup> Zuek, beraz, onetaraxe egin otoitz. Gure Aita, zeruetan zarana; santifikatu bedi zure Izena; <sup>10</sup> betor zure Erreina; egin bedi zure naia zeruan lez lurtean bere.

<sup>11</sup> Emoiguzu gaur gaurko ogia; <sup>12</sup> parkatu gure zorrak, geuk bere gure zordunai parkatu egiten dautsegunez; <sup>13</sup> eta ez gu tentaldira eroan, gatxetik atara baiño.

<sup>14</sup> Izan be, gizonai euren iraiñak parkatu egiten ba'dautsezuez, zeruko zuen Aitak be zuen iraiñak parkatu egingo dautsuez; <sup>15</sup> gizonai parkatzen ez ba'dautsezuez, ostera, zuen Aitak be ez dautsuez zuen iraiñak parkatuko.

#### **Baraua.**

<sup>16</sup> «Barau egin dagizunean, ez jarri arpegi illunik, azalutsak lez: oneik, gizonai barauzale agertzeko, euren arpegi aldatu egiten dabe-ta; benetan dirautsuet: artu eben euren saria. <sup>17</sup> Zuk, barriz, barau egin dagizunean, usaingozotu egizu zure burua ta garbitu arpegia: <sup>18</sup> barau egiten dozunik gizonak ikusi ez dagien, an ixillean dagoan zure Aitak baiño; eta ixillean ikusten dauan zure Aitak saria emongo dautsu.

(Lk. 12, 33-34).

<sup>19</sup> Ez pillatu ondasunik lurtean, sitsak eta ugarrak on-

datu, eta lapurrak zulatu ta ostu egiten dabez-ta. <sup>20</sup> Zeruan, bai, pillatu zeruan ondasuna; ez dago an ondatzeko sistsik ez ugarrik, ezta zulatzeko ta ostuteko lapurrak be. <sup>21</sup> Zure ondasuna dagoan tokian, zuen biotza be antxe egongo da-ta.

**Biotza, gorputzaren argia** (Lk. 11, 34-35).

<sup>22</sup> «Gorputzaren argia, begia da. Zure begia onik ba'dago, zure gorputz osoa argitsu egongo da; <sup>23</sup> zure begia geisorik ba'dago, barriz, zure gorputz osoa illunetan egongo da. Eta zukan dagoan argia illuntasuna ba'da, zurea bai illuntasuna!

**Jaungoikoa ta dirua** (Lk. 16, 13).

<sup>24</sup> «Ugazaba biren morroi ezin iñor izan daiteke; izan be, edo batari gorroto izango dautso ta bestea maite izango dau; edo-ta, batari lotu egingo yako ta bestea ez dau ontzat artuko. Jaungoikoaren eta Mammon'en (*edo diruaren*) morroi, ezin izan zaitekeze.

**Jaungoikoaren arduratasuna** (Lk. 12, 22-31).

<sup>25</sup> «Orregaitik, ba-dirautsuet: Ez arduraz ibilli bizi izateko zer jango dozuen, ezta gorputza zerez jantziko dozuen be. Ez da bizitza janaria baiño baliotsuago, ala?, ez gorputza jantzia baiño? <sup>26</sup> Orra, zeruko egaztiak; ez dabe ereiten, ez batzen, ezta garautegietan gordeten be; eta zeruko Aitak azi egiten dauz. Ez ete-dozue zuek areik baiño geiago balio? <sup>27</sup> Zuetarik nok, barriz, aletin guztiak egiñarren be, luzatu ete-daike bere bizia ukondo bete? <sup>28</sup> Eta jantziatz, zer dala-ta zabize arduratsu? Orra, zelaietako liri-oak: begira zelan azten diran; ez dabe lanik egiten, ezta goruetan be; <sup>29</sup> alan be, ba-dirautsuet: Salomon bera be, bere aunditasunik ospetsuenean be, ez zan orreitariko bat lez jantzi. <sup>30</sup> Beraz, gaur zelaian bizi ta biar labara jaurtiten dan bedarra Jaungoikoak orrela jazten ba'dau, ez ete-

-dau askozaz geiago egingo zuokaitik, siniste otzeko gizonakaitik? <sup>31</sup> Ez estutu, ba, «zer jango dogu?, zer edango dogu?, zer jantziko dogu?» esanez. <sup>32</sup> Guzti orrein billa sinistebageak ibiltan dira-ta. Zeruko zuen Aitak, barriz, ba-daki guzti orrein bearrean zagozena. <sup>33</sup> Billatu egizue lenengo Jaungoikoaren Erreiñua ta Aren zuzentasuna, eta gauza guztiok gaiñezka emongo yatzuez. 34. Ez estutu, ba, biarkoari buruz: biarkoak, berak izango dau bere buruaren ardura. Egunari naiko yako bere arazoa.

## VII

**Iñor ez epaitu** (Lk. 6, 37-42; Mk. 4, 24).

<sup>1</sup> «Ez epaitu, epaituak izan ez zaitez. <sup>2</sup> Izan be, epaitu dagizuen epiaiz izango zaree epaituak, eta negurtu dagizuen negurriaz negurtuko zaitue. <sup>3</sup> Zegaitik ikusten dozu zure anaiaren begian dagoan samarra, eta ez dozu zeure begian dagoan abea ikusten? <sup>4</sup> Edo-ta, zelan dirautsazu zure anaiari: «Itxi egidazu begitik lasto ori ataraten», abea zeure begian daukazula? <sup>5</sup> Azaluts ori!: atara egizu lenengo abea zeure begitik, eta orduantxe ikusiko dozu samarra zure anaiaren begitik atarateko.

**Ez zikindu gauza donetuak.**

<sup>6</sup> «Ez emon donetua danik txakurrai, ezta zuen pitxiak txarrien aurrera jaurti be, ostikopean erabilli ez dagiezan, eta gero, zuen kontra etorririk, zatitu ez zagiezen.

**Otoitzaren indarra** (Lk. 11, 9-13).

<sup>7</sup> «Eskatu egizue, eta emongo yatzue; ibilli billa, eta aurkitu egingo dozue; atea jo, eta zabaldu egingo yatzue: eskatzen dauan edonok artu egiten dau-ta; billa dabillena aurkitu egiten dau; eta atea jotan dauanari zabaldu egingo yako. <sup>9</sup> Nor da, bestela, zuen artean, bere semeak ogia eskatzen ba'dautso, arria emongo dautsanik, <sup>10</sup> edo-ta,



arraïña eskatzen ba'dautso, sugea emongo dautsanik?  
<sup>11</sup> Beraz, zuok, gaiztoak izanik, zuen semeai gauza onak emoten ba-dakizuen ezkerro, zenbat areago ez ete-dautsez zeruetan dagoan zuen Aitak eskatzen dautsezanaï gauza onak emongo?

**Alkar-maitasun-araua** (Lk. 6, 31)

<sup>12</sup> «Beraz, gizonak zuei egin dagitzuen nai dagizuen guztia, zeuek be egiezue gizonai: Legea ta Igarleak orre-tantxe dagoz-ta.

**Bide biak** (Lk. 13, 24).

<sup>13</sup> «Sartu zaitze ate estutik, ondamendira daroan atea aundia da-ta, eta zabala arako bidea, eta bertatik sartzen diranak asko dira. <sup>14</sup> Bizitzara daroan atea, barriz, axe bai dala estua, baita arako bidea be!; eta ate ori aurkitzen dabenak gutxi dira.

**Sasi-igarleak** (Lk. 6, 43-44).

<sup>15</sup> «Zaindu zuen buruak sasi-igarleakandik: ardi-narruz datorkizue, baiña barrutik otso-lapurrak dira. <sup>16</sup> Euren frutuetatik (*egiiñetatik*) ezagutuko dozuez. Elorritik matsa, edo sasitik pikoak batzen ete-dira? <sup>17</sup> Edozein arbola onek frutu onak emoten dauz; arbola txarrak, barriz, frutu txarrak. <sup>18</sup> Arbola onak ezin ekarri daike frutu txarrik, ezta arbola txarrak frutu onik be. <sup>19</sup> Frutu onik emoten ez dauan edozein arbola, ebagi ta sutara jaurtiten da. <sup>20</sup> Beraz, euren frutuetatik ezagutuko dozuez.

**Benetako ikasleak**

(Lk. 6, 46; 13. 26-27; Mt. 25, 11-12).

<sup>21</sup> «Ez da zeruetako Erreñuan sartuko, niri «Jauna, Jauna» diraustan edonor; zeruko nire Aitaren naia egi-ten dauana baiño: orixe sartuko da zeruetako Erreñuan.  
<sup>22</sup> Egun aretan, askok auxe esango dauste: Jauna, Jauna! ez genduan, ba, zure izenean igarri, eta zure izenean dea-

bruak jaurti, eta zure izenean mirari asko egin? <sup>23</sup> Eta orduan nik auxe esango dautset; Ez zaituet iñoiz be ezagutu; alde nigandik, gaizkilleok!

(Lk. 6, 47-49).

<sup>24</sup> Beraz, nire berbok entzuten eta egiñez beteten dauzana, bere etxea aitz-gaiñean jaso eban gizon zuurraren antzeko izango da; <sup>25</sup> jausi zan euria, etorri ziran uriolak. izan ziran aizeak, eta jo eben etxe a; baiña ez zan lurre-ra jausi, aitz-gaiñean jaso egoan-eta. <sup>26</sup> Nire berbok entzunda gero, egiñez beteten ez dauzana, barriz, bere etxe are-gaiñean jaso eban gizon tentelaren antzeko da; <sup>27</sup> jausi zan euria, etorri ziran uriolak, izan ziran aizeak, jo eben etxe a, eta beera jausi zan, eta bere ondapena aundia izan zan».

(Lk. 7, 1; Mk. 1, 22; Lk. 4, 32).

<sup>28</sup> Eta Jesus'ek itzaldiok amaitu ebazanean, laguntaldea Aren irakatsiaz ikaratuta gelditu zan: <sup>29</sup> eskubidedunari dagokionez irakasten eutsen-eta; ez, ostera, arein idazlariak lez.

## VIII

**Legenardun bat osatzen dau**

(Mk. 1, 40-45; Lk. 5, 12-16).

<sup>1</sup> Menditik jatsi zanean, Jesus'i laguntalde aundiak jarraitzen eutsan. <sup>2</sup> Onetan, legenardun bat urreratu ta auz-paz jarri yakon, esanez: «Jauna, nai ba'dozu, osatu nai-kezu». <sup>3</sup> Jesus'ek, eskua luzatuez gizonari ikutu bat egin-da, auxe esan eutsan: «Nai dot; garbi izan zaitetz». Eta bat-batean, legenarrez garbi gelditu zan. <sup>4</sup> Orduan, Jesus'ek auxe esan eutsan: «Begira, gero!, ez esan iñori; baiña, zoaz, aurkeztu zaitetz abadeagana ta eskiñi egizu Moises'ek agindu eban oparia, sinisgarritzat izan dakien» (\*).

**Euntariaren morroia osatzen dau**

(Lk. 7, 1-10; Yn. 4, 46-53; Lk. 13, 28-29).

<sup>5</sup> Kafarnaum'en sartzean, euntari\* bat urreratu yakon. erreguka esanez: «Jauna, nire morroia etxean elbarrituta dago, oiñaze gorritan». <sup>7</sup> Jesus'ek dirautso: «Neu joango naz eta osatu egingo dot». <sup>8</sup> Euntariak erantzun eutsan: «Jauna, ez naz ni nor zu nire aterpean sartu zaitezaz; berbaz agintzea naiko dozu, eta nire morroia osatu egingo da. <sup>9</sup> Izan be, neuk be, iñoren menpeko izanarren, ba-daukadaz gudariak nire agindupean; eta bati «oa!» dirautsat, eta ba-doa; eta beste bati «ator!», eta ba-dator; eta nire morroiari «au egik!», eta egin egiten dau». <sup>10</sup> Au entzutean, Jesus ikaratuta gelditu zan, eta jarraitzen eutsoenai auxe esan eutsen: «Benetan dirautsuet; ez dot onenbesteko sinismenik Israel'en iñogan aurkitu. <sup>11</sup> Ba-dirautsuet, barriz: asko etorriko dira eguzki-sortzaldetik eta sartzaldetik, eta Abraham, Isaak eta Jakob'egaz jarriko dira maian zeruetako Erreiñuan; <sup>12</sup> Erreiñuko semeak, oster, kanpoko illunpetara jaurtiak izango dira; an izango da negarra ta agin-karraskada!». <sup>13</sup> Eta Jesus'ek euntariari esan eutsan: «Zoaz; sinistu dozunez jazo dakizula». Eta ordu aretantxe osatu zan morroia.

**Pedro'ren amagiñarreba osatzen dau**

(Mk. 1, 29-31; Lk. 4, 38-39).

<sup>14</sup> Jesus Pedro'ren etxera eltzean, onen amagiñarreba ogean ikusi eban, sukarraz. <sup>15</sup> Eskuan ikutu, eta sukarrak itxi egin eutsan; eta andrea jagi egin zan, eta neskame-lanetan asi yakon.

**Beste osakuntza batzuk** (Mk. 1,32-34; Lk. 4, 40-41).

<sup>16</sup> Arratsaldean, deabrudun asko ekarri eutsoezan; eta deabruak berbaz jaurti ta geiso guztiak osatu egin ebazan. <sup>17</sup> Alantxe bete zan Isaias igarleak aurretiaz esanda-

\* Euntari: eun gudariren buru edo nagusi dana.

ko au: *Berak artu ebazan gure ondezak, eta eroan gure geisoak* (\*).

**Jesus'en jarraitzeak** (Lk. 9, 57-60).

<sup>18</sup> Jesus'ek bere inguruan laguntalde aundia ikusirik, beste aldeko itxasertzera joateko agindu eban. <sup>19</sup> Orduan, idazlari bat urreratu zan eta auxe esan eutsan: «Irakasle, joan zaitezaz edonora jarraituko dautsut» (\*). <sup>20</sup> Jesus'ek dirautso: «Azeriak euren gordelekuak daukez, eta zeruko egaztiak apiak; Gizasemeak, barriz, ez dauko burua ezarteko lekurik».

<sup>21</sup> Bere ikasletariko batek auxe esan eutsan: «Jauna, itxi egidazu lenengo nire aitari lurra emotera joaten».

<sup>22</sup> Baiña Jesus'ek esan eutsan: «Jarraitu egidazu, eta itxi egiezu illai euren ildakoak lurperatzen» (\*).

**Ekaitza baretuta** (Mk. 4, 35-41; Lk. 8, 22-25).

<sup>23</sup> Gero, Jesus txalupa batera igo zan, eta bere ikasleak jarraitu egin eutsoen. <sup>24</sup> Onetan, itxasoan aize-bolara aundia sortu zan, olatuak txalup(e)a estaltzeraiño. Jesus, barriz, lo egoan. <sup>25</sup> Eta ikasleak Aregana urreraturik, iratzartu egin eban, esanez: «Jauna, salbatu gagizuz, galduak gara-ta!». <sup>26</sup> Jesus'ek dirautse: «Zeren bildur zaree, siniste otzoko kizonok?». Orduan, zutundurik, aizeari ta itxasoari agindu egin eutsen, eta barealdi ederra egin zan. <sup>27</sup> Gizon areik, ikaratuta, auxe iñoen: «Nor dogu au, baiña, aizeak eta itxasoak be esana egiten dautsoe-ta?».

**Gadara'ko deabrudunak** (Mk. 5, 1-20; Lk. 8, 26-39).

<sup>28</sup> Beste itxasertzera, Gadara'ko lurraldera, elduta gero, deabrudun bi, illobietatik urtenda, urten yakozan bidera: gaiztoak be gaiztoak biak, bide aretatik igaroteko adorerik be iñok ez izateraiño. <sup>29</sup> Eta deadarka asi ziran: «Zer dogu guk zugaz, Jaungoikoaren Seme orregaz? Sasoiã baiño len guri oiñazea ekartera etorri zara ona, ala?».



<sup>30</sup> Andik urrean, jaten ziarduen txarri-pillo aundi bat egoan. <sup>31</sup> Eta deabruak erregu au egiten eutsoen: «Jaurtiten ba'gaituzu, bialdu gagizuz txarri-pillo orregana». <sup>32</sup> «Joan zaitze», esan eutsen Jesus'ek. Deabruak urten eta txarriakan sartu ziran; eta orduan, txarri-pillo guztia al-dapa-beera itxasora amildu ta uretan ito zan. <sup>33</sup> Txarrizaiñak iges egin eben, eta urira joanda, guztia azaldu eben, deabrudunena be bai. <sup>34</sup> Orduan, uri osoa Jesus egoan lekuruntz urten zan; eta Jesus ikusi ebenean, euren mugetatik alde egiteko eskatu eutsoen.

## IX

**Elbarri bat osatzen dau** (Mk. 2, 1-12; Lk. 5, 17-26).

<sup>1</sup> Txalupa batera igota gero, beste itxasertzera igaro ta bere errira etorri zan (\*). <sup>2</sup> Onetan, elbarri\* bat ekarri eutsoen, ogetxoan etzunda. Jesus'ek, arein sinismena ikusirik, elbarriari esan eutsan: «Izan egizu uste ona, seme orrek!; parkatzen yatzuz zure pekatuak». <sup>3</sup> Orduan, idazletariko batzuek eurekautan esan eben: «Biraoka diardu onek». <sup>4</sup> Baiña Jesus'ek, arein bururakizunak ezaguturik, auxe esan eutsen: «Zegaitik darabizuez bururakizun okeroz zuen biotzetan? <sup>5</sup> Zer da errazago, «pekatuak parkatzen yatzuz» esatea, ala «jagi ta zoaz» esatea? <sup>6</sup> Beraz, Gizasemeak lurrean pekatuak parkatzeko eskubidea ba-daukala jakin dagizuen, «Jagi zaitetz – esan eutsan elbarriari –, artu zure ogetxoa ta zoaz etxera». Eta gizona jagi ta bere etxera joan zan. <sup>8</sup> Laguntaldek, ori ikusi ebenean, bildurtuta gelditu ziran, eta arenbesteko eskubidea gizonai emon eutsen Jaungoikoa goratu egin eben.

**Mateo'ri deia** (Mk. 2, 13-14; Lk. 5, 27-28).

<sup>9</sup> Andik igarrotean, Jesus'ek Mateo izeneko gizon bat

\* Elbarri: parálítico.

zergategian\* jesarrita ikusi eban, eta auxe esan eutsan: «Jarraitu egidazu». Eta zutundurik, arek jarraitu egin eutsan.

**Pekatariakaz batera bazkaritan**

(Mk. 2, 15-17; Lk. 5, 29-32).

<sup>10</sup> Eta Jesus Mateo'ren etxean maian egoala, zerga-batzaille ta pekatari asko etorri ziran, eta Jesus'egaz eta onen ikasleakaz batera maian egozan. <sup>11</sup> Ori ikusirik, pariseuak Jesus'en ikasleai auxe zirautsen: «Zuen irakasleak, zegaitik jaten dau zerga-batzaille ta pekatariakaz?». <sup>12</sup> Baiña Jesus'ek, ori entzunda, esan eutsen: «Osandunak ez dabe osagillerik bear, geisoak baiño. <sup>13</sup> Zoaze, ba, eta ikasi egizue arelako a zer dan: *Errukia nai dot, eta ez oparirik* (\*). Ni ez naz zintzoai dei egitera etorri-ta, pekatariari baiño».

**Baraua zala-ta** (Mk. 2, 18-22; Lk. 5, 33-39).

<sup>14</sup> Orduan, Yon'en ikasleak urreratu yakozan eta auxe esan eutsen: «Guk eta pariseuak sarritan egiten dogu barau; eta zure ikasleak, zegaitik ez dabe egiten?». <sup>15</sup> Jesus'ek erantzun eutsen: «Arpegi illunez egon ete-daitekez eztegurako deituak, senargeia eurakaz dagoan artean? Etorriko dira etorri, senargeia kenduko yaken egunak; orduantxe egingo dabe barau. <sup>16</sup> Iñok ez dautso soiñeko zaarri oial gogorrezko ipingirik ezarten; bestela, ezarritako txatalak soiñekoa urratu, eta tarratada txarragoa egiten da-ta. <sup>17</sup> Ezta zaragi zaarretan be ez da ardao barririk sartzen; bestela, zaragiak lertu, ardao isuri, eta zaragiak ondatu egiten dira; ardao barria, ostera, zaragi barrietan sartzen da, eta biak irauten dabe».

\* Zergategi: zergak edo kontribuziñuak ordaintzen ziran tokia.

**Odol-jariduna osatu ta neskatilla bat biztu**  
(Mk. 5, 21-43; Lk. 8, 40-56).

<sup>18</sup> Orrela berba egiten eutsela, aundiki bat urreratzen yako, eta Aren aurrean makurtuta, ba-dirautso: «Orain-txe il yat alab(e)a; baiña zatoz, ezarri egiozu eskua ta bi-zi izango da». <sup>19</sup> Eta Jesus'ek, zutundurik, bere ikasleakaz batera jarraitu egin eutsan.

<sup>20</sup> Bitartean, amabi urte areitan odol-jarioz geisorik egoan emakume batek, Jesus'egana atzetik urreraturik, soingaiñeko-ertza ikutu eutsan (\*); <sup>21</sup> «soingaiñekoa ikut-zen ba'dautsat ikutu bakarrik, osatuta geldituko naz» iñoan berekautan-eta. <sup>22</sup> Jesus'ek, atzerantz biurturik, eta emakumea ikusi ebanean, auxe esan eutsan: «Izan egizu uste ona, alaba orrek!; zeure sinismenak osatu zaitu». Eta arrezkero, emakumea osatuta gelditu zan.

<sup>23</sup> Aundikiaren etxera eldu zanean, Jesus'ek, soifñulariak eta batu ziranen zarata-otsa ikusirik, <sup>24</sup> auxe esan eban: «Alde egizue!: neskatilla au ez dago ilda, lo baiño» (\*). Eta irri ta barre egiten eutsoen. <sup>25</sup> Baiña, laguntaldeari alde eraginda, Jesus barrura sartu zan, neskatiill(e)ari eskutik eldu, eta neskatiill(e)a zutundu egin zan. <sup>26</sup> Eta jazori-koaren barria bazterralde guzti aretan zabaldu zan.

**Itsu bi osatzen dauz** (Mt. 20, 29-34).

<sup>27</sup> Jesus andik urten zanean, itsu bik jarraitu eutsoen, deadarka esanez: «Dabid'en Seme ori, erruki zakiguz!». <sup>28</sup> Eta etxera eldu zanean, itsuak urreratu yakozan, eta Jesus'ek dirautse: «Nik ori egin daikedala, sinesten dozue?». «Bai, Jauna!» – dirautsoe –. <sup>29</sup> Orduan, begiak ikutu eutsezan, esanez: «Sinisten dozuenez jazo bekizue». <sup>30</sup> Eta arein begiak zabaldu egin ziran. Jesus'ek gogor agindu eut-zen: «Ez dagiala, gero, iñok be jakin!». <sup>31</sup> Baiña areik, ur-tenda batera, barria bazterralde guzti aretan zabaldu eben.

**Deabrudun mutua** (Mt. 12, 22-24; Lk. 11, 14-15).

<sup>32</sup> Areik urten ordukoxe, deabrudun mutu bat ekarri eutsoen. <sup>33</sup> Eta deabrua jaurtita gero, mutuak berba egin eban. Eta laguntaldeak, arrituta, auxe iñoan: «Israel'en orrelakorik ez da egundo ikusi». <sup>34</sup> Pariseuak, ostera, auxe iñoen: «Deabru-buruaren indarraz jaurtiten dauz dea-bruak».

**Laguntaldeaganako errukia** (Mk. 6, 34; Lk. 10, 2).

<sup>35</sup> Eta Jesus uri ta erri guztietan ebillen, arein sinago-getan irakasten, Erreiñuaren Barri Ona iragarten eta geiso ta gaitz guztiak osatzen.

<sup>36</sup> Eta laguntaldea ikustean, erruki izan yakon, artzai-ñik ez dauken ardiak baizen nekatuak eta jausiak ego-zan-eta. <sup>37</sup> Orduan, bere ikasleai auxe esan eutsen: «So-lo-aria\* ugaritsua da, eta langilleak gutxi. <sup>38</sup> Otoitz egio-zue, ba, solo-ariaren Jabeari, bere solora langilleak bial-du dagizan».

## X

**Apostoluen izenak eta egikizunak**

(Mk. 3, 14; 6, 7; Lk. 9, 1).

<sup>1</sup> Eta bere amabi ikasleai dei egiñik, gogo zikiñak jaur-titeko ta edozein geiso ta gaitz osatzeko aginpidea emon eutsen.

(Mk. 3, 16-19; Lk. 6, 13-16).

<sup>2</sup> Amabi Apostoluen izenak, oneixek dira: lenengoa Simon, Pedro deritxona, eta onen anai Ander; Jakob (Santia-go) Zebedeo'rena, ta onen anai Yon; <sup>3</sup> Felipe ta Bartolome; Tomas eta Mateo zerga-batzaillea; Jakob (Santia-go) Alfeo'rena, eta Tadeo; <sup>4</sup> Simon kanaandarra, eta Ju-

\* Solo-aria: soloan artzen dana = mies.



das Iskariote, Jesus saldu ebana bera. <sup>5</sup> Jesus'ek amabiok bialdu ebazan, arei urrengo irakaspenok emonda gero: «Ez egizue artu atzerritarren biderik, ezta samaritarren uri baten be sartu; <sup>6</sup> zoaze, batez be, Israel-etxeko ardi galdua-kana (\*). <sup>7</sup> Eta zuen bidean, onetaraxe joan iragarten: Zeruetako Erreiñua ur dago. <sup>8</sup> Osatu egizuez geisoak, biz-tu ildakoak, garbitu legenardunak, jaurti deabruak, Utsean artu zenduen; utsean emon egizue. <sup>9</sup> Ez artu urrerik, ez zidarrik, ez dirurik zuen gerrikoetan; ezta biderako zorrorik be, ez barruko jantzi birik, ez oiñetakorik, ez makillarik: langilleak bere lan-saria jasoteko eskubidea dauko-ta.

(Mk. 6, 10-11; Lk. 9, 4-5; 10, 5-12).

<sup>11</sup> Edozein uritan naiz erritan sartu zaitezenean, itandu egizue aukerakorik an nor izan leitekean, eta gelditu bertan, urten arte. <sup>12</sup> Etxean sartzean, agurtu egizuez angoak. <sup>13</sup> Etxea aukerakoa ba'da, betor bere gañera zuen bakea; baiña, aukerakoa ez ba'da, zuen bakea zeuokana biurtu bedi. <sup>14</sup> Eta artzen ez ba'zaitue, ezta zuen berbarik artu be egiten ez ba'dabe, urten zaiteze etxe edo uri aretatik, zuen oiñetako autsa astindurik. <sup>15</sup> Benetan dirautsuet: epai-egunean Sodoma ta Gomorra'ren zoria, arelako uriarentzat baiño ariña goa izango da.

#### **Aurrean erabiliko dabez**

(Lk. 10, 3; Mk. 13, 9-13; Lk. 21, 12-19).

<sup>16</sup> «Begira: ardiak otso-artera legetxe bialtzen zaituet. Sugeak baizen zuurrak izan zaiteze, ba, eta usoak baizen lauak. <sup>17</sup> Zaindu zuen buruak gizonakandik, auzi-epailleen eskuetan itxiko zaitue ta euren sinagogetan zigorkadak emongo dautsuez-ta; <sup>18</sup> eta, neu nazala-ta, agintarien eta erregeen aurrera eroango zaitue, arein eta jentillen aurrean autor egin dagizuen. <sup>19</sup> Salatu zagiezenean, barriz, ez larritu zelan edo zer esango ete-dozen. Esan bear dagizuena, une aretantxe emongo yatzue. <sup>20</sup> Izan be, ber-

ba egingo dozuena ez zaree zuek izango: zuen Aitaren Espirituak egingo dau berba zuekan.

<sup>21</sup> Anaiak anaia eriotzarako emongo dau, eta aitak semea; semeak gurasoen kontra jagiko dira ta il egingo dabez. <sup>22</sup> Eta nire izena dala-ta, guztiak gorroto izango dautsue; baiña, azkeneraño iraun dagiana, orixe urtengo da onik.

(Lk. 6, 40; Yn. 13, 16; 15, 20).

<sup>23</sup> Uri baten aurrean erabili zagiezenean, iges egizue beste batera; eta uri onetan be aurrean erabilten ba'zaitue, joan beste batera. Benetan dirautsuet: ez dozue Israel'go uri guztiak igaroten amaituko Gizasemea etorri baiño len (\*). <sup>24</sup> Ez dago ikaslea bere irakaslea baiño gorago, ezta morroia be bere ugazaba baiño gorago. <sup>25</sup> Ikasleak naiko dau bere irakaslea lakoa izatea, eta morroiak bere ugazaba lakoa. Etxeko jaunari Beeltzebul (*txerren*) dei egin ba'dautsoe, areago aren etxeokai!

#### **Bildur bagarik berba egin**

(Lk. 12, 2-7; Mk. 4, 22; Lk. 8, 17).

<sup>26</sup> «Ez izan, ba, arein bildurrik. Izan be, ezer be ez da go estalduta, agiri izango ez danik; ezta gorñeta be, jakingo ez danik. <sup>27</sup> Nik illunetan dirautsuedana, esan egizue zuek argi-argitan; eta belarrira entzuten dozuena, etxe-gaiñetatik deadarka esan egizue.

<sup>28</sup> Gorputza ilten dabela, gogoa (*edo arima*) ezin il daikeen bildurrik ez izan; arima ta gorputz su-lezara (*inpernura*) jaurti daikezanaren bildurrago izan zaiteze. <sup>29</sup> Ez ete-dira txoritxo bi lauko baten saltzen? (\*). Areitariko bat be ez da, orraitño, lurrera jausiko zuen Aitak nai izan ezik. <sup>30</sup> Zuei buruz, barriz, zuen buruko ule guztiak zenbatuta (*kontauta*) dagoz. <sup>31</sup> Ez izan, ba, bildurrik; txori-pilloa baiño obeak zaree zuek.

(Lk. 12, 8-9; Mk. 8, 38; Lk. 9, 26).

<sup>32</sup> Ni gizonen aurrean autortu nagiana, neuk be alakoa autortu egingo dot zeruetan dagoan nire Aitaren aurrean. <sup>33</sup> Gizonen aurrean ukatu nagiana, barriz, neuk be alakoa ukatu egingo dot zeruetan dagoan nire Aitaren aurrean.

**Bakea ez, burruka baiño** (Lk. 12, 51-53).

<sup>34</sup> «Ez uste izan lurrera bakea ekartera etorri nazi nik (\*); ez naz bakea ekartera etorri, ezpata ekartera baiño. <sup>35</sup> Bai; gizona bere aitagandik, alab(e)a bere amagandik, eta errena bere amagiñarrebagandik banantzera etorri naz; <sup>36</sup> eta bakotxaren arerioak, bere etxeakoak izango dira.

**Norbere burua ukatu bearra** (Lk. 14, 26-27; Mk. 8, 34-35; Lk. 9, 23-24; Lk. 17, 33; Yn. 12, 25).

<sup>37</sup> «Aita naiz ama, ni baiño maiteago dauana, ez da niretzako lain. <sup>38</sup> Bere gurutzeta artuta jarraitzen ez dauana, ez da niretzako lain. <sup>39</sup> Bere burua aurkitzen dauanak, galdu egingo dau; eta bere burua neugaitik galtzen dauanak, aurkitu egingo dau.

(Mk. 9, 37; Lk. 9, 48; Lk. 10, 16; Yn. 12, 44-45; 13, 20; Mt. 9, 41).

<sup>40</sup> Zuok artzen zaituenak, neu artzen nau; eta ni artzen nauanak, ni bialdu nauan A artzen dau. <sup>41</sup> Igarlea igarle dalako artzen dauanak, igarle-saria artuko dau; eta zintzoa zintzo dalako artzen dauanak, zintzo-saria artuko dau. <sup>42</sup> Eta txolet bete ur otz besterik ezean, txikitxo oneitariko bati ikasle dalako edaten emon dagionak, benetan dirausuet: ez dau bere saria galduko».

## XI

**Yon Bateatzaillearen mandatariaik Jesus'engana** (Lk. 7, 18-28).

<sup>1</sup> Jesus'ek bere ikasleai irakaspének emonda gero, andik joan egin zan, arein urietan irakastera ta Barri Ona iragartera. <sup>2</sup> Eta Yon'ek, Kristo'ren egintzak giltzapean entzun ebazanean, bere ikasleak bialdu eutsazan, itaunka: <sup>3</sup> «Zeu, zara etortekoa, ala beste baten zain egon bear dogu?» (\*). <sup>4</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsen: «Zoaze, eta entzuteren eta ikusten dozuezanon barri emon egiozue Yon'i; <sup>5</sup> itsuak ikusi egiten dabe, errenak ba-dabiz, legenardunak garbi gelditzen dira, gorrak entzun egiten dabe, illak biztu egiten dira, eta beartsuai Barri Ona iragarten yake; <sup>6</sup> eta zoriontsua, nigan galbiderik artu ez dagiana!».

<sup>7</sup> Areik alde egin ebenean, Jesus laguntaldeari Yon'i buruz berba egiten asi yakon: «Zer ikustera urten zaree basamortura? Aizeak darabilen kaiñaberen bat? <sup>8</sup> Zer ikustera urten zaree, bestela? Apain jantzitako gizonen bat? Ez; apain jazten diranak errege-jauregietan dagoz. <sup>9</sup> Zer ikustera urten zaree, ba? Igarleren bat ikustera? Bai, benetan dirausuet: baita igarlea baiño aundiagoa be. <sup>10</sup> Auxe berau da beronetaz idatzita dagoan au: *Neure aingerua bialtzen dot zure aurretik, aurretiaz bidea atonduko dautsuna* (\*). <sup>11</sup> Benetan dirausuet: emakumegandik jaiotakoan artean, ez da Yon Bateatzaillea baiño aundiagorik agertu; alan be, zeruetako Erreñuan txikiena, a baiño aundiagoa da. <sup>12</sup> Yon Bateatzaillearen egunetatik orain arte, zeruetako Erreñuak erasoa artzen dau, eta indartsuak egiten dira jabe (\*). <sup>13</sup> Igarle guztiak, baita Legeak be, igarketak Yon etorri arte egin ebezan. <sup>14</sup> Eta onartu nai ba'dozue, bera da Elias, etorteko zana. <sup>15</sup> Entzuteko belarririk euki dagianak, entzun dagiala!

**Judarrai agiraka** (Lk. 7, 31-35).

<sup>16</sup> «Baiña, noren parean jarriko dot gizaldi au? Enpa-



rantzetan (*plazetan*) jesarrita dagozan mutikoen antzekoa da, alkarri deadarka dirautsenean: <sup>17</sup> «Guk txistua jo, eta zuek ez dozue dantzarik egin; guk negar-soiñuak asi, eta zuek negarrik egin ez!». <sup>18</sup> Izan be, etorri zan Yon, jan-edan egiten ez ebalá, eta «Deabrua dauko», diño. <sup>19</sup> Etorri zan Gizasemea, jan-edan egiten dauala, eta «Orra gizon jatun eta moskorra, zerga-batzaille ta pekatarien adiskidea», diño. Eta Jakituriari bere egiñak emon dautsoe izen ona» (\*).

**Sinisgogorak madarikatzen** (Lk. 10, 13-15).

<sup>20</sup> Orduan Jesus, bere miraririk geienak ikusi ebezan uriak madarikatzen asi zan, garbatu ez ziralako. <sup>21</sup> «Zure zoritxarra, Korazain! Zure zoritxarra, Betsaida! Zuean egin diran mirariak Tiro'n eta Sidon'en egin ba'litzaz, zaku-autsetan aspaldian garbatuko litzakezan (\*). <sup>22</sup> Beraz, ba-dirautsuet: epai-egunean, Tiro ta Sidon'i zuoi baiño bigunago egingo yake. <sup>23</sup> Eta zuk, Kafarnaum, zeruragiño azi bear dozu, ala? *Inpernuraiño ondatuko zara!* Izan be, zurean egindako mirariak Sodoma'n egin ba'litzaz, gaur arte iraungo leukean. <sup>24</sup> Beraz, ba-dirautsuet: epai-egunean, Sodoma-lurraldeari zuri baiño bigunago egingo yako» (\*).

**Aita ta Semea** (Lk. 10, 21-22).

<sup>25</sup> Aldi aretan, Jesus'ek, itza arturik, auxe esan eban: «Goratzan zaitut, Aita, zeru-lurren Jaun ori, gauza oneik jakintsuai ta zuurrai gorde, eta txikitxoai agertu dautsezu-zalako (\*). <sup>26</sup> Bai, Aita, orixe izan yatzu atsegin-eta. <sup>27</sup> Nire Aitak dana emon daust; eta Semea ez dau iñok ondo ezagutzen, Aitak izan ezik; ezta Aita be ez dau iñok ondo ezagutzen, Semeak izan ezik eta Semeak agertu nai dagionak izan ezik. <sup>28</sup> Etorri zaitzeze nigana, nekatu ta atsekabetuta zagozen guztiok, eta neuk bizkortuko zaituet. <sup>29</sup> Artu egizue nire buztarria zuen gaiñean, eta ikasi egizue nigandik, biotzez otzana ta apala naz-ta; eta zuen

arimentzat atsedena aurkituko dozue. <sup>30</sup> Nire buztarria biguna, eta nire sorta ariña da-ta».

## XII

**Zapatuz artutako galburuak** (Mk. 2, 23-28; Lk. 6, 1-5).

<sup>1</sup> Aldi aretan, Jesus ereindako soloetan zear yoian, zapatuz. Aren ikasleak gose izan ziran, eta galburuak artu ta jaten asi ziran. <sup>2</sup> Eta pariseuak, a ikusita, auxe esan eutsoen: «Begira: zure ikasleak zapatuz bidezko ez dana egiten diardue». <sup>3</sup> Baiña, Jesus'ek esan eutsen: «Ez dozue irakurri Dabid'ek egin ebana, bera ta beragaz egozanak gosetu ziranean?, <sup>4</sup> eta Jaunaren Etxean sartu zala, eta abadeak baiño beste iñok ezin izan eikezan opari-ogiak jan ebezala? <sup>5</sup> Ala, ez dozue Legean irakurri, abadeak zapatuz, Jaunaren Etxean, zapatua ausi egiten dabela, errurik egin bagarik? <sup>6</sup> Begira, ba; neuk dirautsuet: ba-dago emen Jaunaren Etxea baiño aundiagoa dana. <sup>7</sup> Eta, *Errukia nai dot, eta ez oparirik* (\*) zer dan ulertu izan ba'zenduen, ez zeukeezan errurik ez daukenak galduko. <sup>8</sup> Gizasemea zapatuaren Jabea da-ta» (\*).

**Esku-igarra osatzen dau** (Mk. 3, 1-6; Lk. 6, 6-11).

<sup>9</sup> Andik igaro ta arein sinagogara joan zan. Eskua igartuta eukan gizon bat egoan an. <sup>10</sup> Eta zapatuz osatzea bidezko ete-zan itandu eutsoen, gero Jesus salatu al izateko. <sup>11</sup> Jesus'ek auxe esan eutsen: «Zuetariko batek ardi bakarra euki ezkeru, eta zapatuz zulo batera jausten ba'yako, ez ete-dau artzen eta ataraten? <sup>12</sup> Eta, ez dau balio gizonak ardiak baiño geiago? Beraz, bidezko da zapatuz on egitea». <sup>13</sup> Orduan, «Zabaldtu egizu esku ori», esan eutsan gizonari. Arek zabaldtu egin eban, eta osatuta gelditu yakon, bestea baizen ondo. <sup>14</sup> Pariseuak, barriz, urten eta Jesus'en kontra batu ziran, Jesus zelan galdu asmatzeko.

**Isaias'ek esandakoa.**

<sup>15</sup> Jesus'ek ori jakinda, andik alde egin eban. Askoak jarraitu eutsoen, eta guztiak osatu ebazan. <sup>16</sup> Eta ez egie-la Bera agirian jarri agindu eutsen gogor, <sup>17</sup> Isaias igar-leak aurretiaz esandako au bete zedin: <sup>18</sup> *Ona emen auke-ratu neban nire morroia, nire maitea, nira arimaren atse-giña. Nire Gogoa (Espiritua) Aren gaiñean jarriko dot, eta erriari zuzenbidea iragarriko dautse.* <sup>19</sup> *Ez dau eztabai-darik izango, ezta deadarrik atarako be, eta iñok be ez dau Aren abotsik plazetan entzungo.* <sup>20</sup> *Ez dau ausiko kai-ñabera brintzatua, eta kea dariola dagoan argi-aria\* be ez dau itxungiko (atzamauko), zuzentasuna garaipeneru eroan arte: Aren izenean jarriko dabe erriak euren itxaro-pena.*

**Jesus eta Beeltzebul**

(Lk. 11, 14-15; Mk. 3, 23-30; Lk. 12, 10; Lk. 11, 17-23).

<sup>22</sup> Orduan, itsu ta mutua zan deabrudun bat ekarri eutsoen, eta osatu egin eban, mutuak berba ta ikusi egiten e-bala. <sup>23</sup> Eta laguntalde guztiak arrituta iñoan: «Ez ete-da au Dabid'en Semea?». <sup>24</sup> Baiña pariseuak, ori entzunik, auxe esan eben: «Orrek ez dau deabruik jaurtiten, Beel-tzebul deabru-nagusiaren laguntzaz izan-ezik». <sup>25</sup> Jesus'ek, arein bururakizunak ezaguturik, auxe esan eutsen: «Bere buruaren kontra bananduta dagoan edozein erreñu, on-datuta dago; eta bere buruaren kontra bananduta dagoan edozein urik naiz etxek, ezin iraun al izango dau. <sup>26</sup> Satanás'ek Satanás jaurtiten ba'dau, bere buruaren kontra dago bananduta; zelan iraungo dau, ba, aren erre-ñuak? <sup>27</sup> Eta deabruak nik Beeltzebul'en indarraz jaurti-ten ba'dodaz, zuen semeak noren laguntzaz jaurtiten da-bez? Orregaitik, eurak izango dira zuen epailleak. <sup>28</sup> Baiña, deabruak nik Jaungoikoaren Espirituagaz jaurtiten ba'do-daz, Jaungoikoaren Erreiñua etorri yatzuena agirian dago.

\* Argi-ari: mecha de la vela.

<sup>29</sup> Edo-ta, zelan sartu daiteke iñor gizon indartsuaren etxean eta onen ondasunak ostu, lenen indartsua lotzen ez ba'dau? Orduan, bai, al izango dautso etxea ustu.

<sup>30</sup> Nire alde ez dagoana, neure kontra dago; eta nigaz batzen ez dauanak, sakabanatu egiten dau. <sup>31</sup> Orregaitik, ba-dirautsuet: Edozein pekatu ta birao parkatu egingo ya-ke gizonai; Gogoaren (*Espiritu Santuaren*) kontrako bi-raoa, barriz, ez da parkatua izango (\*). <sup>32</sup> Eta Gizasemea-ren kontra berba bat esan dagianari, parkatu egingo yako; baiña, Espiritu Santuaren kontra berba bat esan dagianari, ez bizitza onetan ez gerokoan ez yako parkatuko.

**Berbetan, biotza agirian** (Lk. 6, 43-45).

<sup>33</sup> Egizue arbola ona dala, eta bere frutua ona izango da; egizue arbola txarra dala, eta bere frutua txarra izan-go da: zugatza bere frututik ezagutzen da-ta (\*).

<sup>34</sup> Subekumeok!, gaiztoak izanik, zelan esan daike-zue berba onik? Biotzari gaiñez dariona diño agoak-eta. <sup>35</sup> Gizon onak, ondasuntegi onetik, gauza onak ataraten dauz; gizon gaiztoak, ondasuntegi txarretik, gauza txarrak ataraten dauz. <sup>36</sup> Ba-dirautsuet: Alperrik esandako berba guztien kontua emongo dabe gizonak Epai-egunean. <sup>37</sup> Izan be, zure berbak dirala-ta izango zara zintzotzat artua, eta zeure berbak dirala-ta izango zara galdua».

**Jonas'en ezaugarria** (Lk. 11, 29-32; Mk. 8, 11-12).

<sup>38</sup> Orduan, idazlari ta pariseo batzuek auxe esan eutsoen: «Irakasle, zeuk egindako ezaugarri bat ikusi nai do-gu». <sup>39</sup> Baiña Jesus'ek erantzun eutsen: «Au bai gizaldi gaizto ta ustela! Ezaugarri bat eskatzen dau, eta Jonas igarlearen ezaugarria baiño beste ezaugarririk ez yako emongo. <sup>40</sup> Izan be, Jonas iru egun eta iru gau arraiñaren sabelean egon zanez, Gizasemea be iru egun eta iru gau lurraren biotzean egongo da. <sup>41</sup> Ninibe'tarrak Auzi-egu-nean gizaldi onen kontra jagiko dira, eta galdutzat artu-ko dabe: Jonas'en damu-iragartez areik garbatu egin zi-



ran-eta. Ona emen, barriz, Jonas baiño zerbait geiago dana. <sup>42</sup> Ego-aldeko erregiña Auzi-egunean gizaldi onen kontra jagiko da, eta galdutzat artuko dau: Salomon'en jakituria entzutera lurreko mugetatik etorri zan-eta. Ona emen, barriz, Salomon baiño zerbait geiago dana.

**Satanas'en jokabidea** (Lk. 11, 24-26).

<sup>43</sup> «Deabru zikiña gizonagandik urteten danean, toki legorretan zear ara-onaka dabil atsedendilla, baiña ez dau aurkitzen. <sup>44</sup> Orduan, ba-diño: Urten nintzan neure etxera joango naz barriro. Eta ara eltzean, utsik, garbi ta apain aurkitzen dau. <sup>45</sup> Orduan, ba-doa, eta beste zazpi deabru. bera baiño gaiztoagoak, beragaz artzen dauz; etxean sartu ta bertan gelditzen dira (\*); eta alako gizonaren azken-aldia, asiera baiño txarragoa da. Orixe jazoko yako gizaldi gaizto oni be».

**Jesus'en senideak** (Mk. 3, 31-35; Lk. 8, 19-21).

<sup>46</sup> Artetan laguntaldeari berba egiten ziarduala, Aren ama ta Aren anaiak (*senideak*) kanpoan egozan, Jesus'egaz berba egiteko zain. <sup>47</sup> Norbaitek ba-dirautso: «Zure ama ta anaiak (*senideak*) or kanpoan zugaz berba egin guraz dagoz». <sup>48</sup> Jesus'ek, barriz, ori zirautsanari, auxe erantzun eutsan: «Nor da nire ama, eta nortzuk dira nire anaiak?». <sup>49</sup> Eta bere eskua bere ikasleakana luzaturik, auxe esan eban: «Oneixek dira nire ama ta anaiak. <sup>50</sup> Izan be, zerue-tan dagoan nire Aitaren naia bete dagian edonor, orixe, nire arreba ta nire ama».

### XIII

**Ipuin-itzaldia** (Mk. 4, 1-2; Lk. 8,4).

<sup>1</sup> Egun aretan, Jesus etxetik urten eta itxasertzean jesarri zan. Eta inguruan laguntalde aundia be aundia batu yakon, txalupa baten sartu ta bertan jesarri bear izaterai-

ño; eta laguntalde guztia itxasertzean egoan. <sup>3</sup> Eta gai asko esan eutsezan, ipuiñetan..

**Ereillea** (Mk. 4, 3-9; Lk. 8, 5-8).

Auxe iñoan: «Bein baten, ereille bat ereitera urten zan. <sup>4</sup> Eta ereitean, azi batzuk bidean bide-ondoan jausi ziran; egaztiak etorri ta jan egin ebezan. Beste batzuk, lur askorik ez euken arri-artean jausi ziran; eta berealaxe erne ziran, lurak sakonik ez zeukan-eta; baiña eguzkia urten zanean, erre egin ebazan; eta, zusterrik ez eukan ezkerro, igartu egin ziran. <sup>7</sup> Beste batzuk sasi-artean jausi ziran, arantzak azi, eta ito egin ebezan. <sup>8</sup> Beste azi batzuk lur onean jausi ziran eta frutu ona emon eban; batek eun, beste batek irurogei, beste batek ogetamar. <sup>9</sup> Entzuteko belarririk euki dagianak, entzun dagiala!».

**Zegaitik egiten dautse berba ipuiñetan?**

(Mk. 4. 10-12. 25; Lk. 8, 9-10. 18).

<sup>10</sup> Eta ikasleak Jesus'egana urreraturik, auxe esan eutsoen: «Zegaitik egiten dautsezu berba ipuiñetan?». <sup>11</sup> Jesus'ek erantzun eutsen: «Zeruetako Erreiñuko ezkutua ezagutzea, zeuoi emon yatzue, eta arei ez. <sup>12</sup> Izan be, euki daukanari, emon egingo yako, eta gañezka eukiko dau; ez daukanari, barriz, euki daukana be kendu egingo yako. <sup>13</sup> Orrexegaitik egiten dautset berba ipuiñetan: ikusirik, ikusten ez dabelako; eta entzunik, entzun ez ulertu egiten ez dabelako. <sup>14</sup> Orrexekan beteten da Isaias'ek aurretiaz esandako au: *Ondo entzungo dozue, baiña ez dozue ulertuko; ondo begiratuko dozue, baiña ez dozue ikusiko.* <sup>15</sup> *Erri onen biotza gogortu egin da-ta; euren belarriak sortu\* egin dira, eta euren begiak itxi egin dabez; euren begiak ez ikusi ez dagien, eta euren belarriak ez entzun ez dagien, eta euren biotzaz ulertu ez dagien eta garbatu ez daitezcan, eta nik osatu ez dagidazan» (\*).*

\* Sortu: adormecerse, hacerse torpes, duros.

(Lk. 10, 23-24).

<sup>16</sup> Zoriontsuak, ba, zuen begiak, ikusi egiten dabe-ta; baita zuen belarriak be, entzun egiten dabe-ta! <sup>17</sup> Benetan dirautsuet; zuek ikusten dozuena, igarle ta zintzo askok gura izan eben ikusi, baiña ez eben ikusi; baita zuek entzuten dozuena be gure izan eben entzun, baiña ez eben entzun.

**Ereillearen ipuiña azaltzen dautse**  
(Mk. 4, 13-20; Lk. 8, 11-15).

<sup>18</sup> «Entzun egizue, ba, zuok, ereillearen ipuiña. <sup>19</sup> Erreiñuko Itza entzun bai ta ulertu ez egiten dauanari, Gaiztoa etorri ta kendu egiten dautso aren biotzean ereindakoa: orixe da bide-ondoan erein zana. <sup>20</sup> Arri-artean erein zana, Itza entzun eta bereala pozik artzen duana da; <sup>21</sup> baiña, beragan zusterrik ez dauko, azalekoa da, ostera; eta Berba ori dala-ta, larrialdi edo erasoaldiren bat datorrenean, bereala jausi egiten da. <sup>22</sup> Sasi-artean erein zana, Itza entzun bai, baiña munduko arazoa ta aberastasunen zorakeriak Itza ito egiten dabe, eta frutu bagarik gelditzen dana da. <sup>23</sup> Lur onean erein zana, barriz, Itza entzuten eta ulertzen dauana da: onek, bai, onek frutua emoten eta ckarten dau; batek eun, arek irurogei, besteak ogetamar.

**Bedar txarraren ipuiña.**

<sup>24</sup> Beste ipuin bat ekarri eutsen: «Zeruetako Erreiñua, bere soloan azi ona erein eban gizonaren antzekoa da. <sup>25</sup> Baiña, aren gizonak lo egozala, aren arerioa etorri, gari-artean galbedarra erein, eta joan egin zan. <sup>26</sup> Garia erne ta laster galburua emoten asi zanean, orduan galbedarra be agertu egin zan. <sup>27</sup> Morroiak ugazabagana joan eta auxe esan eutsoen: «Jauna, ez zenduan, ba, zure soloan azi ona erein, ala? Zelan dauko, ba, galbedarra?». <sup>28</sup> Ugazabak erantzun eutsen: «Arerioen batek egin dau ori». Morroiak dirautsoe: «Nai dozu, ba, galbedar ori batzera joan gaitzan?». <sup>29</sup> «Ez! – dirautse – : galbedarra batzean, garia be

batera atara ez dagizuen. <sup>30</sup> Itxi biak gari-ebateraiño batera azten; eta gari-ebatean, gari-ebatailleai esango dautset: Baturu egizue lenen galbedarra ta lotu eskutetan, erretako; garia, berriz, gorde egizue nire garautegian».

**Ziape-aziarena\*** (Mk. 4, 30-32; Lk. 13, 18-19).

<sup>31</sup> Beste ipuin bat ekarri eutsen: «Zeruetako Erreiñua, gizon batek eskuan artu ta bere soloan erein eban ziape-aziaren antzekoa da. <sup>32</sup> Azi guztietatik zeiena da, benetan; baiña, azten danean, ortu-ari guztietarik aundiena da, eta arbola egiten da, zeruko egaztiak aren adarretan apiak egitera etorteraño».

**Legamiñarena** (Lk. 13, 20-21).

<sup>33</sup> Beste ipuin bat esan eutsen: «Zeruetako Erreiñua, legamiñaren antzekoa da: emakume batek artu ta iru negurri-urusetan sartzen dau (\*), ora guztia jagi arte».

**Ipuiñetan bakarrik berba egiten dautse.**

<sup>34</sup> Guzti ori, ipuiñetan esan eutsan Jesus'ek laguntaldeari; eta ipuiñetan izan ezik, ez eutsen barbarik egiten. <sup>35</sup> igarleak aurretiaz esandako au bete zedin: *Nire agoa ipuiñetan zabaldu dot; lurra lur danetik ezkutuan egozanak azalduko dodaz* (\*).

**Galbedarraren ipuiña azaltzen dau.**

<sup>36</sup> Orduan, laguntaldea bialduta, etxera joan zan. Eta bere ikasleak urreratu yakozan, Jesus'i zirautsoela: «Azaldu egiguzu soloko galbedarraren ipuiña». <sup>37</sup> Jesus'ek erantzun eutsen: «Azi ona ereiten dauana, Gizasemea da; so-loa, mundua da; azi ona, Erreiñuko semeak dira; galbedarra, Gaiztoaren semeak dira; <sup>39</sup> galbedarra erein eban arerioa, Deabrua da; gari-ebatea, munduaren amaiera, eta

\* Ziape: mostaza (latiñezko *sinapis*'tik?). Emen beste batzuk be, bidezkoena aukeratzeko: zerba (mostaza campestre), mustarda, yeben, usta.



gari-ebatailleak, aingeruak dira. <sup>40</sup> Beraz, galbedarra batu ta sutan erreten denez, alantxe izango da munduaren amaieran be. <sup>41</sup> Gizasemeak bere aingeruak bialduko dauz, eta bere Erreiñuan diran gaizpide guztiak eta gaizkille guztiak batu <sup>42</sup> ta su-labara jaurtiko dabez. An izango da negarra ta agin-karraskada! <sup>43</sup> Orduan, zintzoak eguzkia legetxe egingo dabe argi euren Aitaren Erreiñuan. Belarririk euki dagianak, entzun dagiala!

#### Dirutzarena ta pitxiarena.

<sup>44</sup> «Zeruetako Erreiñua, landan gorderiko dirutza lakozea da. Aurkitzen dauan gizonak barrero gordeten dau, eta pozez beterik, ba-doa, daukan guztia saldu ta landa a erosi egiten dau. <sup>45</sup> Zeruetako Erreiñua, pitxi ederren billa dabillen merkatari baten antzekoa be ba-da; eta balio aundiko pitxi bat aurkitzean, ba-doa, daukan guztia saldu ta pitxia erosi egiten dau.

#### Sarearena.

<sup>47</sup> «Zeruetako Erreiñua, sare baten antzekoa da: itxasora jaurtita, guztietariko arraiñak batzen dauz; <sup>48</sup> eta beterik dagoanean, itxasertzera ataraten dabe ta, jesarrita, onak otzaretan batu, eta txarrak jaurti egiten dabez. <sup>49</sup> Orrelaxe jazoko da munduaren amaieran be: urtengo dira aingeruak, eta gaiztoak zintzoen artetik banandu, eta su-labara jaurtiko dabez. An izango da negarra ta agin-karraskada!

#### Ipuñen amaiera.

<sup>51</sup> «Guzti au ulertu dozue?». «Bai», dirautsoe. <sup>52</sup> Eta Jesus'ek esan eutsen: «Olan, ba, Zeru-erreiñuko ikasle egin dan edozein idazlari, bere kutxetatik gauza barri ta zaarrak ataraten dauzan etxagunaren antzekoa da».

**Jesus, Nazaret'en** (Mk. 6, 1-6; Lk. 4, 16-24).

<sup>53</sup> Ipuñok amaitu ebazanean, Jesus'ek andik alde egin eban; <sup>54</sup> eta, bere lurraldera etorririk, arein sinagoetan

irakasten eutsen; eta ikaratuta iñoen: «Nundik datorkioz oni jakituri au ta mirariok? <sup>55</sup> Au ez da, ba, arotzaren e-me-a? Bere amari ez ete-deritxoe Maria?, eta bere anaiai (*senideai*) Santiago, Jose, Simon eta Judas? (\*). <sup>56</sup> Eta bere arrebak be, ez ete-dagoz guztiak gure artean? Nundik datorkio, ba, guzti au?». <sup>57</sup> Eta Jesus zala ta ez zala, gaizpidea artzen eben. Jesus'ek, ostera, auxe esan eutsen: «Igarlea bere lurraldean eta bere etxean bakarrik gelditzen da gorapen bagarik». <sup>58</sup> Eta ez eban an mirari askorik egin, ez euken sinismenik-eta.

## XIV

**Erodes eta Jesus** (Mk. 6, 14-16; Lk. 9, 7-19)

<sup>1</sup> Aldi aretan, entzun eban Erodes tetrarkak Jesus'en izena; <sup>2</sup> eta bere erregetxekoai auxe esan eutsen: «Yon Bateatzaillea da ori; biztu egin da illen artetik, eta orregegaitik diardue orrekan mirarizko indarrak».

**Yon Bateatzaillearen eriotza** (Mk. 6, 17-29; Lk. 3, 19-20).

<sup>3</sup> Erodes'ek, ba, Yon atxillotu, katez lotu ta giltzapean sartu eban, bere anai Filipo'ren emazte zan Erodiak alata. <sup>4</sup> «Ez yatzu bidezko zugaz eukitea», zirautsan Yon'ek-eta. <sup>5</sup> Eta ari bizia kendu nai eutsanarren, laguntaldeari bildur eutsan, igarletzat euken-eta. <sup>6</sup> Baiña, Erodes'en urte-betetzea elduta, Erodiak'en alab(e)ak dantzan egin eban guztien aurrean, Erodes atsegin-bitsetan izteraiño; <sup>7</sup> eta eskatu egion guztia emongo eutsala agindu eutsan, zin egiñez Erodes'ek. <sup>8</sup> Nesk(e)ak, bere amak eraginda, auxe esan eutsan: «Emon egidazu emen azpil (*bandeja*) baten, Yon Bateatzaillearen burua» (\*). <sup>9</sup> Erregea naigabetu egin zan; baiña egindako ziñagaitik eta mai-lagunakaitik, emon ekio-la agindu eban, <sup>10</sup> eta Yon'i espetxean (*kartzelan*) burua mozteko egindu eban. <sup>11</sup> Aren burua azpil baten ekarri eben eta neska(ari) emon eutsoen, eta onek bere amari

eroan eutsan. <sup>12</sup> Eta Yon'en ikasleak etorri, gorpua artu ta lur emon eutsoen; gero, barria Jesus'i iragartera joan ziran.

#### Lenengo ogi-ugaritzea

(Mk. 6, 31-44; Lk. 9, 10-17; Yn. 6, 1-13).

<sup>13</sup> Ori jakinda, Jesus'ek andik toki ezkutu batera alde egin eban, txalupa baten, bakarrik. Ori laguntaldeak jakin ebanean, urietatik urten eta oiñez jarraitu eutsoen. <sup>14</sup> Eta txalupatik urten zanean, laguntalde aundia ikusi eban, erruki izan yaken eta arein geisok osatu egin ebazan.

<sup>15</sup> Arratsaldean, ikasleak urreratu yakozan, esanez: «Leku onetan ez da iñor bizi, eta berandu da. Bialdu egizu, ba, laguntaldea, errietara joan daitezen eta jatekoa erosi dagien». <sup>16</sup> Baiña, Jesus'ek auxe esan eutsen: «Ez dabe joan-bearrik; zeuok emon egiezue jaten». <sup>17</sup> Areik dirautsoe: «Bost ogi ta arrain bi baiño ez daukaguz emen». <sup>18</sup> Jesus'ek esan eutsen: «Ekarri egidazue ona». <sup>19</sup> Eta laguntaldeari bedar-gaiñean jesarteko aginduta gero, bost ogiak eta arrain biak artu ebazan; eta, zerura begiratu, ogiak bedeinkatu, zatitu, eta ikasleai emon eutsezan, eta ikasleak laguntaldeari. <sup>20</sup> Eta guztiak jan eben, bete arte; gero, ogi-mutxikiñak batu egin ebazan: amabi otzara bete. <sup>21</sup> Eta jan ebenak, gutxi gora-bera bost milla gizonezko ziran, emakume ta umeak zenbatu bagarik.

#### Jesus ur-gaiñean ibiltien (Mk. 6, 45-52; Yn. 6. 16-21).

<sup>22</sup> Bereala, txalupara igo ta itxasoaz beste aldera joan zeitezala agindu eutsen ikasleai, berak laguntaldeari agur egiten eutsan artean. <sup>23</sup> Laguntaldeari agur eginda gero, mendira igo zan, bakarrik, otoitz egitera. Illunabarrean, Jesus bakar-bakarrik egoan an.

<sup>24</sup> Txalup(e)a, barriz, olatuak itxaserdian dinbili-danbala erabillen, aizea aurretik etorkien-eta. <sup>25</sup> Laugarren gau-aldian (\*), Jesus eurakanuntz etorri yaken, itxas-gai-

ñean oiñez. <sup>26</sup> Ikasleak, Jesus itxas-gaiñean ibiltien ikusirik, ikaratu egin ziran eta iñoen: «Mamua da»; eta bildurrez beterik, deadarka asi ziran. <sup>27</sup> Baiña, bereala Jesus'ek berba egin eta esan eutsen: «Uste on izan, neu naz-ta; ez bildurru». <sup>28</sup> Pedro'k erantzun eutsan: «Jauna, zeu ba'zara, agindu egidazu ur-gaiñetik zeugana joateko». <sup>29</sup> «Etorri zaitetz!», esan eutsan Jesus'ek. Jatsi Pedro txalupatik eta ur-gaiñean ibiltien asi zan, Jesus'eganuntz joateko. <sup>30</sup> Baiña, aizearen indarra ikusirik, bildurra sartu yakon; eta, murgiltzen asi zala, deadar egin eban: «Jauna, salbatu nagizu!». <sup>31</sup> Berealaxe Jesus'ek eskua luzaturik, ari oratu ta esan eutsan: «Zegaitik egon zara ezbaian, siniste otzeko gizon ori?». <sup>32</sup> Txalupara igo ziranean, aizea gelditu egin zan. <sup>33</sup> Orduan, txalupan egozanak auzpaz jari yakozan, esanez: «Jaungoikoaren Semea zara benetan».

#### Jenesaret'en (Mk. 6, 53-56).

<sup>34</sup> Itxas-bidea amaituta, Jenesaret'en legorrera jatsi ziran. <sup>35</sup> Eta toki aretako gizonak, Jesus ezagututa batera, barria bazterralde guzti aretan zear zabaldu eben, eta geiso guztiak beragana ekarri ebezan. <sup>36</sup> Besterik ezean, bere soiñeko-ertza ikutzen izteko eskatzen eutsoen; eta ikutzen eben guztiak, osatuta gelditu ziran.

## XV

#### Pariseuakoz eztabaidan (Mk. 7, 1-13).

<sup>1</sup> Orduan, Jerusalem'dik etorritako pariseo ta idazlari batzuk Jesus'egana urreratu ziran, eta auxe esan eutsoen: «Zure ikasleak, zegaitik austen dabez aurretikoen ekan-duak? Ogiak jaterakoan, ez dabe eskurik garbitzen-eta» (\*). <sup>2</sup> Jesus'ek erantzun eutsen: «Zuek, barriz, zegaitik austen dozue Jaungoikoaren agindua zuen ekan-duakaitik? Jaungoikoak auxe esan eban-eta: *Lotsa izan*



egiezu zure aitari ta amari; eta gaiñera: *Bere aita ta ama madarikatu dagizana, eriotzaz il begie* (\*). <sup>5</sup> Zuek, osters, auxe diñozue: Bere aitari edo amari esan dagionak: «Ni-gandik artu zengian laguntza-bide guztia, Jaungoikoari eskiñita daukat», <sup>6</sup> orrek ez dauko bere aita ta ama goratu bearrik (\*). Orrela, zuen ekanduagaitik Jaungoikoaren itza ustel egin dozue. <sup>7</sup> Azalutsok!, zuei buruz ederto iragarri eban aurretiaz Isaias'ek, esan ebanean: <sup>8</sup> *Erri onek ezpanez goratzen nau, baiña bere biotza nigandik urrun dago*. <sup>9</sup> *Alperrik gurtzen nabe, gizonen aginduak soillik diran irakaspenak irakasten dabez-ta* (\*).

(Mk. 7, 14-23).

<sup>10</sup> Gero, laguntaldeari dei egiñik, auxe esan eutsen: «Entzun eta ulertu! <sup>11</sup> Agotik sartzen danak, ez dau gizona zikintzen; agotik urtetan danak, orrexek zikintzen dau gizona». <sup>12</sup> Orduan, bere ikasleak urreratzen yakoz eta auxe dirautsoe: «Ba-dakizu, zure berbok entzunda, paris-euak asarratu egin dirana?». <sup>13</sup> Jesus'ek erantzun eutsen: «Zeruko nire Aitak sartu ez dauan edozein landara, atara egingo dabe zusterretik. <sup>14</sup> Itxi egizuez: itsuak dira ta itsu-mutillak. Eta itsu batek beste itsu bat zuzentzen ba'dau, biak zulora jausten dira».

<sup>15</sup> Pedro'k, itza arturik, auxe esan eutsan: «Azaldu egiguzu ipuin ori». <sup>16</sup> Jesus'ek erantzun eban: «Zuek be oraindiño adimen bagarik zagoze? Ez dozue ulertzen, agotik sartzen dana sabelera doala ta gero sastegira jaurtiten dala? <sup>18</sup> Agotik urtetan dana, barriz, biotz-barrutik dator, eta orrexek zikintzen dau gizona: <sup>19</sup> urten be, biotz-barrutik urtetan dira asmo txarrak, gizon-ilteak, ezkontza-austeak, aragikeriak, lapurretak, guzurrezko agiriak, iraiñak. <sup>20</sup> Orixe da gizona zikintzen dauana. Eskuak garbitu bagarik jateak, ostera, ez dau gizonik zikintzen.

**Kanaandar baten alab(e)a osatzen dau** (Mk. 7, 24-30).

<sup>21</sup> Andik urtenda, Jesus Tiro ta Sidon'go lurralderuntz baztertu zan. <sup>22</sup> Onetan, kanaandar emakume bat, leku aretatik urtenik, deadarka asi zan: «Jauna, Dabid'en seme ori, erruki zakidaz! Nire alab(e)a deabruak oiñaze gorritan darabil». <sup>23</sup> Baiña, Jesus'ek ez eutsan barbarik erantzun. Orduan, ikasleak, urreraturik, erregu au egin eutsen: «Jaramon egiozu, gure atzetik deadarka dator-eta». <sup>24</sup> Jesus'ek erantzun eban: «Israel-etxeko ardi galduekana baiño ez naz ni bialdua izan». <sup>25</sup> Emakumeak, alan be, Jesus'en aurrean auzpaturik, auxe esan eutsan: «Jauna, lagun zakidaz!». <sup>26</sup> Jesus'ek erantzun eban: «Ez dago ondo semeen ogia artu ta txakurkumai jaurtitea». <sup>27</sup> «Bai, Jauna, bai -erantzun eban emakumeak-; baiña txakurkumak be euren jabeen maitik jausten diran ogi-apurrik jaten dabez» (\*). <sup>28</sup> Orduan, Jesus'ek auxe esan eutsan: «Emakume, aundia da zure sinismena; gura dozunez jazo dakizula». Eta une aretatik, alab(e)a osatuta gelditu zan.

**Beste geiso bat osatzen dau.**

<sup>29</sup> Andik igarorik, Jesus Galilea'ko itxasondora etorri zan; mendira igo ta bertan jesarri zan. <sup>30</sup> Eta laguntaldea aundia urreratu yakon, erren, elbarri, itsu, mutu ta beste geiso asko; Jesus'en oiñetan jarri ebezan, eta Berak osatu egin ebazan. <sup>31</sup> Laguntaldea ikaratuta gelditu zan, mutuak berba egiten, elbarrituak osatuta gelditzen zirala, errenak ibiltan eta itsuak ikusten ikusirik; eta goratu egin eben Israel'en Jaungoikoa.

**Bigarren ogi-ugaritza** (Mk. 8, 1-10).

<sup>32</sup> Orduan, Jesus'ek bere ikasleai dei egin ta esan eutsen: «Laguntalde oni erruki nakio, iru egun ba-dira nigaz dabizala ta ez dauke jatekorik-eta. Ez dodaz, barriz, baraurik bialdu nai, bidean ondezik jarri ez daitezana». <sup>33</sup> Eta ikasleak dirautsoe: «Nundik atarako dogu basamor-

tu onetan onenbesteko laguntalde aundi au aseteko beste ogi?». <sup>34</sup> Jesus'ek dirautse: «Zenbat ogi daukazue?». Areik erantzun eutsoen: «Zazpi, eta arraintxo batzuk». <sup>35</sup> Orduan, laguntaldeari lur-gaiñean jarri zeitela agindu eutsan. <sup>36</sup> Gero, zazpi ogiak eta arraiñak artu ta eskerrak emon ebazan, zatitu ta bere ikasleai emon eutsezan, eta ikasleak laguntaldeari. <sup>37</sup> Guzti-guztiak jan eben eta bete ziran; eta gelditu ziran ogi-mutxikiñakaz zazpi otzara bete jaso ebezan. <sup>38</sup> Eta jan izan ebenak lau milla gizonezko izan ziran, emakume ta umeak zenbatu bagarik. <sup>39</sup> Gero, laguntaldeari agur egin, txalupara igo, eta Magadan-lurralde-dera joan zan.

## XVI

### Pariseuak ezaugarri eske

(Mk. 8, 11-13; Lk. 11, 16-20; 12, 54-56).

<sup>1</sup> Orduan, pariseuak eta saduzeuak aurreratu yakoan, eta, azpikeriz, zeruko ezaugarri bat erakutsi egi(ts)ela eskatu eutsoen. <sup>2</sup> Baiña, Jesus'ek auxe erantzun eutsen: «Arratsaldean, auxe diñozue: Eguraldi ona izango da, zerrua gorri-gorri dago-ta; <sup>3</sup> eta goizean: Gaur ekatxa, zerrua gorri-illun dago-ta (\*). Ori! Ba-dakizue zeruaren arpegia ezagutzen, eta aldien ezaugarriak ezin igarri daike-zuez! <sup>4</sup> Au bai gizaldi gaizto ta ustela! Ezaugarri bat eskatzen dau, eta Jonas igarlearen ezaugarria baiño beste ezaugarriarik ez yako emongo». Eta areik itxirik, alde egin eban.

### Pariseuen legamiña (Mk. 8, 14-21; Lk. 12, 1).

<sup>5</sup> Itxasoaz beste aldera joaterakoan, aztu egin yaken Jesus'en ikasleai ogiak artzea. <sup>6</sup> Jesus'ek auxe esan eutsen: «Zabaldu begiak eta zaindu zuen buruak pariseuen eta saduzeuen legamiñetik». <sup>7</sup> Areik alkarregaz berbetan ziar-duen, esanez: «Ez dogu ogirik ekarri ta...». <sup>8</sup> Baiña Je-

sus'ek, konturaturik, auxe esan eban: «Zetan diarduzue, siniste otzeko gizonok, ogirik ez daukazuela-ta? (\*). <sup>9</sup> Ez dozue oraindiño ulertzen eta ez dozuez gogoratzin bost milla gizonen bost milla ogiak, eta zenbat otzara batu zenduezan? <sup>11</sup> Zelan ez dozue ulertzen ez niarduala ogiai buruz? Zaindu zaitze, bai, pariseuen eta saduzeuen legamiñetik». <sup>12</sup> Orduantxe ezagutu eben, ez eutsela ogi-legamiñetik alde egiteko esan, pariseuen eta saduzeuen irakaspentik baiño.

### Pedro'ren autorra (Mk. 8, 27-30; Lk. 9, 18-21).

<sup>13</sup> Jesus'ek, Filipino'ko Zesarea-lurraldera etorrita, bere ikasleai itaun au egin eutsen: «Gizasemea nor dala diño gizonak?». <sup>14</sup> Areik erantzun eutsoen: «Batzuek, Yon Ba-teatzaillea; beste batzuek, Elias; beste batzuek, Jeremias edo igarletariko bat». <sup>15</sup> Jesus'ek dirautse: «Eta zuek, nor nazala diñozue?». <sup>16</sup> Simon Pedro'k erantzun eutsan: «Zu Kristo'a zara, Jaungoiko biziaren Semea» (\*). <sup>17</sup> Orduan Jesus'ek, itza arturik, auxe erantzun eutsan: «Zorionsua zara zu, Simon, Jonas'en seme oril, ez dautsu ori aragiak ez odolak agertu-ta, zeruetan dagoan neure Aitak baiño. <sup>18</sup> Nik, barriz, auxe dirautsut: Zu Pedro zara, eta arri orretan bertan jasoko dot nire Eliza, eta lezako (*inperniko*) atea ez dabe menperatuko. <sup>19</sup> Zeuri emongo dautsudaz Zeru-erreiñuko giltzak; eta zuk lurrean lotu dagizuna, zeruetan be lotua izango da; eta zuk lurrean askatu dagizuna, zeruetan be askatua izango da». <sup>20</sup> Orduan, bera Kristo'a zanik iñori be ez esateko agindu eutsen bere ikasleai.

### Bere Nekaldia iragarten dau (Mk. 8, 31-33; Lk. 9, 22).

<sup>21</sup> Arrezkero, Jesus bere ikasleai argi ta garbi esaten asi yaken: Berak Jerusalem'era joan eta zaar, abadeburu ta idazlarien aldetik neke asko eroan bear izango ebazala, baita eriotza be, eta irugarren egunean biztu egingo zala. <sup>22</sup> Eta Pedro'k, Jesus bakarrean arturik, asarre egiten



asi yakon, esanez: «Ez orixe, Jauna! Ez yatzu orrelakorik ezetara be jazoko!» (\*). <sup>23</sup> Baiña Jesus'ek, Pedro'ri arpegia emonaz, auxe esan eutsan: «Alde zakidaz emendik. Satanas ori!» (\*). Niretzat okerbide zara, zure bururakizunak ez dira Jaungoikoaren bururakizunak-eta, gizonenak baiño».

#### Jesus'i jarraitzeko bidea

(Mk. 8, 34-9, 1; Lk. 9, 23-27; Lk. 14, 27; 17, 33; Yn. 12, 25-26).

<sup>24</sup> Orduan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen: «Norbaitek jarraitu nai ba'daust, bere burua ukatu, bere gurutzea artu ta jarraitu daistala. <sup>25</sup> Bere bizia gorde nai dagianak, galdu egingo dau-ta; bere bizia neugaitik galdu dagianak, barriz, aurkitu egingo dau. <sup>26</sup> Izan be, zetako izango yako gizonari mundu guztia irabaztea, bere bizia galdu ezkeror? (\*). Edo-ta, zer emon daike gizonak bere biziaren ordain? <sup>27</sup> Gizasemea bere Aitaren aintzaz inguratuta etorriko da, bere aingeruakaz; eta orduan, bako txari bere bizikerari dagokionez emongo dautso ordaiña. <sup>28</sup> Benetan dirautsuet: emen dagozanen artean ba-dira batzuk, Gizasemea bere Erreñuan etorten ikusi arte, erioztarik artuko ez dabena» (\*).

## XVII

#### Jesus'en irudi-aldatzea (Mk. 9, 2-8; Lk. 9, 28-36).

<sup>1</sup> Sei egun geroago, Jesus'ek, Pedro, Santiago ta onen anai Yon beragaz artu ta irurak soillik daroaz, mendi goi batera. <sup>2</sup> Eta irudiz aldatu egin zan arein aurrean: Jesus'en arpegia eguzkia baizen ditziratsu egin zan, eta Aren jantziak argia baizen zuri gelditu ziran. <sup>3</sup> Onetan, Moises eta Elias agertu yakeezan, Jesus'egaz berbetan. <sup>4</sup> Orduan, Pedro'k, berba-lagun sarturik, Jesus'i auxe esan eutsan: «Jauna, ederto yaku emen egotea. Nai ba'dozu, iru txa-

bola egingo dodaz emen: bat zeuretzat, bestea Moises'entzat, eta bestea Elias'entzat». <sup>5</sup> Berbetan ziarduala, laiño argitsu batek estaldu egin ebazan, eta laiñotik abots bat urten zan, auxe iñoala: «Auxe da atsegín yatan nire Seme kutuna: entzun orri».

<sup>6</sup> Abots ori entzutean, ikasleak auzpaz jausi ziran, bildurrez beterik. <sup>7</sup> Baiña Jesus'ek, arekana urreraturik, ikutu ta esan eutsen: «Jagi zaitzeze; ez bildurtu». <sup>8</sup> Areik, begiak jasorik, Jesus bakarrik baiño beste iñor ez eben ikusi.

#### Elias'en etorrera (Mk. 9, 9-13).

<sup>9</sup> Eta menditik jatsieran, Jesus'ek agindu au emon eutsen: «Ez esan, gero, iñori be ikusitako au, Gizasemea illen artetik biztu arte». <sup>10</sup> Orduan, ikasleak itaun au egin eutsoen: «Zegaitik diño, ba, idazlariak, Elias'ek etorri bear dauala lenengo?». <sup>11</sup> Jesus'ek erantzun eutsen: «Izan be, Elias etorriko da lenengo, guztia barrizera. <sup>12</sup> Alan be, auxe-dirautsuet: etorri, etorri zan Elias, baiña ez eben ezagutu, eta nai izan eben guztia egin eutsoen. Olantxe, Gizasemea'k be gorriak ikusi bear izango dauz arein aldetik». <sup>13</sup> Orduantxe ulertu eben ikasleak, Yon Bateatzailleari buruz egin eutsela berba.

#### Mutiko deabruduna (Mk. 9, 14-29; Lk. 9, 37-43).

<sup>14</sup> Laguntaldeagana eldu ziranean, gizon bat urreratu yakon; eta Jesus'en aurrean belaunikoturik, <sup>15</sup> auxe esan eutsan: «Jauna, erruki zakioz nire semeari, illargi-geisoak jota, txarto dago-ta: sarri sutara jausten da, eta uretara be bai sarri. <sup>16</sup> Ekarki dautset zure ikasleai, baiña ezin osatu izan dabe». <sup>17</sup> Jesus'ek erantzun eban: «Au bai gizaldi sinisbage ta dongea! Noiz arte egongo naz zuekaz? Noiz arte irunsi bear izango ete-zaituet? Ekarki egidazue ona». <sup>18</sup> Jesus'ek agiraka egin eutsan, eta deabrua aregandik urten egin zan; eta une aretatik, mutikoa osatuta gelditu zan.

(Lk. 17, 6; Mk. 11, 22-23).

<sup>19</sup> Orduan ikasleak, Jesus'egana urreratu ta, bakarrean, auxe esan eutsoen: «Zegaitik ezin jaurti izan dautsagu, ba, guk?». <sup>20</sup> Jesus'ek dirautse: «Zuen sinismen otzagaitik. Benetan dirautsuet-eta: ziape-azia\* besteko sinismena ba'zendue, mendi oni «oa emendik ara!» esan-go zeuskioe, eta aldatu egingo litzake, eta ez litzake zuentzat ezinẽzkorik izango. (<sup>21</sup> Orretariko deabruak, barriz, oitotzaz eta barauaz baiño ez dira jaurtiten») (\*).

#### **Bere Nekaldia bigarrenez iragarten dautse**

(Mk. 9, 30-32; Lk. 9, 44-45).

<sup>22</sup> Egun baten, Galilea'n zear alkarregaz yoiazala, Jesus'ek auxe esan eutsen: «Gizasemea gizonen eskuetan itxia izango da; <sup>23</sup> il egingo dabe, eta irugarren egunean biztu egingo da». Eta zearo atsekabetu ziran.

#### **Drakna biko txanpona ordaintzen.**

<sup>24</sup> Kafarnaum'en sartu ziranean, drakna bikoai buruzko ordaiña batzen ebenak Pedro'gana urreratu ta esan eutsoen: «Zuen Irakasleak, ez dau drakna bikorik ordaintzen, ala?» (\*). <sup>25</sup> «Bai, orixe!», erantzun eban Pedro'k. Eta etxera eltzean, Jesus'ek aurrea artu ta esan eutsan: «Zer deritxazu, Simon? Lurreko erregeak, nogandik\* jasoten dabez lege-sariak eta zergak? Euren semeakandik, ala arrotzakandik?». <sup>26</sup> Arek, «Arrotzakandik» erantzutean, Jesus'ek auxe esan eutsan: «Beraz, semeak euren eskuko dira. <sup>27</sup> Alan be, gaizpiderik emon ez dagiegun, zoaz itxasora, jaurti amoa, eta urten daiten lenengo arraiña artuta, zabaldu egiozu agoa ta estater dirua aurkituko dautsazu. Artu egizu ta emon egiezu nire ta zure izenean».

\* Ziape: mostaza.

\* Nogandik: norgandik, norengandik.

## XVIII

**Nor da aundiena?** (Mk. 9, 33-36; Lk. 9, 46-47).

<sup>1</sup> Une aretan, ikasleak Jesus'egana urreratu ta auxe itandu eutsoen: «Nor da aundiena zeruetako Erreñuan?».

<sup>2</sup> Jesus'ek ume bati dei egin, arein erdian ipiñi, <sup>3</sup> eta auxe esan eban: «Benetan dirautsuet: umeak lakoak biurtzen eta egiten ez ba'zaree, ez zaree zeruetako Erreñuan sartuko. <sup>4</sup> Beraz, ume au baizen txiki egin daitena, axe da aundiena zeruetako Erreñuan.

**Gaizpidea** (Mk. 9, 37; Lk. 9, 48; Mk. 9, 42; Lk. 17, 1-2).

<sup>5</sup> «Eta onelako umeren bat neure izenean artu dagianak, neu artzen nau. <sup>6</sup> Neugan sinisten dauan txikitxo onetariko bati gaiztakeria irakatsi dagianak, obe dau orrelako orrek astoak darabillen orretariko errota-arri bat samatik lotu ta itxas-ondarrera jaurtia izatea. <sup>7</sup> Munduaren zoritxarra gaizpideak dirala-ta! Gaizpideak izatea, bai, nai ta nai ezkoa da; baiña, negargarria gaizpidea dakarren gizona!

(Mk. 9, 43-47).

<sup>8</sup> Beraz, zure eskuak naiz oiñak gaiztakerira ba'zaroaz. ebagi ta jaurti egizu zugandik urrun: obe dozu eskumotz naiz erren Bizitzan (*zeruan*) sartu, esku biak naiz oin biak dozuzala, betiko sutara jaurtia izatea baiño. <sup>9</sup> Eta zure begiak gaizpidera ba'zaroaz, atara ta jaurti egizu zugandik urrun: obe dozu begi-bakar Bizitzan sartu, begi biak dozuzala su-lezara (*inpernura*) jaurtia izatea baiño.

<sup>10</sup> Ez gutxitzat artu, gero, txiki onetariko bat bera bel: onein aingeruak, zeruetan, zeruetan dagoan nire Aitarean arpegia etenbagarik ikusten dabela dirautsuet-eta. (<sup>11</sup> Gizasemea, galduta egoana salbatzera etorri da-ta») (\*).

**Ardi galdua** (Lk. 15, 3-7).

<sup>12</sup> «Zer deritxazue? Gizon batek eun ardi ba'daukaz eta areitariko bat galtzen ba'yako, ez ete-dauz larogeta eme-



retziak mendietan itxiko, galdutakoaren billa joateko?  
<sup>13</sup> Eta aurkitzen ba'dau aurkitu, benetan dirautsuet: galdu bagariko larogeta emeretziak baiño galdutako bakar orrek poza aundiagoa emongo dautso. <sup>14</sup> Orretaraxe, zeruko zuen Aitak be ez dau nai txiki onetariko bat bera be galdu daiten.

**Lagun-urkoa, zelan zuzendu?** (Lk. 17, 3).

<sup>15</sup> «Zure anaiak zure kontra pekatu egin ba'dau, zoaz eta asarre egiozu bakarrean; entzuten ba'zaitu, irabazia izango dozu zure anaia. <sup>16</sup> Entzuten ez ba'zaitu, artu zeugaz lagun bat naiz bi, *auzi guztia bi edo iru ikusleren autorraz ebatzita gelditu daiten* (\*). <sup>17</sup> Orrei be jaramonik egiten ez ba'dautse, batzarrari esan egiozu. Eta batzarrari be jaramonik egiten ez ba'dautso, sinisbage ta zerga-batzailletzat artu egizu.

<sup>18</sup> Benetan dirautsuet: zuek lurrean lotu dagizuen edozer, zeruan be lotuta geldituko da; eta zuek lurrean askatu dagizuen edozer, zeruan be askatuta geldituko da.

**Lagun-arteko otoitza.**

<sup>19</sup> «Auxe be ba-dirautsuet: lurrean zuetariko bik zerbait eskatzeko, dana dala, alkar bat egiten ba'dabe, zeruetan dagoan nire Aitagandik jadetsi egingo dabe: <sup>20</sup> bi edo iru lagun neure izenean batuta dagozan lekuan, neu be euren erdian nago-ta».

**Irañak parkatu** (Lk. 17, 4).

<sup>21</sup> Orduan, Pedro'k, Aregana urreraturik, auxe esan eutsan: «Jauna, zenbatetan parkatu bear dodaz nire anaiak egin dagidazan iraiñak? Zazpi bidar bai?». <sup>22</sup> Jesus'ek dirautso: «Zazpi bidar bakarrik ez, baita irurogeta amar aldiz zazpi bidar be (\*).

**Morroi biotz-gogorra.**

<sup>23</sup> «Orregaitik, zeruetako Erreiñua, bere morroiakaz artu-emonak garbitu nai izan ebazan Errege baten antzekoa

da. <sup>24</sup> Kontu-garbitzen astean, amar milla diru-talentu\* zor eutsazan morroi bat ekarri eutsoen (\*). <sup>25</sup> Ezin ordaindu eikean ezkerro, morroia, onen emaztea ta seme-alabak eta eukan guztia saltzeko ta zorra ordaintzeko agindu eban ugazabak. <sup>26</sup> Orduan, morroia auzpaz jarri yakon, ta gurka zirautsan: «Itxaron egidazu, guztia ordainduko dautsut-eta». <sup>27</sup> Ugazabak, morroi aretzaz errukituta, joaten itxi ta zorra parkatu egin eutsan.

<sup>28</sup> Morroi a andik urtetean, eun denario\* zor eutsazan morroi-lagun bat aurkitu eban, eta itobearrez ari eldu ta auxe zirautsan: «Ordaindu egik zor doana». <sup>29</sup> Aren morroi-lagunak, auzpazturik, erreguka zirautsan: «Itxaron egidak, ordainduko dauat-eta». <sup>30</sup> Baiña, besteak ez eban nai izan; eta joanda, giltzapean sarrerazo eban, zorra ordaindu arte.

<sup>31</sup> Beste morroi-lagunak, jazotakoa ikustean, atsekabez bete ziran, eta jazotako guztia euren ugazabari azaltzera joan ziran. <sup>32</sup> Orduan, bere ugazabak dei egin eta esan eutsan: «Morroi gaizto ori!: zor guztia parkatu euan nik iri, ik erreguz eskatu eustalako. <sup>33</sup> Ez ete-euan, ba, bidezko euk be ire morroi-lagunari erruki izatea, neu be iretzaz erruki izan nintzoanez?». <sup>34</sup> Eta aren nagusiak, asarratuta, morroia zigortzailleen eskuetan itxi eban, zor guztia ordaindu egian arte. <sup>35</sup> Orixe egingo dautsue zeruetako nire Aitak be, bakotxak zuen anaiari biotzez parkatzen ez ba'dautso».

## XIX

**Ezkontza, ausi-eziña** (Mk. 10, 1-12).

<sup>1</sup> Itzaldiok amaitu ebazanean, Jesus Galilea'tik urten eta Judea'ko lurraldera etorri zan, Jordan'ez beste alde-

\* Amar milla diru-talentu: irurogei milloi peseta urrezko.

\* 100 denario: 100 peseta-edo.

ra. <sup>2</sup> Laguntalde aundiak jarraitu eutsan, eta osatu egin ebazan an. <sup>3</sup> Eta pariseo batzuk urreratu yakozan, eta azpikeriz auxe esan eutsoen: «Bidezko yako senarrari, bere emaztea edozegaitik itzea?». <sup>4</sup> Jesus'ek erantzun eban: «Ez dozue irakurri Egilleak, asierarik, *ar eta eme egin ebalazala?*, <sup>5</sup> eta auxe esan ebalaz: *Orregaitik, gizonak aita ta ama itxi egingo dauz, eta bere emazteari lotuko yako, eta biok aragi bat bakararra egingo dira?* (\*). <sup>6</sup> Beraz, arrezkerro ez dira bi, aragi bat bakararra baiño. Beraz, Jaungoikoak lotu ebana, ez begi gizonak banandu».

<sup>7</sup> Areik dirautsoe: «Zegaitik agindu eban, ba, Moises'ek, izte-agiria emon eta emaztea bialtzeko?». <sup>8</sup> Jesus'ek erantzun eutsen: «Zeuon biotz gogorragaitik emon eutsuen Moises'ek zuen emazteak izteko baimen ori; asieran, osterera, ez zan orrela izan. <sup>9</sup> Au onela dala, auxe dirautsuet: Aragikeriagaitik izan ezik, bere emaztea itxi ta beste bat egaz ezkontzen danak, ezkontza loitu egiten dau».

<sup>10</sup> Aren ikasleak dirautsoe: «Senar-emazteen auzia orrela ba'da, ez dakar irabazirik ezkontzeak» (\*). <sup>11</sup> Baiña, Jesus'ek erantzun eutsen: «Ez dabe guztiak izkera au ulertzen, ori emon yakenak bakarrik baiño. <sup>12</sup> Izan be, ba-dira irenak\* amaren sabeletik orrela jaiok, eta ba-dira irenak gizonak eginda, eta ba-dira irenak zeruetako Erreinuagaitik euren buruak orrela egin ebezanak. Ulertu al dagianak, ulertu dagiala».

**Jesus eta umeak** (Mk. 10, 13-16; Lk. 18, 15-17).

<sup>13</sup> Orduan, ume batzuk ekarri eutsoezan, arein gainean eskuak ezarri ta otoitz egin egian; baiña ikasleak asarre egiten eutsen. <sup>14</sup> Jesus'ek, osterera, auxe esan eutsen: «Itxi bakean umeak\*, eta ez egiezue galerazo nigana etor-

\* Irenak: eunucos.

\* Gaur zabalago Bizkaia'n beste onetara: "Itxi egiezue umetxoai..."

ten: onelakoxeak diranena da zeruetako Erreinu-ta». <sup>15</sup> Gero, eskuak ezarri eutsezan, eta alde egin eban andik.

**Gazte aberatsa** (Mk. 10, 17-22; Lk. 18, 18-23).

<sup>16</sup> Onetan, norbait urreratu yakon, eta auxe esan eutsan: «Irakasle, zer onik egingo dot betiko bizitza jaristeko?». <sup>17</sup> Jesus'ek erantzun eutsan: «Zegaitik itantzen (*itan-duten*) daustazu niri ona zer dan? Bat bakararra da Ona. Bizitzan sartu nai ba'dozu, barriz, bete egizuz aginduak». <sup>18</sup> «Zeintzuk?», esan eban arek. Eta Jesus'ek esan eutsan: «Ez dozu iñor ilgo, ez dozu ezkontzarik loituko, ez dozu lapurretarik egingo, ez dozu guzurrezko autorrik esango, <sup>19</sup> zure aita ta ama aintzat artuko dozuz, eta zure lagunurkoa zeure burua legetxe izango dozu maite».

<sup>20</sup> Orduan, gazteak dirautso: «Bete dot nik guzti ori (\*): zer ez dot oraindiño?». <sup>21</sup> Jesus'ek esan eutsan: «Guztiz ona izan nai ba'dozu, zoaz, daukazun guztia saldu ta emon egiezu beartsuai, eta zeruetan ondasuna (*dirutza*; eukiko dozu; gero, etorri zaitze eta jarraitu egidazu». <sup>22</sup> Berbok entzutean, gaztea saminduta joan zan, ondasun asko eukazan-eta.

**Aberastasunaren arriskuak** (Mk. 10, 23-27; Lk. 18, 24-27).

<sup>23</sup> Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen: «Benetan dirautsuet: nekez sartuko da aberatsa zeruetako Erreinu-an. <sup>24</sup> Barriri be ba-dirautsuet: errazago da gamelua jostorraz-zulotik sartzea, aberatsa zeruetako Erreinu-an sartzea baiño» (\*). <sup>25</sup> Ori entzutean, ikasleak zearo arritzen ziran, eta auxe iñoen: «Nor zeruratu daiteke, ba?». <sup>26</sup> Jesus'ek, arekana begira-begira jarririk, auxe esan eban: «Ori gizonentzat eziaña da; Jaungoikoarentzat, osterera, guztia da egin-kor».

**Beartsuentzako saria**

(Mk. 10, 28-31; Lk. 18, 28-30; Lk. 13, 30).

<sup>27</sup> Orduan Pedro'k, berba-lagun sarturik, auxe esan eutsan: «Ikusten dozu: guk guztia itxi ta zeuri jarraitu



dautsugu; zer artuko dogu, ba?». <sup>28</sup> Jesus'ek esan eban: «Benetan dirautsuet: niri jarraitu daustazuenok, bizitza bari- rian, Gizasemea bere aintzazko aulkian jesarri daitenean, zuok be amabi aulkitan jesarriko zaree, Israel'go amabi jatorriak epaitzeko. <sup>29</sup> Eta etxeak, anai-arrebak, aita, ama, seme-alabak, naiz etxaldea\*, neure izenagaitik itxi dau- zanak eun bidar geiago artu ta betiko bizitza jadetsiko dau. <sup>30</sup> Eta lenen diran asko, azken izango dira; eta azken di- ran asko, lenen (\*).

## XX

**Maastiko langilleak.**

<sup>1</sup> «Zeruetako Erreiñua, goizen-goiz bere mastegirako langille-billa urten zan etxagunaren antzekoa da. <sup>2</sup> Eta lan-saritzat eguneko denario diru bana langilleakaz itun- duta (*berbatuta*), bere mastegira bialdu ebazan. <sup>3</sup> Iruga- rren orduan-edo, barrero urten zan; eta, beste batzuk pla- ran geldo eozala ikusirik, <sup>4</sup> auxe esan eutsen: «Zoaze zuok be nire mastegira, eta emongo dautsuet bidezko da- na». <sup>5</sup> Eta joan egin ziran. Seigarren eta bederatzigarren orduan be barrero urten zan, eta beste arenbeste egin eban. <sup>6</sup> Amaikagarren orduan-edo be urten egin zan; eta, beste batzuk antxe eozala ikusirik, ba-dirautse: «Zegai- tik zagoze emen egun osoan geldo?». <sup>7</sup> Areik auxe dirau- tsee: «Iñok ez gaitu lanerako artu-ta...». Etxagunak dirau- tse: «Zoaze zuok be nire mastegira». <sup>8</sup> Illuntzean, masti- -jabeak bere kontuartzailleari dirautso: «Dei egin langi- lleai ta emon egiezu lan-saria, azkenengoetatik asi ta le- nengoetaraiño». <sup>9</sup> Etorri ziran, ba, amaikagarren orduan joandakoak, eta denario bana artu eben. <sup>10</sup> Lenengoak etorri ziranean, geiago jasoko ebela uste izan eben; baiña, eurak be denario bana artu eben. <sup>11</sup> Eta denarioa artu ebe- nean, etxagunaren kontra mormoxetan ziarduen, <sup>12</sup> esa-

\* Etxaldea: hacienda propia, propiedad.

nez: «Ordubete baiño ez dabe lan egin azkenengo orreik, eta guk egun beteko nekca ta beroa eroan doguzanarren, geuri legetxe emon dautsezu ordain-saria». <sup>13</sup> Baiña, etxa- gunak aretariko bati auxe erantzun eutsan: «Adiskide, ez dautsut zuri bidebagekeririk egiten. Ez zenduan, ba, nigaz bat egin lan-saritzat denario bat jasoteko? <sup>14</sup> Artu egizu, ba, zurea, ta zoaz. Azkenengo orri be, zeuri aiña emon nai dautsat. <sup>15</sup> Ala, nire danaz nai dodana egitea, ezin egin ete-daiket? Ala, ni ona nazalako, zure begia okerra izango ete-da?». <sup>16</sup> Olan, ba, azkenengoak lenengo izan- go dira, eta lenengoak azken. (*Deituak asko dira-ta; gu- txi, ostera, aukeratuak*) (\*).

**Bere Nekaldia irugarrenez iragarren dau**  
(Mk. 10,32-34; Lk. 18, 31-33).

<sup>17</sup> Jerusalem'era igoten ziarduala, Jesus'ek amabi ikas- leak bakarrean artu ta auxe esan eutsen: <sup>18</sup> «Begira: Je- rusalem'era igoten diardugu, eta Gizasemea abadeburu ta idazlarien eskuetan itxia izango da; eriotzarako galduko dabe <sup>19</sup> eta sinisbageen eskuetan itxiko dabe, iraindu, as- tindu ta gurutzean josi dagien; eta irugarren egunean biz- tu egingo da».

**Zebedeo'ren semeak** (Mk. 10, 35-40).

<sup>20</sup> Orduan, Zebedeo'ren semeen ama urreratu yakon, bere semeakaz batera; eta auzpazturik, zerbait eskatu nai eutsan. <sup>21</sup> Jesus'ek esan eutsan: «Zer gura dozu?». Amak dirautso: «Nire seme biok, zure Erreiñuan, bata zeure es- kumaldean eta bestea zeure ezkerrekaldean jesarri daite- zala agindu egizu». <sup>22</sup> Jesus'ek auxe erantzun eban: «Ez dakizue zer eskatzen dozuen. Nik edan bear dodan edon- tzia, edan daikezue zuek?». Areik dirautsoe: Bai, edan daikegu». <sup>23</sup> Jesus'ek dirautse: «Nire edontzia edango do- zue, bai; baiña, nire eskumaldean naiz ezkerrekaldean jarrerazoteko eskubiderik ez dot nik: neure Aitak aton- du dautsenentzat da ori».

**Buru diranck, morroi izan bear dabe**  
(Mk. 10, 41-45; Lk. 22, 25-27).

<sup>24</sup> Beste amarrak ori entzutean, anai bien kontra asarratu egin ziran. <sup>25</sup> Baiña, Jesus'ek deitu ta esan eutsen: «Ba-dakizue errietako agintariak erria euren menpean daukena, eskubide osodun jaunak lez, eta aundiak erria nautsikeriz erabilten dabena. <sup>26</sup> Zuen artean, barriz, ez da orrela izan bear, bestetara baiño: zuen artean aundi izan nai dagiana, zuon morroi izango da; <sup>27</sup> eta zuen artean lenen izan nai dagiana, zuon menpeko izango da: <sup>28</sup> Gizasemea be ez zan morroiak eukitera etorri, morroi izatera ta bere bizia askoren alde ordaintzat emotera baiño».

**Jeriko'ko itsu biak** (Mk. 10, 46-52; Lk. 18, 35-43).

<sup>29</sup> Jeriko'tik urtetea, laguntalde aundiak jarraitu eutsen. <sup>30</sup> Onetan, bide-baztarrean jesarrita egozan itsu bi. Jesus igaroten zala entzutean, deadarka asi ziran: «Jauna, Dabid'en Seme ori, erruki zakiguz!». <sup>31</sup> Laguntaldeak asarre egiten eutsen, isildu zeitezana; baiña areik errimeago egiten eben deadar: «Jauna, Dabid'en Seme ori, erruki zakiguz!». <sup>32</sup> Orduan, Jesus gelditu egin zan, arei dei egin eta esan eutsen: «Zer nai dozue egin dagitzuedan?». <sup>33</sup> Itsuak dirautsoe: «Jauna, gure begiok zabaldu daitezala!». <sup>34</sup> Jesus'ek, aretz errukituta, begiak ikutu eutsezana, eta bat-batean ikustea artu eben barrero. Eta jarraitu egin outsoen.

## XXI

**Jerusalen'en sartzen da**  
(Mk. 11, 1-11; Lk. 9, 28-38; Yn. 12. 12-16).

<sup>1</sup> Jerusalem'era urreratzean, Oriomendi-barreneko Bet-faje'ra eldu ziranean, Jesus'ek bere ikasle bi bialdu ebazan, <sup>2</sup> esanez: «Zoaze zuen aurean dagoan erritxo orretara; eta bereala, astoama bat aurkituko dozue lotuta, eta astakume bat beragaz; askatu ta ekarri egidazue». <sup>3</sup> Eta

norbaitek zerbait ba'dirautesue, Jaunak bear dauzala ta berealaxe biurtuko dauzala erantzungo dozue». <sup>4</sup> Ori, igarleak aurretiaz esandako au bete zedin jazo zan: <sup>5</sup> *Esan egiozu Sion'go alab(e)ari: Orra nun datorkizun zure erregea, oizan-otzan eta astoama baten gainean, eta buztarpeko aberearen ume-gainean jesarrita (\*)*.

<sup>6</sup> Joan ziran, ba, ikasleak, eta Jesus'ek agindu eutsenez egin eben: <sup>7</sup> astoama ta astakumea ekarri ebezana; gero, arein gainean euren soin-gainekoak ezarri ebezana, eta Jesus gainean jesarri zan. <sup>8</sup> Laguntaldeak, ugari be ugari, euren soin-gainekoak bidean zear zabaldu ebezana; beste batzuek arboletako adarrak ebagi ta bidean zear zabaltzen ebezana. <sup>9</sup> Eta aurretik yoian laguntaldeak deadarka iñoan: «*Hosanna (aintza) Dabid'en Semeari! Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena! Hosanna (aintza) goietan!*» (\*).

<sup>10</sup> Eta Jesus Jerusalem'en sartu zanean, uri guztia artagatu egin zan, esanez: «Nor da au?» <sup>11</sup> Eta laguntaldeak erantzuten eban: «Jesus igarlea da au, Galilea'ko Nazaretarra».

**Jesus, Jaunaren Etxean**

(Mk. 11, 11. 15-17; Lk. 19, 19, 45-46; Yn. 2, 14-16).

<sup>12</sup> Jesus, Jaunaren Etxean sartu zan, eta saltzen eta erosten ziardeen guztiak kanpora jaurti ebazan; diru-aldatzaillen maiak eta uso-saltzaillen jarlekuak itxuli egin ebazan. <sup>13</sup> Eta auxe esan eutsen: «Idatzita dago: *Nire etxea otoi-etxe izango da deitua*; baiña zuek *lapur-zulo* egiten diarduzue» (\*). <sup>14</sup> Baita itsuak eta errenak be urreratu yakozana Jaunaren Etxean, eta osatu egin ebazan. <sup>15</sup> Abadeburuak eta idazlariak, ostera, egiten ebazan mirariak ikustean, eta umeak «*Hosanna (aintza) Dabid'en Semeari*» deadarka ziarduela entzutean, asarre-bitsetan jarri ziran, <sup>16</sup> eta auxe esan outsoen: «Entzuten dozu orreik diñoena?». «Bai, orixe! —erantzun eutsen Jesus'ek—. Ala, ez dozue egundo irakurri, *Umeen eta bularrekoen ago-*



tik atera dozu gorapena?» (\*).<sup>17</sup> Eta areik alde batera itxirik, uritik Betania'ra urten eta antxe igaro eben gaba.

**Pikondoa, igartuta. — Sinismena ta otoitza**  
(Mk. 11, 12-14. 20-24).

<sup>18</sup> Egunsentian, barrero urira yoiala, Jesus gose izan zan; <sup>19</sup> eta, bide-baztarrean pikondo bat ikusirik, bertara urreratu zan, baiña orriak baiño ez eutsazan aurkitu (\*). Orduan, pikondoari dirauto: «Ez dakiala iñoiz be fruturik sortu!». Eta bat-batean, pikondoa igartu egin zan. <sup>20</sup> Ori ikusirik, ikasleak arritu egin ziran, eta auxe iñoen: «Zelan igartu da bat-batean pikondoa?». <sup>21</sup> Jesus'ek erantzun eutsen: «Benetan dirautsuet: ez bai bagariko sinistea ba'daukazue, pikondo orrena bakarrik ez dozue egingo; baita mendi orri «kendu adi ortik eta jausi adi itxasora» ba'dirautsazue be, orrelaxe egingo da. <sup>22</sup> Eta otoitzean sinismenez eskatu dagizuen edozer, artu egingo dozue».

**Jesus'en eskubidea** (Mk. 11, 27-33; Lk. 20, 1-8).

<sup>23</sup> Jaunaren Etxera elduta, irakasten ziarduala, abadeburu ta erriko zaarrak urreratu yakozan, esanez: «Ze eskubidez egiten dozu, ba, ori? Eta nok emon dautsu eskubide ori?». <sup>24</sup> Jesus'ek erantzun eutsen: «Neuk be itaun bat egingo dautsuet; erantzuten ba'daustazue, neuk be esango dautsuet au ze eskubidez egiten dodan: <sup>25</sup> Yon'en bateoa, nundikoa zan?: zerutikoa, ala gizonakandikoa?». Areik alkarregaz esaten ziarden: «Zerutikoa zala ba'diñogu, «zegaitik ez zeutsoen, ba, sinistu?», esango dausku: <sup>26</sup> gizonakandikoa zala ba'diñogu, barriz, laguntaldearen bildur gara: guztiak Yon igarletzat dabe-ta». <sup>27</sup> Beraz, Jesus'i auxe erantzun eutsoen: «Ez dakigu». Orduan, Jesus'ek erantzun eutsen: «Neuk be ez dirautsuet au ze eskubidez egiten dodan».

**Maastegira bialdutako seme biak.**

<sup>28</sup> «Eta, zer deritxazue? Gizon batek seme bi ebazan. Lenengoagana urreraturik, auxe esan eutsan: «Seme, zoaz

gaur nire maastegian lan egitera». <sup>29</sup> Semeak erantzun eutsan: «Ez dot nai». Gero, barriz, damutu ta joan egin zan. <sup>30</sup> Gero, bigarrenagana urreratu ta bardin esan eutsan. Eta arek erantzun eutsan: «Bai, jauna»; baiña ez zan joan. <sup>31</sup> Biotarik nok egin eban aitaren gogoa?» — «Lenengoak», erantzun eben. Jesus'ek dirautse: «Benetan dirautsuet: zerga-batzailleak eta emagalduek zuek baiño lenago eltzen dira Jaungoikoaren Erreiñura.

(Lk. 7, 29-30).

<sup>32</sup> Izan be, santutasun-bidetik etorri yatzuen Yon, eta ez zenduen zuek aregan sinistu; zerga-batzailleak eta emagalduek, barriz, beragan sinistu eben. Eta zuek, bera ikusita be, ez zintzazen gero be garbatu, aregan sinisteko».

**Maastegiko langille gaiztoak**

(Mk. 12, 1-12; Lk. 20, 9-19).

<sup>33</sup> «Entzun egizue beste ipuin bat. Etxagun batek maastegi bat landu eban, eta inguruan esi bat egin eutsan; dolara\* bat bertan egin eta torre bat jaso eban; eta nekazari batzui alogeran (*errentan*) itxi, eta urrun joan zan. <sup>34</sup> Matsarua eldu zanean, nekazariakana bere morroiak bialdu ebazan, matsaren irabazia jaso egien. <sup>35</sup> Baiña nekazariak, morroiak eldu, eta bata makillaka astindu, bestea il eta besteari arrika egin eutsoen. <sup>36</sup> Barrero be, beste morroi batzuk bialdu eutsezan, lenengoak baiño geiago; baiña arei be bardin egin eutsen. <sup>37</sup> Azkenez, bere semea bialdu eutsen, berekautan iñola: «Nire semeari, beintzat, lotsa izango dautsoe». <sup>38</sup> Baiña nekazariak, semea ikustean, alkarri auxe esan eutsoen: «Auxe da oiñordekoa. Goazan, il dagigun, eta geu geldituko gara orren oiñordekotasunaz». <sup>39</sup> Ari eldu, maastegitik kanpora jaurti, eta il egin eben. <sup>40</sup> Beraz, maastegi-jabea etorri daitenean, zer egingo ete-dautse nekazari arei?». <sup>41</sup> Areik dirautsoe:

\* Dolara: lagar.

«Gaizto orrei eriotz gogorra emongo dautse, eta matsaren irabazia bere sasoz ordaindu dagioen beste nekazari batzui emongo dautse alogeran (*errentan*) bere maastegia».

<sup>42</sup> Eta Jesus'ek dirautse: «Ez dozue Liburu Santuetan iñoiz be irakurri: *Etxegilleak baztartutako arria, giltzarri biurtu da; Jauna izan zan ori egin ebana, eta ikusgarria da gure begiontzat?* (\*)». <sup>43</sup> Orrexegaitik dirautsuet: Jaungoikoaren Erreiñua zuoi kendu ta frutua ekarri dagian erriari emongo yako. (<sup>44</sup> Eta arri orren gaiñera jausi daitena, zatitu egingo da; eta arri ori gaiñera jausi dakiona, zapalduta geldituko da») (\*).

<sup>45</sup> Abadeburuak eta pariseuak, Jesus'en ipuiñok entzutean, eurentzat esaten ziarduala igarri eutsoen. <sup>46</sup> Ari eskuak ezartea nai eban, baiña laguntaldeari bildur eutsoen, igarletzat euken-eta.

## XXII

**Errege-ezteguak** (Lk. 14, 16-24).

<sup>1</sup> Jesus'ek, barriro itza arturik, ipuiñetan egin eutsen berba, esanez: <sup>2</sup> «Zeruetako Erreiñua, bere semearen eztegua egin eban erregearen antzekoa da. <sup>3</sup> Eta bere morroiak bialdu ebazan, eztegurakoai dei egitera; baiña oneik ez eban etorri nai izan. <sup>4</sup> Barriro beste morroi batzuk bialdu ebazan, mandatu onezaz: Esan egiezu deituai: «Begi-  
ra, eztegua gertu dago, zekor eta abere gizenduak ilda daukadaz, eta guztia gertu dago; etorri zaiteze eztegura». <sup>5</sup> Baiña areik, jaramon egin bagarik, joan egin ziran: barta bere solora, bestea bere arazoetara; <sup>6</sup> eta enparauk aren morroiak eldu, iraindu ta il egin ebezan. <sup>7</sup> Orduan, erregea, asarre-bitsetan, bere gudariak bialdu, odolzale arei eriotza emon, eta arein uriari sua emon eutsan. <sup>8</sup> Gero, bere morroiak auxe esan eutsen: «Eztegua gertu dago, baiña deituak ez ziran gei (\*)». <sup>9</sup> Zoaze, ba, bide-gurutzetara

eta dei egiezue eztegura aurkitu dagizuezan guztiai». <sup>10</sup> Morroiak bideetara urten eta aurkitu ebezan guztiak batu ebezan, on eta gaizto; eta eztegu-tokia mai-lagunez bete zan (\*).

<sup>11</sup> Orduan, erregea mai-lagunak ikustera sartu zan; eta an eztegu-jantzirik ez ekarren bat egoala konturatuturik. <sup>12</sup> auxe esan eutsan: «Adiskide, zelan sartu zara emen eztegu-jantzi bagarik?». Arek, barriz, berbarik be ez. <sup>13</sup> Orduan, erregeak bere mai-laguntzailleai auxe esan eutsen: «Anka ta esku lotu, eta jaurti egizue kanpoko illunetara; an izango da negarra ta agin-karraskada!». <sup>14</sup> Deituak asko dira-ta; aukeratuak, ostera, gutxi» (\*).

**Jaungoikoarena ta Zesar'ena**  
(Mk. 12, 13-17; Lk. 20, 20-26).

<sup>15</sup> Orduan, pariseuak joan eta Jesus berberen baten zelan-alan artzeko alkartu ziran. <sup>16</sup> Eta euren ikasleak bialtzen dautsoez, Erodes'en aldekoakaz batera, esanez: «Irakasle, ba-dakigu egizale zarana ta Jaungoikoaren bidea zuzen-zuzen irakasten dozuna, eta iñoren ardurarik ez dozuna, ez dozu nor nor dan begiratzen-eta. <sup>17</sup> Esan egiguzu, ba: zer deritxazu? Zesar'i zerga (*edo kontribuziñoa*) emotea, bidezko da, ala ez?». <sup>18</sup> Baiña Jesus'ek, arein asmo txarra ezaguturik, esan eban: «Zegaitik zirikatzen nozue, azalutsok? <sup>19</sup> Erakutsi egidazue zerga-txanpona» (\*). Areik denario bat eskiñi eutsoen. <sup>20</sup> Eta Jesus'ek dirautse: «Norenak dira irudi au ta idazkun au?». <sup>21</sup> «Zesar'enak», dirautsoe. Orduan, Jesus'ek dirautse: «Ordaindu egiozue, ba, Zesar'i Zesar'ena, eta Jaungoikoari Jaungoikoarena». <sup>22</sup> Ori entzutean, arrituta gelditu ziran; eta, Jesus itxirik, alde egin eban.

**Ildakoen biztuera** (Mk. 12, 18-27; Lk. 20, 27-40).

<sup>23</sup> Egun aretan, biztuerarik ez dagoala diñoen saduzeuak urreratu yakozan Jesus'i, eta itaun au egin eutsoen: <sup>24</sup> «Irakasle, Moises'ek auxe esan eban; Norbait semerik



euki bagarik ilten ba'da, bere anaiia ezkonduko da alargunaz, anaiari ondorengoa izteko (\*).<sup>25</sup> Alan ba, ba-ziran gure artean zazpi anai. Ezkondu zan lenengoa, eta il egin zan; eta ondorengorik ez eukan ezkerro, bere emaztea anaiari itxi eutsan.<sup>26</sup> Bigarren bez be bardin jazo zan, baita irugarrenez be, zazpigarrenerarte.<sup>27</sup> Guztien ondoren, emakumea il zan.<sup>28</sup> Beraz, barriro biztu daitezanean, zazpiretariko norena izango da emazte?, zazpirak izan eben emaztetzat-eta?». <sup>29</sup> Jesus'ek erantzun eutsen: «Oker zagoze, Liburu Santuak eta Jaungoikoaren indarra ez eza-gutzearren.<sup>30</sup> Izan be, biztutakoan, ez gizonak artuko da-be emazterik, ez emakumeak senarrik; Jaungoikoaren aingeruak legetxe izango dira zeruan-eta.<sup>31</sup> Ildakoen biztuerari buruz, barriz, ez dozue irakurri Jaungoikoak esan eutsuen au: <sup>32</sup> *Abrahan'en Jaungoikoa, Isaak'en Jaungoikoa, eta Jakob'en Jaungoikoa naz ni?* (\*) Ez da illen Jaungoikoa, biziena baiño». <sup>33</sup> Ori entzutean, laguntaldea Aren iakaspenez arrituta egoan.

#### Agindurik nagusiena

(Mk. 12, 28-31; Lk. 31, 25-28; Yn. 13, 34-35).

<sup>34</sup> Pariseuak, barriz, Jesus'ek zaduzeuak isillerazo egin ebazala jakitean, batu egin ziran; <sup>35</sup> eta aretariko batek, azpikeriz, Jesus'i auxe itandu eutsan: <sup>36</sup> «Irakasle, zein da Legeko agindurik nagusiena?». <sup>37</sup> Jesus'ek esan eutsan: «*Zure Jaungoiko Jauna biotz-biotzez, gogo-gogoz eta adimen osoaz izango dozu maite* (\*). <sup>38</sup> Auxe da agindurik nagusiena ta lenena. <sup>39</sup> Bigarrena, orren antzekoa da: *Zure lagun-urkora, zeure burua legetxe izango dozu maite* (\*). <sup>40</sup> Agindu bi oneitan batzen dira Lege guztia ta Igarleak» (\*).

#### Kristo, Dabid'en seme ta Jaun

(Mk. 12, 35-37; Lk. 20, 41-44).

<sup>41</sup> Pariseuak batuta egozala, gai au ekarri eutsen: <sup>42</sup> «Zer deritxazue Kristo'ri buruz? Noren semea da?».

«Dabid'ena», erantzuten dautsoe. <sup>43</sup> Jesus'ek dirautse: «Dabid'ek, Espiritu Santuak eraginda, zelan deritxo, ba, «Jauna», urrengo au diñoanean: <sup>44</sup> *Jaunak nire Jaunari auxe esan eutsan: Jesarri zaitex nire eskumaldean, zure are-rioak oinpean jarri dagitzudazan arte?* (\*). <sup>45</sup> Beraz, Dabid'ek «Jauna» ba'deritxo, zelan izan daiteke Dabid'en seme?». <sup>46</sup> Iñor ez zan gauza Ari berbarik erantzuteko; eta egun aretatik, ez eban izan iñok Ari itaun barririk egiteko arpegirik.

## XXIII

#### Idazlarien eta pariseuen azaluserria.

<sup>1</sup> Orduan, Jesus laguntaldeari ta ikasleai berba egiten asi yaken, <sup>2</sup> eta auxe esan eutsen: «Moises'en irakastokian idazlari ta pariseuak jesarri dira. <sup>3</sup> Egizue ta bete egizue, ba, esan dagitzuen guztia; baiña, ez egin eurak egiten dabenik: esan bai, eta egin ez, egiten dabe-ta. <sup>4</sup> Sorta astunak lotu ta laguntaldearen lepoetara jaurtiten dabez; eurak, barriz, atzamarraz be ez dautsee zirkiñik eragin nai. <sup>5</sup> Egiten daben guztia, gizonak ikusi dagiezan egiten dabe; narru-zerrenda zabal-zabalak eta soingaiñeko ertzak luze-luzeak daroex; <sup>6</sup> bazkarietan lenengo tokiak, eta sinagogetan lenengo jarlekuak gura dabez; <sup>7</sup> plazetan agurtu dagiezala, eta laguntaldeak «Rabi» (*edo Irakasle*) izena emon dagitsela.

<sup>8</sup> Zuek, ostera, ez artu «Rabi» izenik (*edo Irakasle-izenik*), bat bakarra da zuen Irakaslea-ta; zuek, barriz, anai zaree guztiok. <sup>9</sup> Deitu be, ez deitu lurtean iñori «zuen Aita», bat bakarra da zuen Aita-ta; zerukoa. <sup>10</sup> Zuzendarri-izenik be ez artu, bat bakarra da zuen zuzendaria-ta: Kristo. <sup>11</sup> Zuen artean nagusiena, zuen morroi izan daite-la. <sup>12</sup> Goratzen dana, beeratua izango da-ta; beeratzen dana, barriz, goratua izango da».

**Idazlari ta pariseo azalutsak** (Lk. 11, 39-48. 52).

<sup>13</sup> «Zuen zoritxarra, idazlari ta pariseo azalutsok!, zeruetao Erreiñua gizonai itxi egiten dautsazue-ta: zuek ez zaree sartzen, ez; eta sartu nai dabena, sartzen galerazo egiten dautsazue. <sup>14</sup> (Zuen zoritxarra, idazlari ta pariseu azalutsok!, otoitz luzeen atxakiaz, alargunen ondasunak iruntsiten dozuez-ta; orregaitik, epai zorrotzagoa artuko dozue) (\*). <sup>15</sup> Zuen zoritxarra, idazlari ta pariseo azalutsok!, jarraitzaille bat irabaztearren, itxaso ta legor zabize-ta; jarraitzaille ori irabazitakoan, barriz, zuek baiña birritan galdugarriago egiten dozue. <sup>16</sup> Zuen zoritxarra, bide-erakusle itsuok!, «Jaunaren Etxeagaitik egindako ziña, ezer ez da; baiña, Jaunaren Etxeko urregaitik egiten ba'dau zin, bete egin bear dau», diñozue-ta. <sup>17</sup> Zoro ta itsuok! Zer da geiago, urrea?, ala urrea santu egiten dauan Jaunaren Etxea? <sup>18</sup> «Altareagaitik egindako ziña, ezer ez da; baiña, altara-gaiñean dagoan opariagaitik egiten ba'dau zin, bete egin bear dau», diñozue gaiñera. <sup>19</sup> Itsuok! Zer da geiago, oparia? ala oparia santu egiten dauan altarea? <sup>20</sup> Beraz, altareagaitik zin egiten dauanak, altareagaitik eta altara-gaiñean dagoan guztiagaitik egiten dau zin. <sup>21</sup> Jaunaren Etxeagaitik zin egiten dauanak, Jaunaren Etxeagaitik eta bertan bizi dan Aregaitik egiten dau zin. <sup>22</sup> Eta zeruagaitik zin egiten dauanak, Jaungoikoaren aulkiagaitik eta bertan jesarrita dagoan Aregaitik egiten dau zin.

<sup>23</sup> Zuen zoritxarra, idazlari ta pariseo azalutsok!, aizpatan, aneta ta txarpoillar-bedarren\* amarrenak ordaindu bai, baiña Legean nagusi diran zuzentsuna, errukia ta sinismena alde batera izten dozuez-ta. Auxe da egiñez bete bear dana, beste a aztu bagarik, baiña. <sup>24</sup> Bide-erakusle itsuok!, edariak iraztean eltxoak artu ta gamelua iruntsiten dozuenok!

\* Aizpatan: hierbabuena. Aneta; anís. Txarpoillar-bedar: comino.

<sup>25</sup> Zuen zoritxarra, idazlari ta pariseo azalutsok!, edontzi ta azpillaren (*plateraren*) kanpokaldea ederto garbitzen dozue, bai; barrukaldetik, ostera, lapurkeriz eta lizunkeriz beteta zagoze. <sup>26</sup> Pariseo itsu orrek: garbitu egizu lenen edontziaren barruan dagoana, kanpokaldea be garbi gelditu daiten. <sup>27</sup> Zuen zoritxarra, idazlari ta pariseo azalutsok!, illobi zurituak dirudizue-ta: illobiok azaletik ederrak dirudie, bai; baiña, barrutik ildakoen azurrez eta edo-zetariko loikeriz beterik dagoz. <sup>28</sup> Orrelaxe zuok be: azaletik zuzen-itxuraz agertzen zaree gizonen aurrean; barrutik, barriz, itxura utsez eta gaiztakeriz beterik zagoze.

<sup>29</sup> Zuen zoritxarra, idazlari ta pariseo azalutsok!, igarleen illobiak egin eta zintzoen gomutarriak apaintzen dozuez-ta; <sup>30</sup> eta, «gure gurasoen aldiñ bizi izan ba'gintzaz, ez, gendukean guk igarleen odoletan arekaz eskuartuko», diñozue zuek. <sup>31</sup> Orrela, igarleak il ebezanen seme zareela autortzen dozue zeuon kontra. <sup>32</sup> Bete egizue, ba, zuen gurasoen negurria!

**Zigorra laster.** (Lk. 11, 49-51).

<sup>33</sup> «Sugeok, larra-sugekumok! Zelan egingo dautsazue iges su-lezako (*inpernuko*) epaiari? <sup>34</sup> Orregaitik, begira: igarleak, jakintsuak eta idazlariak bialduko dautsuedaz (\*): eta batzuk il eta gurutzean josiko dozuez, eta beste batzuk zuen sinagogetan zigorkadaz astindu ta uririk-uri aurrean erabiliko dozuez. <sup>35</sup> lur-gaiñean isuritako zintzoen odol guztia, Abel zintzoaren odoletik asita Jaunaren Etxetik altarara bitartean il zendenen Barakias'en seme zan Zakarias'en odolerañoko guztia, zeuon gaiñera jausi daiten. <sup>36</sup> Ba-dirautsuet; guzti au, gizaldi onexen gaiñera jausiko da.

**Jerusalen'en ondamedia** (Lk. 13, 34-35).

<sup>37</sup> «Jerusalen, Jerusalem, igarleak il eta zugana bialdu-takoai arrika egiten dautsezun ori! Amaikatxo bidar batu



nai izan dodaz, ba, zure semeak, oilloak bere txitak ega-pean batzen dauzanez; eta zuek ez dozue nai izan:  
<sup>35</sup> Orra, ba: etxea utsik geldituko yatzue. <sup>39</sup> Benetan dirautsuet: ez nozue barrero ikusiko, «Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena» (\*) esan dagizuen arte».

## XXIV

(Mk. 13, 1-4; Lk. 21, 5-7).

<sup>1</sup> Jesus, Jaunaren Etxetik urten eta ba-yoian; eta bere ikasleak urreratu yakozan, Jaunaren Etxeko argintza erakustera. <sup>2</sup> Baiña, Jesus'ek auxe erantzun eutsen: «Ikus-ta dozue guzti ori? Benetan dirautsuet: ez da or arri bat bestearen gainean geldituko lur jo bagarik». <sup>3</sup> Gero, Ori-mendi'n jesarrita egoala, bere ikasleak bakarrean urreratu ta esan eutsoen: «Esan egiguzu ori noiz jazoko dan, eta zure etorreraren eta munduaren amaieraren ezaugarria».

**Miñen asiera** (Mk. 13, 5-13; Lk. 21, 8-19).

<sup>4</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsen: «Begira, gero!: ez zagezala iñok azpikeriz eroan. <sup>5</sup> Etorri be asko etorriko dira nire izena artu ta, «Neu naz Kristo'a» esanez, eta askoak eroango dabez okerbidera. <sup>6</sup> Guda (*gerra*) ta guda-otsai buruz berba egiten entzungo dozue. Begira, ez ikaratu!, ori jazobearra da-ta; baiña, oraindiño ez da azkena. <sup>7</sup> Izan be, erri bat beste erri baten kontra ta erreñu bat beste erreñu baten kontra jagiko da, eta (\*) goseteak eta lurrikarak izango dira or-emenka. <sup>8</sup> Guzti ori, barriz, miñen asiera baiño ez da.

<sup>9</sup> Orduan, oiñazetara eroango zaitue, eta il, eta nire ize-nagaitik erri guztien gorrotagarri izango zaree. <sup>10</sup> Orduan, askok okerbidera joko dabe, alkar salatu ta alkarri gorroto izango dautsoe. <sup>11</sup> Sasi-igarle asko agertuko dira, eta

lagun asko okerbidera eroango dabez. <sup>12</sup> Eta gaiztakeria geroago ta geiago ugaritzean, geienen maitasuna otzitu egingo da. <sup>13</sup> Baiña, azkeneraiño iraun dagiana, orixe ur-tengo da onik. <sup>14</sup> Erreiñuko Barri Ona lurbira zabalean iragarriko da, erri guztien agiritzat. Eta orduantxe etorriko da azkena.

**Jerusalem'go larrialdia** (Mk. 13, 14-23; Lk. 21, 20-24).

<sup>15</sup> «Beraz, Daniel igarleak aitaturiko *ondamendi iguin-garria* Toki Santuan ikusi dagizuean – irakurleak ulertu dagiala –, <sup>16</sup> orduan, Judea'n egon daitezanak mendietara iges egin dagiela; <sup>17</sup> etxe-gaiñean egon daitena, ez daitela bere etxeko gauzak batzera jatsi; <sup>18</sup> soloan egon daitena, ez daitela bere soingaiñekoaren billa biurtu. <sup>19</sup> Egun areitan seiña egiteko ta umea azten dagozanen zoritxarra! <sup>20</sup> Otoitz egizue zuen igesa neguz ez zapatuz izan ez daiten. <sup>21</sup> Izan be, *larrialdi aundia be aundia izango da; a lakorik ez da izan lurra lur danetik gaur arte*, ezta barrero izango be. <sup>22</sup> Eta egun areik laburtuko ez ba'litzaz, ez litzakean iñor onik urtengo; baiña, aukeratuak diralata, egun areik laburtu egingo dira.

<sup>23</sup> Orduan norbaitek ba'dirautsue: «Begira, ortxe dago Kristo'a, edo antxe», ez sinistu: <sup>24</sup> sasi-kristoak eta sasi-igarleak agertuko dira, eta ezaugarri ta mirari aundiak egingo dabez, eta, al ba'litz, aukeratuak eurak be okertze-raiñoakoak egin be. <sup>25</sup> Aurretiaz iragarri dautsuet, gero!

**Kristo'ren bigarren etorrera** (Lk. 17, 23-24. 37).

<sup>26</sup> «Beraz, «basamortuan dago», esaten ba'yatzue, ez urten; «etxe-barruan dago», ez sinistu. <sup>27</sup> Oiñaztua eguzki-sortzaldetik urten eta sartzalderaiño agertzen danez, Gizasemearen etorrera be alantxe izango da-ta (\*). <sup>28</sup> Gorpua dagoan tokian, antxe batuko dira saiak.

**Etorreraren ezaugarriak** (Mk. 13, 24-27; Lk. 21, 25-27).

<sup>29</sup> «Egun areitako larrialdia igarota bereala, eguzkia illundu egingo da, illargiak ez dau argirik egingo, izarrak zerutik jausi egingo dira, eta zeruko indarrak astinduak izango dira (\*).<sup>30</sup> Orduan, Gizasemearen ezaugarria agertuko da zeruan (\*); eta orduan, lurreko erri guztiak negai egingo dabe, eta Gizasemea ikusiko dabe zeruko lainoetan indar eta aintzaz beterik etorten.<sup>31</sup> Eta bere aingeruak bialduko dauz turuta-otsez, eta oneik Aren aukeratuak batuko dabez lau aize-baztarretatik, zeru-muga batetik asi ta besteraíño.

(Mk. 13, 28-32; Lk. 21, 29-33).

<sup>32</sup> Ikasi egizue piko-arbolatik ipuin au: adarrak ziltzen yakozanean eta orriak urteten diranean, ezagutzen dozue ud(e)a ur dagoana.<sup>33</sup> Orrelaxe, ba, zuok be: guzti ori jazoten dala ikusi dagizuenean, konturatu zaitzeze Gizasemea ateaurrean ur dagoana.<sup>34</sup> Benetan dirautsuet: ez da gizaldi au igaroko, guzti ori jazo baiño len.<sup>35</sup> Zerua ta lurrea igaro egingo dira; nire herbak, ostera, ez dira igaroko.<sup>36</sup> Baiña, egun eta ordu aretzaz iñok ezer ez daki, ez zeruko aingeruak, ezta Semeak be, Aitak bakarrik baiño (\*).

**Iratzarrik egon** (Lk. 17, 26-27. 34-35; Lk. 12, 39-40).

<sup>37</sup> Noe'ren egunetan jazo zanez jazoko da Gizasemearen etorreran be.<sup>38</sup> Izan be, uriol-aurreko egunetan, guztiak jan-edanetan eta emaztea edo senarra artzen ziarduen, Noe kutxan sartu zan egunerarte;<sup>39</sup> eta uriola etorri ta guztiak eroan ebazan arte, ez ziran konturatu: orrelaxe izango da Gizasemearen etorrera be.<sup>40</sup> Orduan, soloan lagun bi egongo dira: bata artu ta bestea itxia izango da;<sup>41</sup> emakume bi errotan eioten jardungo dabe: bata artu ta bestea itxia izango da.<sup>42</sup> Iratzarrik egon, ba, ez dakizue Jauna zein egunetan datorren-eta.<sup>43</sup> Aditu ondo: etxeko jaunak lapurra zein gau-alditan etorriko litzakean ba'leki.

iratzarrik egongo litzake, eta ez leuke bere etxea zultzen itxiko.<sup>44</sup> Egon, ba, zuok be gertu: gutxien uste dagizuen orduan etorriko da Gizasemea-ta.

**Kontuartzaillearen ipuiña** (Lk. 12, 42-46).

<sup>45</sup> «Nor da, ba, ugazabak bere morroi-neskameen buru jarri eban morroi zintzo ta zuurra, aldi egokian arei jatekoa emoteko? <sup>46</sup> Zorionsua benetan, ugazabak, etorri daitenean, orrela egiten aurkitu dagian morroia! <sup>47</sup> Benetan dirautsuet: bere ondasun guztien nagusi jarriko dau.<sup>48</sup> Baiña, alako morroi gaiztoak berekautan ba'diño: «Nire ugazaba berandu dator», <sup>49</sup> eta bere lagunak joten eta moskorrakaz jan-edaten asten ba'da, <sup>50</sup> uste ez dauan egunean eta ez dakian orduan morroi aren ugazaba etorriko da, <sup>51</sup> morroia jo ta azalutsai zor yaken zoria emongo dau-tso; an izango da negarra ta agin-karraskada!

## XXV

**Amar nesken ipuiña.**

<sup>1</sup> «Orduan, zeruetako Erreiñua, amar nesken antzekoa izango da: argi-ontzi bana eskuetan artuta, senargeiaren billa urten ziran.<sup>2</sup> Areitariko bost buruariñak ziran, eta beste bost zuurrak.<sup>3</sup> Buruariñak, euren argi-ontziak artzean, ez eben oriorik artu; zuurrak, ostera, euren argi-ontziakaz batera, orioa be artu egin eben euren ontzietan.<sup>5</sup> Senargeiak etortea luzatu egiten ebala-ta, guztiak lo-zorian eta lotan gelditu ziran.<sup>6</sup> Baiña, gaberdian deadar au entzun zan: «Ba-dator senar-geia! Urten zakioze bidera!». <sup>7</sup> Orduan, neska guzti areik jagi ta argi-ontziak atondu ebezan.<sup>8</sup> Eta buruariñak zuurrai auxe esaten eutseen: «Emon egiguzue zuen oriotik, gure argi-ontziok itxungi (*atzamatu*) egiten dira-ta». <sup>9</sup> Baiña, zuurrak auxe erantzun eutseen: «Ez, orixe!, onenean guretzat eta zuentzat ez da naiko izango-ta; obe da saltzailleakana joan eta erosi dagizuen».



<sup>10</sup>Oroia erostera joan ziran bitartean, senargeia etorri zan: eta gertu egozanak, aregaz ezteguna sartu ziran eta atea itxi egin zan. <sup>11</sup>Geroago, beste neskak etorri ziran, esanez: «Jauna, Jauna, zabaldu eiguzu atea!». <sup>12</sup>Baiña, arek erantzun eban: «Benetan dirautsuet: ez zaituet ezagutzen». <sup>13</sup>Iratzarrik egon, ba, eguna ta ordua ez-ezagunak dozuez-ta.

### Talentuen ipuiña.

<sup>14</sup>«Alako gizon baten antzekoa be ba-da (*zeruetako Erreiñua*): urrun joaterakoa, bere morroi dei egiñik, bere ondasunak bere morroien zainpean itxi ebazan; <sup>15</sup>bati bost talentu itxi eutsazan (\*), beste bati bi, eta beste bati bat bakarrik, bakotxari bere trebetasunari egokioenez; gero, joan egin zan. <sup>16</sup>Bereala, bost talentu artu ebazanak, irabazitan jarririk, beste bost irabazi ebazan. <sup>17</sup>Bi jaso ebazanak be, beste bi irabazi ebazan. <sup>18</sup>Talentu bat jaso ebanak, barriz, joan eta lurrean zulo bat egiñik, bere jaunaren dirua gorde egin eban.

<sup>19</sup>Andik luzarora, morroi arein jauna etorri ta kontuak garbitzen asten yake. <sup>20</sup>Bost talentu jaso ebazanak, jaunagana etorri ta beste bost talentu ekarri eutsazan, esanez: «Jauna, bost talentu itxi zeustazan: ona emen neuk irabazitako beste bost». <sup>21</sup>Aren jaunak auxe esan eutsan: «Ori, ori, morroi on eta zintzo!; gutxian zintzo izan zaran ezker, askoren buru jarriko zaitut; sartu zaitetz zure jaunaren pozetan». <sup>22</sup>Talentu bi artu ebazanak be, urreratu ta esan eutsan: «Jauna, talentu bi itxi zeustazan: ona emen neuk irabazitako beste bi». <sup>23</sup>Aren jaunak auxe esan eutsan: «Ori, ori, morroi on eta zintzo!; gutxian zintzo izan zaran ezker, askoren buru jarriko zaitut; sartu zaitetz zure jaunaren pozetan». <sup>24</sup>Azkenez, talentu bat artu ebanak be, urreratu ta esan eutsan: Jauna, ba-dakit gizon zorrotza zarana, erein ez dozun tokian be artu ta zabaldu ez dozun tokian be batu egiten dozuna. <sup>25</sup>Orre-

gaitik, bildurrak artu nenduan, eta joan eta zure talentua lurpean gorde neban. Begira: emen dozu zeurea dana». <sup>25</sup>Baiña, aren jaunak auxe erantzun eutsan: «Morroi gaizto ta nagı ori! Ba-zekian erein ez dodan tokian be artu ta zabaltzen ez dodan tokian be batu egiten dodana. <sup>27</sup>Beraz, nire dirua diru-gizonen eskuetan jarri bear zenduan: ni barrıro etortean, nirea bere irabaziaz jaso nengian. <sup>28</sup>Kendu egiozue, ba, talentu ori, eta emon amar talentuak daukazan orri. <sup>29</sup>Izan be, ba-daukanari, emon egingo yako, eta gafiñezka izango dau; ez daukanari, oster, la-daukana be kendu egingo yako. <sup>30</sup>Eta ezetako be ez dan morroi ori, jaurti egizue kanpoko illunetara. An izango da negarra ta agin-karraskada!».

### Azken-epai.

<sup>31</sup>«Gizasemea, bere aingeru guztiak lagun dauzala, bere goraldean etorri daitenean, bere aintzako aulkian jarriko da. <sup>32</sup>Bere aurrean izango dira batuak erri guztiak, eta alkarregandik banandu egingo dauz, artzaiñak akerrakandik ardiak banantzen dauzanez. <sup>33</sup>Ardiak bere eskumaldean jarriko dauz, eta akerrak bere ezkerrekaldean. <sup>34</sup>Orduan, Erregeak bere eskumaldekoai auxe esango dautse: «Etorri zaitetze, nire Aitaren bedeinkatuok!: artu egizue munduaren asierarik zuentzat atondutako Erreiñua. <sup>35</sup>Gose izan nintzan, eta jaten emon zeusten-eta; egarri izan nintzan, eta edaten emon zeusten; arrotz nintzan, eta etxean artu nenduzuen; <sup>36</sup>billoizik nengoan, eta jantzi egin nenduzuen; geisorik, eta ikustaldia egin zeusten; giltzapean, eta ikustera etorri zintzakidazen». <sup>37</sup>Orduan, zintzoak auxe erantzungo dautsoe: «Jauna, noiz ikusi zenduguzan, ba, goserik, eta jaten emon?, edo egarri, eta edaten emon? <sup>38</sup>Noiz ikusi zenduguzan, ba, arrotz, eta etxean artu?, edo billoizik, eta jantzi? <sup>39</sup>Noiz ikusi zenduguzan geisorik edo giltzapean, eta ikustera joan gintzakizun?». <sup>40</sup>Eta Erregeak esango dautse: «Benetan dirau-

tsuet: nire anai oneitariko txikiren bati egin zeutsena, neuri egin zeusten».

<sup>41</sup> Orduan, bere ezkerrekaldekoai be auxe esango dautse: «Alde nigandik, madarikatuok!, deabruarentzat eta aren aingeruentzat gertuta dagoan betiko sutara. <sup>42</sup> Gose izan nintzan, eta ez zeusten jaten emon-eta; egarri nintzan, eta ez zeusten edaten emon; <sup>43</sup> arrotz nintzan, eta ez nenduzuen etxean artu; billoizik nengoan, eta ez nenduzuen jantzi; geisorik eta giltzapean, eta ez zeusten ikus-taldirik egin». <sup>44</sup> Orduan, ezkerraldekoak be auxe esango dabe: «Jauna, noiz ikusi zenduguzan, ba, goserik, edo egarri, edo arrotz, edo billoizik, edo geisorik, edo giltzapean, eta ez gintzakizun laguntzera joan?». <sup>45</sup> Eta arek auxe erantzungo dautse: «Benetan dirautsuet: oneitariko txikiren bati egin ez zeutsena, neuri be ez zeusten egin». <sup>45</sup> Eta oneik betiko oiñazetara joango dira; zintzoak, barriz, betiko bizitzara».

## XXVI

**Batzar nagusiaren erabagia** (Mk. 14, 1-2; Lk. 22, 1-2).

<sup>1</sup> Jesus'ek itzaldiok amaitu ebazanean, bere ikasleai auxe esan eutsen: <sup>2</sup> «Ba-dakizue egun bi barru Pazkoa dana; eta Gizasemea gurutzean josteko salduko dabe». <sup>3</sup> Orduan, abadeburu ta erriko zaarrak Kaifas eritxon Abade Nagusiaren jauregian batu ziran; <sup>4</sup> eta Jesus'i azpikeriz eskuak ezarteko ta eriotza emoteko erabagia artu eben. <sup>5</sup> «Jaiegunean ez, baiña», iñoen, «errian matxinadaren bat sortu ez daiten».

**Mari'k Jesus'i usaingarria isuri**  
(Mk. 14, 3-9; Yn. 12, 1-8).

<sup>6</sup> Jesus Betania'n egoala, Simon legenardunaren etxean, emakume bat urreratu yakon, artzuri-ontzi\* baten usain-

\* Artzuri-ontzi: frasco de alabastro.

garri oso baliotsua beragaz ekarrela (\*); eta Jesus maian egoala, burura isuri eutsan. <sup>8</sup> Ori ikustean, ikasleak asarriatu ta esan eben: «Zegaitik bonbonkeri au? <sup>9</sup> Ederto saldu zeitekean, gero beartsuai emoteko». <sup>10</sup> Baiña Jesus'ek, orretzaz konturaturik, auxe esan eutsen: «Zegaitik mintzen dozue emakume au? Egin be egitada ona egin dautzaz. <sup>11</sup> Beartsuak beti daukazue zuekaz-ta (\*); ni, barriz, ez naukazue beti. <sup>12</sup> Eta onek usaingarri au neure gorputz-gaiñera isurtean, neure obiratzeari buruz egin dau. <sup>13</sup> Benetan dirautsuet: mundu zabalean, Barri On au iragarri daiten edozein tokitan, emakume onek egin dauana be esan egingo da, beronen gomutagarritzat».

**Judas'en saldukeria** (Mk. 14, 10-11; Lk. 22, 3-6).

<sup>14</sup> Orduan, Amabietariko bat, Judas Iskariote izenekoa, abadeburuakana joan zan, <sup>15</sup> eta auxe esan eutsen: «Zer emon nai daustazue, eta neuk itxiko dautsuet zuen eskuetan?». Areik ogetamar zidarrezko diru eskiñi eutsoezan. <sup>16</sup> Eta arrezkero, Jesus arei saltzeko aukera billa ebillen Judas.

**Pazko-aparia atontzen** (Mk. 14, 12-16; Lk. 22, 7-13).

<sup>17</sup> Otilletako lenengo egunean, ikasleak Jesus'egana urreratu ta esan eutsoen: «Nun nai dozu Pazko-bildotsa atondu dagitzugun?». <sup>18</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsen: «Zoaze urira, urliaren etxera, eta esan egiozue: «Irakasleak diño: Nire aldia ur dago; zeure etxean ospatuko dot Pazkoa nire ikasleakaz». <sup>19</sup> Ikasleak Jesus'ek esan eutsena egin eben, baita Pazkoa atondu be.

**Pazko-aparia**

(Mk. 14, 17-21; Lk. 22, 14, 21-23; Yn. 13, 21-30.)

<sup>20</sup> Illuntzean, Amabiakaz maian jarri zan. <sup>21</sup> Eta jaten ziarduela, auxe esan eban: «Benetan dirautsuet: zue-tariko batek saldu egingo nau». <sup>22</sup> Areik, samíñez beterik, «Neu ete-naz, ba, Jauna?», esaten asi yakozen. <sup>23</sup> Je-



sus'ek auxe erantzun eban: «Nigaz batera azpillan (*platercan*) eskua sartu dauanak, orrexek salduko nau (\*).<sup>24</sup> Ba-doa Gizasemea, beronetzaz idatzita dagoanez; baiña, Gizasemea saltzen dauan gizonaren errukarria! Obe leu-ke gizon orrek jaio ez ba'litzi!». <sup>25</sup> Orduan, Jesus salduko ebanak, Judas'ek, auxe itandu eban: «Neu ete-naz, ba, Irakasle?». Jesus'ek dirautso: «Zeuk esan dozu» (\*).

**Eukaristia** (Mk. 14, 22-25; Lk. 22, 19-20).

<sup>26</sup> Jaten ziarduela, Jesus'ek ogia artu eban, eta, bedein-katuta, zatitu egin eban, eta bere ikasleai emonik, auxe esan eban: «Artu, jan egizue, au neure gorputza da». <sup>27</sup> Gero, edontzia (*kaliza*) artu eban, eta eskerrak emonda, emon egin eutsen, esanez: «Edan egizue onetatik guztiok, <sup>28</sup> au Alkartasuneko neure odolada, pekatuen parkamenerako askoren alde isuria izango dana. <sup>29</sup> Eta auxe dirautsuet: onezkero ez dot geiago mats-ardao onetatik edango, nire Aitaren Erreñuan ardao barria zeukaz edan dagidan egunerarte».

**Pedro'ren ukatzeak aurretiaz iragarten dauz**  
(Mk. 14, 26-31; Lk. 22, 39. 31-34; Yn. 13, 36-38. 16, 32).

<sup>30</sup> Eta, ereserkiak esanda, Oriomendi'rantz urten ziran. <sup>31</sup> Orduan, Jesus'ek auxe dirautse: «Gau onetan guztiok gaizpidegarri izango nozue, idatzita dago-ta: *Artzaiña zau-rituko dot, eta artaldeko ardiak sakabanatu egingo dira* (\*). <sup>32</sup> Baiña, barriro biztu naitenean, zeuon aurretik joango naz Galilea'ra». <sup>33</sup> Orduan, Pedro'k erantzun eta esan eutsan: «Zutzaz guztiok lotsatu ba'daitez be, ni ez naz egundo lotsatuko». <sup>34</sup> Jesus'ek auxe esan eutsan: «Bebetan dirautsut: gaur gabeon, oillarrak birritan kukurru-ku egin baiño len, zuk iru bidar ukatuko nozu». <sup>35</sup> Pedro'k dirautso: «Ezta zeugaz il bear izanda be ez zaitut nik zu ukatuko!». Eta orixe berori esan eben beste ikas-leak be.

**Jesus'en larrialdia Jesemani'n**  
(Mk. 14, 32-42; Lk. 22, 40-46; Yn. 18, 1).

<sup>36</sup> Orduan, Jesus bere ikasleakaz Jesemani izenekoa etxalde batera doa, eta bere ikasleai ba-dirautse: «Jesarri zuek emen, ni ara otoitz egitera noan bitartean». <sup>37</sup> Eta Pedro ta Zebedeo'ren seme biak beragaz arturik, mintzen eta larritzen asi zan (\*). <sup>38</sup> Orduan, auxe dirautse: «Larri dot biotza ilteko zorian; gelditu emen eta iratzarrik egon nigaz». <sup>39</sup> Eta zerbait aurreratxoago joanda, auzpaztu egin zan, eta olantxe egiten eban otoitz: «Ene Aita!, al ba'da, urrundu dakidala edontzi (*kaliz*) au; baiña, ez bedi izan nik nai dodanez, zeuk nai dagizuez baiño». <sup>40</sup> Orduan, bere ikasleakana etorri ta lotan aurkitzen dauz; eta Pedro'ri dirautso: «Zer?, ordube te ezin egon izan zaree nigaz iratzarrik? <sup>41</sup> Egon zaitzeze iratzarrik eta egizue otoitz, zirikaldian jausi ez zaitezen; gogoia gertu dago, bai; baiña, aragia makala da».

<sup>42</sup> Eta barriro alde egifnik, olantxe egin eban otoitz bigarren aldiz: «Ene Aita!, au nik edan bagarik ezin igaro ba'da, egin bedi zure naia». <sup>43</sup> Barriro etorri ta lotan aurkitu ebazan, arein begiak loguraz egozan eta. <sup>44</sup> Areik itxi ta irugarren aldiz otoitz egitera joan zan, barriro lengo berba berberak esanez. <sup>45</sup> Orduan, bere ikasleakana etorri ta auxe dirautse: «Onezkero, bai, lo egin eta atsedan artu egizue! Entzun; eldu da ordua, eta Gizasemea pekatarien eskuetan itxia izango da. <sup>46</sup> Jagi zaitzeze, goazan! Emen dago ni saltzen nauana».

**Jesus lotuta daroe**  
(Mk. 14, 43-52; Lk. 22, 47-53; Yn. 18, 2-11).

<sup>47</sup> Jesus'ek berbetan ziarduala, Judas, Amabietariko bat, eldu zan, gizatalde aundia lagun ebala, ezpata ta makillaz, abadeburu ta erriko zaarren izenean. <sup>48</sup> Saldu bear ebanak ezaugarri au emon eutsen: «Nik laztandu dagidana, axe da; lotu egizue». <sup>49</sup> Eta bereala Jesus'egana urre-

ratu ta esan eutsan: «Agur, Rabi (*Irakasle!*)». Eta laztan bat emon eutsan. <sup>50</sup> Jesus'ek auxe esan eutsan: «Adiskide, zetara etorri zara?». Orduan, areik aurreratuta, Jesus'i eskuak ezarri ta lotu egin eben.

<sup>51</sup> Onetan, Jesus'egaz egoan batek eskua luzatu, ezpata atara, eta, abadeburuaren morroiari zartada bat emonik, belarria moztu eutsan. <sup>52</sup> Orduan, Jesus'ek dirautso: «Sartu ezpata ori bere tokian: ezpat(e)a darabillen guztiak, ezpataz ilgo dira-ta. <sup>53</sup> Zer uste dozu, ba? Nire Aitari ezin eskatu daikeodala, ala? Berealaxe bialduko leuskidaz amabi; aingeru-talde baiño geiago. <sup>54</sup> Zelan bete, bestela, au olantxe jazo-bearra dala diñoan Liburu Santuetakoa?». <sup>55</sup> Orduan, Jesus'ek laguntaldeari auxe esan eutsan: «Lapur-billa lez urten zaree ezpataz eta makillaz niri eltzera. Egunero jesarten nintzan (\*) Jaunaren Etxean irakasten. eta ez zeusten oratu. <sup>56</sup> Baiña guzti au, igarleak idatzitakoa bete daiten jazo da». Orduan, ikasle guztiak Jesus itxi ta iges egin eben.

#### Jesus, Kaifas'en aurrean

:Mk. 14, 53-65; Lk. 22, 54-55; Yn. 18, 24. 15-16. 18).

<sup>57</sup> Jesus lotu ebenak, Kaifas Abade Nagusiaren aurrea eroan eben, idazlari ta pariseuak batuta egozan lekura (\*). <sup>58</sup> Pedro'k urrundik jarraitzen eutsan, Abade Nagusiaren jauregiraiño; eta barrura sarturik, morroiakaz jesarri zan, azkena ikusteko. <sup>59</sup> Abadeburuak eta Batzar guztiak Jesus'en kontra guzurrezko ziñaltza-billa ziarduen, ari eriotza emoteko asmotan; <sup>60</sup> baiña, guzurrezko autorle (*testigu*) asko etorriarren, ez eben ezer aurkitzen. Azkenez, *guzurrezko autorle* bi etorri ziran, <sup>61</sup> eta auxe esan eben: «Onek auxe esan eban: Jaunaren Etxea lurrera eratsi daiket nik, eta iru egunean barrero jaso». <sup>62</sup> Orduan, Abade Nagusiak, zutunduta, auxe esan eutsan: «Ez dozu ezer erantzuten? Zer da orreik zure kontra diñoen ori?». <sup>63</sup> Baiña Jesus isilik egoan. Orduan, Abade Nagu-

siak auxe esan eutsan: «Jaungoiko biziaren izenean agintzen dautsut: Esan egiguzu Kristo Jaungoikoaren semea zar(e)an». <sup>64</sup> Jesus'ek dirautso: «Zeuk esan dozu. Eta auxe be ba-dirautsut: aurrerantzean *Gizasemea Altasunaren\** eskumaldean jesarrita ta zeruko laiño-gaiñean etorten ikusiko dozue». <sup>65</sup> Orduan, Abade Nagusiak bere jantziak urratu ta auxe esan eban: «Bira egin dau! Zertarako testigurik onezkero? Oraintxe entzun dozue bira. <sup>66</sup> Zer deritxazue?». Areik erantzun eta esan eben: «Eriotzarako errudun da». <sup>67</sup> Orduan, arpegira txistua jaurtiten eta josten asi yakozan; eta beste batzuk matraillakoak emoten, <sup>68</sup> esanez: «Igarri egiguzu, Kristo: nok jo zaitu?».

#### Pedro'ren ukatzeak

(Mk. 14, 66-72; Lk. 22, 56-62; Yn. 18, 17. 25-27).

<sup>69</sup> Bitartean, Pedro kanpoan egoan, atartean jesarrita; eta neskame batek, aregana urreratuta, auxe esan eutsan: «Zeu be ba-zengozan, ba, Jesus Galileatarragaz». <sup>70</sup> Baiña Pedro'k ukatu egin eban guztien aurrean, esanez: «Ez daikit zer diñozun». <sup>71</sup> Eta ataurera yoiala, beste neskame batek ikusi eban, eta an egozanai auxe esan eutsan: «Ori be Jesus Nazaretarragaz egoan». <sup>72</sup> Eta barrero be Pedro'k zin eginada ukatu eban: «Nik ez dot gizon ori ezagutzen». <sup>73</sup> Gerotxoago, an egozanak urreratu ta Pedro'ri auxe esan eutsan: «Bai, zu be areitarikoa zara, zeure izkerak (\*) berak be salatu egiten zaitu-ta!». <sup>74</sup> Orduan, biraoka ta zin egiten asi zan: «Ez dodala gizon ori ezagutzen, ba!». Bereala, oillar batek kukurruku egin eban. <sup>75</sup> Eta Pedro'k, Jesus'ek esan eutsan au ekarri eban gogora: «Oillarrak kukurruku egin baiño len, zuk iru bidar ukatuko nozu». Eta, kanpora urtenda, negar baten asi zan.

\* Altasunaren: Jaungoikoaren.



## XXVII

**Jesus, Pilato'ren aurrean** (Mk. 15, 1; Lk. 22, 66; 23,1).

<sup>1</sup> Goizean-goiz, abadeburu guztiak eta erriko zaarrak batzarra egin eben Jesus'en kontra, Jesus eriotzara eroa- teko. <sup>2</sup> Eta lotuta gero, Pilato (\*) lendakariagana eroan eta berari emon eutsoen (\*).

**Judas'en eriotza.**

<sup>3</sup> Orduan, Judas'ek, Jesus saldu ebanak, Jesus eriotza- ra galdua izan zala ikusirik, damututa, ogetamar zidarrez- ko diruak abadeburu ta zaarrai biurtu egin eutsezan, <sup>4</sup> esa- nez: «Pekatu egin dot, zintzo baten odola salduaz». Areik auxe esan eben: «Guri, zer? Zeuk ikusiko dozu». <sup>5</sup> Or- duan, zidarrezko diruak Jaunaren Etxean jaurti, alde egin, joan eta bere burua urkatu egin eban. <sup>6</sup> Abadeburuak di- ruak batu ta auxe esan eben: «Ez da bidezko diruok di- ru-atabakan sartzea, odol-sari dira-ta» (\*). <sup>7</sup> Eta gaia az- tertuta gero, diru arein bidez Buztinlariaren zelai bat ero- si eben, arrotzen illobi-tokitzat. <sup>8</sup> Orregaitik, zelai orri «Odol-zelai» deritxoe gaur arte (\*). <sup>9</sup> Orduantxe bete zan Jeremias igarleak aurretiaz esandako au: *Eta ogetamar zi- darrezko diruak artu ebezan, salduaren salneurria, Is- rael'go seme batzuek ontzat emondako negurria; <sup>10</sup> eta Buz- tinlariaren zelai-saritzat emon ebezan, Jaunak agindu eus- tanez.*

**Jesus, Pilato'ren aurrean**

(Mk. 15, 2-15; Lk. 23, 2-5; Yn. 18, 28-40; 19, 4-16).

<sup>11</sup> Jesus lendakariaren aurrean aurkeztu zan, eta len- dakariak itaun au egin eutsan: «Judarren Erregea zara zu?». «Zeuk diñozu», erantzun eban Jesus'ek. <sup>12</sup> Gero, abadeburu ta zaarrak salatzen eben artean, ez eban ezer erantzun. <sup>13</sup> Orduan, Pilato'k dirautso: «Ez dozu entzu- ten zenbat autor dakarrezan zure kontra?». <sup>14</sup> Baiña Je-

sus'ek ez eutsan ezeri erantzun, lendakaria guztiz arrituta gelditzeraiño.

<sup>15</sup> Jai-egun bakotxean, lendakariak giltzapeko bat as- katu oi eban, eurak nai egiena. <sup>16</sup> Ba-eukan orduan Barra- bas izeneko giltzapeko entzutetsu bat. <sup>17</sup> Beraz, an batu ziranai Pilato'k auxe esan eutsen: «Nor nai dozue aska- tu dagitzuedan?, Barrabas, ala Jesus, Kristo deritxoena?».

<sup>18</sup> Ba-ekian ikusi-eziñagatik saldu ebena-ta.

<sup>19</sup> Pilatos auzi-jarlekuan jesarrita egoan artean, dei au bialdu eutsan bere emazteak: «Ez naastu zintzo orren go- ra-beretan: gaur amesetan, berori dala-ta, gorriak ikusi d'odaz-ta» (\*).

<sup>20</sup> Bitartean, abadeburu ta zaarrak laguntaldea aizatu (*axatu*) egin eben, Barrabas'en askatasuna ta Jesus'en eriotza eskatu egien. <sup>21</sup> Eta lendakariak, «Biotarik, nor nai dozue askatu dagitzuedan?», esan eutsenean, «Barrabas!», erantzun eben. <sup>22</sup> Pilato'k dirautse: «Zer egingo dautsat, ba, Kristo deritxoen Jesus oni?». Eta guztiak batera: «Guru- tzera ori!». <sup>23</sup> «Ze gaiztakeri egin dau, ba?», itandu eban Pilato'k. Baiña areik, geroago ta gogorrago deadarka ziar- duen: «Gurutzeria ori!». <sup>24</sup> Orduan Pilato'k, ezer aurrera- tu bearrean, geroago ta naaste aundiagoa sortzen zala iku- sirik, ura artu ta laguntaldearen aurrean eskuak garbitu ebazan, esanez: «Nik ez dot errurik zintzo onen odolaz. Zeuok ikusiko dozue». <sup>25</sup> Eta erri guztiak auxe erantzun eban: «Geure gaiñera ta geure semeen gaiñera orren odo- la!». <sup>26</sup> Orduan, Barrabas askatu egin eutsen; eta Jesus, zigorkadaz astindu ondoren, eurai emon eutsen, gurutzean josia izan zedin.

**Aranizazko koroia** (Mk. 15, 16-20; Yn. 19, 1-3).

<sup>27</sup> Orduan, lendakariaren gudariak Jesus gudaletxe-ba- rrura eroan eben, eta gudari-talde guztia batu eben Je- sus'en inguruan. <sup>28</sup> Jesus erantzi ta purpurazko soñeko bat jantzi eutsoen; <sup>29</sup> eta, arantzazko koroia bat eginda, buruan

ezarri eutsoen, eta kaiñabera bat eskuan. Gero, aren aurrean belaunikotu ta iraindu egiten eben, esanez: «Agur, judarren errege orri!»; <sup>30</sup> eta txistua jaurtiten eutsoen, eta kaiñabera artu ta buruan jotzen eben. <sup>31</sup> Eta, Aren lepoteik naikoa barre eginda gero, soingaiñekoa kendu, bere soiñekoak jantzi ta gurutzean josteko eroan eben.

#### Jesus gurutzean

(Mk. 15, 21-27; Lk. 23, 26-34. 38; Yn. 19, 17-24).

<sup>32</sup> Urtetean, Simon eritxon Zirene'ko gizon bat aurkitu eben, eta Jesus'en gurutzea eroateko beartu eben. <sup>32</sup> Golgota edo «Buru-azurtegi» deritxon tokira elduta, <sup>33</sup> beaztunez naastutako ardaoa emon eutsoen edateko; baiña, miazkatuta gero, ez eban edan nai izan. <sup>35</sup> Jesus gurutzean josi ondoren, Aren jantziak zotz egiñik, alkaruren artean banandu ebezan (\*). <sup>36</sup> Eta antxe gelditu ziran jesarrita, Jesus zaintzen. <sup>37</sup> Buru-gaiñean eriotz-agiria ezarri eutsoen, idatzita: «Jesus, judarren errege da au». <sup>38</sup> Eta Jesus'egaz batera, beste lapur bi josi ebezan gurutzean, bata eskumaldean eta bestea ezkerrekaldean.

#### Jesus'i irainka baten (Mk. 15, 29-32; Lk. 23, 35-37).

<sup>39</sup> Eta andik igaroten ziranak, iraindu egiten eben, buruari eragiñez eta esanez: <sup>40</sup> «Jaunaren Etxea lurrera eratsi ta iru egunean barrero jasoten dozun orrek, askatu egizu zeure burua! Jaungoikoaren Semea ba'zara, jatsi zaitez gurutzetik!». <sup>41</sup> Abadeburuak be, idazlari ta zaarrakaz batera, barre egiten eutsoen, esanez: <sup>42</sup> «Beste batzuk askatu, eta bere burua ezin askatu! Israel'go Erregea da: jatsi daitela orain gurutzetik, eta sinistuko dogu orregan. <sup>43</sup> Bere itxaropena Jaungoikoagan jarri dau; askatu dagiala, ba, orain, benetan maite ba'dau, beintzat: «Ni Jaungoikoaren Semea naz», esan eban-eta». <sup>44</sup> Jesus'egaz batera gurutzean eskegita egozan lapurrak be, iraindu egiten eben.

#### Jesus'en erioiza (Mk. 15, 33-41; Lk. 23, 44-49).

<sup>45</sup> Seigarren ordutik bederatzigarren ordurarte (\*), lur guztia illunetan gelditu zan. <sup>46</sup> Eta bederatzigarren ordualdean (\*), Jesus'ek deadar aundi bat egin eban, esanez: «Eli, Eli, lema sabactani?», edo bardin dana: «Ene Jaungoikoa, ene Jaungoikoa!, zegaitik itxi nozu bertan-bera?» (\*). <sup>47</sup> Ori entzutean, an egozan batzuek auxe esan eben: «Elias'i deika diardu orrek». <sup>48</sup> Eta bereala, areitariko batek, ariñeketan belaki\* bat artzera joan, ozpiñetan\* busti, kaiñabera-erpiñean ezarri ta edaten emon nai eutsan. <sup>49</sup> Besteak, ostera, auxe esan eutsoen: «Geldi, ikusi dagigun askatzera Elias ete-datorkion». <sup>50</sup> Orduan Jesus'ek, barrero deadar aundi bat egiñik, azken-arnasa emon eban.

<sup>51</sup> Onetan, Jaunaren Etxeko zapia zati bitan urratu zan goitik beera; lurra ikaraka ta arkatxak britzatu egin ziran; <sup>52</sup> illobiak zabaldu, eta zintzoen gorpu asko, lurperatuta egozanak, biztu egin ziran (\*). <sup>53</sup> Eta Jesus biztu zanean, illobietatik urtenda, Uri Santura joan eta askoi agertu yakeezan. <sup>54</sup> Bitartean, euntaria ta onegaz Jesus zaintzen ziarduenak, lurrikara ta an jazoten zana ikusirik, bildurrez beterik gelditu ziran, eta auxe esan eben: «Benetan, au Jaungoikoaren Semea zan».

<sup>55</sup> Ba-egozan an, urrundik begira, Galilea'tik Jesus i neskame-lanetan lagun egiñez etorri ziran emakume asko be; <sup>56</sup> eurotariko batzuk, Mari Madalen, Santiago'ren eta Jose'ren ama Mari, eta Zebedeo'ren semeen ama egozan.

#### Jesus'en illobiratzea

(Mk. 15, 42-47; Lk. 23, 50-55; Yn. 19, 38-42).

<sup>57</sup> Illuntzean, Jose eritxon Arimatea'ko gizon aberats bat etorri zan; au be Jesus'en ikasle egin zan. <sup>58</sup> Pilato'gana joan eta Jesus'en gorpua eskatu eutsan. Orduan, emon egiola agindu eban Pilato'k. <sup>59</sup> Eta Jose'k gorpua artu, iza-

\* Belaki: esponja.

\* Ozpin: vinagre.



ra garbi batatz batu, <sup>60</sup> eta Jose'k berak arri bizian egin-dako bere illobi barrian ipiñi eban. Gero, illobi-sarreran arritzar bat txirringolaka jarri, eta alde egin eban. <sup>61</sup> Antxe egozan Mari Madalen eta beste Mari, illobi-aurrean je-sarrita.

### Illobia zaintzen.

<sup>62</sup> Biaramonean, Paraskebe (*edo gertatze*) osteko urren-go egunean (\*), abadeburu ta pariseuak Pilato'ren aurrean batu <sup>63</sup> ta auxe esan eutsoen: «Jauna, gogoan dogu, guzur-ti arek, oraindiño bizi zala, auxe esan ebala: «Iru egun barru biztu egingo naz». <sup>64</sup> Agindu egizu, ba, zaindu da-giela ondo illobia, irugarren egunerarte; bere ikasleak eto-rri, gorpua ostu ta erriari esan ez dagioen: «Biztu egin da illen artetik»; eta azken-maltzurkeri ori, lenengoa baiño ckerragoa izan ez daiten». <sup>65</sup> Pilato'k auxe esan eutsen: «Ba-dozuez zaintzailleak. Zoaze, zaindu zeuok dakizue-nez». <sup>66</sup> Joan ziran, ba, arriari ezaugarriak ezarri ta illo-bia zaintzailleen ardurapean itxi eben.

## XXVIII

**Jesus'en biztuera** (Mk. 16, 1-8; Lk. 24, 1-10).

<sup>1</sup> Zapatua igarota, astearen lenengo eguna argitzean (\*) Mari Madalen eta beste Mari (\*) illobia ikustera etorri zi-ran. <sup>2</sup> Bat-batean, lurrikara aundi bat egin zan (\*): Jauna-ren aingerua zerutik jatsi ta, illobira urreraturik, arria txi-rringolaka kendu, eta arriaren gainean jesarri zan. <sup>3</sup> Aren arpegiak tximista zirudian, eta aren soñekoa edurra bai-zen zuria zan. <sup>4</sup> Zaintzailleak, aren aurrean ikaratuta, dar-daraka asi ta ilda lez gelditu ziran. <sup>5</sup> Aingeruak emaku-meai berba egin eta auxe esan eutsen: «Ez bildurtu zuok, ba-dakit Jesus gurutzetuaren billa zatozena-ta. <sup>6</sup> Ez dago emen: biztu egin da, Berak esan ebanez. Etorri zaiteze, ikusi egizue Bera (\*) egoan tokia <sup>7</sup> Eta orain, zoaze arin, ikas-

leai illen artetik biztu egin dala esatera, eta zuon aurretik joango dala Galilea'ra; antxe ikusiko dozue. Esan dau-tsuet, ba». <sup>8</sup> Emakumeak, bildur-ikaraz eta pozez beterik, illobitik berealaxe urten, eta Jesus'en ikasleai barria emo-tera ariñeketan joan ziran.

### Emakumeai agertzen yake.


<sup>9</sup> Onetan, Jesus'ek, arei bidera urten eta, «Agur!», esan eutsen. Eta areik, urreraturik, Jesus'i oiñetatik eldu ta gur-tu egin eben. <sup>10</sup> Orduan, Jesus'ek dirautse: «Ez bildurtu. Zoaze, esan egiezue nire anaiai Galilea'ra joan daitezala; antxe ikusiko nabe».

### Gudariak erosten.

<sup>11</sup> Emakumeak ba-yoiazala, zaintzailletariko batzuk uri-ra joan ziran, jazo zan guztia abadeburuai azaltzera. <sup>12</sup> Oneik, zaarrakaz batuta, erabagia artu ta gudariai di-ru-moltzo ederra emon eutseen, <sup>13</sup> esanez: «Auxe esan bear dozue: 'Aren ikasleak gabez etorri ta, gu lotan gen-goan bitartean, ostu egin eben'. <sup>14</sup> Eta lendakariak ori ja-kiten ba'dau, geuk baretuko dogu ta geuk urrunduko zai-tuegu naasteetatik». <sup>15</sup> Areik dirua jaso ta artutako agin-duen eraz egin eben. Eta gaur arte be zabaldua dago zu-rrumuru ori judarren artean.

### Jesus Galilea'n agertzen yake.

<sup>16</sup> Joan ziran, ba, amaika ikasleak Galilea'ra, Jesus'ek aitatu eutsen mendira. <sup>17</sup> Eta an Jesus ikustean, gurtu egin eben; batzuk, ostera, ezbaitan egon ziran. <sup>18</sup> Jesus'ek, are-kana urreraturik, olantxe egin eutsen berba: «Al-izate oso-osoan izan yat emona zeruan eta lurrean. <sup>19</sup> Zoaze, ba, eta ikasle egin laguntalde guztiak, Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean bateatuez, <sup>20</sup> eta agindu dau-tsuedan guztia beteten irakatsiez. Eta jakin egizue: neu na-go zuek az egun oro azken-aldirarte».



## JESUKRISTO'REN BARRI ONA

### Markos Deunak dakarrenez

Markos deuna, judarra zan, Jerusalem'go semea. Bere ama Maria'ren etxean batzen ziran sari kristauak (Apost. Egiñak, 12, 12).

Paulo deunari lagun egiten joan zan Perje'raiño, bere lengusu Bernabe'gaz batera (Apost. Eg. 13, 5, 13); an Paulo itxi ta Jerusalem'era biurtu zan.

Geroago, barriz, giltzapean aurkitzen dogu Erroma'n, Paulo'ren ondoan (Kol. 4, 10; Filip. 24). Pedro deunak "seme" dei egiten dautso (Pedro'ren 1.<sup>a</sup>, 5, 13), Pedro'k bateatua izan zan-eta.

Ez dogu osterantzeko barririk Ebanjelari oni buruz. Eusebio edeslariak, Alexandria'ko lenengo Gotzain izan zala diño. Elizak martiritzat artzen dau, bere eguna Jorraillaren 25'garrenean ospatzen dauala.

Itxuraz, Markos Ebanjelaria Pedro'ren ikasle izan zan, eta beronen ondoan ibilten zana. Orixe agertzen da bere Barri Ona irakurtean, jazopen asko bera ikusle bai'litzan azaltzen dauz-ta.

Jentillentzat idatzi eban Barri Ona, eta Jesus Jaungoikoaren Semea dala agertu nai dau, Jaunak egin ebazan mirari arri-garriakaitik.

Ikusle biren autorra emonda gero —Yon Bateatzaillearena ta Jaungoikoarena Jesus'en Bateoan (1, 1-13)—, Markos deunak Jesus'en bizitza Galilea'n azaltzen dausku (1, 14-9, 50), baita Judean eta Jerusalem'en be (10, 1-13, 37); eta azkenez, Jesus'en Nekaldi, Eriotz eta Biztueraz amaitzen dau bere Barri Ona (14, 1-16, 20).

Bere Barri On au, Erroma'n idatzi eban, 60'garren urte-aldean.



## I

**Saxxera** (Mt. 3, 1-12; Lk. 3, 3-17).

<sup>1</sup> Jesukristo Jaungoiko-semearen Barri Onaren asiera.

<sup>2</sup> Isaias igarlearen liburuan idatzita dagoenez: «Begara: neure aingerua bialtzen dot zure aurretik, bidea atonduko dautsuna. <sup>3</sup> Basamortuan deadarka diarduan abotsa: Atondu egizue Jaunaren bidea, zuzendu Aren bidezidorrak» (\*), <sup>4</sup> Yon Bateatzaillea agertu zan basamortuan, pekatuen parkamenerako damu-batea iragarten (\*). <sup>5</sup> Judea-aldeko guztiak eta Jerusalem'go guztiak beragana jotzen eban, eta, euren pekatuak autortuaz, Jordan-ibaian aregandik bateoa artzen eban.

<sup>6</sup> Yon gamelu-narruz jantzita ebillen (\*), eta aren janaria matxingorrikoak eta baso-eztia ziran. <sup>7</sup> Eta auxe iragarten eban: «Neure atzetik dator ni baiño indartsuago dana; ni ez naz gei makurtuta aren oiñetako-lokarriak askatzeko be. <sup>8</sup> Nik uraz bateatu zaituet; arek, barriz, Espiritu Santuaz bateatuko zaitue».

**Jesus'en bateoa** (Mt. 3, 13-17; Lk. 3, 21-22).

<sup>9</sup> Egun areitan, Jesus Galilea'ko Nazaret'etik etorri zan, eta Yon'ek Jordan'en bateatu egin eban. <sup>10</sup> Jesus uretatik urtenda batera, zeruak urratu egiten zirala ta Espiritu (*Santua*) uso-irudiz Jesus'en gainera jatsiten zala ikusi eban Yon'ek. <sup>11</sup> Eta abots au etorri zan zeruetatik: «Zeu zara nire Seme maitea; zeugan daukat nire atsegina» (\*).

**Jesus basamortuan** (Mt. 4, 1-11; Lk. 4, 1-13).

<sup>12</sup> Orren ondoren, Espiritu *Santuak* basamortura egiten dautso bultza, <sup>13</sup> eta basamortuan berrogei egunean egon zan, Satanas'ek zirikatzen ebala. Basoko abereen artean egoan, eta aingeruak eukazan morroitzat.

**Jesus Barri Ona iragarten asten da**

(Mt. 4, 12-17; Lk. 4, 14-15).

<sup>14</sup> Yon giltzapean sartuta gero, Jesus Galilea'ra joan zan; eta Jaungoikoaren Barri Ona iragarten eban: <sup>15</sup> «Bete da aldia, eta Jaungoikoaren Erreñua ur dago; garbatu zaitzeze, eta sinistu egizue Barri Ona».

**Lenengo lau ikasleak** (Mt. 4, 18-22; Lk. 5, 1-11).

<sup>16</sup> Galilea'ko itxasertzean ebillela, Simon eta onen anai Ander ikusi ebazan, itxasoan sareak zabaltzen, arrantzaleak ziran-eta. <sup>17</sup> Jesus'ek auxe esan eutsen: «Etorri zaitzeze nigaz, eta nik gizon-arrantzale egingo zaituet». <sup>18</sup> Bereala, sareak bertan-bera itxirik, jarraitu egin eutsoen.

<sup>19</sup> Gerotxoago, Santiago Zebedeo'rena ta Yon, aren anaia, ikusi ebazan; txalupan sareak konpontzen ziarduen. <sup>20</sup> Eta dei egin eutsen; eta areik, Zebedeo euren aita langilleakaz txalupan itxirik, jarraitu egin eutsoen.

**Deabrudun bat osatzen dau** (Lk. 4, 31-37).

<sup>21</sup> Kafarnaum'era eltzen dira. Zapatua eitzean, sinagan sartu ta irakasten asi zan. <sup>22</sup> Aren irakaspenez arrituta gelditu ziran, agintedun lez irakasten eutsen-eta, ez idazlariak lez. <sup>23</sup> Batzar aretan, deabru zikiñak artuta eukan gizon bat egoan, eta deadarka asi zan: <sup>24</sup> «Zer ardura dautsu zuri, Jesus Nazaretar orri, guri buruz? Gu galtzera etorri zara? Ba-dakit zu nor zar(e)an: Jaungoikoaren Santua». <sup>25</sup> Orduan, «Isilik ago, eta urten adi orregandik!», agindu eutsan Jesus'ek. <sup>26</sup> Gogo zikiñak gizona astin-astin egin eban, eta garrasi aundi bat egiñik, aregandik urten egin zan (\*). <sup>27</sup> Guztiak arrituta gelditu ziran, alkarri esateraiño: «Zer da au? Auxe bai irakaspén barria, aginpidez azalduta! Gogo zikiñai agindu egiten dautse, eta areik esana egin» (\*). <sup>28</sup> Berealaxe zabaldu zan Aren entzute aundia alde guztietan, Galilea'ko lurralde guztian.

**Pedro'ren amagiñarreba osatzen dau**  
(Mt. 8, 14-15; Lk. 4, 38-39).

<sup>29</sup> Sinagogatik urten zanean, Santiago ta Yon'egaz Simon eta Ander'en etxera joan zan. <sup>30</sup> Simon'en amagiñarreba ogean egoan, sukarraz; eta aretzaz berba egiten dautsoe Jesus'i. <sup>31</sup> Urreratu, eta, eskutik oraturik, jaso egin eban. Sukarrak itxi egin eutsan, eta emakumea neskame-lanetan asi yaken.

**Beste osakuntza batzuk** (Mt. 8, 16; Lk. 4, 40-41).

<sup>32</sup> Arratsaldean, illunabarrean, geiso ta deabrudun guztiak ekarri eutsoezan; <sup>33</sup> erri guztia egoan atean pillatuta. <sup>34</sup> Makalik egozan asko, Jesus'ek osatu egin ebazan, eta deabru asko jaurti be bai; deabruai ez eutsen berbarik egiten itxi, ezagutzen eben-eta.

**Galilea'ra doa** (Lk. 4, 42-44).

<sup>35</sup> Goizaldean, oraindiño illun-illun egoala, jagi, urten eta leku bakar batera joan zan, eta an otoitz egiten asi zan. <sup>36</sup> Simon eta onen lagunak billa joan yakozan; <sup>37</sup> aurkitu ebenean, ba-dirautsoe: «Guztiak zeure billa dabiz». <sup>38</sup> Jesus'ek erantzuten dautse: «Goazan beste leku batera, auzoko baserrietara, an be iragarri dagidan: orretarakoxe etorri naz-ta». <sup>39</sup> Eta Galilea guztian zear ibilli zan, sinagotetan iragarten eta deabruak jaurtiten.

**Legenardun bi osatzen dauz** (Mt. 8, 2-4; Lk. 5, 12-16).

<sup>40</sup> Legenardun bat urreratzen yako, erreguka; eta, be-leunikoturik, auxe dirautso: «Zeuk nai ba'dozu, osatu nai-kezu». <sup>41</sup> Aretzaz errukiturik, Jesus'ek bere eskua luzatu, ikutu ta auxe esan eutsan: «Nai dot, bai; garbi gelditu zaitetz». <sup>42</sup> Bat-batean legenak alde egin eutsan eta garbi gelditu zan. <sup>43</sup> Orduan, Jesus'ek bialdu egin eban, agindu au emoten eutsala: <sup>44</sup> «Begira, gero: ez esan ezer iñori; baiña zoaz, aurkeztu zaitetz abadeagana ta, zure garbitzeagaitik, egizu Moises'ek aginduriko oparia, agiritzat izan dakien».

<sup>45</sup> Gizona, ostera, joanda batera, barria adoretzu iragarten eta zabaltzen asi zan; eta arrezkero, Jesus ezin zeitekean uri baten be agirian agertu, bestetara baiño: inguruetan gelditzen zan, leku ezkutuetan. Eta edonundik Beragana josten eben.

## II

**Elbarridun bat osatzen dau** (Mt. 9, 1-8; Lk. 5, 17-26).

<sup>1</sup> Egun batzuk geroago, barriro Kafarnaum'en sartu zan, eta etxean egoala zabaldu zan. <sup>2</sup> Askoak batu ziran, ate-aurrean be lekurik gelditzen ez zala; Jesus'ek Itza (*Barri Ona*) iragarten eutsen. <sup>3</sup> Eta lau gizon dotoz Jesus'egana, elbarridun bat daroela. <sup>4</sup> Laguntaldea zala-ta, legenarduna Jesus'en aurrean jarri eziñik, Jesus egoan tokiko sabaia edegi ta egin eben zulotik beera eratsi eben elbarriduna egoan ogetxo (\*). <sup>5</sup> Jesus'ek, arein sinismena ikusirik, elbarridunari dirautso: «Seme, parkatzen yatzuz zure pekatuak».

<sup>6</sup> Ba-egozan an jesarrita idazlari batzuk, euren biotzetan asmatzen ebela: «Zer diño onek, baiña? Onek birrøoka diardu. Nok parkatu daikez pekatuak, Jaungoikoak izan ezik». <sup>8</sup> Baiña bereala, areik euren barruan asmatzen ziarduna, Jesus'ek bere argiz ezagaturik, ba-dirautse: «Zegaitik darabizuez asmakeriok zuen biotzetan? Zer da errazago?, elbarridunari «parkatzen yatzuz zure pekatuak» esatea, ala, «jagi zaitetz, artu egizu zure ogetxo ta zoaz», esatea? <sup>10</sup> Gizasemeak lurrean pekatuak parkatzeko al-izatea ba-daukala jakin dagizuen, ba, -elbarriari dirautso-: <sup>11</sup> «Zeuri dirautsut: jagi zaitetz, artu zure ogetxo, eta zoaz zure etxera». <sup>12</sup> Zutundu ta, bat-batean, ogetxo arturik, guztien aurrean joan egin zan. Guztiak arri'tu egin ziran eta Jaungoikoa goratu eben, esanez: «Olororik ez dogu egundo ikusi».



**Mateo'ri deia.**

<sup>13</sup> Barriri itxasertzetik joan zan. Laguntalde guztiak Aregana joten eban, eta Jesus'ek irakatsi egiten eutsen.

<sup>14</sup> Eta andik igarotean, Lebi Alfeo'rena ikusi eban, zergategian jesarrita, eta, «Jarraitu egidazu», dirautso. Jagi ta jarraitu egin eutsan.

**Pekatariekaz bazkaritan** (Mt. 9, 10-13; Lk. 5, 29-32).

<sup>15</sup> Eta auxe jazo zan: Lebi'ren etxean bazkaritan ziar-duela, zerga-batzaille ta pekatari asko egozan maian Jesus'egaz eta onen ikasleakaz batera, Jesus'i jarraitzen eutsoenak asko ziran-eta. <sup>16</sup> Fares'en alderdikoak, Jesus'ek pekatari ta zerga-batzailleak jaten ziarduala ikustean, ikasleai auxe zirautsen: «Zer? Pekatari ta zerga-batzailleak ez diardu jan-edaten, ala?». <sup>17</sup> Jesus'ek, ori entzutean, auxe dirautse: «Osasundunak ez dabe osagillerik bear, makalak baiño; ez naz ni zintzoai dei egitera etorri-ta, pekatari baiño».

**Baraua zala-ta** (Mt. 9, 14-17; Lk. 5, 33-39).

<sup>18</sup> Yon'en ikasleak eta pariseuak barau egiten ziarduen egun baten, Jesus'egana etorri ta auxe dirautse: «Yon'en ikasleak eta pariseuak barau egiten dabe; zure ikasleak, barriz, zegaitik ez dabe baraurik egiten?». <sup>19</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsen: «Egin ete-daike, gero, baraurik eztegarako deituak, senargeia eurakaz dagoan artean? Senargeia eurakaz egon daiten bitartean, ezin baraurik egin daike. <sup>20</sup> Etorriko dira, bai, senargeia kenduko yaken egunak; orduantxe egingo dabe barau, egun aretan. <sup>21</sup> Iñok ez dau-tso soñeko zaarrari oial gogorrezko ipingirik josten; bestela, ezarritako txatalak oial zaarra urratu, eta tarratada txarragoa egiten da-ta. <sup>22</sup> Ezta zaragi zaarretan be ez dau iñok ardao barririk sartzen; bestela, ardaoak zaragia lertu egingo leuke, eta bai ardaoa, baita zaragiak be ondatu egingo litzakez; ardao barria, zaragi barrietan».

**Zapatuz artutako galburuak** (Mt. 12, 1-8; Lk. 6, 1-5).

<sup>23</sup> Zapatu baten, Jesus gari-soloetan zear yoian; eta Aren ikasleak, andik igarotean, galburuak artzen asi ziran. <sup>24</sup> Pariseuak auxe zirautsoen: «Begira, zapatuz bidezko ez dana egiten diardue». <sup>25</sup> Jesus'ek dirautse: «Ez dozue iñoiz irakurri Dabid'ek, bearraldian aurkitu zanean, egin ebana?, bera ta beragaz egozanak gosetu ziranean?, <sup>26</sup> zelan sartu zan Jaunaren Etxean, Abiatar Abade Nagusiaren aldictan, eta abadeak baiño iñok ezin jan eikezan opari-ogiak zelan jan ebazan, eta beragaz egozanai be zelan emon eutsezan?». <sup>27</sup> Eta esan eutsen: «Zapatua gizonarentzat izan da egiña, eta ez gizona zapatuarentzat. <sup>28</sup> Beraz, Gizasemea zapatuaren jabea be ba-da».

## III

**Gizon esku-igarra osatzen dau** (Mt. 12, 9-14; Lk. 6, 6-11).

<sup>1</sup> Sinagogan sartu zan barriri, eta eskua igartuta eukan gizon bat egoan an. <sup>2</sup> Jesus zaintzen ziarduen adi-adi, zapatuz osatuko ete-eban, gero salatu al izateko. <sup>3</sup> Esku-igarra eukan gizonari ba-dirautso: «Jagi zaitez or erdian». <sup>4</sup> Eta itaun au egiten dautse: «Bidezko da zapatuz txarra egin bearrean on egitea, bizitza ondatu bearrean salbatzea?». Areik, barriz, ixillik egozan. <sup>5</sup> Orduan Jesus'ek, arei begiratu asarrea egiñik eta arein biotz-gogorkeriaz minduta, gizonari dirautso: «Zabaldu esku ori». Arek zabaldu egin eban, eta eskua osatuta gelditu yakon. <sup>6</sup> Pariseuak urtenda batera, Erodes'en alderdikakaz alkartu ziran Jesus'en kontra, au galtzeko bidea asmatzen ebela.

**Laguntaldeak Jesus'i jarraitzen dautso** (Mt. 12, 15-16; Lk. 6, 17-19).

<sup>7</sup> Jesus bere ikasleakaz itxasbartzarrera joan zan, eta laguntalde aundiak jarraitu eutsan Galilea'tik. Baita Judea'tik.

<sup>8</sup> Jerusalem'dik, Idumea'tik, Jordan'go bestekaldetik eta Tiro ta Sidon'go lurraldetik be, laguntalde aundi batek, Jesus'ek egiten ebana entzutean, Beragana joan ziran. <sup>9</sup> Orduan, laguntaldea zala-ta, txalupa bat beretzat gerturik eukiteko esan eutsen bere ikasleai, zapaldu ez egien. <sup>10</sup> Askoak osatu ebazan-eta, makalik egozan guztiak bultza-bultzaka etorten ziran Jesus ikustera. <sup>11</sup> Eta gogo zikiñak, Jesus ikustean, belaunikotu ta deadarka iñoen: «Jaungoikoaren Semea zara zu!». <sup>12</sup> Jesus'ek, ostera, ez egiela bera nor zan agertu agintzen eutsen gogor (\*).

**Amabi aukeratzen dauz** (Mt. 10, 1-4; Lk. 6, 12-16).

<sup>13</sup> Mendira igo ta berak nai ebazanai egin eutsen dei; eta beragana etorri ziran. <sup>14</sup> Amabi aukeratu ebazan, beragaz egon zeitezan, eta Barri Ona iragartera bialtzeko, <sup>15</sup> deabruak jaurtiteko eskubidea emonik. <sup>16</sup> Amabiak aukeratu ebazan, eta Simon'i izena Pedro ezarri eutsan; <sup>17</sup> Santiago Zebedeo'rena, eta Yon, Santiago'ren anaia; onei izena Boanerjes, edo bardin dana, trumoi-seme ezarri eutsen, Ander, Felipe, Bartolome, Mateo, Tomas, Santiago Alfeo'rena, Tadeo, Simon Kanaandarra ta Judas Iskariote, Jesus saldu ebana bera.

**Jesus'en senideak.**

<sup>20</sup> Etxera dator barriro. Barriro be laguntaldea batzen da, eta jan be ezin egin eikean. <sup>21</sup> Jakin eben ori Aren senideak eta Jesus'en jabe egiteko asmotan joan ziran, «burutik eginga dago», iñoen-eta (\*).

**Idazlarien guzur-balizak**

(Mt. 12, 24-32; Lk. 11, 15-23; 12, 10).

<sup>22</sup> Jerusalem'dik jatsi ziran idazlariak auxe iñoen; «Beelzebul'ek artuta dago ori», eta «Deabru-nagusiaren indarraz jaurtiten dauz orrek deabruak» (\*). <sup>23</sup> Jesus'ek beragana deitu ta ipuiñetan auxe zirautsen; «Satanas'ek Satanaz zelán jaurti daike, ba? <sup>24</sup> Erreiñu bat bere buruaren

kontra bananduta ba'dago, erreñu ori ezin zutik egon daiteke. <sup>25</sup> Etxe bat bere buruaren kontra bananduta ba'dago, etxe ori ezin zutik egon daiteke. <sup>26</sup> Eta Satanaz bere buruaren kontra jagi ta bananduta ba'dagc, ezin zutik egon daiteke, bere azkena eldu yako-ta. <sup>27</sup> Baiña ezin sartu daiteke iñor indartsuaren etxean eta onen ondasunak kendu, indartsua lenengo lotzen ez ba'dau; lotu ezkerro, bai, orduantxe ustu al izango dau etxea. <sup>28</sup> Benetan dirautsuet; gizonen semeai guzti-guztia parkatuko yake, pekatuak eta biraoak, azken oneik askoak izanarren be. <sup>29</sup> Espiritu Santuaren kontra birao egin dagianak, barriz, ez dau iñoz be parkatzerik izango, eta betiko pekatu-errudun izango da» (\*). <sup>30</sup> «Gogo zikiñak artuta dago», iñoen-eta.

**Jesus'en benetako senitartea**

(Mt. 12, 46-50; Lk. 8, 19-21).

<sup>31</sup> Jesus'en ama ta anaiak (*senideak*) datoz, eta, kanpokaldean gelditurik, deia bialtzen dautsoe. <sup>32</sup> Laguntalde aundia Aren inguruan jesarrita egoan. Auxe dirautsoe: «Zure ama, zure anaiak eta zure arrebak kanpoan dagoz eta zeure billa dabiz». <sup>33</sup> Jesus'ek auxe erantzuten dautse: «Nor da nire ama ta nortzuk dira nire anaiak?». <sup>34</sup> Eta, bere inguruan jesarrita egozanai begiraturik, ba-diño: «Oneixek dira nire ama ta nire anaiak. <sup>35</sup> Jaungoikoaren naia bete dagiana, orixe da nire anaia, nire arreba ta nire ama».

#### IV

**Eraillea** (Mt. 13, 1-9; Lk. 8, 4-8).

<sup>1</sup> Barriro itxasertzean irakasten asi zan. Eta bere inguruan laguntalde aundia batu zan-eta, txalupa batera igo bear izan eban; eta, itxasoan ezkerro, jesarri egin zan; laguntalde guztia legorrean egoan, itxasertzean. <sup>2</sup> Gai asko ipuiñetan irakasten eutsezan. Bere irakastaldian auxe zi-



rautsen: <sup>3</sup> «Entzun egizue; bein baten, ereille bat ereitera urten zan. <sup>4</sup> Eta ereitean, azi batzuk bide-ondoan jausi ziran, eta egaztiak etorri ta jan egin ebezan. <sup>5</sup> Beste azi batzuk, lur askorik ez euken arri-artean jausi ziran, eta be-realaxe erne ziran, lurrak sakonik ez eukan-eta; <sup>6</sup> baiña, eguzkia urten zanean, erre egin ziran, eta, zusterrik ez euken ezkerro, igartu egin ziran. <sup>7</sup> Beste azi batzuk sasi-artean jausi ziran; sasiak azi ta ito egin ebezan, eta ez eben fruturik emon. <sup>8</sup> Beste azi batzuk lur onean jausi ziran, eta, azi ta aundi egiñik, frutua emon eben: <sup>9</sup> batzuek ogetamar emon ebezan, beste batzuek irurogei, beste batzuek eun». Eta esan eutsen: «Belarririk euki dagianak, entzun dagiala».

**Zegaitik ipuiñeten?** (Mt. 13, 10-15; Lk. 8, 9-10).

<sup>10</sup> Bakarrik gelditu zanean, Amabiakaz jarraitzen eutsoenak ipuiñai buruz itandu eutsen. <sup>11</sup> Jesus'ek auxe esan eutsen: «Zeuoi emon yatzue Jaungoikoaren Erreñuaren ezkutua; kanpoan dagozanai, ostera, ipuiñetan azaltzen yake, <sup>12</sup> *begiratuarren be ikusi ez dagien, ondo entzunarren be ulertu ez dagien: bada-ezpadan be, onbideratu, eta par-katuak izan ez daitezcan*» (\*).

**Ereillearen ipuiña azaltzen dau**  
(Mt. 13, 18-23; Lk. 8, 11-15).

<sup>13</sup> Eta auxe esan eutsen: «Ipuin au, ez dozue ulertzen? Zelan ulertuko dozuez, ba, beste ipuin guztiak? <sup>14</sup> Ereilleak Itza ereiten dau. <sup>15</sup> Itza ereiten dan bide-ondoan dagozanak, Itza entzuten dabenak dira; baiña Satanas be-realaxe etorri ta arekan ereindako Itza eroan egiten dau. <sup>16</sup> Bardintsu dira arri-artean ereindakoak be: Itza entzutean, bereala pozik artzen dabe; <sup>17</sup> baiña ez dauke zusterrik eurakan, iraupen-bageak dira, ostera; eta Itza dala-ta, larrialdi naiz eraso-aldiren bat sortu orduko, berealaxe jausten dira. <sup>18</sup> Eta beste batzuk sasi-artean ereindakoak dira: Itza entzuten dabenak dira; baiña, bizitzako

arazoak, aberastasunnen itxurakeriak eta osterantzeko zalekeriak Itza artu ta ito egiten dautse, eta frutu bagarik gelditzen da. <sup>20</sup> Eta lur onean ereindakoak, Itza entzuten eta gordeten dabenak dira; eta frutua emoten dabe, bateko ogetamar, irurogei eta eun».

**Argi-ontziaren ipuiña** (Lk. 8, 16-17; Mt. 10, 26).

<sup>21</sup> Baita auxe be ba-zirautsen: «Imillaun-pean edo oge-pean ipinteko ekarten ete-da argi-ontzia? Kandela-ontzian ipinteko ez ete-da? <sup>22</sup> Izan be, ez dago ezer be gordeta, agirian jarriko ez danik; ez da ezer isilpean jazo, agertuko ez danik. <sup>23</sup> Entzuteko belarririk euki dagianak, entzun dagiala».

**Negurria** (Mt. 7, 2; 13, 12; Lk. 6, 38; 8, 10)

<sup>24</sup> Baita auxe be ba-zirautsen: «Aditu entzuten dozue-na. Negurto dagizuen negurriaz izango zaree negurtuak, eta eurrez, gaiñera. <sup>25</sup> Ba-daukanari, emon egingo yako-ta; ez daukanari, barriz, ba-daukana be kendu egingo yako».

**Berez azten dan azia.**

<sup>26</sup> Auxe ba ba-iñoan: «Jaungoikoaren Erreñua, gizon batek lurrean jaurtiten dauan garaunaren antzekoa da (\*): <sup>27</sup> gizona lo egon naiz jagita, gabez eta egunez, garauna etne ta azi egiten da, gizona konturatu bagarik. <sup>28</sup> Lurrak berez frutua dakar: lenengo, bedarra; gero, galburua; gero, garia eurrez galburuan. <sup>29</sup> Eta frutua eltzen danean, be-reala igitaia ezarten yako, ebagiteko sasoia etorri da-ta.

**Ziape-aziarena** (Mt. 13, 31-32; Lk. 13, 18-19).

<sup>30</sup> «Zez bardinduko dogu Jaungoikoaren Erreñua?, edo-ta, zein ipuiñez azalduko dogu? <sup>31</sup> Ziape-aziaren antzekoa da. Lurrean ereiten danean, lurrean ereiten diran beste edozein azi baiño txikiagoa da; <sup>32</sup> baiña, ereinda gero, azi ta ortu-ari guztiak baiño aundiagoa egiten da eta

adar aundiak emoten dauz, zeruko egaztiak be aren gerizpean apiak egin al izateraño».

**Ipuñetan irakasten** (Mt. 13, 34-35).

<sup>33</sup> Eta Itza, olako ipuin askoren bidez iragarten eutsen, eurak ulertzeko eraz; <sup>34</sup> ipuin bagarik ez eutsen berbarik egiten; bere ikasleai, ostera, guztia bakarrean azaltzen eutsen.

**Ekatz, bareluta** (Mt. 8, 18. 23-27; Lk. 8, 22-25).

<sup>35</sup> Egun orretan, illunabarrean, auxe esan eutsen; «Goazen beste itxasertzera». Laguntaldeari agur egiten dautsoe ta egoan legetxe daroe Jesus txalupan; beste txalupa batzuk be ba-yoiazan Aregaz. <sup>37</sup> Onetan, ikaragarrizko aize-bolar(e)a jagi zan, eta txalup(e)a betetzeraiñokoxe olatuak jausten ziran txalupan. <sup>38</sup> Jesus txaluparen atzeko aldean egoan, burupeko baten gainean lo. Iratzartu ta baddirautsoe: «Irakasle, ez dautsu ardurarik gu galtzeak?». <sup>39</sup> Jesus iratzartu, aizeari agindu, eta itxasoari auxe esan eutsan: «Ixo!, isilik ago!». Aizea gelditu, eta barealdi ederra etorri zan. <sup>40</sup> Eta auxe esan eutsen: «Zegaitik dozue orrenbeste bildur? Zelan ez dozue sinismenik? (\*). <sup>41</sup> Areik sekulako bildurrez bete ziran, eta alkarri auxe zirautsoen: «Nor ete-da au, aizeak eta itxasoak be esana egiten dautsoe-ta?».

## V

**Jerasa'ko deabruduna** (Mt. 8, 28-34; Lk. 8, 26-39).

<sup>1</sup> Eta itxasoaz bestekaldera eldu ziran, Jerasa'tarren lurraldera (\*). <sup>2</sup> Txalupatik urtenda bereala, illobietatik gogo zikiña eukan gizon bat urten yakon bidera. <sup>3</sup> Gizon ori illobietan bizi zan, eta kataiz be ez eikean iñok lotuta euki. <sup>4</sup> Izan be, sarritan burdiñazko estunez\* eta kataiz

\* Estun: grillo.

lotu izan eben; baiña arek kataiak ausi ta burdiñazko estunak zatitu egin izan ebazan, eta iñok ezin eban ezi. <sup>5</sup> Eta beti, gabez eta egunez, illobi ta mendietan zear ebillen, ululuka eta bere burua arriakaz zauritzen. <sup>6</sup> Urrundik Jesus ikustean, ariñeketan urreratu yakon, eta Aren aurrean auzpazturik, deadar errimeaz esan eutsan: «Zer dozu zuk nitzaz, Jesus, Jaungoiko Gorengoaren Seme orrek? Jaungoikoaren izenean, ez nagizu oiñazetu» (\*). <sup>8</sup> «Urten zaitez gizon orregandik, gogo zikin ori!», esan eutsan Jesus'ek-eta. <sup>9</sup> Eta, «Zelan dozu izena?», itandu eutsan Jesus'ek. «Taldea\* dot izena, asko gara-ta», erantzun eutsan arek. <sup>10</sup> Eta lurralde aretatik ez egizala jaurti, eskatzen eutsoen erreguka. <sup>11</sup> Txarri-talde aundi bai egoan an, mendi-barrean larrean (*jaten*); <sup>12</sup> eta deabruak Jesus'i erregu au egin eutsan: «Bialdu gagizuz txarriakana, eurakan sartu gaitez». <sup>13</sup> Eta Jesus'ek baimena emon eutsen. Orduan, gogo zikiñak urten eta txarriakan sartu ziran; eta txarri-taldea – bi milla edo – amiltegitik itxasora jausi ta itxasoan ito ziran. <sup>14</sup> Txarri-zaiñak iges egin eben, eta jazorkoa uri ta baserrietan azaldu eben; eta zer jazo izan zan ikustera urten ziran. Jesus'egana eltzen dira ta deabruduna ikusten dabe, len deabru-taldeak artuta eukana bera, jesarrita, jantzita eta bere senera biurtuta; eta bildurrez beterik gelditu ziran. <sup>16</sup> Jazotakoa ikusi ebenak, deabrudunarena ta txarriena azaldu eutseen. <sup>17</sup> Orduan, euren lurraldetik alde egiala asi yakozan erregutzen Jesus'i. <sup>18</sup> Eta txalupara igotean, txerrendun izandakoak bere artean artu egiala eskatzen eutsan Jesus'i. <sup>19</sup> Baiña Jesus'ek ez eban onartu, eta beste au esan eutsan: «Zoaz zure etxera, zure etxekoakana, eta Jaunak egin dautsuna ta izan dautsun erukia azaldu egiezu». <sup>20</sup> Joan zan, ba, eta Jesus'ek egin eutsan guztia zabaltzen asi zan Dekapolis'en; eta guztiak arrituta gelditzen ziran (\*).

\* Talde: Legión (askotza).



**Odol-jarioduna osatzen dau**

(Mt. 9, 18-26; Lk. 8, 40-56).

<sup>21</sup> Jesus txalupan barrero bestekaldera igaro zan eta laguntalde aundia batu yakon. Jesus itxasertzean egoan.

<sup>22</sup> Ba-dator Jairo izeneko bat, sinagogako nagusietarikoak; eta Jesus ikustean, oiñetan auzpazten yako, <sup>23</sup> eta erreguka auxe eskatzen dautso: «Nire alab(e)a il-zorian dago; etorri zaitetz, ezarri egiozuz eskuak gaiñean, osatu ta bi-zi dadin». <sup>24</sup> Eta aregaz joan zan. Laguntalde aundiak jarraitzen eutsan, Jesus estutzen ebela.

<sup>25</sup> Orduan, amabi urte areitan odol-jarioz geisorik egoan emakume batek, <sup>26</sup> osagille askogandik neke asko igaro ta bere ondasun guztiak alperrik eralgi ondoren, osatu bearrean geroago ta txarrago egoan emakume batek,

<sup>27</sup> Jesus'i buruz iñoena entzunda, laguntaldearen atzetik urreratu ta Jesus'en soingaiñekoa ikutu eban; <sup>28</sup> «Soiñekoak bakarrik ikutzen ba'dautsada bez, osatuta geldituko naz», iñoan berekautan-eta. <sup>29</sup> Bat-batean, odol-jarioa osatu egin yakon, eta gatxetik osatuta gelditu zala igarri eutsan bere gorputzean. <sup>30</sup> Beingo baten Jesus'ek, bere barrutik indarra urten izan yakola ezagaturik, laguntalde-erdian biurtu ta itaun au egin eban: «Nok ikutu daustaz soiñekoak?». <sup>31</sup> Ikasleak erantzun eutsen: «Ondo ikusten dozu laguntaldeak estutu egiten zaituana; eta, «Nok ikutu nau?» diñozu? <sup>32</sup> Baiña Jesus'ek ingurura begira ziar-  
duan, ori egin ebana agirian jarteko. <sup>33</sup> Orduan, emakumea, beragan jazo izan zana ikusirik, bildur-ikaraz urreratu, Jesus'en aurrean auzpaztu ta egi osoa azaldu eutsan. <sup>34</sup> Jesus'ek auxe esan eutsan: «Alaba, zeure sinismenak osatu zaitu; zoaz bakean, eta gelditu zaitetz osatuta geisotik».

<sup>35</sup> Berba egiten ziar-  
duan artean, sinagogako nagusiaren etxetik norbaitzuk etorri ziran, esanez: «Zure alab(e)a il egin da; zetarako gogaitik eragin, onezkero, Irakasleari?».

<sup>36</sup> Jesus'ek ori entzun eta sinagogako nagusiari ba-dirau-

tso: «Ez bildurtu; izan egizu sinismena bakar-bakarrik». <sup>37</sup> Eta ez eban itxi iñor beragaz joan zedin, Pedro, Santiago ta onen anai Yon izan ezik. <sup>38</sup> Sartzen dira sinagogako nagusiaren etxean eta ikusten dau ango zarraparr(e)a: batzuk negarrez, beste batzuk ululuka baten. <sup>39</sup> Sartzen da ta ba-dirautse: «Zegaitik orrenbeste zarata eta negar? Neskatoa ez dago ilda; lo dago». <sup>40</sup> Eta irri ta barre egiten eutsoen. Baiña Jesus, guztiai alde eraginda, neskatoaren aita ta ama ta beragaz yoiazanak artu ta neskatoa egoan tokira sartzen da. <sup>41</sup> Eta neskatoari eskutik oraturik, auxe dirautso: «Talita kum», edo bardin dana: «Neskato, zeuri dirautsut: jagi zaitetz!». <sup>42</sup> Neskatoa bat-batean jagi ta ibiltzen asi zan, amabi urtekoa zan-eta. Senetik be urtenda gelditu ziran, guztiz ikaratuta. <sup>43</sup> Eta jazo zana iñortxok bez ez egiala jakin, agindu eutsen gogor Jesus'ek; eta neskatoari jaten emon egioela esan eutsen.

## VI

**Jesus Nazaret'en** (Mt. 13, 53-58; Lk. 4, 16-30).

<sup>1</sup> Andik urten eta bere errira etorri zan, eta bere ikasleak egiten eutsoen lagun. <sup>2</sup> Zapatua eldu zanean, sinagogan irakasten asi zan. Laguntaldea, Jesus'i entzutean, arrituta egoan, eta auxe iñoen: «Nondik datorkio ori? Zer da orri emondako jakituria? Eta orren eskuz egindako mirariok? <sup>3</sup> Ez da, ba, au arotza, Maria'ren semea ta Santiago, Jose, Judas eta Simon'en anaia? Orren arrebak bez, ez dagoz, ba, gure artean?». Eta Jesus zala-ta, gaizpidea artzen eben. <sup>4</sup> Jesus'ek auxe esan eutsen: «Igarlea bere lurraldean, bere senitar-tean eta bere etxean bakarrik gelditzen da gorapen bagarik». <sup>5</sup> Eta ezin egin izan eban an miraririk (\*); geiso banaka batzuk, orraitifio, arei eskuak ezarririk osatu ebazan. <sup>6</sup> Eta arein sinisgogorraz arrituta egoan.

**Amabien egikizuna** (Mt. 10, 1. 9-14; Lk. 9, 1-6).

Eta inguruetako errietan irakasten ziarduan. <sup>7</sup> Eta Amabiai dei egin eta biñan-biñan bialtzen asi zan, gogo zikiñai buruzko eskubidea emoten eutsela. <sup>8</sup> Biderako, makilla bat baiño ez artzeko agindu eutsen: ez ogirik, ez zorrorik, ez gerrikoan dirurik; <sup>9</sup> «Oñetarako sandaliak» izan ezik, «eta ez jantzi barruko soñeko birik». <sup>10</sup> Eta auxe esan eutsen: «Etxe baten sartu zaitezenean, gelditu bertan andik urten arte. <sup>11</sup> Nunbaitek artzen ez ba'zaitue ta entzuten ez ba'zaitue, alde egizue andik zuen oiñetakoen azpiko autsa astinduez, arein kontrako agiritzat». <sup>12</sup> Eta apostoluak, andik urtenda, garbatu zeitezala iragarri eben; <sup>13</sup> deabru asko jaurti egiten ebezan, eta geiso asko orioaz igurtzi ta osatu egiten ebezan (\*).

**Erodes eta Jesus** (Mt. 14, 1-2; Lk. 9, 7-9).

<sup>14</sup> Erodes erregea jakitun egon zan, Jesus'en izena entzutetsu egin izan zan-eta. Batzuek auxe iñoen (\*): «Yon Bateatzaillea biztu da illen artetik, eta orregaitik, indar mirarigarriak diardue orregan lanean». <sup>15</sup> Beste batzuek, «Elias da», iñoen; beste batzuek, barriz: «Beste igarleak lako igarle bat da». <sup>16</sup> Erodes'ek, ori jakitean, auxe esan eban: «Nik burua moztu neutsan Yon berbera biztu da».

**Yon Bateatzaillearen eriotza** (Mt. 14, 3-12).

<sup>17</sup> Izan be, Erodes zan Yon lotu ta giltzapean sartu ebana; eta ori, bere anai Filipino ren emazte zan Erodiás zala-ta; Erodes, barriz, Erodiás'egaz ezkondu izan zan. <sup>18</sup> Yon'ek Erodes'i auxe zirautsan-eta: «Ez yatzu bidezko zure anaiaren emaztea eukitea». <sup>19</sup> Erodiás'ek Yon'i amorrua eutsan eta bizia kendu nai eutsan, baiña ezin, <sup>20</sup> Erodes'ek Yon'i bildur eutsan-eta, gizon zintzo ta santua zana jakiñik; eta bere ardurapean eukan; eta ari entzutean, ezbai\* gelditzen zan, eta gogotsu entzuten eutsan.

\* Ezbai gelditu: vacilar.

<sup>21</sup> Eta eldu zan egun egokia, Erodes'ek, bere urtebetetzean, Galilea'ko aundiki, aurrenengo ta nagusiai bazkari eder bat emon eutsenean. <sup>22</sup> Erodiás onen alab(e)ak, an sartuta, dantzán egin eban, eta Erodes'i ta onen lagunai atsegin aundia emon eutsen. Erregeak, orduan, neskatill(e)ari auxe esan eutsan: «Eskatu egidazu nai dagizuna, eta emon egingo dautsut». <sup>23</sup> Eta zin au egin eutsan: «Eskatu daistazuna emongo dautsut, baita neure erreñu-erdia izanda be». <sup>24</sup> Neskatill(e)ak, andik urtenda, bere amari itandu eutsan: «Zer eskatuko dot?». «Yon Bateatzaillearen burua», erantzun eutsan amak. <sup>25</sup> Erregea egoan tokira bizkor sarturik, auxe eskatu eutsan: «Yon Bateatzaillearen burua oraintxe azpil (*bandeja*) baten emon daistazula nai dot».

<sup>26</sup> Erregea mindu egin zan; baiña egindako ziñagaitik eta mai-lagunakaitik, ez eutsan neskatillaren gogoari gogorrik egin nai izan. <sup>27</sup> Eta erregeak bereala bere morroietariko bat bialdu eban, Yon'en burua ekarteko aginduaz. <sup>28</sup> Joan zan, ba, morroia, eta espetxean Yon'i burua moztu eutsan, eta burua azpillean (*bandejan*) ekarri ta neskatill(e)ari emon eutsan, eta neskatill(e)ak bere amari. <sup>29</sup> Yon'en ikasleak, ori jakitean, gorpua jasotera etorri ta illobira eroan eben.

**Ogien lenengo ugaritzea**

(Mt. 14, 13-21; Lk. 9, 10-17; Yn. 6, 1-13).

<sup>30</sup> Apostoluak Jesus'egaz batu, eta egin eta irakatsi izan eben guztia azaldu etsoen. <sup>31</sup> Orduan, Jesus'ek auxe esan eutsen: «Etorri zaiteze zuok be, soillik, toki bakar batera, atsedén apur bat artzera». Joan-etorrika ebizanak asko ziran-eta; jateko astirik be ez euken. <sup>32</sup> Eta txalupan toki bakar batera joan ziran. <sup>33</sup> Baiña joaten ikusi ebezan, eta askoak konturatu ziran; eta uri guztietatik araxe joan ziran abidan, oiñez; eta apostoluak baiño len eldu ziran. <sup>34</sup> Legorrera jatsitean, laguntalde aundia ikusi eban,



eta erruki izan yaken, artzain bagariko ardiak legetxe ziran-eta; ta gai asko azaltzen asi yaken. <sup>35</sup> Oso berandu egin zanean, aren ikasleak urreratu ta auxe esan eutsoen: «Toki onetan ez da iñor bizi, eta berandu da. <sup>36</sup> Bialdu egizuz, jateko apur bat erostera inguruetako baserri ta errietara joan daitezcan». <sup>37</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsen: «Zeuok emon egiezue jaten». Areik erantzun eutsoen: «Joango gara geu berreun denario ogi crostera, onei jaten emoteko?». <sup>38</sup> Jesus'ek itandu eutsen: «Zenbat ogi daukazu? Zoaze ikustera». Ondo ikusita gero, «Bost ogi ta arrain bi», dirautsoe.

<sup>39</sup> Orduan, guztiak bedar bizi gaiñean pillo-pilloka jesarri zeitezala agindu eban. <sup>40</sup> Eta eunka ta berrogetamarnaka jarri ziran. <sup>41</sup> Eta bost ogiak eta arrain biak arturik, zerura begiratu, ogiak bedeinkatu, zatitu, eta ikasleai emon eutsezcan, lagunen artean banandu egiezan. Arrain biak be guztien artean banandu ebazan. <sup>42</sup> Guzti-guztiak jan eben, bete arte. <sup>43</sup> Eta amabi otzara bete batu ebezan ogi-mutxikiñez eta arrain-ondarrez. <sup>44</sup> Ogiak jan ebezanak, bost milla gizonezko izan ziran.

#### Jesus, ur-gaiñean ibiltzen

(Mt. 14, 22-23; Yn. 6, 16-21).

<sup>45</sup> Bereala, txalupara igoteko ta, berak laguntaldea bialtzen eban artean, Betsaida'runtz (\*) bere aurretik joan zeitezala agindu eutsen bere ikasleai. <sup>46</sup> Arei agur eginda gero, mendira joan zan, otoitz egitera.

<sup>47</sup> Illunabarrean, txalup(e)a itxas-erdian egoan, eta Jesus legorrean, bakarririk. <sup>48</sup> Txalupakoak arraunka nekatuta ikusirik – aizea aurretik etorkien-eta –, laugarren gau-aldian-edo, eurakanuntz dator itxas-gaiñean ibilliez, eta aurrea artu nai eutsen. <sup>49</sup> Baiña areik, itxas-gaiñean ibiltzen ikusirik, mamuren bat zala uste izan eben, eta deadarka asi ziran, <sup>50</sup> guztiak ikusi eben-eta, ta bildurtuta egozan. Baiña bereala, Jesus'ek berba egin eutsen, esanez:

«Geldil, neu naz-ta; ez bildurtu». <sup>51</sup> Orduan, eurakana igo zan, txalupara, eta aizea gelditu egin zan, eta euren berruan guztiz arrituta gelditu ziran, <sup>52</sup> ogiena ez eben ulertu-ta; adimena itsututa euken, ostera (\*).

#### Jenesaref'en: ainbat mirari (Mt. 14, 34-36).

<sup>53</sup> Itxasoa igarota, legorrera eldu ziran, Jenesaref'en, eta antxe jatsi ziran. <sup>54</sup> Txalupatik urtenda batera ezagutu eben Jesus, <sup>55</sup> eta lurralde guzti a igaro eben, eta Jesus egoala entzuten eben tokira eroaten asi ziran geisorik egozanak, ogetxoetan. <sup>56</sup> Eta edozein tokitan sartzen zala, erri, uri naiz baserri izan, geisoak plazetan jarten eutsoezcan, eta, besterik ezean, soingaiñeko-ertza ikutzen izteko eskatzen eutsoen; eta ikutzen eutsoenak, osatuta gelditzen ziran.

## VII

#### Pariseuakaz eztabaidan (Mt. 15, 1-9).

<sup>1</sup> Pariseuak urreratzen yakoz, baita Jerusalem'dik etorritako idazlari batzuk be. <sup>2</sup> Eta Jesus'en ikasletariko batzuek esku loiakaz, edo bardin dana, eskuak garbitu bagarik jaten ebela ikusi ebezan. <sup>3</sup> – Izan be, pariseuak eta beste judar guztiak, aurretikoen ekanduai jarraituez, ez dabe jaten eskuak ukondoraiño garbitu bagarik, <sup>4</sup> eta plazatik etortean be, ez dabe jaten, lenengo euren buruak uretan bustiten ez ba'dabez (\*); eta beste egikizun asko be ba-daukez, ekanduz beteten dabezanak: esate baterako, edontzien, pitxarren eta azpillen (*plateren*) garbitzea. <sup>5</sup> Orregaitik, pariseuak eta idazlariak auxe itandu eutsoen: «Zure ikasleak, zegaitik ez dautsoe aurretikoen ekanduari jarraitzen, esku loiakaz jaten dabe-ta?». <sup>6</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsen: «Azalutsok!, zuei buruz ederto iragarri eban aurretiaz Isaias'ek, idatzita dagoanez:

Erri onek ezpanez goratzen nau, <sup>7</sup> baiña bere biotza nigandik urrun dago; alperrik gurtzen nabe, irakasten dabecan irakaspentak gizonen aginduak baiño ez dira-ta. <sup>8</sup> Jaungoikoaren agindua alde batera itxita, gizonen ekanduari eusten dautsazue zuek».

<sup>9</sup> Auxe be ba-zirautsen: «Oso polito austen dozue Jaungoikoaren agindua, zuen ekanduari eusteko. <sup>10</sup> Moises'ek auxe esan eban-eta: *Aintzat izango dozuz zure aita ta ama; eta, Bere aita naiz ama madarikatu dagiana, il egingo da.* <sup>11</sup> Zuek, barriz, auxe diñozue: «Norbaitek bere aitari naiz amari ba'dirautso: Nigandik izan bear zenduken laguntza-bide guztia, *Korban* da -edo bardin dana, opari da -, eta aurrerantzean ez dautsazue bere aita-gaitik edo amagaitik ezer egiten izten; <sup>13</sup> eta orrela, Jaungoikoaren itza indar bagarik izten dozue, gizaldiz gizaldi daroazuen ekanduagaitik; eta orretariko antzeko asko egiten dozuez».

**Garbia ta garbia ez dana** (Mt. 15, 10-20).

<sup>14</sup> Laguntaldeari barrero dei egin eta esan eutsen: «Entzun egidazue guztiok, eta ulertu. <sup>15</sup> Kanpoan ez dago ezer, gizonagan sartu ta au loitu daikenik; gizonagandik urteten danak, bai, orrexek loitzen dau gizona. <sup>16</sup> Entzuteko berlaririk euki dagianak, entzun dagiala» (\*).

<sup>17</sup> Eta laguntaldea itxi ta etxean sartu zanean, ikasleak ipuiñari buruz itandu eutsoen. <sup>18</sup> Jesus'ek auxe esan eutsen: «Zuok be adimen bagarik zagoze? Ez dozue uleitzen, kanpotik gizonagan sartzen danak ezin daikela gizona loitu?, <sup>19</sup> ez yako biotzean sartzen-eta, sabelean baiño, eta gero sastegira doala?. Orrela, janari guztiak zira-la garbiak agertzen eban. <sup>20</sup> Eta auxe iñoan, gaiñera: «Gizonagandik urteten danak, orrexek loitzen dau gizona. <sup>21</sup> Urten be, barrutik, gizonen biotzetik urteten dira asmo txarrak, aragikeriak, lapurretak, gizon-ilteak, <sup>22</sup> ezkontza-austeak, diru-goseak, dongakeriak, maltzurkeri, nasaie

ri, ikusi-ezin, lizunkereri, arrokeri, zorakeria. <sup>23</sup> Gaiztakeri guztiok barrutik urteten dira, eta loitu egiten dabe gizona».

**Kanaan'go emakumearen alaba osatzen dau** (Mt. 15, 21-28).

<sup>24</sup> Eta andik urtenda, Tiro'ko (\*) lurraldera joan zan; eta etxe baten sarturik, ez eban nai iñok jakin egian; baiña ez eban ezkutuan egoterik lortu. <sup>25</sup> Alab(e)a deabru zikiñak artuta eukan emakume bat, Jesus'en barri entzunda, etorri ta Jesus'en oiñetan auzpaztu zan. <sup>26</sup> Emakume au jentilla zan, jaiotzez sirofeniziarra; eta bere alabagandik deabrua jaurti egiala eskatzen eutsan. <sup>27</sup> Jesus'ek auxe esan eutsan: «Itxi lenen semeak bete daitezcan, ez da bidezko semeen ogia artu ta txakurtxoai jaurtitea-ta». <sup>28</sup> Emakumeak, barriz, auxe erantzun eutsan: «Bai, Jauna; baiña, txakurtxoak be jaten dabez mai-pean umeen ondarrak». <sup>29</sup> Orduan, Jesus'ek auxe esan eutsan: «Esan dozun orregaitik, zoaz; urten da deabrua zure alabagandik». <sup>30</sup> Bere etxera biurtu ta neskatoa ogean etzunda aurkitu eban. eta deabrua joanda.

**Gor-mutu bat osatzen dau.**

<sup>31</sup> Tiro'ko lurraldetik urten eta barrero Sidon-zear Galilea'ko itxasora etorri zan, Dekapolis igarorik. <sup>32</sup> Gor bat ekarten dautsoe, nekez berba egiten ebana, gaiñera; eta eskua aren gaiñean ezarri dagiala eskatzen dautsoe Jesus'i. <sup>33</sup> Onek, gizona laguntaldeagandik atara ta, bakarrean, atzamarrak sartu eutsazan belarrietan, eta txistuaz miña ikutu eutsan. <sup>34</sup> Eta, zerura begiraturik, zizpuru bat egin eban, eta auxe esan eutsan: «Effatá», edo bardin dana, «Zabaldu zaitez!». <sup>35</sup> Gizonaren belarriak zabaldtu egin ziran, eta, bat-batean, miin-lokarria askatu egin yakon, eta garbi berba egiten eban. <sup>36</sup> Iñori be ez esateko agindu eutsen Jesus'ek. Baiña, Jesus'ek gogorrago agindu, eta geiago zabaltzen eben besteak barria. <sup>37</sup> Eta zearo arrituta ego-



zan, eta auxe iñoen: «Ondo egin dau dana; eta gorrai entzun-erazo ta mutuai berba eragiten dautse».

## VIII

**Bigarren ogi-ugaritzea** (Mt. 15, 32-39).

<sup>1</sup> Egun areitan, barriro be laguntalde aundia izanik eta jatekorik ez eukela, Jesus'ek bere ikasleai dei egin eta auxe dirautse: <sup>2</sup> «Laguntalde oni erruki nakio, ba-dira iru egun neugaz dabizala ta ez dauke jatekorik-eta. <sup>3</sup> Euren etxeetara baraurik bialtzen ba'dodaz, ondezik jarriko dira bidean; eta euretariako batzuk urrundik etorri dira». <sup>4</sup> Ikasleak auxe erantzun eutsoen: «Zelan atara daike iñok emen, bakartade onetan, oneik beteteko beste ogi?». <sup>5</sup> Jesus'ek itandu eutsen: «Zenbat ogi daukazuez?». «Zazpi», erantzun eutsoen. <sup>6</sup> Orduan, lur-gaiñean jarteko agindu eutsan laguntaldeari. Eta, zazpi ogiak arturik eta eskerrak emenez, zatitu ta ikasleai emoten eutsezan banatu egiezan, eta ikasleak laguntaldeari emon eutsoezan. <sup>7</sup> Arraintxo batzuk be ba-eukezan. Eta, orreik be bedeinakutata gero, emon egiezala agindu eban. <sup>8</sup> Jan eta bete egin ziran, eta gelditu ziran mutxikiñetatik zazpi otzara bete jaso ebezan. <sup>9</sup> Lau millaren bat izan ziran; eta Jesus'ek bialdu egin ebazan. <sup>10</sup> Jarraian, bere ikasleak txalupara igo ta Dalmanuta-lurraldera joan zan.

**Pariseuak zerutiko ezaugarri bat eskatzen.**

<sup>11</sup> Pariseuak etorri ta Jesus'egaz eztabaidan asi ziran, azpikeriz zerutiko ezaugarri bat eskatzen eutsoela. <sup>12</sup> Bere barruan antzi (*edo zizpuru*) bat egiñaz, auxe diño: «Gizaldi onek, zegaitik eskatzen dau ezaugarri bat? Benetan dirautsuet: gizaldi oni ez yako ezaugarriarik emongo». <sup>13</sup> Eta, arekandik aldendurik, barriro txalupara igo ta beste itxasertzera joan zan.

**Pariseuen eta Erodes'en legamiña** (Mt. 16, 5-12).

<sup>14</sup> Ikasleai aztu egin yaken ogiak artzea, eta ogi bat baiño ez eroien eurakaz txalupan. <sup>15</sup> Jesus'ek oarkizun au egin eutsen: «Zabaldu begiok, eta gorde zaitzeze pariseuen eta Erodes'en legamiñetik». <sup>16</sup> Areik, ostera, ogirik ez eukela-ta ziarduen berbetan euren artean. <sup>17</sup> Ori igaririk Jesus'ek auxe dirautse: «Zegaitik diarduzue berbetan ogirik ez daukazuela-ta? Ez dozue oraindiño aitzen, ez ulertzen? Itsututa daukazue adimena, ala? <sup>18</sup> *Begiak euki ta ez dozue ikusten?, belarriak euki ta ez dozue entzuten?* <sup>19</sup> Ez dozue gogoratzen, bost milla gizonentzat bost ogi zatitu nebazanean, zenbat otzara mutxikiñez beterik batu zenduezanik?». «Amabi», erantzuten dautsoe. <sup>20</sup> «Eta lau milla gizonentzat zazpi ogiak zatitu nebazanean, zenbat otzara mutxikiñez beterik batu zenduezan?». «Zazpi», erantzun eutsoen. <sup>21</sup> Eta Jesus'ek esan eutsen: «Oraindiño be ez dozue ulertzen?».

**Betsaida'ko itsua osatzen dau.**

<sup>22</sup> Betsaida'ra eltzen dira. Itsu bat ekarten dautsoe, eta ikutu dagiala eskatzen dautsoe. <sup>23</sup> Itsuari eskutik oraturik, erritik kanpora atara eban; eta, ari begietan txistua ipiñita, aren gaiñean eskuak ezarri ta itandu eutsan: «Ezer ikusten dozu?». <sup>24</sup> Itsuak, begiak jasorik, auxe esan eban: «Gizonak ikusten dodaz, zugatzak (*arbolak*) lakoak ikusten dodaz-ta, baiña ibiltan». <sup>25</sup> Gero, begietan barriro eskuak ezarri eutsazan, eta garbi ikusten asi zan, eta osatuta gelditu zan, gauza guztiak urrundik argi-argi ikusten ebazala. <sup>26</sup> Eta etxera bialdu eban, esanez: «Errian be ez zaitetz sartu» (\*).

**Pedro'ren autorrak** (Mt. 16, 13-20; Lk. 9, 18-21).

<sup>27</sup> Filipo'ren Zesarea'ko errietaruntz urten zan Jesus bere ikasleakaz batera; eta bidean bere ikasleai itaun au egin eutsen: «Nor nazala diño e gizonak?». <sup>28</sup> Areik auxe

esan eutsen: «Batzuek Yon Bateatzaillea zarala: beste batzuek, Elias; beste batzuek, igarletariko bat». <sup>29</sup> Orduan, Jesus'ek auxe itandu eutsen: «Eta zuek, nor nazala diño-zue?». Pedro'k erantzun eutsan: «Zu Kristo'a zara». <sup>30</sup> Eta orretzaz iñori be berbarik ez egiteko agindu eutsen gogor be gogor.

**Bere Nekaldia aurretiaz iragarten dau**  
(Mt. 16, 21-23; Lk. 9, 22).

<sup>31</sup> Eta irakasten asi yaken: Gizasemeak oiñaze aundiak eroan bear ebazala, eta zaarrak, abadeak eta idazlariak ezetsi egingo ebela, eriotzarako galduko ebela, eta irugarren egunean barriro biztu egingo zala. <sup>32</sup> Orretzaz, argi ta garbi egiten eban berba. Orduan, Pedro, Jesus bakarrean arturik, asarre egiten asi yakon. <sup>33</sup> Baiña Jesus'ek, atzeruntz bihurturik eta ikasleai begiratuaz, Pedro'ri agiraka egin eutsan, esanez: «Kendu zakidaz aurretik, Satanas ori!, zure bururakizunak ez dira Jaungoikoarenak-eta, gizonenak baiño».

**Jesus'i jarraitzeko bidea** (Mt. 16, 24-28; Lk. 9, 23-27).

<sup>34</sup> Laguntaldeari ta bere ikasleai dei egiñik, auxe esan eutsen: «Norbaitek jarraitu nai ba'daust, bere burua ukatu, bere gurutzea artu ta jarraitu beist. <sup>35</sup> Bere bizia gorde nai dagianak, galdu egingo dau-ta; bere bizia neugaitik eta Barri Onagaitik galdu dagianak, barriz, gorde egingo dau. <sup>36</sup> Zetarako litzakio, ba, gizonari, mundu osoa irabaztea, bere bizia galdu ezker? <sup>37</sup> Zer emon daike, ba, gizonak, bere biziaren truke? <sup>38</sup> Izan be, gizaldi zantar eta pekatari onetan, nitzaz eta nire berbai buruz lotsatu daitena, Gizasemea be orretzaz lotsa izango da. bere Aitaren aintzaz aingeru santuakaz etorri daitenean».

## IX

<sup>1</sup> Auxe be ba-zirautsen: «Benetan dirautsuet, emen dagozanen artean, ba-dira batzuk, Jaungoikoaren erreñua bere indarraz etorten ikusi arte, eriotzarik artuko ez dabenak».

**Jesus'en irudi-aldatzea** (Mt. 17, 1-8; Lk. 9, 28-36).

<sup>2</sup> Sei egun geroago, Jesus'ek Pedro, Santiago ta Yon beragaz artu ta eurak soillik, bakarrean, mendi goi batera daroaz; eta irudiz aldatu egin zan arein aurrean; <sup>3</sup> eta bere jantziak diztiratsu ta zuri-zuri biurtu ziran, lurreko zuritzailek ezin zuritu leikeazan aiña. <sup>4</sup> Moises eta Elias agertu yakeezan, eta Jesus'egaz berbetan ziarduen. <sup>5</sup> Pedro'k, berba-lagun sartu ta Jesus'i dirautso: «Rabbi (*Irakasle*), ederto gagoz emen, ba! Egin dagiguzan iru txabola: bat zeuretzat, beste bat Moises'entzat, eta beste bat Elias'entzat». <sup>6</sup> Ez ekian zer iñoan be, ikaratuta egozan-eta. <sup>7</sup> Orduan, laiño batek, etorrita, bere gerizpean batu ebazan, eta laiñotik abots au entzun zan: «Auxe da nire Seme maitea: entzun egiozue». <sup>8</sup> Eta bat-batean, ingurura begiratu ta Jesus bakarrik baiño ez eben ikusi eurakaz.

**Elias'en etorrera** (Mt. 17, 9-13).

<sup>9</sup> Menditik jatsiten zirala, Gizasemea illen artetik biztu arte, ikusi izan ebena iñori be ez esateko agindu eutsen Jesus'ek. <sup>10</sup> Areik ondo bete eben esan ori; eta «illen artetik biztute» ori zer ete-zeitekean, alkarregaz eztabaidan ziarduen. <sup>11</sup> Eta Jesus'i itanduten eutsoen: «Zegaitik diño idazlariak, Elias'ek etorri bear dauala tenengo?». Jesus'ek auxe erantzun eban: «Lenengo, Elias etorriko da ta berak zuzenduko dau dana. Alan be, zelan dago idatzita Gizasemeari buruz, neke asko eroango dauzala ta ez dala aintzat artua izango? <sup>13</sup> Nik, barriz, Elias etorri dala dirautsuet, eta nai eben guztia egin eutsoela, aretzaz idatzita dagoanez».



**Deabrudun bai osatzen dau**

(Mt. 17, 14-21; Lk. 9, 37-42).

<sup>14</sup> Ikasleakana eltzean, arein inguruan laguntalde aundia ikusi eban (\*), eta idazlariak arekaz eztabaidan. <sup>15</sup> Jesus ikustean, laguntalde guztia bildurtu egin zan, eta agurtzera joan yakozan. <sup>16</sup> Jesus'ek auxe itandu eutsen: «Zertaz diarduzue eztabaidan orrekaz?». <sup>17</sup> Laguntaldetariko batek erantzun au emon eutsan: «Irakasle, neure semea ekarri dautsut: deabru mutu batek artuta dauko; <sup>18</sup> eta artzen dauan edonun, lurrera jaurtiten dau, agotik bitsa dariola, agin-karraska ta iegortuta izten dau. Jaurti egiela esan neutsen zure ikasleai, baiña ezin izan eben». <sup>19</sup> Jesus'ek erantzuten dautse: «Au bai gizaldi sinisogorra! (\*): noiz arte egongo ete-naz zuekaz? Noiz arte eroan bear ete-zaituet? Ekarri egidazue!». <sup>20</sup> Eta ekarri egin eutsoen. Jesus ikustez batera, gogoak (*deabruak*) mutilla astin-astin egin eban, eta, lurrera jausirik, lorrintzen ziarduan, bitza eriola. <sup>21</sup> Orduan, Jesus'ek bere aitari itaun au egin eutsan: «Noiz ezkeru jazoten yako au?». «Umetarik –erantzun eutsan arek–. Sarritan, sutara ta uretara ba jaurti dau, bertan galtzeko. Baiña, zuk ezer al ba'daikezu, lagun zakiguz, erruki zakiguz!».

<sup>23</sup> Jesus'ek auxe esan eutsan: «Zer da «al ba'daikezu» ori! Dana al daike fededunak!» (\*). <sup>24</sup> Bereala, auxe esan eban deadarka mutillaren aitak: «Sinisten dot, lagun zakioz nire siniste otzari!». <sup>25</sup> Jesus'ek, laguntaldea batzen zala ikusirik, gogo zikiñari agiraka agindu eutsan, esanez: «Neuk agintzen dauat, txerren gor eta mutu orri: urten adi orregandik, eta ez adi orregan bein be sartu». <sup>26</sup> Eta gogoa (*espiritua*), garrasika ta mutilla astin-astin egiñik. urten egin zan. Mutilla ilda lez gelditu zan, askok il egin zala esateraño. <sup>27</sup> Baiña Jesus'ek, eskutik oraturik, jaso egin eban, eta mutilla zutundu egin zan. <sup>28</sup> Jesus etxean sartu zanean, aren ikasleak bakarrean itanduten eutsoen: «Zegaitik ezin jaurti izan dogu, ba, guk?». <sup>29</sup> Jesus'ek auxe

erantzun eutsen: «Otoitzaz izan ezik (\*), ezin jaurti daiteke orretariko deaburrik».

**Bere Nekaldia bigarrenez iragarten dau**

(Mt. 17, 22-23; Lk. 9, 43-45).

<sup>30</sup> Andik urten eta Galilea-zear yoiazan; Jesus'ek ez eban iñok jakiterik nai, <sup>31</sup> bere ikasleai irakasten ziarduan-eta. Auxe zirautsen: «Gizasemea gizonen eskuetan itxia izango da; il egingo dabe, eta ilda gero, irugarren egunean. biztu egingo da». <sup>32</sup> Baiña areik ez eben zirautsen ori ulertzen, eta ari itanduteko be bildur ziran.

**Nor da aundiena?** (Mt. 18, 1-5; Lk. 9, 46-48).

<sup>33</sup> Kafarnaum'era eldu zan; eta etxean egoala, auxe itandu eutsen: «Zertaz ziarduen zuek eztabaidan bidean zear?». <sup>34</sup> Areik isildu egin ziran, euretarik aundiena nor ete-zan, bidean alkarregaz eztabaidan jardun izan eben-eta. <sup>35</sup> Orduan, jesarri egin zan, Amabiai dei egin eta auxe esan eutsen: «Norbaitek lenen izan nai ba'dau, guztien azkenengo eta guztien menpeko (*serbitzari*) izan bedi». <sup>36</sup> Eta ume bat arturik, arein erdian jarri eban; eta bere besoetan artu ta auxe esan eutsen: «Onelako ume-txoren bat neure izenean artu dagianak, neu artzen nau: <sup>37</sup> eta ni artu nagianak, ez nau ni artzen, neu bialdu nendua baiño».

**Jesus'en izena erabiltea** (Lk. 9, 49-50).

<sup>38</sup> Yon'ek auxe esan eutsan: «Irakasle, gizon bat deabruak zeure izenaz jaurtiten ikusi dogu, eta ez dator gugaz; guk galerazo egin dautsagu, ez etorren gugaz-ta». <sup>39</sup> Baiña Jesus'ek auxe erantzun eban: «Ez egiozue galerazo, nire izena esanda mirariren bat eginda gero nitzaz txarto esan daikenik iñor be ez dago-ta. <sup>40</sup> Gure kontra ez dagoana, geure alde dago-ta.

**Ikasleakanako maitasuna** (Mt. 10, 42).

<sup>41</sup> «Kristo'renak zareelako, edontzitzo bat ur edateko emon dagitzuen edonok, bere saria ez dauala galduko dirautsuet bene-benetan.

**Gaizpidea**

(Mt. 18, 6-9; Lk. 17, 1-2; Mt. 5, 13; Lk. 14, 34).

<sup>42</sup> «Eta (\*) sinisten dauan txikitxo oneitariko bat okerbidera eroan dagianak, obe dau astoak darabillen orretariko errota-arri bat samatik lotu ta itxasora jaurti dagien (\*). <sup>43</sup> Eta zure eskuak pekatutara ba'zaroaz, ebagi egizu: obe da eskumotz Bizitzan sartu zaitez, esku biak dozuzala, inpernura, iñoiz atzamauko ez dan sutara joatea baiño. <sup>44</sup> Eta zure oiñak pekatutara ba'zaroaz, ebagi egizu: <sup>45</sup> obe da ankamotz Bizitzan sartu zaitez, oin biak dozuzala, inpernura jaurtia izatea baiño. <sup>46</sup> Eta zure begiak pekatutara ba'zaroaz, atara egizu: <sup>47</sup> obe da begi-bakar Jaungoikoaren erreinuan sartu zaitez, begi biak dozuzala, inpernura jaurtia izatea baiño; <sup>48</sup> an ez yake *arra ilten eta sua ez da atzamatzen* (\*), <sup>49</sup> guztiak suaz izango dira gazituak-eta. <sup>50</sup> Ona da gatza; baiña gatza gazatzen ba'da, zerez gazituko dozue? Euki egizue gatza zuekan eta baka alkarregaz».

## X

**Ezkontza, askatu-eziña** (Mt. 19, 1-9).

<sup>1</sup> Andik alde egiñik, Judea'ko lurraldera eta Jordan'ez beste aldera joan zan; eta barriro be laguntaldea beragaz etorri zan, eta, oi ebanez, irakatsi egiten eutsen. <sup>2</sup> Pariseo batzuek urreratu ta, azpikeriz, auxe itandu eutsoen: «Itxi daike senarrak emaztea?». <sup>3</sup> Jesus'ek erantzun eutsen: «Zer agindu eutsuen Moises'ek?». <sup>4</sup> Areik erantzun eutsoen: «Izte-agiria idatzi ta emaztea izteko baimena emon eban Moises'ek». <sup>5</sup> Jesus'ek auxe esan eutsen: «Zeuon biotz-go-

gorkeriagaitik idatzi eutsuen agindu ori. <sup>6</sup> Baiña lurraren asierarik, *Jaungoikoak arra ta emea egin ebazan*. <sup>7</sup> *Orre-gaitik, gizonak bere aita ta ama itxi egingo dauz* (\*), <sup>8</sup> *eta biak aragiz bat izango dira*. Beraz, arrezkero ez dira bi, aragi bat baiño. <sup>9</sup> Beraz, Jaungoikoak alkartutakoa, ez begi gizonak askatu».

<sup>10</sup> Eta etxean, ikasleak barriro gai orretzaz itandu eutsoen. <sup>11</sup> Jesus'ek auxe esan eutsen: «Bere emaztea alde batera itxi ta beste bategaz ezkontzen dana, lenengoaren kontra ezkontza loitzen dau; <sup>12</sup> eta emazteak, bere senarra alde batera itxita, beste bategaz ezkontzen ba'da, ezkontza loitzen dau».

**Jesus eta umeak** (Mt. 19, 13-15; Lk. 18, 15-17).

<sup>13</sup> Ume batzuk ekarten eutsoezan, ikutu egizan; ikasleak, barriz, asarre egiten eutseen. <sup>14</sup> Baiña Jesus'ek, ori ikustean, asarratu ta auxe esan eutsen: «Itxi umetxoai nigana etorten, ez egiezue galerazo: Jaungoikoaren erreinua orrelakoxeak diranena da-ta. <sup>15</sup> Benetan dirautsuet: Jaungoikoaren Erreinua umetxoen antzera artzen ez dauana, ez da bertan sartuko». <sup>16</sup> Eta besarkatu egiten ebazan, eta, arein gaiñean eskuak ezarririk, bedeinkatu egiten ebazan.

**Gazte aberatsa** (Mt. 19, 17-22; Lk. 18, 18-23).

<sup>17</sup> Bideari jarraitzeko urten zala, norbaitek ariñeketan beragana jo ta, aurrean belaunikoturik, auxe itandu eutsen: «Irakasle on, zer egin bear dot oiñordekotzat betiko bizitza jaristeko?». <sup>18</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsen: «Zegaitik deitzen nozu ona? Jaungoikoa izan ezik, iñor be ez da ona (\*). <sup>19</sup> Ba-dakizuz Aginduak: *Ez iñor il, ezkor-tzarik ez loitu, lapurretarik ez egin, guzurrezko autorrik ez egin, zuzenbagea ez izan, zure aita ta ama aintzat artu*». <sup>20</sup> Arek, orduan, auxe erantzun eutsen: «Irakasle, guzti ori gaztetarik bete dot». <sup>21</sup> Jesus'ek, aregana begira-begira jarririk, maitatu egin eban eta auxe esan eutsen: «Ba-



ten bearrean zara oraindiño: zoaz, daukazun guztia saldu, eta beartsuai emon egiezu, eta zeruan dirutza aundia eukiko dozu; gero, zatoz eta jarraitu egidazu». <sup>22</sup> Baiña gaztea, berbok entzutean, arpegi illunez jarri, ta minduta joan zan, ondasunak ugari eukazan-eta.

**Aberastasunen arriskua** (Mt. 19, 23-26; Lk. 18, 24-27).

<sup>23</sup> Orduan Jesus'ek, bere ingurura begiraturik, bere ikasleai dirautse: «Bai nekez sartuko dirala aberatsak Jaungoikoaren Erreiñuan!». <sup>24</sup> Berbok entzutean, ikasleak ikararuta gelditu ziran. Baiña Jesus'ek, barriri berba egin eta esan eutsen: «Semeok, bai dala nekeza, gero, Jaungoikoaren Erreiñuan sartzea! <sup>25</sup> Errazago da gamelua jostorraz-zulotik sartzea, aberatsa Jaungoikoaren Erreiñuan sartzea baiño». <sup>26</sup> Areik geroago ta geiago arritzen ziran, eta alkarri auxe zirautsoen: «Nor zeruratu al izango da, ba?». <sup>27</sup> Jesus'ek, arekana begira-begira jarririk, auxe esan eutsen: «Ori, gizonentzat eziña da; ez, ostera, Jaungoikoarentzat: Jaungoikoarentzat guztia da eginkor-eta».

**Beartsuentzako saria** (Mt. 19, 27-30; Lk. 18, 28-30).

<sup>28</sup> Pedro auxe esaten asi yakon: «Ikusten dozu: guk guztia itxi ta zeuri jarraitu dautsugu». <sup>29</sup> Jesus'ek erantzun eutsan: «Benetan dirautsuet: ez da inortxo be, bere etxea, anaiak, arrebak, ama, aita, seme-alabak, naiz etxaldea neugaitik eta neure Barri Onagaitik itxita, <sup>30</sup> bateko eun alako etxe, anai, arreba, ama, seme-alaba, ta etxalde, erasoakaz batera, oraingo aldi onetan artuko ez dauzanik; eta geroko aldian, betiko bizitza. <sup>31</sup> Eta lenen diran asko, azker izango dira; eta azkenak, lenen».

**Bere Nekaldia irugarrenez iragarten dau**  
(Mt. 20, 17-19; Lk. 18, 31-33).

<sup>32</sup> Jerusalem'erako bidea igoez yoiazan, eta Jesus aurretik yoiakien; areik arrituta egozan, eta jarraitzen eutsoenak bildurrez egozan. Barriri Amabiak artu, eta berari jazo

bear izango yakona esaten asi yaken: <sup>33</sup> «Begira: Jerusalem'era igoten diardugu, eta Gizasemea abadeburu ta idazlerien eskuetan itxia izango da; eriotzarako galdu ta atzeritarren eskuetan itxiko dabe, <sup>34</sup> irri ta barre egin eta txistua jaurtiko dautsoe, zigorkadaz astindu ta il egingo dabe; eta iru egun barru biztu egingo da».

**Zebedeo'ren semeak** (Mt. 20, 20-23).

<sup>35</sup> Zebedeo'ren seme Santiago ta Yon urreratu ta auxe dirautsoe: «Irakasle, guk eskatu dagitzuguna emon dagiguzula nai dogu». <sup>36</sup> Jesus'ek esan eutsen: «Zer nai dozue nik emon dagitzuedan?». <sup>37</sup> Areik auxe erantzun eutsoen: «Zure goraldian, bata zeure eskumaldean eta beste zeure ezkerrealdean jzarri gaitzala egiguzu». <sup>38</sup> Jesus'ek auxe esan eutsen: «Ez dakizue eskatzen dozuena. Edan daikezue zuek nik edan bear dodan edontzia?, edo-ta, nik artu bear dodan bateoaz bateatuak izan zaitekezue?». <sup>39</sup> Areik erantzun eutsoen: «Bai, ba-daikegu». Jesus'ek auxe esan eutsen: «Edan bear dodan edontzia, edango dozue, bai, baita nik artu bear dodan bateoaz bateatuak be izango zaree; <sup>40</sup> baiña nire eskumaldean naiz ezkerrealdean jarrerazoteko eskubiderik ez dot nik; ori, atondu yakenentzat da».

**Buru diranak, menpeko izan bear dabe**  
(Mt. 20, 24-28; Lk. 22, 24-27).

<sup>41</sup> Beste amarrak, ori entzutean, Santiago'ren eta Yon'en kontra asarratzen asi ziran. <sup>42</sup> Jesus'ek, beragana dei egiñik, auxe dirautse: «Ba-dakizue errietako agintariak erria euren menpean daukena, eskubide osodun jaunak lez, eta aundikiak erria nausikeriz erabilten dabena. <sup>43</sup> Zuen artean, barriz, ez da orrela izan bear, bestetara baiño: zuen artean aundi izan nai dagiana, zeuon morroi izango da, <sup>44</sup> eta zuen artean lenen izan nai dagiana, guztien menpeko izango da; <sup>45</sup> Gizasemea be ez zan bestek

otseindu egian etorri-ta, morroi izatera ta bere bizia askoren alde ordaintzat emotera baiño».

**Jeriko'ko itsua** (Mt. 20, 29-34; Lk. 18, 35-43).

<sup>46</sup> Jeriko'ra eltzen dira. Jesus, bere ikasleak eta laguntalde aundia lagun ebazala, Jeriko'tik urtetea, Timeo'ren seme Bartimeo, eskeko itsua, bide-ondoan jesarrita egoan.

<sup>47</sup> Jesus Nazaretarra zala jakitean, deadarka asi zan: «Jesus, Dabid'en seme ori, erruki zakidaz!». <sup>48</sup> Asarre egiten utsoen askok, isildu zedin. Arek, ostera, gero ta deadar aundiagoa egiten eban: «Dabid'en seme ori, erruki zakidaz!». <sup>49</sup> Jesus gelditu egin zan, eta auxe esan eutsan: «Dei egiozue». Dei egiten dautsoe itsuari, esanez: «Uste on izan!; jagi zaitez, dei egiten dautsu». <sup>50</sup> Eta itsua, bere soingaiñekoa jaurtirik, beingo baten zutundu ta Jesus'egana etorri zan. <sup>51</sup> Jesus'ek, aregana begira, auxe esan eutsan: «Zer nai dozu egin dagitzudan?». Itsuak auxe erantzun eutsan: «Rabbuní (*Irakasle*), ikusi dagidala!». <sup>52</sup> Jesus'ek esan eutsan: «Zoaz, ba; zeure sinistreak atara zaitu onik». Eta, bat-batean, ikusi egin eban, eta bidean zear Jesus'i jarraitzen eutsan.

## XI

**Jesus Jerusalem'en sartzen da**

(Mt. 21, 1-11; Lk. 19, 28-38; Yn. 12, 12-16).

<sup>1</sup> Jerusalem'era urreratzean, Oriomendi-barreneko Betfaje ta Betania'ra eldu ziranean, Jesus'ek bere ikasletariko bi bialtzen dauz, <sup>2</sup> auxe zirautsela: «Zoaze zuen aurrean dagoan erri orretara; eta bertan sartuaz batera, oraindiño gizonik gaiñean jarri ez yakon astakume bat aurkituko dozue lotuta; askatu ta ekarri egizue. <sup>3</sup> Eta norbaittek, «zegaitik egiten dozue ori?», ba'dirautsue, auxe erantzun: Jaunak bear dau, eta bereala biurtuko dau ona».

<sup>4</sup> Joan ziran, ba, eta astakume bat aurkitu eben ate-ondoan

lotuta, kanpoan, kalean; eta askatu egin eben. <sup>5</sup> An egozanetariko batzuek auxe esan eutseen: «Zetan diarduzue or astakumea askatzen?». <sup>6</sup> Ikasleak Jesus'ek esan izan eutsenez erantzun eutseen, eta itxi egin eutseen. <sup>7</sup> Astakumea Jesus'egana daroe, eta astakumeari euren soingaiñekoak ezarririk, Jesus gaiñean jesarri zan. <sup>8</sup> Askok euren soingaiñekoak zabaldu ebezan bidean zear; beste batzuek, landetan ebagitako abarrak. <sup>9</sup> Aurretik eta atzetik yoiazanak, deadarka iñoen: «*Hosanna!* (aintza); *bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena!* <sup>10</sup> Bedeinkatua gure aita Dabid'egandik datorren erreiñua! Hosanna (*aintza*) goietan!». <sup>11</sup> Eta Jesus Jerusalem'en sartu zan, Jaunaren Etxean; eta inguru guztia begiratuta gero, arrezkero berandu zala, Amabiakaz Betania'runtz urten zan.

**Pikondoa** (Mt. 21, 18-19).

<sup>12</sup> Biaramonean, Betania'tik urten ziranean, Jesus gose izan zan. <sup>13</sup> Eta urrundik pikondo orritsu bat ikusirik, bertara jo eban, zerbait aurkituko eutsalakoan; ara elduta. orriak baiño ez eutsazan aurkitu; ez zan piku-sasoia-ta. <sup>14</sup> Orduan, pikondoari auxe esan eutsan: «Aurrerantzean, ez dagiala igandik iñok fruturik jan!». Eta aren ikasleak ori entzun egin eben.

**Jesus, Jaunaren Etxean**

(Mt. 21, 12-17; Lk. 19, 45-48; Yn. 2, 14-16).

<sup>15</sup> Jerusalem'era eltzen dira; eta, Jaunaren Etxean sarturik, an saltzen eta erosten ziarduenak kanpora jaurtiten asi zan; diru-aldatzailleen maiak eta uso-saltzailleen jarlekuak itxuli egin ebazan, <sup>16</sup> eta ez eban izten iñok Jaunaren Etxean ontzirik eroan egian. <sup>17</sup> Eta irakatsi egiten eutsen, auxe zirautsela: «Ez dago idatzita, ba, *Nire etxea erri guztiak ottoi-etxe deituko dabela?* Zuek, ostera, *lapur-zulo* egin dozue!». <sup>18</sup> Abadeburuak eta idazlariak ori jakin ebenean, Jesus zelan galdu asmatzen ziarduen; bildur eu-



tsoen-eta, laguntalde guztia Aren irakaspenez arrituta egoan-eta. <sup>19</sup> Illunabarrean, uritik kanpora urten zan.

**Sinismena ta otoitza. — Pikondoa, igartuta**  
(Mt. 21, 20-22).

<sup>20</sup> Goizean-goiz andik igarotean, pikondoa zustereraiño igartuta egoala ikusi eben. <sup>21</sup> Pedro'k, ori gogora ekarrik, Jesus'i dirautso: «Rabbi (*Irakasle*), begira: zuk marrikatu zenduan pikondoa, igartuta dago». <sup>22</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsan: «Izan egizue sinismena Jaungoikoagan. <sup>23</sup> Benetan dirautsuet: mendi oni «kendu adi emendik eta jaurti adi itxasora» esan dagionak eta diñoana jazo egingo dala, bere biotzean ez-bai bagarik sinistu dagianak, jadetsi egingo dau. <sup>24</sup> Orregaitik, ba-dirautsuet: otoitzean eskatu dagizuen edozer, artu egin dozue la sinistu egizue, eta jadetsi egingo dozue. <sup>25</sup> Eta otoitz egiteko zutitzen zareenean, parkatu egizue norbaiten kontra zerbaite ba'daukazue, zeruetan dagoan zuen Aitak be zuen iraiñak parkatu dagitzuezan» (\*). <sup>26</sup> (\*).

**Jesus'en eskubidea** (Mt. 21, 23-27; Lk. 21, 1-8).

<sup>27</sup> Jerusalem'era biurtzen dira; eta, Jaunaren Etxean ebillen artean, abadeburu, idazlari ta zaarrak urreratu <sup>28</sup> ta ba-dirautsoe: «Ze eskubidez egiten dozu ori?, edo-ta, nok emon dautsu ori egiteko orrelako eskubidea?». <sup>29</sup> Jesus'ek erantzun eutsen: «Itaun bat egin bear dautsuet. Erantzun egidazue, eta au ze eskubidez egiten dodan esango dautsuet. <sup>30</sup> Yon'en bateoa, zerutikoa, ala gizonakandikoa zan? Erantzun egidazue». <sup>31</sup> Areik alkarregaz asmatzen ziardeen: «Zerutikoa» zala ba'diñogu, «zegaitik z zautsoen, ba, sinistu?», esango dausku. <sup>32</sup> Baiña, «gizonakandikoa» zala, esango dogu?». Laguntaldearen bildur ziran: guztiak Yon igarle jatortzat euken-eta. <sup>33</sup> «Ez dakigu», erantzun eutsoen, ba, Jesus'i. Orduan, Jesus'ek auxe erantzun eutsen: «Neuk be ez dirautsuet au ze eskubidez egiten dodan».

## XII

**Maastegiko langille gaiztoak**

(Mt. 21, 33-46; Lk. 20, 9-19).

<sup>1</sup> Eta ipuiñetan asi yaken berbetan: «Gizon batek maastegi bat landu eban, inguruan esi bat egin eutsan, dolara bat egin, torre bat jaso, ta maastegia nekazari batzui alogeran (*errentan*) itxi eutsen, eta urrun joan zan. <sup>2</sup> Aldi egokian, nekazariai morroi bat bialdu eutsen, onekandik maastegiko frutuatarik egokiona jasoteko. <sup>3</sup> Nekazariai morroiari eldu, astindu, eta esku-utsik bialdu eben. <sup>4</sup> Beste morroi bat bialdu eutsen barriro; au be buruan zauritu ta iraindu egin eben. <sup>5</sup> Eta beste bat bialdu eban, eta au il egin eben; baita beste asko be bialdu ebazan; eta batzuk zauritu, eta besteak il egin ebezan. <sup>6</sup> Oraindiño be, ugazabari beste bat gelditzen yakon: bere seme maitea; azkenez, axe be bialdu eutsen, berekautan iñoala: «Nire semeari, beintzat, lotsa izango dautsoe». <sup>7</sup> Baiña nekazari areik alkarri auxe esan eutsoen: «Auxe da oiñordekoa. Goazan, il daigun, eta geurea izango da oiñordekotasuna». <sup>8</sup> Ari eldu, il, eta maastegitik kanpora jaurti eben. <sup>9</sup> Zer egingo ete-dau maastegi-jabeak? Etorri ta nekazari arei eriotza emongo dautse, eta maastegia beste batzui emongo dautse. <sup>10</sup> Ez dozue Liburu Santuan irakurri: *Etxegilleak baztartutako arria, giltzarri biurtu da*; <sup>11</sup> *Jauna izan zan ori egin ebana, eta ikusgarria da gure begiontzat?».*

<sup>12</sup> Jesus'i eskua ezarri nai eutsoen — baiña laguntaldearen bildur ziran —, ipuin ori eurakaitik esan ebala eza gutu izan eben-ta. Eta A (*Jesus*) itxirik, alde egin eben.

**Jaungoikoarena eta Zesar'ena**

(Mt. 22, 15-22; Lk. 20, 20-26).

<sup>13</sup> Pariseo ta Erodes'en alderdiko batzuk bialtzen dautsoez, Jesus berbaren baten zelan-alan artzeko. <sup>14</sup> Etorri ta ba-dirautsoe: «Irakasle, ba-dakigu egizale zarana ta iñoren ardurarik ez dozuna, ez dozu nor nor dan begi-

ratzen-eta; Jaungoikoaren bidea zabal-zabal erakusten dozu, ostera: Zesar'i zerga (*kontribuziñoa*) ordaintzea, bidezko da, ala ez? Ordainduko dogu, ala ez dogu ordainduko?». <sup>15</sup> Baiña Jesus'ek, arein azaluskeria ezaguturik, auxe esan eutsen: «Zegaitik zirikatzen nozue? Ekarri egidazue denario-diru bat, ikusi dagidan». <sup>16</sup> Eta ekarri egin eutsoen. Eta itaun au egin eutsen: «Norenak dira irudi autā idazkun au?». «Zesar'enak», erantzun eutsoen. <sup>17</sup> Jesus'ek auxe esan eutsen: «Zesar'ena, Zesar'i biurtu egiozue, eta Jaungoikoarena Jaungoikoari». Eta Aretzaz arrituta gelditzen ziran.

**Idakoen biztuera** (Mt. 22, 23-33; Lk. 20, 27-40).

<sup>18</sup> Biztuerarik ez dagoala diñoen saduzeo batzuk urreratzen yakoz, eta auxe itandu eutsoen: «Irakasle, Moises'ek auxe itxi euskun idatzita: Norbaiten anaia ilten ba'da, eta emaztea bai baiña semerik izten ez ba'du, anaiak alarguna beretzat artu dagiala, bere anaiari ondorengoa izteko. <sup>20</sup> Zazpi anai ziran: artu eban lenengoak emaztea, baiña ondorengorik itxi bagarik il zan; <sup>21</sup> bigarrenak be artu egin eban alarguna, eta ondorengorik itxi bagarik il zan; eta bardin irugarrenak be. <sup>22</sup> Zazpiretarik batek be ez eban ondorengorik itxi. Guztien ondoren, emakumea be il egin zan. <sup>23</sup> Biztueran, biztu daitezanean, areitariko norena izango da emazte?, zazpirak izan eben emazteztat-eta?».

<sup>24</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsen: «Oker ez ete-zabize. gero, orrexegaitik, Liburu Santuak eta Jaungoikoaren indarra ezagutzen ez dozuezalako? <sup>25</sup> Izan be, ildakoen artetik biztu daitezanean, ez gizonak artuko dabe emazterik, ez emakumeak senarrik, bestetara baiño: aingeruak legetxe izango dira zeruetan. <sup>26</sup> Ildakoen biztuerari buruz, barriz, ez dozue irakurri Moises'en liburuan, sasiko atal aretan, Jaungoikoak esan eutsan au: *Abraham'en Jaungoikoa, Isaak'en Jaungoikoa, eta Jakob'en Jaungoikoa naz ni?*

<sup>27</sup> Ez da illen Jaungoikoa, biziena baiño. Oso oker zabize».

**Agindurik nagusiena** (Mt. 22, 34-40; Lk. 10, 25-28).

<sup>28</sup> Eztabaidan entzun ebazan idazlarietariko bat urreratu zan; eta, oso ondo erantzun eutsela ikusirik, auxe itandu eutsan: «Zein da agindu guztietarik lenengoa?».

<sup>2</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsan: «Lenengoa, auxe da: *Entzun, Israel: Jauna, gure Jaungoikoa, Jaun bakarra da, eta Jauna, zure Jaungoikoa, zeure biotz osoaz, eta zeure arima osoaz eta zeure adimen osoaz, eta zeure indar guztiakaz izango dozu maite.* <sup>31</sup> Bigarrena, auxe da: *Zure lagun-urkoa, zeure burua legetxe izango dozu maite.* Oneik baiño agindu nagusiagorik ez dago». <sup>32</sup> Idazlariak auxe erantzun eutsan: «Ederto, Irakasle; zuzen zagoz Jaungoikoa bakarra dala ta Bera baiño ez dagoala esatean, <sup>33</sup> eta biotz-biotzez, adimen osoaz eta indar guztiakaz Bera maitatzea, eta lagun-urkoa norberaren burua legetxe maitatzea, erre-opariak eta eskintza guztiak baiño obe dala». <sup>34</sup> Eta Jesus'ek, zentzunez erantzun izan eba ikusirik, auxe esan eutsan: «Zu ez zagoz Jaungoikoaren Erreiñutik urrun». Eta arrezkero, ez eban iñok Ari itaunik egiteko arpegirik.

**Kristo, Dabid'en seme ta Jaun**

(Mt. 22, 41-46; Lk. 20, 41-44).

<sup>35</sup> Jesus'ek, erantzunik, auxe iñoan Jaunaren Etxean irakasten ziarduala: «Zelan diño idazlariak Dabid'en seme dala Kristo'a? Dabid'ek berak, Espiritu Santuaren eragigñez, auxe esan eban: *Jaunak nire Jaunari auxe esan eutsan: Jesarri zaitex nire eskumaldean, zure arerioak oinpean jarri dagitzudazan arte.* <sup>37</sup> Dabid'ek berak Jauna dei egiten dautso; zelan izan daiteke, ba, Dabid'en seme?».

Iaguntaldeak atsegigñez entzuten eutsan Jesus'i.



**Idazlarien azaluskeria**

(Mt. 23, 6-7; Lk. 20, 45-47; 11, 43).

<sup>38</sup> Auxe be ba-ifoan bere irakastaldian: «Gorde zaitze idazlariakandik, jantzi zabalaz ibiltea, plazetan agurtuak izatea, <sup>39</sup> sinagogetan lenengo tokiak eta bazkarietan lenengo jarlekuak artzea gura izaten dabezanokandik; <sup>40</sup> azalezko otoitz luzeen bidez, alargunen ondasunak iruntsiten dabezanokandik; orreik epai zorrotzagoa izango dabe.

**Alargunaren limosnatxo** (Lk. 21, 1-4).

<sup>41</sup> Jesus diru-kutxaren aurrean jesarri zan (\*), eta diru-kutxan txanponak izten ebezanai begira egoan: aberats askok dirua ugari izten eben. <sup>42</sup> Emakume alargun beartsu bat etorri ta txanpon bi emon ebazan, edo bardin dana, zuri bat\*. <sup>43</sup> Orduan, bere ikasleai dei egiñik, auxe esan eutsen: «Benetan dirautsuet; emakume alargun beartsu orrek, atabakan izten diarduen guztiak baiño geiago itxi dau. <sup>44</sup> gaiñezka dabenetik itxi dabe guztiak-eta; orrek, ostera, bizi izateko bear ebanetik, eukan guztia itxi dau».

## XIII

**Jerusalem'en ondamedia** (Mt. 24, 1-13; Lk. 21, 1-7).

<sup>1</sup> Jaunaren Etxetik urtetea, bere ikasletariko batek auxe dirautso: «Irakasle, begira orko arriak eta argintzak!». <sup>2</sup> Jesus'ek auxe esan eutsan: «Ikusten dozuz argintza guztiok? Ez da arri bat bestearen gaiñean lur jo bagarik geldituko». <sup>3</sup> Gero, Oriomendi'n, Jaunaren Etxearen aurrez-aurre jesarrita egoala, Pedro'k, Santiago'k, Yon'ek eta Ander'ek ixillean itandu eutsoen: <sup>4</sup> «Esan egiguzu ori noiz jazoko dan, eta guztiok bete daitezaneke ezaupidea zein izango dan».

\* Zuri: blanca, cuadrante = erromarren diru bat.

**Miñen asiera** (Mt. 24, 4-14; Lk. 21, 8-19).

<sup>5</sup> Jesus auxe esaten asi yaken: «Begira, gero!: iñok ez zagiezala azpikeriz eroan. <sup>6</sup> Asko etorriko dira neure izena artu ta «Neu naz», esanez; eta askoak atzipetuko dabez. <sup>7</sup> Guda (*gerra*) ta guda-otsai buruz berba egiten entzun dagizuenean, ez larritu, ori jazo-bearra da-ta; baiña, craindiño ez da azkena. <sup>8</sup> Izan be, erriak errien kontra jagiko dira, eta erreiñuak erreiñuen kontra. Baztarretan lurrikarak izango dira, eta goseteak; ori, min aundien asiera izango da.

<sup>9</sup> Baiña zuek, gorde zuon buruak; auzitegiatara eroango zaitue, sinagogetan zigorkadaz astinduak izango zaree ta agintarien eta erregeen aurrean egongo zaree nire ize-nagaitik, arein aurrean autor egin dagizuen. <sup>10</sup> Lenengo, Barri Ona erri guztiai iragarri bear yake. <sup>11</sup> Eta iñoren eskuetan izteko eroan zagiezanean, ez larritu zertzaz berba egin bear dozuen; une aretantxe burura emon dakizuena esan: berba egingo dozuenok ez zaree zuok izango-ta, Espiritu Santua baiño. <sup>12</sup> Anaiak anaia eriotzara emongo dau, eta aitak semea; semeak gurasoen kontra jagiko dira, eta il egingo dabez. <sup>13</sup> Eta neure izena dala-ta, guztiak gorroto izango dautsue; baiña, azkeneraiño iraun dagiana, orixe urtengo da onik\*.

(Mt. 24, 15-25; Lk. 21, 20-24).

<sup>14</sup> Baiña, *ondamendi iguingarria* egon bear ez leuken tokian ikusi dagizuenean – irakurleak ulertu dagiala –, orduan, Judea'n egon daitezanak mendietara iges egin dagiela; <sup>15</sup> etxe-gaiñean egon daitena, ez daitela bere etxe-ko gauzen bat batzera jatsi; <sup>16</sup> eta landan egon daitena, ez daitela bere soingaiñekoaren billa biurtu. <sup>17</sup> Egun areitan seiña (*umetxoa*) egiteko ta umea azten dagozanen zoritxarra! <sup>18</sup> Otoitz egizue, ori neguz izan ez daiten. <sup>19</sup> Izan be, egun areitan larrialdi aundia be aundia izango da,

\* Onik urten: salvarse.

Jaungoikoak mundua egin ebanetik orain arte izan ez dan lakoa, ezta barriro izango be alakorik.<sup>20</sup> Eta egur: areik Jaunak laburtu ez ba'legiz\*, ez litzake iñor salbatuko. Baiña, Berak aukeratu ebazanakitik, Jaunak laburtu egin dauz egun areik.<sup>21</sup> Orduan norbaitek ba'dirautsue: «Begira, ona emen Kristo'a», «Ara an», ez sinistu:<sup>22</sup> guzurrezko kristoak eta sasi-igarleak agertuko dira-ta, eta ezaugarriak eta mirariak egingo dabez, al ba'litz, aukeratuak eurak be okertzeko asmoz.<sup>23</sup> Jakitun egon, ba, zuok; aurretiaz iragarri dautsuet, gero, guztia.

**Gizasemearen etorrera** (Mt. 24, 29-31; Lk. 21, 25-27).

<sup>24</sup> «Baiña egun areitan, larrialdi aren ostean, eguzkia illundu egingo da, illargiak ez dau argirik egingo,<sup>25</sup> izarrak zerutik jausi egingo dira, eta zeruetan dagozan indarrak astinduak izango dira.<sup>26</sup> Orduan, Gizasemea ikusiko dabe lañoetan indar eta aintzaz beterik etorten;<sup>27</sup> orduan, aingeruak bialdu ta bere aukeratuak lau aize-baztarretatik batuko dauz, lurreko ertzetik zeruko ertzeraño.

(Mt. 24, 32-36; Lk. 21, 29-33).

<sup>28</sup> Ikasi egizue piku-arbolatik ipuin au: adarrak ziltzen yakozanean eta orriak urtetan diranean, ezagutzen dozue ud(e)a ur dagoana.<sup>29</sup> Orrelaxe, ba, zuok be: guzti ori jazoten dala ikusi dagizuenean, konturatu zaitzeze Gizasemea ataurrean ur dagoana.<sup>30</sup> Benetan dirautsuet: ez da gizaldi au igaroko, guzti ori jazo baiño len.<sup>31</sup> Zerua ta lurra igaro egingo dira; nire berbak, ostera, ez dira igaroko.<sup>32</sup> Baiña, egun eta ordu aretzaz iñok ezer ez daki, ez zeruan aingeruak, ezta Semeak be, Aitak bakarrik baiño (\*).

**Iratzarrik egon**

(Mt. 24, 42; 25, 13-15; Lk. 19, 12-13; 12, 38. 40).

<sup>33</sup> «Egon zaitzeze zuur eta iratzarrik, sasoi noiz izango dan ez dakizue-ta.<sup>34</sup> Urrunera doan gizonaren antze-

\* Laburtu ez ba'legiz = laburtuko ez ba'leukez.

ra: bere etxea itxi, morroiai eskubidea emon, bakoxtari bere egitekoea, eta zuur egon daitela agintzen dautso atezaiñari.<sup>35</sup> Zuur egon, ba, ugazaba noiz etorriko dan ez dakizue-ta: illunabarrean, ala gaberdian, ala oillarraren kukurrukutan, ala goizaldean;<sup>36</sup> bat-batean etorri ta lotan aurkitu ez zagiezan.<sup>37</sup> Zuoi dirautsuedan au, guztiai dirautsuet: Zuur egon!».

## XIV

**Batzar Nagusiaren erabagia** (Mt. 26, 2-5; Lk. 22, 1-2).

<sup>1</sup> Egun bi barru, Pazkoa ta Otil-egunak ziran. Eta abadeburuak eta idazlariak, Jesus'i azpikeriz eskuak ezarri ta eriotza emon, zelan egin zeitekion asmatzen ziarduen.<sup>2</sup> Auxe iñoen-eta: «Jai egunean ez, gero, errian naasteren bat sortu ez daiten».

**Mari'k Jesus'i usaingarria isuri**

(Mt. 26, 6-13; Yn. 12, 1-8).

<sup>3</sup> Jesus Betania'n, Simon legenardunaren maian jarrita egoala, emakume bat etorri zan, artzuri-ontzi baten balio aundiko akara-usaingarrik onenetarikoa ekarrela; ontzia ausi ta buru-gaiñera isuri eutsan.<sup>4</sup> Ba-ziran an euren artean iñoen batzuk, eta asarre esan be: «Usaingarri au, zetarako galdu da alperrik?»<sup>5</sup> Usaingarri au irureun denarriotan saldu ta beartsuai emon zeitekean». Eta emakumearen kontra mormoxetan asi ziran.<sup>6</sup> Baiña Jesus'ek auxe esan eban: «Itzi bakean orri. Zegaitik egiten dautsazue gogait? Egintza ona egin dau nitzaz.<sup>7</sup> Izan be, beartsuak beti daukazue zuekaz eta nai dagizuenean egin daikeezue on; ni, barriz, ez naukazue beti.<sup>8</sup> Al izan dauana egin dau. Nire gorputza illobirako aurretiaz igurtzi dau.<sup>9</sup> Benetan dirautsuet: Barri Ona iragarri daiten edozein tokitan, mundu zabalean, emakume onek egin dauana be esan egingo da, beronen gomutagarritzat».



**Judas'en saldukeria** (Mt. 26, 14-16; Lk. 22, 3-6).

<sup>10</sup> Orduan Judas Iskariote, Amabietariko bat, abadeburuakana joan zan, Jesus arein eskuetan jarteko. <sup>11</sup> Areik, ori entzutean, poz-pozik jarri ta dirua emongo eutsoela agindu eutsoen. Eta arei emoteko aukera-billa ziarduan.

**Pazko-aparia atontzen** (Mt. 26, 17-19; Lk. 22, 7-13).

<sup>12</sup> Otilletako lenengo egunean, Pazko-bildotsa oparizat ilten ebenean, ikasleak Jesus'i auxe dirautse: «Nora nai dozu joan gaitzean, zuk Pazko-bildotsa jateko atontzeak egin dagiguzan?». <sup>13</sup> Orduan, bere ikasle bi bialdu ta auxe dirautse: «Zoaze urira; edarra-bete ur daroan gizon bat urtengo yatzue bidera; jarraitu egiozue; <sup>14</sup> eta sartu daiten tokian, esan egiozue ugazabari: «Irakasleak diño: Nun dago nire jantokia, nire ikasleakaz batera Pazkoa jan dagidan?». <sup>15</sup> Jantoki aundi bat erakutsiko dautsue goiko bizitokian; atondu egiguzue antxe bear diranak». <sup>16</sup> Ikasleak urten, urira eldu, guztia Jesus'ek esan eutsenez aurkitu, eta Pazkoa gertatu eben.

**Pazko-aparia** (Mt. 26, 20-25; Lk. 22, 14, 21-23).

<sup>17</sup> Eta illuntzean, Amabiakaz dator. <sup>18</sup> Eta jarrita jaten ziarduela, Jesus'ek auxe esan eban: «Benetan dirautsuet, nigaz batera jaten diarduan zuetariko batek saldu egingo nau». <sup>19</sup> Areik naigabetzen asi ziran, eta banan-banan esaten asi yakozan: «Neu ete-naz, ba?». <sup>20</sup> Baiña, Jesus'ek auxe esan eutsen: «Nigaz batera eskua azpillean (*platerean*) bustiten dauan Amabietariko batek. <sup>21</sup> Ba-doa, bai, Gizasemea, beronetaz idatzita dagoanez; baiña, Gizasemea saltzen dauan errukarria! Obe leuke gizon orrek jaio ez ba'litz!».

**Eukaristia** (Mt. 26, 26-29; Lk. 22, 15-20).

<sup>22</sup> Jaten ziarduen artean, Jesus'ek ogia artu eban; eta, bedeinkatuta, zatitu, arei emon eta auxe esan eban: «Artu

egizue, au neure gorputza da». <sup>23</sup> Gero, edontzi (*kaliz*) bat artu ta eskerrak emonda, emon egin eutsen, eta guzti-guztiak edan eben bertatik. <sup>24</sup> Eta auxe esan eutsen: «Au, Alkartasuneko neure odola da, askoren alde isuria izango dana. <sup>25</sup> Benetan dirautsuet: onezkero ez dot geiago mats-ardao onetatik edango, Jaungoikoaren Erreñuan ardao barria edan dagidan arte».

**Pedro'ren ukatzeak aurretiaz iragarri**  
(Mt. 26, 30-35; Lk. 22, 39, 31-34; Yn. 13, 36-38).

<sup>26</sup> Eta ereserkiak abestuta, Oriomendi'runtz urten ziran. <sup>27</sup> Jesus'ek dirautse: «Guztiok bide okerrera joko dozue, idatzita dago-ta: *Artziña zaurituko dot, eta ardiak sakabanatu egingo dira*. <sup>28</sup> Baiña, barrero biztu naitenean, zeuon aurretik joango naz Galilea'ra». <sup>29</sup> Orduan, Pedro'k auxe esan eutsan: «Zutzaz guztiok lotsatu ba'daitez, be, ni ez, beintzat. <sup>30</sup> «Benetan dirautsuet –erantzun eutsan Jesus'ek –: gaur gabeon, oillarrak birritan kukurruku egin baiño len, zuk iru bidar ukatuko nozu. <sup>31</sup> Pedro'k, barriz, gero ta geiago iñoan: «Ezta zeugaz il bear izanda be, ez zaitut nik zu ukatuko». Eta orixe berori iñoen beste guztiak be.

**Jesus'en larzialdia Jotsemani'n**  
(Mt. 26, 36-46; Lk. 22, 40-45).

<sup>32</sup> Jotsemani izeneko etxalde batera eltzen dira; eta Jesus'ek bere ikasleai auxe dirautse: «Jesari zuek emen, nik otoitz egiten dodan artean». <sup>33</sup> Pedro, Santiago ta Yon beragaz artu, eta ikaratzen eta larritzen asi zan. <sup>34</sup> Eta auxe dirautse: «Larri dot biotza ilteko zorian. Gelditu zaitze emen eta iratzarrik egon». <sup>35</sup> Eta zerbait aurreratxoago joanda, lurrean auzpaztu zan, eta otoitz au egiten eban: al ba'zan beintzat, igaro ekiola ordu a. <sup>36</sup> Eta auxe iñoan: «Abba, Aita!: zuk dana egin daikezu; kendu egizu nigan-dik edontzi au; baiña, ez daitela neuk nai dodana izan, zeuk nai dozuna baiño». <sup>37</sup> Orduan, etorri ta lotan aur-

kitzen dauz; eta Pedro'ri ba-dirautso: «Simon, lo zagoz? Ordubetea be ezin egon izan zara iratzarrik? <sup>38</sup> Egon zaitzeze iratzarrik eta otoitz egizue, zirikaldian jausi ez zaitez: gogoa, egon be, gertu dago; aragia, barriz, makala da».

<sup>39</sup> Eta barriro alde egiñik, otoitz egin eban, berba bar-diñak esanez. <sup>40</sup> Barriro be etorri ta lotan aurkitu ebazan, arein begiak astunduta egozan-eta; ez ekien zer erantzun. <sup>41</sup> Irugarrenez etorri ta ba-dirautse: «Orain, bai, orain lo egin eta atsedan artu daikezue. Naiko da. Eldu da ordua. Begira: Gizasemea pekatarien eskuetan jarria izango da <sup>42</sup> Jagi zaitez! Goazan! Ementxe dago, onezkero, saltzen nauana».

#### Jesus, lotuta dazoe

(Mt. 26, 47-57; Lk. 22, 47-53; Yn. 18, 2-11)

<sup>43</sup> Oraindiño berbetan ziduala, bat-batean Judas, Amabietariko bat, etorri zan, eta aregaz batera laguntalde aundia ezpataz eta makillaz, abadeburu, idazlari ta zaarren izenean. <sup>44</sup> Saldu bear ebanak ezaugarri au emon eutsen: «Nik laztandu dagidana, axe da. Lotu ta arduraz eroar egizue». <sup>45</sup> Ba-dator, ba, bereala ta, Jesus'egana urreraturik, «Rabi (*Irakasle*)», dirautso; eta laztan bat emon eutsan. <sup>46</sup> Areik Jesus'i eskuak ezarri ta lotu egin eban. <sup>47</sup> An egoan batek, ezpat(e)a atarata, abade nagusiaren morroi bat zauritu ta belarria moztu eutsan. <sup>48</sup> Eta Jesus'ek berba egin eta auxe esan eutsen: «Lapur baten kontra lez etorri zaree ezpataz eta makillaz ni lotzera. <sup>49</sup> Egun oro jarduten neban Jaunaren Etxean zuen ondoan irakasten, eta ez zeusten eldu. Baiña Liburu Santuak bete daitezana da au». <sup>50</sup> Orduan, bereak Jesus bertan-bera itxi ta iges egin eban guztiak. <sup>51</sup> Mutil gazte batek jarraitzen eutsan, gorpuzta izar(e)az bakarrik estalduta; eta oratu egiten dautsoe. <sup>52</sup> Baiña arek, izar(e)a itxita, billoizik egin eban iges (\*).

#### Jesus, Abade Nagusiaren aurrean

(Mt. 26, 57-68; Lk. 22, 54. 63-71; Yn. 18, 15-16. 18).

<sup>53</sup> Jesus, Abade Nagusiaren aurrera eroan eban, eta abadeburu guztiak, zaarrak eta idazlariak batu egiten dirara. <sup>54</sup> Pedro'k be jarraitu egin eutsan urrundik, Abade Nagusiaren jauregi-barruraino, eta morroiakaz egoan jarrita, sutondoan berotzen. <sup>55</sup> Abadeburuak eta batzar osoak Jesus'en kontrako autorkizun baten billa ziarduen, Ari eriotza emoteko asmoz; baiña ez eban aurkitu. <sup>56</sup> Esan, askok iñoen guzurrezko autorra, baiña autorpenak ez etozan batera. <sup>57</sup> Batzuek, zutundurik, Aren kontra autor au egin eban: <sup>58</sup> «Geuk entzun geutsan esaten: Gizonak egindako Jaunaren Etxe au, neuk eratsiko dot lurrera, eta iru egunean gizonak egindakoa ez dan beste bat jasoko dot». <sup>59</sup> Baiña alan be, arein esanak ez etozan batera.

<sup>60</sup> Orduan, Abade Nagusia zutundu egin zan; eta, erdira jagirik, Jesus'i auxe itandu eutsan: «Ez dozu ezer erantzuten, ala? Zer da zure kontra oneik autortzen daban au?» (\*). <sup>61</sup> Baiña Jesus isilik egoan, eta ez eban ezer erantzuten. Barriro be Abade Nagusiak auxe itandu eutsan: «Kristo'a, Bedeinkatuaren\* Semea zara zu?». <sup>62</sup> Jesus'ek auxe erantzun eban: «Bai, neu naz, eta *Gizasemea Altasunaren\** eskumaldean jesarrita eta zeruko laiño-gaiñean etorten ikusiko dozue». <sup>63</sup> Abade Nagusiak bere jantziak urratu ta ba-diño: «Zetarako bear dogu, onezkero, testigurik? Zeuok entzun dozue biraoa: zer deritxazue?». Eriotzarako errudun zala ebatzi eban guztiak.

<sup>65</sup> Batzuk arpegira txistua jaurtiten asi yakozan, arpegia estaltzen eutsen eta jo egiten eban, «Igarri egiozu» zirautsoen artean; eta morroiak matrailakoak emoten euteozan.

\* Bedeinkatuaren = Jaungoikoaren.

\* Altasunaren = Jaungoikoaren.



**Pedro'ren ukatzeak**

(Mt. 26, 69-75; Lk. 22, 55-62; Yn. 18, 15-18. 25-27).

<sup>66</sup> Pedro atartean egoala, Abade Nagusiaren neskame-tariko bat urreratzen yako; <sup>67</sup> eta Pedro sutondoan berotzen ikusirik, ari begira-begira jarri ta ba-dirautso: «Zeu be Jesus Nazaretarragaz zengozan». <sup>68</sup> Baiña arek ukatu egin eban: «Nik, ez ezagutu ez zertaz berba egiten diarduzun be ez dakit». Eta kanpora urten zan, ataurrera. (\*) <sup>69</sup> Neskameak Pedro ikusi ta an egozanai esaten asi yaken barrero be: «Ori be areitariko bat da». <sup>70</sup> Pedro'k barrero be ukatu. Gerotxoago, an egozanak barrero be Pedro'ri auxe esan eutsen: «Bai, zu areitarikoa zara, Galilearra zara gainera-ta». <sup>71</sup> Orduan, Pedro biraoka ta zin egiten asi zan: «Ezagutu be ez dodala egiten, ba, zuek diñozuen gizon orri!». <sup>72</sup> Bereala, oillar batek bigarrenez kukurruku egin eban; eta Pedro'k, Jesus'ek esan eutsan au ekarri eban gogora: «Oillarrak birritan kukurruku egin baiño len, zuk iru bidar ukatuko nozu». Eta negarrez asi zan.

## XV

**Jesus, Pilato'ren aurrean**

(Mt. 27, 1-2. 11-26; Lk. 22, 66; 23, 1-5. 13-25; Yn. 18, 28-40; 19, 4-16).

<sup>1</sup> Laster, egunsentian, abadeburuak zaarrakaz, idazlariakaz eta Batzarreko guztiakaz batera batzarra egin eban; eta Jesus lotuta gero, eroan eta Pilato'ri emon eutsen. <sup>2</sup> Pilato'k itaun au egin eutsan: «Judarren Erregea zara zu?». Jesus'ek auxe erantzun eutsan: «Zeuk diñozu». <sup>3</sup> Abadeburuak gai askotaz salatzen eban. <sup>4</sup> Barrero itandu eutsan Pilato'k: «Ez dozu ezer erantzuten? Begira zenbatetan salatzen zaituen». Baiña Jesus'ek ez eban geiago ezer be erantzun, Pilato guztiz arrituta gelditzeraiño.

<sup>6</sup> Jai bakotxean erriburuak giltzapeko bat askatzen eutsen, eurak eskatu egiena. <sup>7</sup> Ba-zan Barrabas izeneko bat,

matxinada baten norbait il ebala-ta, matxiñarrakaz batera giltzapean egoana. <sup>8</sup> Laguntaldea igo ta beti emoten eutsen mesedea eskatzen asi ziran. <sup>9</sup> Pilato'k auxe erantzun eutsen: «Nai dozue judarren Erregea askatu dagitzuedan?». <sup>10</sup> Abadeburuak ikusi-eziñez saldu eutsoena ba-ekian-eta. <sup>11</sup> Abadeburuak, barriz, laguntaldea axatu egin eban, Jesus bagarik Barrabas askatu egiela esateko. <sup>12</sup> Baiña, Pilato'k barrero esan eutsen: «Zer egingo dautsat, ba, judarren Errege dei egiten dautsazuen oni?». <sup>13</sup> Laguntaldea deadar egin eban barrero: «Gurutzean josi egizu!». <sup>14</sup> Pilato'k auxe esan eutsen: «Ze gaiztakeri egin dau, ba?». Baiña, areik gero ta deadar aundiagoa egiten eban: «Gurutzean josi egizu!». <sup>15</sup> Orduan, Pilato'k, laguntaldearen ederragaitik, Barrabas askatu ta Jesus, zigorkadaz astinduta gero, gurutzean josia izan zedin emon eutsen.

**Arantzazko koroia**

(Mt. 27, 27-31; Yn. 19, 1-3; Mt. 27, 32-33; Lk. 23, 26; Yn. 19, 17).

<sup>16</sup> Gudariak jauregi-barrura eroan eban, edo bardin dana, gudaletxera; eta gudari-talde guztia batu eban. <sup>17</sup> Purpurazko soiñekoa jazten dautsoe, eta, arantzazko koroia bat eginda, buruan ezarten dautsoe. <sup>18</sup> Eta agurtzen asi yakoan: «Agur, judarren Errege orri!». <sup>19</sup> Eta kaiñabera batz buruan jotzen eban, txistua jaurtiten eutsoen, eta, be-launikoturik, makurtu egiten ziran Aren aurrean. <sup>20</sup> Aren lepotik naikoa barre eginda gero, purpurazko jantzia kendu ta bere soiñekoak jantzi eutsoezan; eta gurutzean josteko atara eban.

**Gurutzerako bidea.**

<sup>21</sup> Zirene'ko Simon, Alexander'en eta Eirupo'ren aita etorren orduantxe solotik, eta Jesus'en gurutzea eroateko beartu eban. <sup>22</sup> Golgota-tokira daroe, euskeraz *Buruazurtegi'ra*.

**Jesus, gurutzean**

(Mt. 27, 34-38; Lk. 23, 33-34; Yn. 19, 18-24).

<sup>23</sup> Eta mirraz naastutako ardaoa eskintzen eutsoen, baiña ez eban artu. <sup>24</sup> Gurutzean josten dabe; eta Aren jantziak banandu egin ebezan, zotz-egiñik, nok zer eroango. <sup>25</sup> Irugarren ordua zan gurutzean josi ebenean. <sup>26</sup> Eta eriotz-agiri au egoan idatzita: «Judarren Erregea». <sup>27</sup> Jesus'egaz batera lapur bi josi ebezan gurutzean, bata Aren eskumaldean, eta bestea Aren ezkerrekaldean. (<sup>28</sup> Olantxe bete zan Liburu Santuak diñoan au: *Gaiztoen artean izan da jarria*) (\*).

**Jesus'i irainka baten** (Mt. 27, 39-44; Lk. 23, 35-37).

<sup>29</sup> Eta andik igaroten ziranak, iraindu egiten eben, buuruari eragiñez eta esanez: «E, zul, Jaunaren Etxea lurrera eratsi ta iru egunean jasoten dozun orrek, <sup>30</sup> askatu egizu zeure burua gurutzetik jatsiaz». <sup>31</sup> Abadeburuak be, idazlariakaz batera, irri ta barre egiten eutsoen, alkarri zirautsoela: «Askatu ebazan beste batzuk, eta ezin dau bere burua askatu. <sup>32</sup> Kristo'a, Israel'go Erregea!; jatsi daitela orain gurutzetik, guk ikusi ta sinistu dagigun». Aregaz batera gurutzean eskegita egozanak be, iraindu egiten eben.

**Jesus'en eriotza**

(Mt. 27, 45-54; Lk. 23, 44-47; Yn. 19, 28-30).

<sup>33</sup> Seigarren ordua elduta, lur osoa illunetan gelditu zan bederatzigarren ordurarte. <sup>34</sup> Bederatzigarren orduan, Jesus'ek deadar aundi bat egin eban: «Eloi, Eloi, lámá sabactáni!», edo bardin dana, «Ene Jaungoikoa, ene Jaungoikoa!, zegaitik itxi nozu bertan-bera?». <sup>35</sup> Ori entzunda, an egozan batzuek auxe esan eben: «Begira, Elias'i deika diardu». <sup>36</sup> Orduan, bat ariñeketan belaki (*esponja*) bat ozpiñetan bustitera joan zan; eta kaiñabera baten ezarririk, edaten emoten eutsan, esanez: «Egon apur baten, ikusi dagigun eratsitera Elias ete-datorkion». <sup>37</sup> Baiña Jesus'ek, deadar aundi bat egiñik, azken-arnasa emon eban. <sup>38</sup> Jau-

naren Etxeko oiala zati bitan urratu zan goitik beera. <sup>39</sup> Jesus'en ondoan egoan euntariak\*, orretara il zala ikustean, auxe esan eban: «Benetan, gizon au Jaungoikoaren Semea zan».

(Mt. 27, 55-56; Lk. 23, 49; Yn. 19, 25).

<sup>40</sup> Emakume batzuk be ba-ziran an, urrundik begira; arein artean, Mari Madalen, Santiago gaztearen eta Jose'ren ama Mari, eta Salome: <sup>41</sup> oneik, Jesus Galilea'n egoala, lagun egiten eta neskame-lanetan jarraitzen eutsoenak ziran; baita beste emakume asko be ba-ziran, Jesus'egaz batera Jerusalem'era igo izan ziranak.

**Jesus'en illobiratzea**

(Mt. 27, 57-61; Lk. 23, 50-55; Yn. 19, 38-42).

<sup>42</sup> Eta illuntzean, Gertatze-eguna zan ezkerro, edo bardin dana, Zapatu-aurreko eguna, <sup>43</sup> Arimatea'ko Jose, Batzarreko batzarkide agurgarria ta Jaungoikoaren Erreñuaren zain be ba-egoana etorri zan, eta Pilato'gana sartzeko, ta oni Jesus'en gorpua eskatzeko adorea izan eban. <sup>44</sup> Pilato arritu egin zan Jesus ain laster il izateaz; eta, euntariari dei egiñik, benetan il ete-zan itandu eutsan. <sup>45</sup> Euntariak jakitun jarri ebanean, Jose'ri emon eutsan gorpua, <sup>46</sup> eta onek, izara bat erosirik, gurutzetik eratsi, izar(e)az batu ta arri bizian zulatutako illobian ipiñi eban; gero, illobi-sarrerairño arri bat txiringolaka jarri eban. <sup>47</sup> Mari Madalen eta Jose'ren Mari gorpua nun ipinten eben begira egozan.

## XVI

**Illobia, utsik**

(Mt. 28, 1-8; Lk. 24, 1-12; Yn. 20, 1-10).

<sup>1</sup> Zapatua igarota, Mari Madalen'ek, Santiago'ren Mari'ri'k eta Salome'k usaingarriak erosi ebezan, Jesus igurtzi-

\* Euntari: eun gudariren buru edo nagusi zana.



teko\* asmoz. <sup>2</sup> Eta goizaldean, astearen lenengo egunean, eguzkia urtetean (\*), illobira eltzen dira. <sup>3</sup> Alkarri auxe zirautesoen: «Nok kenduko dausku arria illobi-agotik?». <sup>4</sup> Gora begiratu, eta arria illobitik kenduta egoala ikusten dabe, arria aundia zanarren. <sup>5</sup> Illobian sartu ta gazte bat ikusi eben eskumaldean jesarrita, soiñeko zuriz jantzita: ikaratu egin ziran. <sup>6</sup> Arek, ostera, auxe dirautse: «Ez ikaratu. Gurutzean il eben Jesus Nazaretarraren billa diarduzue; biztu egin da, ez dago emen. Ikusi ipiñi eben tokia. <sup>7</sup> Joan zaiteze, barriz, bere ikasleai ta Pedro'ri esatera. Galilea'ra zeuon aurretik joango dala; antxe ikusiko dozue, Berak esan eutsuenez». <sup>8</sup> Emakumeak illobitik urten eta iges egin eben, ikara ta bildur aundiak artu ebazan-eta; ez eutsuen iñori ezer esan, bildur ziran-eta (\*).

**Jesus biziuta agertzen da** (Yn. 20, 11-18).


<sup>9</sup> Jesus goizaldean, astearen lenengo egunean biztu zan; eta Mari Madalen'i agertu yakon lenen, zazpi deabru jaurti eutsazanari berari. <sup>10</sup> Eta au, Jesus'egaz bizi ziranai barria emotera joan zan, atsekabez eta negarrez egozan-eta. <sup>11</sup> Areik, Jesus bizi be bizi zala ta berak ikusi izan ebala entzutean, ez eben sinistu. <sup>12</sup> Arrezkero, areitariko biri agertu yaken beste antz-irudiz, baserri baterako bidean yoiatzala. <sup>13</sup> Oneik besteai barria emotera biurtu ziran; baiña onei bioi be ez eutseen sinistu. <sup>14</sup> Azkenez, amaika ikasleak maian egozala, Jesus agertu ta arpegira jaurti eutsen euren sinisgogorkeria ta biotz-gogorra: Bera biztuta ikusi ebenai sinistu ez eutseelako (\*). <sup>15</sup> Eta auxe esan eutsen: «Zoaze mundu zabalean zear, eta gizaki guztiai Barri Ona iragarri egiezue. <sup>16</sup> Sinistu dagiana ta bateatua izan daitena, zeruratu (*salbatu*) egingo da; sinistu ez dagiana, galdu egingo da. <sup>17</sup> Oneixek izango dira sinistu dagienai jarraituko dautseezan ezaugarriak: deabruak jaurtiko dabez nire izenean, izkuntza (*berbeta*) barriak (\*) ber-



\* Igurtzi, gantzutu; embalsamar.

ba egingo dabez, <sup>18</sup> sugeak artuko dabez euren eskuetan; eta ilgarririk edanarren be, ez dautse kalterik egingo; gei-soen gainean eskuak ezarriko dabez, eta osatu egingo dira».

<sup>19</sup> Onenbestez, Jesus Jauna, arei berba eginda gero, zerura jaso izan zan, eta Jaungoikoaren eskumaldean jesarri zan.

<sup>20</sup> Areik alde guztietan zear Barri Ona iragartera urten ziran, Jaunak lagun egiten eutsoela ta arein Itza ezaugarrien laguntzaz indartzen ebala.





## JESUKRISTO'REN BARRI ONA

### Lukas Deunak dakarrenez

Lukas deuna, jentillen artetik etorritako kristaua zan, Siria'ko Antiokia'tik, urrean.

Osagillea zan. Paulo deunaren laguntzaille zintzo ta adoretua izan zan, eta aregaz batera Zesarea'n eta Erroma'n gutzapean egon zana.

Barri Onaren indarrak gizaki guztientzat balio dauala agertzen dau.

Jesus, Salbatzaillea da, pekatarien adiskide ta beartsuen laguntzaillea.

Osagillea zanez, gizona ta gizonak barruan daroana ondo txo ezagutzen dauz. Guztien naigabea agirian jarten dau, eta emakumeena batez be; baita naigabe ori gutxitzeko Jesus'ek egin ebana be. Berak azaltzen dauskuz, beste Ebanjelariak baiño geiago, Andra Maria'ri dagokiozan zertxo asko.

Jesus'en umetzarora ta Yon Bateatzaillearen cgikizuna azaltzen asten dau bere Barri Ona (1 ta 2); gero, Jesus'en egikizuna Galilea'n (4, 14-9, 50), Jesus'en ikasbidea ta mirariak (9, 51-18, 14) eta Beronen bizialdia Judea'n eta Jerusalem'en (18, 15-21, 38). Azkenez, beste Ebanjelariak lez, Jaunaren Nekaldi, Eriotz eta Biztueraz amaitzen dau bere Barri Ona (22, 1-24, 53).

70'garren urte-aldean idatzi eban, eta Erroma'n idatzi be, antza.

Alkartasun Barriko " Apostoluen Egiñak" liburua be, beronek idatzi eban.

Kristo'ren alde emon eban bere odola. Bere eguna, Urri'llaren 18'garrenean ospatzen dogu.



## I

**Sarreza**

<sup>1</sup> Gure artean jazotakoak, <sup>2</sup> asierarik ikusle ta berba-irakasle izandakoak jakiñerazo deuskuezanez <sup>1</sup> azaltzen. askoak alegindu diran ezker, <sup>3</sup> neuk be zuri, Teofilo bikain orri, asierarik guztia zeatz-zeatz aztertuta gero, era onez idaztea erabagi dot, <sup>4</sup> artu dozuzan irakaspenen sendotasuna ezagutu dagizun.

**Yon'en jaiotzaren barri-emotea.**

<sup>5</sup> Erodes, Judea'ko erregearen egunetan, Abia'ren taldeko abade bat zan, Zakarias izenekoa; onen emaztea, barriz, Aaron'en ondorengo bat zan, Elizabet izenekoa; <sup>6</sup> zintzoak ziran biok Jaungoikoaren aurrean, eta Jaunaren agindu ta zuzenbide guztiak utsik egin bagarik beteten ebezan. <sup>7</sup> Ez eben umerik, Isabel sabel-legorra zanteta; biak, barriz, urteetan aurreratuak. <sup>8</sup> Bere taldeko txandan Zakarias'ek Jaungoikoaren aurrean abade-egikizunetan ziarduan baten, <sup>9</sup> lurriña (*intzentsua*) eskintzeko, Jaunaren Etxean sartzea jazo yakon, abadeen artean oitura zanez (\*). <sup>10</sup> Erriko talde guztia otoitz egiten ziarduan kanpoan, intzentsu-orduan.

<sup>11</sup> Jaunaren aingeru bat agertu yakon intzentsu-altarako eskumaldean zutik. <sup>12</sup> Zakarias, aingerua ikustean, larritu egin zan, eta bildurrak artu eban. <sup>13</sup> Aingeruak auxe esan eutsan: «Ez bildurtu, Zakarias, zure eskaria entzuna izan da-ta; zure emazte Elizabet'ek seme bat egingo dautsu, eta izena Yon ezarriko dautsazu; <sup>14</sup> atsegin eta pozgarri izan-go yatzu. eta aren jaiotzaz lagun asko poztuko dira, <sup>15</sup> Jaunaren aurrean aundia izango da-ta; ardaorik, ez edari bizirik\* ez dau edango; bere amaren sabeletik Espiritu Santuz beteko da, <sup>16</sup> eta Israel'go semetariko asko euren Jaungoiko Jaunagana biurtuko dauz, <sup>17</sup> eta Aren aurrean

\* Edari bizi: licor.

joango da Elias'en adorea eta indarraz: *gurasoen biotzak semeakana* ta biurriak zintzoen jakituriara *erakarteko*, Jaunari erri bikain bat atundurik».

<sup>18</sup> Zakarias'ek aingeruari auxe esan eutsan: «Zelan ezagutuko dot nik ori? Ni zaarra naz-ta; nire emaztea, barriz, urteetan aurreratu». <sup>19</sup> «Ni Gabriel naz -erantzun eutsan aingeruak -, Jaungoikoaren aurrean nagoana; eta zuri berba egitera ta barri on au emotera izan naz bialdua. <sup>20</sup> Nire berbok sinistu ez dozuzan ezker, mutututa geldituko zara, nik esandakook jazo daitezcan arte berbarik egin eziñik; nire berbok, barriz, euren sasoiari beteko dira» (\*).

<sup>21</sup> Erria Zakarias'en zain egoan eta Jaunaren Etxean ain luzaro egoala-ta, arrituta egozan. <sup>22</sup> Urten zanean, ezin berbarik egin eutsen, eta Jaunaren Etxean ikuskizunen bat izan ebalaz ezagutu eban; arek kiñuka egiten eutsen berba, eta mutu iraun eban.

<sup>23</sup> Aren abade-egikizunak bete ziranean, bere etxera joan zan. <sup>24</sup> Egun batzuk geroago, aren emazte Elizabet seindun egin zan, eta ezkutuan egon zan bost illebeteen, <sup>25</sup> esanez: «Auxe egin dau Jaunak nigaitik, nire lotsakizuna gizonen artean kentzea ontzat izan dauan egunetan».

**Aingeruak Maria'ri Jesus'en sortzea iragarri dautso.**

<sup>26</sup> Seigarren illebetera (\*), Jaungoikoak Gabirel aingerua Nazaret deritxon Galilea'ko urira bialdu eban, <sup>27</sup> neska (*birjiña*) bategana; neskatilla au, Jose eritxon Dabid'en etxeko gizon bati ezkontzeko berba emon eutsana zan, eta birjiñaren izena, Maria. <sup>28</sup> Eta berau egoan tokian aingerua sartu ta auxe esan eutsan: «Poztu zaitez, graziaz bete ori, Jauna da zugaz» (\*). <sup>29</sup> Berbok entzunda, Maria ikaratu egin zan, eta arelako agurra zer izan zeitekean erabilen buruan. <sup>30</sup> Aingeruak auxe esan eutsan: «Ez izan bildurrik, Maria, Jaungoikoaren aurrean grazia aurkitu do-

zu-ta (\*); <sup>31</sup> sabelean semea sortu ta egingo dozu, eta ize-na Jesus ezarriko dautsazu. <sup>32</sup> Aundia izango da Bera, eta Gorengoaren seme dei egingo dautsoe, eta Jaungoiko Jaunak Aren aita Dabid'en errege-jarlekua emongo dautso; <sup>33</sup> Jakob'en etxeko errege izango da betiko, eta Aren erreiñuak ez dau azkenik». <sup>34</sup> Maria'k aingeruari auxe erantzun eutsan: «Zelan izan daiteke ori, gizonezkorik ez dot ezagutzen-eta?» (\*). <sup>35</sup> Aingeruak auxe erantzun eutsan: «Espiritu Santua etorriko da zugana, eta Gorengoaren indarrak bere gerizaz estalduko zaitu; orregaitik, zugandik jaioko dana, santu izango da, eta Jaungoikoaren seme dei egingo dautsoe (\*). <sup>36</sup> Begira: zure senide Elizabet'ek be, bere zartzaroan seme bat sortu dau, eta sabel-agor dei egiten eutsoenaren seigarren illebetea be ba-da oraingo au, <sup>37</sup> Jaungoikoarentzat eziñik ez dago-ta». <sup>38</sup> Maria'k auxe esan eban: «Ona emen Jaunaren mirabea\*; egin bedi nigan zeuk diñozunez». Eta aingerua, Maria itxita, joan egin zan.

#### **Maria'k Elizabet'i egin eutsan ikustaldia.**

<sup>39</sup> Egun areitan, Maria jagi ta mendi-alde batera joan zan arin, Juda'ko uri batera; <sup>40</sup> Zakarias'en etxean sartu ta Elizabet agurtu eban. <sup>41</sup> Eta Maria'ren agurra Elizabet'ek entzunez batera, sabelean seiña (*umetxoa*) pozez saltoka asi yakon eta Elizabet Espiritu Santuz beterik gelditu zan: <sup>42</sup> eta, deadar aundi bat egiñez, auxe esan eban: Bedeinkatua zu emakumeen artean eta bedeinkatua zure sabeleko frutua. Nor naz ni, baiña, nire Jaunaren ama etorri dakidan? Izan be, zure agurraren abotsa neure belarrietara etorriez batera, seiña (*umea*) sabelean pozez saltoka asi yat. <sup>45</sup> Zoriontsua, Jaunaren izenean esan yakozanak beteko dirala sinistu dauana!» (\*).

\* Mirabe: sierva, esclava.

#### **Andra Maria'ren abestia: "Magnificat".**

<sup>46</sup> Eta Maria'k auxe esan eban: «Nire arim(e)ak Jauna goratzen dau, <sup>47</sup> eta nire gogoa Jaungoiko nire Salbatzailleagan poztuten da, <sup>48</sup> bere mirabe onen apaltasuna begiratu dau-ta. Orregaitik, aurrerantzean gizaldi guztiak zoriontsua deituko nabe, <sup>49</sup> Altsuak nire alde arrigarriak egin dauz-ta; Santua da Aren izena, <sup>50</sup> eta Aren errukiak gizaldiz-gizaldi artzen dauz bildur dautsoenak (\*). <sup>51</sup> Bere besoaren indarra erabilli dau; sakabanatu egin dauz biotz-arro diranak. <sup>52</sup> Altsuak aulkietatik\* jaurti, ta apalak jaso egin ebazan. <sup>53</sup> Gose ziranak ondasunetz bete, eta aberatsak esku-utsik bialdu ebazan. <sup>54</sup> Beretzat artu eban bere otsein Israel, <sup>55</sup> Abraham eta onen jatorriaganako errukia gogoratutik betiko, gure gurasoai agindu eutsenez». <sup>56</sup> Iru illebete-edo egin ebazan Maria'k Elizabet'egaz, eta bere etxera biurtu zan.

#### **Yon Bateatzaillearen jaiotza.**

<sup>57</sup> Umea egiteko aldia eldu yakon Elizabet'i, eta seme bat izan eban. <sup>58</sup> Jaunak erruki aundia egin eutsala entzun eban aren auzoko ta senideak, eta zorionak emoten eutsoezan.

<sup>59</sup> Zortzigarren egunean, umea erdaintzera joan ziran, eta aitaren izena ezarri nai eutsoen; Zakarias. <sup>60</sup> Amak, ostera, berba egin eta auxe esan eutsen: «Ez, orixe!; izena Yon izango dau». <sup>61</sup> Auxe zirautsoen: «Ez dago iñor be zure senitartean izen ori daukanik». <sup>62</sup> Eta umeari dei egitea zelan nai ete-eban itanduten eutsoen kiñuka aitari. <sup>65</sup> Aitak idazteko oltxo bat eskatu ta auxe idatzi eban (\*): «Yon da orren izena». Eta guztiak arrituta gelditu ziran. <sup>64</sup> Eta bat-batean agoa ta miiña zabaldu egin yakozan, eta Jaungoikoa goratuez egiten eban berba. <sup>65</sup> Auzoko guztiak bildurrak artu ebazan, eta Judea'ko mendi-alde guttian egiten ziran jazopen guztion azalpenak; <sup>66</sup> jazopenok

\* Aulki: trono.



entzuten ebezan guztiak, euren biotzean gordeten ebezan, esanez: «Zer izango da, gero, ume au?». Jaunaren eskua aregaz egoan egon be-ta.

**Zakarias'en abestia: "Benedictus".**

<sup>67</sup> Zakarias, aren aita, Espiritu Santuz beterik gelditu zan, eta iragarri egin eban aurretiaz (\*), esanez: <sup>68</sup> «*Be-deinkatua Israel'en Jaungoiko Jauna*, bere erria ikusi ta *erosi daualako*, <sup>69</sup> eta bere morroi Dabid'en etxean osasun-indar bat sortu dausku, <sup>70</sup> aspaldietarik bere profeta santuen agoz agindu ebanez: <sup>71</sup> gure gurasoai erruki izanik eta *bere alkartasun* santua gogoraturik, <sup>73</sup> baita gure aita Abraham'i zin-berbaz egin eutsan aginduriko au be <sup>74</sup> beteko eskula: gure arerioen eskuetatik askatuta, Bera otseinduko genduala bildur bagarik, <sup>75</sup> santutasun eta zuzentasunez, bere aurrean, gure egun guztietan. <sup>76</sup> Eta zu, umetxo ori, Gorengoaren igarle deituko zaitue, Jaunaren aurretik ibilliko zara-ta, Airen bideak atontzen <sup>77</sup> eta Aren erriari osasun-jakintza emoten, euren pekatuak parkatze-ko, <sup>78</sup> Jaungoikoaren errukizko errainai eskerrak, goitik egingo dausku ikustaldi bat Argi batek: <sup>79</sup> *illunetan eta eriotz-gerizpean jesarrita dagozanai* argi egiteko, eta gure oinkadak (*pausuak*) bakearen bidetik zuzentzeko».

**Yon Bateatzaillearen bizitza ezkutua.**

<sup>80</sup> Yon azi egiten zan, eta aren gogoia indartu; bakar-tadeetan bizi izan zan, Israel'i agertu yakon arte.

II

**Jesus'en jaiotza ta artzaiñen ikustaldia.**

<sup>1</sup> Egun areitan, Zesar Augusto'ren erabagi bat urten zan, lur osoak izena emon egiala aginduez. <sup>2</sup> Lenengo izen-emote au, Siria'ko erriburu Zirino zala egin zan. <sup>3</sup> Guztiak yoiazan izena emotera, bakotxa bere urira. <sup>4</sup> Jose be, Dabid'en etxeko ta sendikoa zan ezkerro, Gali-

lea'ko Nazaret uritik Judea'ra igo zan, Belen deritxon Dabid'en urira, <sup>5</sup> bere emazte Maria'gaz batera izena emotera (\*); Maria, barriz, seindun egoan. <sup>6</sup> Eta an egozala, umea egiteko egunak bete yakozan Maria'ri; <sup>7</sup> eta bere len-semea izan (\*), oialetan batu, eta aska baten eratzo (*ipini*) eban, oneintzat ostatuan tokirik ez zan-eta.

<sup>8</sup> Lurralde aretan artzain batzuk egozan, kanpoan lo egiten ebenak, eta euren artaldea gabez txandaka zaintzen ebenak. <sup>9</sup> Jaunaren aingeru bat agertu yaken, eta Jaunaren edertasunak inguratu ebazan bere argitan; eta bildurrez beterik gelditu ziran. <sup>10</sup> Aingeruak auxe esan eutsen: «Ez bildurtu, erri guztiarentzat poz aundia izango dan bari bat dakartsuet-eta: <sup>11</sup> Salbatzaille bat jaiio yatzue gaur Dabid'en urian, Kristo Jauna dana; <sup>12</sup> eta auxe izango dozue ezaugarritzat: ume bat oialetan batuta eta askan etzunda arkituko dozue». <sup>13</sup> Eta bat-batean, aingeruagaz zeruko talde aundi bat alkartu zan, Jaungoikoa goratzen eta auxe iñoela: <sup>14</sup> «Aintza Jaungoikoari goietan, eta bakea lurrean Aren gogoko diran gizonai» (\*).

<sup>15</sup> Aingeruak, areik itxita, zerura joan ziranean, artzaiñak alkarri auxe zirautsoen: «Goazan, ba, Belen'eraño, eta ikusi daigun jazo dana ta Jaunak agertu dauskuna». <sup>16</sup> Eta lenbailen joan ziran, eta Maria, Jose, eta askan etzunda egoan umea aurkitu ebezan. <sup>17</sup> Umea ikustean, ume aretzaz esan eutseena adierazo eben; <sup>18</sup> eta ori entzun eben guztiak, artzaiñek zirautseenaz arrituta egozan. <sup>19</sup> Maria'k, barriz, gorde egiten ebazan berba guztiok eta bere biotzean ausnartzen ebazan. <sup>20</sup> Artzaiñak, entzun eta ikusi izan eben guztiagaitik, Jaungoikoa goratzen eta ospatzen biurto ziran: esan eutseenez jazo zan guztia-ta.

**Jesus'en erdaintzeta.**

<sup>21</sup> Umea erdaintzeko zortzi egunak bete ziranean (\*), izena Jesus ezarri eutsoen, amaren sabelean sortu izan baiño len aingeruak esandako izena.

**Jesus, Jaunaren Etxean sartzen da.**

<sup>22</sup> Moises'en legez, garbikuntzako egunak bete yakezanean, Jesus Jerusalem'era eroan eben Jaunari eskintzeko, <sup>23</sup> Jaunaren legean idatzita dagoanez: *Lenengo gizonetzkoa Jaunari eskiñia izango da;* <sup>24</sup> eta oparizat eskintzeko, *usurtutura bi edo usakume bi*, Jaunaren legean esaten da-nez (\*).

<sup>25</sup> Simeon izenekoa bat zan Jerusalem'en; gizon au, zintzoa ta Jaungoiko-zalea zan, eta Israel'en pozkillearen zain egoan; beragan egoan Espiritu Santua. <sup>26</sup> Jaunaren Kristo'a ikusi baiño len ez ebalá eriotzarik ikusiko, adierazo eutsan Espiritu Santuak. <sup>27</sup> Espiritu Santuak eraginda, Jaunaren Etxera etorri zan; eta umeari buruz legeak agintzen dau-na betetera, gurasoak Jesus umea sartu ebenean, <sup>28</sup> berak artu besoetan eta Jaungoikoa goratu eban, esanaz:

**Simeon'en abestia: "Nunc dimittis".**

<sup>29</sup> «Oraintxe itxi daikeozu, Jauna, otsein oni bakean joaten, berba emon zeutsanez; <sup>30</sup> ikusi dabe nire begiak zure osasuna-ta, <sup>31</sup> erri guztien aurrean gertu dozun osasuna: <sup>32</sup> jentillak argitzeko argia, eta zure erri Israel'en aintza».

**Simeon'ek aurretiaz iragarri ebana.**

<sup>33</sup> Jesus'en aita ta ama arrituta egozan, Aretzaz inoenaz. <sup>34</sup> Simeon'ek bedeinkatu egin ebazan, eta Jesus'en ama Maria'ri auxe esan eutsan: «Ume au askoren jaus-terako ta gorapenerako dago jarria Israel'en, baita ukatuko dabenen ezaugarrirako be; <sup>35</sup> eta zeuri be, ezpata batek zulatuko dautsu arim(e)a alderik alde, biotz askoren asmoak egirian gelditu daitezana» (\*).

**Ana emakume igarlea.**

<sup>36</sup> Emakume igarle bat be ba-zan: Ana, Fanuel'en alaba, Aser'en jatorrikoa, urteetan eldua; ezkonduta gero, bere senarragaz bizi izan zan, <sup>37</sup> eta larogeta lau urterarte alar-

gun iraun eban; ez eban Jaunaren Etxetik alde egiten, barau ta otoitz, gau ta egun Jaungoikoa otseintzen. <sup>38</sup> Une aretan bertan etorririk, Jaungoikoa goratzen ziarduan, eta Jerusalem'en askatusunaren zain egozan guztiai, umeari buruz egiten eutsen berba.

**Jesus'en bizitza ezkutua.**

<sup>39</sup> Jaunaren legeak agintzen eban guztia bete ebenean, Galilea'ra biurtu ziran, euren erri Nazaret'era (\*). <sup>40</sup> Umea azi ta gogortu egiten zan, jakituriz beteten zala; eta Jaungoikoaren grazia Aren gainean egoan.

**Jesus, Irakasleen artean.**

<sup>41</sup> Bere gurasoak Jerusalem'era yoiazan urtero, Pazko-jaiegunera. <sup>42</sup> Jesus'ek amabi urte bete ebazanean, areik jaiegunera igo ziran, oitura ebenez (\*); <sup>43</sup> eta, egunak amaituta, etxerakoan, Jesus umea Jerusalem'en gelditu zan, gurasoak jakin bagarik. <sup>44</sup> Baiña, bide-lagunen artean egongo zalakoan, egun bateko bidea egin eben; eta bere billa ziarduen senideen eta ezagunen artean; <sup>45</sup> baiña, aurkitu ez ebenean, Jerusalem'era biurtu ziran Jesus'en billa. <sup>46</sup> Iru egun geroago, Jaunaren Etxean aurkitu eben, irakasleen artean jesarrita, arei entzuten eta itaunak egiten. Ari entzuten eutsoen guztiak, ikaratuta egozan, Jesus'en adimena ta erantzunak zirala-ta. <sup>48</sup> Aren gurasoak ikusi ebenean, arrituta gelditu ziran, eta Aren amak auxe esan eutsan: «Seme, zegatik egin dauskuzu ori? Begira: estu ta larri ibili gara zure billa zure aita ta ni». <sup>49</sup> Jesus'ek auxe esan eutsen: «Zegatik ibili zaree, ba, nire billa? Ez zekien, ba, neure Aitaren gauzetan egon bear nebana nik?» (\*). <sup>50</sup> Baiña areik ez eben ulertu Jesus'ek emon eutsen erantzuna.

<sup>51</sup> Arekaz batera jatsi ta Nazaret'era etorri zan, eta arein menpean bizi zan. Jesus'en amak berba guztiok bere biotzean arduraz gordeten ebazan. <sup>52</sup> Jesus azi egiten zan



jakituriz eta gorputzez eta graziz (*edertasunez*) Jaungoikoaren eta gizonen aurrean.

## III

**Yon Bateatzaillea Jordan'en** (Mt. 3, 1-12; Mk. 1, 1-8).

<sup>1</sup> Tiberio Zesar'en agintaritzako amabosgarren urtean, Judea'ko erriburu Pontzio Pilato zala, eta Galilea'ko tetrarka, Erodes; Iturea ta Trakonitida'ko tetrarka, Erodes'en anai Filipo; Abilene'ko tetrarka, Lisaias; <sup>2</sup> Anas eta Kai-fas'en abade-nagusitzaldian: Jaungoikoak Zakarias'en seme Yon'i berba egin eutsan basamortuan. <sup>3</sup> Eta (*Yon*) Jordan-lurralde guztian zear joan zan, pekatuen parkamenerako damu-bateoa iragarten, <sup>4</sup> Isaias igarlearen itzaldi-liburuan idatzita dagoanez. *Basamortuan deadarka diarduanaren abotsa: Atondu egizue Jaunaren bidea, zuzendu Aren bide-zidorrak;* <sup>5</sup> *sakon guztiak beteak izango dira barriri, mendi ta muru\* guztiak beeratuak; okertua zuzendu egingo da, eta bide latzak bide-lau izango dira.* <sup>6</sup> *Etu gizaki guztiak ikusiko dabe Jaungoikoaren osasuna.*

<sup>7</sup> Auxe zirautsen, ba, bateoa artzera etorkiozan laguntaldeai: «Nok irakatsi dautsue zuoi, sugekumeoi, gainean dozuen asarreari iges egiten? <sup>8</sup> Egizuez, ba, damu-frutu egokiak, eta ez jardun zuen barruan esaten: 'Abrahan dogu Aita'; ba-dirautsuet-eta: Jaungoikoak arri oneitatik be emon daikeoz Abraham'i semeak; eta aizkor(e)a, onezkero, arbola-zusterrari ezarrita dago. Eta frutu onik ekarri ez dagian edozein arbola, ebagia ta sutara jaurtia izango da».

<sup>10</sup> Laguntaldeak itaun au egiten eutsan: «Zer egin bear dogu, ba?». <sup>11</sup> Eta Yon'ek erantzuten eutsen: «Soingaiñako bi daukazanak, emon dagiola bat ez daukanari; jatekorik daukanak, egin dagiala beste orrenbeste». <sup>12</sup> Zerga-batzaillak be bateatuak izatera etorri ziran, eta auxe esan

\* Muru: colina.

eutsoen: «Irakasle, zer egin bear dogu guk?». <sup>13</sup> Yon'ek auxe esan eutsen: «Ez eskatu iñori erabagita daukazuen baiño geiago». <sup>14</sup> Gudari batzuek be itaun au egin eutsoen: «Eta guk, zer egin bear dogu?». Eta auxe esan eutsen: «Ez egin iñori indarkeririk, ez egin guzurrezko salakuntzarik, eta zuen gudari-sariaz naikoa izan».

<sup>15</sup> Erria zain egoan ezker, Yon'i buruz guztiak euren biotzetan pentzetan ziarduen, ia Yon Kristo'a izan zeitekean. <sup>16</sup> Yon'ek guztiai auxe erantzun eutsen: «Nik uraz bateatzen zaituet; baiña ba-dator ni baiño indartsuago dana, eta Aren oiñetako-lokarriak askatzeko be ez naz ni gei; berak bateatuko zaitue Espiritu Santuz eta suaz; <sup>17</sup> bere eskuan dauko sard(e)a, bere larrña (*edo solo-txatala*) garbitzeko ta garia bere garautegian batzeko; lastoa, barriz, itxungitzen (*atzamatzen*) ez dan sutan erreko dau». <sup>18</sup> Eta beste burubide askoaz, erriari Barri Ona inagarten eutsan.

**Yon Batetzaillea, giltzapean**  
(Mt. 14, 3-12; Mk. 6, 17-29).

<sup>19</sup> Baiña Erodes tetrarkak, bere anaiaren emazte Ero-dias'egaitik eta Erodes'ek berak egindako gaiztakeriakaitik Yon'ek agiraka egin eutsala-ta, <sup>20</sup> lengo gaiztakeri guztiai beste au ezarri eutsen: Yon giltzapean sartzea.

**Jesus'en bateoa** (Mt. 3, 13-17; Mk. 1, 9-11; Yn. 1, 32-34).

<sup>21</sup> Erri guztia bateoa artzen ziarduan artean, Jesus be bateatuta eta otoitz egiten jarrita, zerua zabaldu zan, <sup>22</sup> eta gorputz-irudiz, uso-itxuraz, Espiritu Santua jatsi yakon; eta abots au etorri zan zerutik: «Zeu zara nire seme maitea (\*); zeugan dot nire atsegiña».

**Jesus'en jatorria** (Mt. 1, 1-17).

<sup>23</sup> Jesus agertzen asi zanean, ogetamarren bat urtekoa zan, <sup>24</sup> eta, uste zanez, Jose'ren semea zan, eta au Eli'rena, eta au Matat'ena, eta au Lebi'rena, eta au Malki'rena, eta

au Jose'rena, <sup>25</sup> eta au Matatias'ena, eta au Amos'ena, eta au Naum'ena, eta au Esli'rena, eta au Nangai'rena, <sup>26</sup> eta au Maaz'ena, eta au Matatias'ena, eta au Semein'ena, eta au Josek'ena, eta au Joda'rena, <sup>27</sup> eta au Joanan'ena, eta au Erresa'rena, eta au Zorobabel'ena, eta au Salatiel'ena, eta au Neri'rena, <sup>28</sup> eta au Melki'rena, eta au Addi'rena, eta au Kosam'ena, eta au Elmadan'ena, eta au Er'ena, <sup>29</sup> eta au Jesus'ena, eta au Eliezer'ena, eta au Jorim'ena, eta au Mattat'ena, eta au Lebi'rena, <sup>30</sup> eta au Simeon'ena, eta au Juda'rena, eta au Jose'rena, eta au Jonam'ena, eta au Eliakim'ena, <sup>31</sup> eta au Melea'rena, eta au Menna'rena, eta au Mattat'ena, eta au Natan'ena, eta au Dabid'ena, <sup>32</sup> eta au Jese'rena, eta au Obed'ena, eta au Booz'ena, eta au Sala'rena, eta au Naasson'ena, <sup>33</sup> eta au Minadab'ena, eta au Admin'ena, eta au Arni'ena, eta au Esrom'ena, eta au Fares'ena, eta au Juda'rena, <sup>34</sup> eta au Jakob'ena, eta au Isaak'ena, eta au Abraham'ena, eta au Tara'ena, eta au Nakor'ena, <sup>35</sup> eta au Seruk'ena, eta au Ragau'rena, eta au Falek'ena, eta au Eber'ena, eta au Sala'rena, <sup>36</sup> eta au Kain'ena, eta au Arfaxad'ena, eta au Sem'ena, eta au Noe'ena, eta au Lamek'ena, <sup>37</sup> eta au Matusalem'ena, eta au Enok'ena, eta au Jaret'ena, eta au Maleleel'ena, eta au Kainan'ena, <sup>38</sup> eta au Enos'ena, eta au Set'ena, eta au Adam'ena, eta au Jaungoikoarena.

#### IV

**Deabrua, Jesus zirikatzen** (Mt. 4, 1-11; Mk. 1, 12-13).

<sup>1</sup> Jesus, Espiritu Santuz beterik, Jordan'dik barriro etorri zan, eta Espiritu Santuak basamortura eroan eban; <sup>2</sup> eta an deabruak zirikatu egin eban, berrogei egunez. Egun areitan ez eban ezer be jan; eta egunok igaro ziranean, gose izan zan. <sup>3</sup> Orduan, deabruak auxe esan eutsan: «Jaungoikoaren Seme ba'zara, esan egiozu arri oni ogi

biurtu daitela». <sup>4</sup> Jesus'ek erantzun eutsan: «Idatzita dago: *Ez da gizona ogi utsez bizi*».

<sup>5</sup> Mendi-bizkar batera eroanik, bat-batean lurreko erreiñu guztiak erakutsi eutsazan; <sup>6</sup> eta auxe esan eutsan. «Erreiñu guztion almen eta aintza guztia emongo dautsuz daz nik, neuri izan yataz emonak-eta; emon, barriz, nai dautsadanari emoten dautsada. <sup>7</sup> Orra, ba: gurtzen ba'nozu, guzti au zeurea izango da. <sup>8</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsan: «Idatzita dago: *Zure Jaungoiko Jauna gurtuko dozu ta Berari bakarrik emongo dautsazu gurtza*».

<sup>9</sup> Jerusalem'era eroan eta Jaunaren Etxeko gaillurrean jarri eban, eta auxe esan eutsan: «Jaungoikoaren Seme ba'zara, jaurti zure burua emendik beera; <sup>10</sup> idatzita dago-ta: *Bere aingeruai agindu dautse zaindu zagiezan, <sup>11</sup> eta euren eskuetan eroango zaitue, zure oiñak arriren baten labanik egin ez dagian*». <sup>12</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsan: «Esanda dago: *Ez dozu zure Jaungoiko Jauna zirikatuko*».

<sup>13</sup> Guztietariko zirikaldiak amaituta, alde egin eban txerrenak Aregandik, beste aldi egokiren bat arte.

**Barri Ona zabaltzen asten da Jesus**

(Mt. 4, 12-17. 23; Mk. 1, 14-15. 39).

<sup>14</sup> Jesus, Espiritu Santuaren eragifiez, Galilea'ra etorri zan barriro; eta bere entzutea lurralde guztian zear zabaldu zan. <sup>15</sup> Jesus'ek arein sinagogetan irakatsi egiten eban, eta goratu egiten eben guztiak.

**Jesus, Nazaret'en** (Mt. 13, 53-58; Mk. 6, 1-6).

<sup>16</sup> Eta Nazaret'era etorri zan, bera azi izan zan lekura; eta, oi ebanez, zapatu-egunez sinagogan sartu zan, eta irakurtera jagi zan. <sup>17</sup> Isaias igarlearen liburua emon eutsoen; eta liburu biribildua zabaldurik, idatzita egoan txatal au aurkitu eban: <sup>18</sup> *Jaunaren Arnasa nire gainean; orregaitik, igurtzi (bedeinkatu) egin nau. Beartsuai Barri Ona*



emotera bialdu nau (\*); giltzapekoai askatasuna ta itsuai ikusmena iragartera; zapalduai askatasuna emotera, <sup>19</sup> eta Jaunaren urte eskertsua iragartera.

<sup>20</sup> Liburua biribilduta, arduradunari biurtu eutsan, eta jesarri egin zan. Sinagogan, begi guztiak Ari begira-begira egozan. <sup>21</sup> Eta auxe esaten asi yaken: «Gaur bete da craintxe entzun dozuen idatzitako au». <sup>22</sup> Eta guztiak autor egiten eutsoen; eta, Jesus'en agotik urteten ziran edertasunez beteriko berbak zirala-ta, guztiak arrituta egozan. Eta auxe iñoen: «Au ez da, ba, Jose'ren semea?» <sup>23</sup> Jesus'ek auxe esan eutsen: «Esakera au esango daustazue, urrean: 'Osagille, osatu egizu zeure burua'; Kafarnaum'en egin ei'dozun guztia, egizu ementxe be, zeure lurraldean». <sup>24</sup> Eta auxe esan eban gaiñera: «Benetan dirautsuet: Ez da igarlerrik onartua izaten bere lurraldean».

<sup>25</sup> «Benetan dirautsuet: emakume alargun asko ziran Israel'en Elias'en egunetan, iru urte ta sei illebetean zerrua itxi ta lurralde osoan gosete gorria izan zanean; <sup>26</sup> eta areitariko iñogana be ez zan bialdua izan Elias, Sidon'go Sarepta'ko emakume alargun bategana izan ezik. <sup>27</sup> Eta legenardun asko ziran Israel'en Eliseo igarlearen aldian, eta areitariko iñor be ez zan osatua izan, Naaman Siriarra izan ezik». <sup>28</sup> Berbok entzunik, sinagogako guztiak asarre bizi-tan jarri ziran; <sup>29</sup> eta, jagirik, uritik kanpora jaurti ta euren uria jasota egoan mendiaren gaillur batera eroan eben, andik beera jaurtiteko. <sup>30</sup> Bera, barriz, arein artetik zear igarorik, joan egin zan.

**Deabrudun bat osatzen dau Kafarnaum'en**  
(Mk. 1, 21-28; Mt. 7, 28-29).

<sup>31</sup> Galilea'ko uria dan Kafarnaum'era jatsi zan, eta zapatuetan irakatsi egiten eutsen. <sup>32</sup> Aren irakaspenaz ikaratuta gelditu ziran, aginpidez egiten eban berba-ta.

<sup>33</sup> Deabru zikiñaren gogoia eukan gizon bat egoan sinagogan, eta deadarka baten asi zan: «Ai!, zer daukazu

zuk gugaz, Jesus Nazaretar orrek? Gu ondatzera etorri zara? Ba-dakit nor zar(e)an: Jaungoikoaren Santua». <sup>35</sup> Orduan, Jesus'ek agiraka agindu eutsan: «Isilik ago, eta urten adi orregandik!». Eta deabruak gizona erdira jaurtirik, txerrena urten egin zan aregandik, kalterik egin bagarik. <sup>36</sup> Guztiak arrituta gelditu ziran, eta alkarri auxe zirautsoen: «Auxe bai itza! Eskubidez eta almenez agintzen dantse gogo zikiñai, eta oneik urten egiten dira». <sup>37</sup> Eta Jesus'en entzutea lurralde aretako toki guztietan zear zabaldu zan.

**Simon'en amagiñarreba osatzen dau**  
(Mt. 8, 14-15; Mk. 1, 29-31).

<sup>38</sup> Jesus, sinagogatik urtenda, Simon'en etxean sartu zan. Simon'en amagiñarreba berebiziko sukarraz\* egoan, eta aren alde erregutu eutsoen. <sup>39</sup> Jesus'ek, aregana makurturik, sukarrari agindu, eta sukarrak andreagandik alde egin eban; eta berealaxe jagirik, neskame-lanetan asi yaken.

**Beste osatze batzuk** (Mt. 8, 16-17; Mk. 1, 32-34).

<sup>40</sup> Illunabarrean, edozetariko gatxez jotako geisoak eukezanak, Jesus'i ekarten eutsoezan; eta Onek, euretari-ko bakotxari gaiñean eskuak ezarririk, osatu egiten eban. <sup>41</sup> Deabruak be urten egiten ziran askogandik, deadarka ta esanaz: «Jaungoikoaren Semea zara zu». Baiña, Jesus'ek agiraka egin eta ez eutsen berbarik egiten izten: ba-ekien Bera Kristo'a zana-ta.

**Jesus Kafarnaum'dik urten eta Judea'ra doa** (Mk. 1, 35-39).

<sup>42</sup> Egundu zanean, andik urten eta bakartade batera joan zan. Laguntaldea Jesus'en billa ebillen; eta Aregana eldurik, eurakaz gelditu zeitela eskatzen eutsoen, itxi ez egizan. <sup>43</sup> Baiña, Jesus'ek auxe esan eutsen: «Beste uri ba-

\* Sukar: fiebre.

tzui be iragarri egin bear dautset Jaungoikoaren Erreñuko Barri Ona, onetarakoxe izan naz bialdua-ta». <sup>44</sup> Eta Judea'ko sinagogetan zear ziarduan irakasten.

## V

### Ikasleak aukeratzen.

<sup>1</sup> Jesus Jenesaret'eko zingira-ertzean egoala, eta laguntalde Jaungoikoaren itza entzuteko pilloka batu yakonean, <sup>2</sup> ur-ertzean egozan txalupa bi ikusi ebazan; arrantzaleak txalupa areitatik jatsi ta sareak garbitzen ziarduen. <sup>3</sup> Txalupa bat Simon'ena zan; eta bertara igorik, legorretik zerbait alde egiala eskatu eutsan; eta, jesarririk, laguntaldeari txalupatik irakasten ziarduan.

<sup>4</sup> Itzaldia amaitu ebanean, Simon'i auxe esan eutsan: «Jo itxaso zabalera, eta jaurti zuen sareak arrantzarako». <sup>5</sup> Simon'ek auxe erantzun eutsan: «Irakasle, gau osoan ekin dautsagu, eta ez dogu arrain bat be atara; baiña, zeuk diñozun ezkerro, botako dodaz, ba, sareak». <sup>6</sup> Eta alan egiñik, sareak urratzeraiñoko arrain-pillo aundia atara eban. <sup>7</sup> Laguntzera etorteko eskatu eutseen kiñuka beste txalupako lagunai. Etorri ziran, ba, eta ondatzeko zorian bete ebazan txalupa biak.

<sup>8</sup> Ori ikusita, Simon Pedro Jesus'en oiñetan auzpaztu zan, esanaz: «Alde egizu, Jauna, nigandik, gizon pekataria naz-ta». <sup>9</sup> Atara ebezan arraiñak zirala-ta, arrituta egotan-eta, baita beragaz egozan guztiak be. <sup>10</sup> Eta bardin Simon'en lagunak ziran Santiago ta Yon, Zebedeo'ren semeak be. Jesus'ek Simon'i auxe esan eutsan: «Ez bildur-tu: aurrerantzean, gizon-arrantzale izango zara». <sup>11</sup> Txalupak legorrera eroan ebezan; eta, guztia itxirik, jarraitu egin eutsoen.

**Legenardun bat osatzen dau** (Mt. 8, 1-4; Mk. 1, 40-45).

<sup>12</sup> Bein, uri baten egoala, legenarez jositako gizon bat etorri zan; eta, Jesus ikustean, auzpaztu ta erregutu egin eutsan, esanez: «Jauna, nai ba'dozu, garbitu naikezu». <sup>13</sup> Jesus'ek eskua luzatu, gizona ikutu, eta auxe esan eban: «Nai dot; garbi gelditu zaitez». Eta bat-batean, legenarrak alde egin eutsan. <sup>14</sup> Eta iñori be ez esateko agindu eutsan Jesus'ek; eta auxe esan eutsan gañera: «Zoaz, aurkeztu zaitez abadeagana ta egizu oparia zure garbitzeagaitik, Moises'ek aginduta daukanez, agiritzat izan dakien».

<sup>15</sup> Jesus'en entzutea gero ta geiago zabaltzen zan, eta laguntalde aundia etorkion entzutera ta euren geisoetatik osatuak izatera. <sup>16</sup> Bera, barriz, toki ezkutueta bazartzten zan, eta an otoifz egiten eban.

**Elbarridun bat osatzen dau** (Mt. 9, 1-8; Mk. 2, 1-12).

<sup>17</sup> Irakasten ziarduan egun baten, Galilea'tik, Judea'tik Jerusalem'go erri guztietatik etorritako pariseo ta lege-irakasle batzuk egozan jesarrita. Jaunaren indarrak osakuntzak egiteko egiten eutsan bultza. <sup>18</sup> Onetan, gizon batzuek elbarridun bat ekarri eutsoen, ogetxo baten; eta barruera sartzeko alegiñak egiten ebezan, Jesus'en aurrean jarteko. <sup>19</sup> Baiña, laguntalde zala-ta, nundik sartu ikusi eziñik, etxe-gañera igo, geisoa ogetxoaz teillartetik eratsi, eta erdian jarri eben, Jesus'en aurrean. <sup>20</sup> Jesus'ek, arein sinismena ikusirik, auxe esan eban: «Gizon, parkatuta gelditzen yatzuz zure pekatuak». <sup>21</sup> Idazlari ta pariseuak eurokautan asmatzen asi ziran: «Nor da biraoak diñozan au? Nok parkatu daikez pekatuak, Jaungoikoak bakarrik baiño?» <sup>22</sup> Jesus'ek, arein bururakizunak ezaguturik, auxe esan eutsen: «Zer diarduzue asmatzen zuen biotzetan? <sup>23</sup> Zer da errazago, «parkatuta dozuz zure pekatuak» esatea?, ala, «jagi ta zoaz» esatea?». <sup>24</sup> Beraz, lurean pekatuak parkatzeko eskubidea Gizasemeak ba-dauala jakin dagizuen, «Neuk dirautsut – esan eutsan elbarridunari – : jagi



zaitez, artu zure ogetxoa ta zoaz zure etxera». <sup>25</sup> Eta bat-batean, geisoa euren aurrean jagirik, bera etzunda egoan ogetxoa artu ta bere etxera joan zan, Jaungoikoa goratuez. <sup>26</sup> Guztiak arrituta egozan, eta Jaungoikoa goratzen cben. Eta bildurrez beterik, auxe iñoen: «Arritzekoak ikusi doguz gaur!».

**Lebi'ri deia** (Mt. 9, 9; Mk. 2, 13-14).

<sup>27</sup> Onen ondoren, andik urten eta Lebi izeneko zerga-batzaille bat ikusi eban, zergategian jesarrita; eta auxe esan eutsan: «Jarraitu egidazu». <sup>28</sup> Eta guztia itxirik, jagi ta jarraitu egin eutsan.

**Lebi'ren etxean bazkarian**  
(Mt. 9, 10-12; Mk. 2, 15-17).

<sup>29</sup> Lebi'k bere etxean bazkari eder bat eskiñi eutsan. Ugari be ugari ziran zerga-batzailleak, baita bestetarikoak be, arekak batera maian egozanak. <sup>30</sup> Pariseuak eta onein idazlariak mormoxetan ziarduen, eta ikasleai auxe zirautzen: «Zegaitik jan-edaten dozue zerga-batzaille ta pekatariakak?». <sup>31</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsen: «Osasundunak ez dabe osagillerik bear, makalak baiño. <sup>32</sup> Ez naz ni damu-deika zintzoakana etorri, pekatariakana baiño».

**Baraua zala-ta** (Mt. 9, 14-17; Mk. 2, 18-22).

<sup>33</sup> Areik auxe esan eutsoen: «Yon'en ikasleak sarritan egiten dabe barau, baita otoitz be; pariseuen ikasleak be bardin; zureak, barriz, jan eta edan egiten dabe». <sup>34</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsen: «Barau eragin ete-daikeezue eztegurako deituai, senargeia curakaz dagoan artean? <sup>35</sup> Etorriko dira, bai, senargeia kenduko yaken egunak; orduantxe egingo dabe barau, egun areitan».

<sup>36</sup> Ipuin au be esan eutsen: «Iñok ez dau soñeko barririk zatitzen soñeko zaarrari ipingirik ezarteko; bestela, barria zatitu bai, eta barriaren ipingiak ez dautso zaarrari

ondo emoten. <sup>37</sup> Eta zaragi zaarretan be ez dau iñok ardao barririk sartzen; bestela, ardao barriak zaragia lertu egingo dau, ardao isuri egingo da, eta zaragiak ondatu egingo dira; <sup>38</sup> bestetara baiño: ardao barria zaragi barrietan sartu bear da. <sup>39</sup> Ardao zaarra edan ondoren, ez dau iñok ardao barririk nai, «zaarra ohea da», diño-ta».

## VI

**Zapatuz artutako galburuak** (Mt. 12, 1-8; Mk. 2, 23-28).

<sup>1</sup> Zapatu baten, Jesus gari-soloetan zear yoian; Aren ikasleak galburuak artu ta, urkuldurik, jan egiten ebezan. <sup>2</sup> Pariseuen arteko batzuek auxe esan eban: «Zegaitik egiten dozue zapatuz bidezko ez dana?». <sup>3</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsen: «Dabid'ek egin ebana be ez dozue irakurri?, bera ta beragaz egozanak gosetu ziranean?, <sup>4</sup> zelan sartu zan Jaunaren Etxean, eta abadeak baiño iñok ezin jan daikezan opari-ogiak arturik, zelan jan ebazan, eta beragaz egozanai be zelan emon eutsezan?». <sup>5</sup> Eta auxe esan eutsen: «Gizasemea zapatuaren jabea be ba-da».

**Gizon esku-igarra osatzen dau** (Mt. 12, 9-14; Mk. 3, 1-6).

<sup>6</sup> Beste zapatu baten, Jesus sinagogan sartu ta irakasten asi zan. Eskumako eskua igartuta eukan gizon bat egoan an. <sup>7</sup> Idazlariak eta pariseuak Jesus zaintzen ziarduen adi-adi, zapatuz osatuko ete-eban, gero salatu al izateko. <sup>8</sup> Baiña Jesus'ek, arein bururakizunak ezagaturik, eskua igartuta eukan gizonari auxe esan eutsan: «Jagi ta jarri zaitez zutik or erdian». Gizona, jagirik, zutik gelditu zan. <sup>9</sup> Orduan, Jesus'ek auxe esan eutsen: «Nik itaun au egiten dautsuet: Bidezko da zapatuz txarra egin bearrean on egitea?, bizia ondatu bearrean gordetea?». <sup>10</sup> Eta guztiai begiraturik, gizonari auxe esan eutsan: «Zabaldu esku ori». Arek zabaldu egin eban, eta eskua osatuta gelditu yakon.

<sup>11</sup> Areik asarratu egin ziran, eta Jesus'i zer egingo ete-eu-tsoen asmatzen ziarduen alkarregaz.

**Amabien aukeratzea** (Mt. 10, 1-4; Mk. 3, 13-19).

<sup>12</sup> Egun areitan, Jesus mendira joan zan otoitz egitera. eta gau osoa Jaungoikoari otoitz egiten igaro eban. <sup>13</sup> Egundu zanean, bere ikasleai dei egin eta amabi aukeratu ebazan arein artetik, eta Apostolu izena be emon cutsen. <sup>14</sup> Simon, izena Pedro ezarri eutsana, eta Ander, onen anaia; Santiago ta Yon, Felipe ta Bartolome. <sup>15</sup> Mateo ta Tomas, Santiago Alfeo'rena, eta Zelotes eritxon Simon; <sup>16</sup> Judas Santiago'rena, eta Judas Iskariote, saltzaille izan zana.

**Laguntaldeak Jesus'i jarraitzen dautso**  
(Mt. 4, 24-25; Mk. 3, 7-12).

<sup>17</sup> Arekaz jatsirik, leku lau baten gelditu zan; bere ikasle asko ta erriko laguntalde aundia egozan, Judea guztitik, Jerusalem'dik, eta Tiro ta Sidon'go itxasaldetik <sup>18</sup> Jesus'en itza entzutera ta euren geisoetatik osatzera etorri ziranak. Gogo zikiñak atsekabetutakoak be, osatuta gelditzen ziran. <sup>19</sup> Laguntalde guztiak Jesus ikutu nairik ziar-duan; Ari erion indarrak, guzti-guztiak osatzen ebazan-eta.

**Zoriontasunak** (Mt. 5, 1. 3. 6. 5. 11-12).

<sup>20</sup> Bere ikasleakana begiak jasorik, auxe esan eban: «Zoriontsuak txiroak (*beartsuok*), Jaungoikoaren Erreñua zeuona da-ta. <sup>21</sup> Zoriontsu orain gose zareenok, beteak izango zaree-ta. Zoriontsu orain negar egiten dozuenok, barre egingo dozue-ta. <sup>22</sup> Zoriontsu izango zaree, Gizasemea dala-ta, gizonak gorroto dagitzuenean, eurakandik baztatu ta iraindu zagiezenean, eta zuen izena gaiztotzat artu dagienean. <sup>23</sup> Poztu ta alaitu zaitzeze egun orretan, zuen saria zeruan aundia izango da-ta. Igarleai be arein gurasoak beste arenbeste egin eutseen-eta».

**Madarikatzeak.**

<sup>24</sup> «Zuen zoritxarra, ostera, aberatsok!, artu dozue zuen pozbidea-ta. <sup>25</sup> Zuen zoritxarra, orain beteta zagozanok!, gose izango zaree-ta. Zuen zoritxarra, orain barre egiten dozuenok!, antzi ta negar egingo dozue-ta. <sup>26</sup> Zuen zoritxarra, gizon guztiak zuoi buruz ondo berba egin dagi-enean!, sasi-igarleai arein gurasoak olantxe egin eutseen-eta».

**Arerioak maitatu** (Mt. 5, 44. 39-40; 7, 12; 5, 46. 45).

<sup>27</sup> «Nik, barriz, entzuten nozuenoi auxe dirautsuet: Maite egizue zuen arerioak, on egiezue gorrotoa dautsuenai, <sup>28</sup> bedeinkatu egizue zuen madarikatzen zauezenak. Erregutu egizue txarto zerabilleen alde. <sup>29</sup> Matrailla baten zauritzen zaituanari, eskiñi egiozu bestea be; eta soingaiñekoa kentzen dautsunari, ez ukatu barruko jantzia. <sup>30</sup> Emon egiozu eskatzen dautsun edonori; eta zeurea dana artu dagianari, ez egiozu barriro eskatu. <sup>31</sup> Gizonak zuoi egin dagitzuen nai dozuena, egiezue orrelaxe zuok be. <sup>32</sup> Maite zaituenak maite ba'dozue, zer irabaziko dozue? Pekatariak be maite dabez euren maitatzailleak-eta. <sup>33</sup> Eta zuoi on egiten dautsuenai on egiten ba'dautsazue, zer irabaziko dozue? Pekatariak be egiten dabe beste orrenbeste! <sup>34</sup> Atzera biurtuko dautsuenai aurretiaz emoten ba'dautsezue, zer irabazi dozue? Pekatariak be emoten dautsee aurretiaz pekatariari, beste arenbeste artzeko. <sup>35</sup> Zuek, barriz, maite egizue zuen arerioak; on egin, eta emon egizue aurretiaz, ordaiñaren usterik izan bagarik; eta aundia izango da zuen saria, eta Gorengoaren seme izango zaree: Bera be esker-txarreko ta gaiztoai buruz ona da-ta».

**Errukiā ta on egitea** (Mt. 7, 1,2; Mk. 4, 24).

<sup>36</sup> «Izan zaitzeze errukiorrak, zuen Aita errukiorra danez. <sup>37</sup> Ez epaitu, eta ez zaree epaituak izango; ez emon galtzeko epairik, eta ez zaree galduak izango. Parkatu egi-



zue, eta parkatuak izango zaree. <sup>38</sup> Emon egizue, eta emon egingo yatzue: negurri on, sakatua, gaiñez egiteraino astindua jarriko dabe zuen jantzien altzoan. Negurtu dagizuen negurri berberaz negurtuko yatzue-ta».

#### Norberaz burua ezagutu

(Mt. 15, 14; 10, 24-25; Yn. 13, 16; 15, 20).

<sup>39</sup> Ipuin au esan eutsen gaiñera: «Itsuak itsuari bidea erakutsi ete-daikeo? Ez ete-dira biok zuloan jausiko? <sup>40</sup> lkaslea ez da irakaslea baiño geiago. Ondo erakutsita dagoan edonor, bere irakaslea lakoxea da. <sup>41</sup> Zegaitik begiratzen dozu zure anaiaren begian dagoan samarra, eta ez dozu somatzen zeure begian dagoan abea? <sup>42</sup> Zelan esan daikeozu zure anaiari: 'Anaia, itxi egidazu zure begian dagoan samarra ataraten', zeure begian dagoan abea zeuk ikusten ez dozula? Azaluts ori!; atara egizu lenen abea zure begitik, eta orduantxe ikusiko dozu garbi, zure anaiaren begian dagoan samarra atarateko.

(Mt. 12, 33-35; 7, 16-18).

<sup>43</sup> «Fruitu txarrik emon dagian arbola onik ez dago-ta, ezta frutu onik emon dagian arbola txarrik be. <sup>44</sup> Arbola baktaxa bere frututik ezagutzen da. Elorrietatik ez da pikurik batzen, ezta sasitik matsik be. <sup>45</sup> Gizon zintzoak, bere biotzeko ondasuntigitik, zintzotasuna ataraten dau; eta gizon gaiztoak, txarretik, gaiztakeria ataraten dau. Zure biotzari gaiñez dariona egiten dau berba bere agoak-eta. <sup>46</sup> Zegaitik egiten daustazue dei, «Jauna, Jauna!», eta ez dozue nik diñodanik egiten?».

**Berbak bakarrik ez** (Mt. 7, 21. 24-27).

<sup>47</sup> «Nigana etorri ta nire berbak entzuten eta egiñez beteten dauzana, erakutsiko dautsuet noren antzekoa dan: <sup>48</sup> Etxe bat egitean, sakon-sakon zulatu ta oñarriak arkaitzgaiñean jarri ebazan gizonaren antzekoa da. Uriola bat

etortean, ur-boladeak etxea jo, bai, jo egin eban, baiña ezin ondatu izan eban, etxea ondo eginda egoan-eta. <sup>49</sup> Entzun bai, eta egiñez beteten ez dauana, barriz, etxea oiñarri begariko lur-gaiñean jasoten dauan gizonaren antzekoa da: ur-bolad(e)ak etxea jo ta bat-batean jausi zan lurrera, etxe aren ondamentia aundia izanik».

## VII

#### Euntariaren morroia osatzen dau

(Mt. 8, 5-10. 13; Yn. 4, 46-54).

<sup>1</sup> Erriari berba guztiok esanda gero, Kafarnaum'en sartu zan. <sup>2</sup> Euntari batek oso maite eban morroi bat geisorik eta il-zorian egoan. <sup>3</sup> Jesus'en barri entzunda, judarren arteko zaar batzuk bialdu eutsazan, etorri zeitela ta bere morroia osatu egiala eskatzera. <sup>4</sup> Oneik, Jesus'egana eldurik, erregutu ta erregutu egiten eutsoen, esanez: «Zugandik ori lortzeko gei ba-da, <sup>5</sup> maite dau gure erria-ta; sina-gog(e)a be berak jaso dausku». <sup>6</sup> Ba-yoian Jesus arekaz batera; eta etxetik ur samar egoala, euntariak adiskide batzuk bialdu eutsazan, auxe esan egioen: «Jauna, ez artu nekerik, ni ez naz nor zu neure aterpean sartu zaitezant-eta; <sup>7</sup> orregaitik, zugana joateko be nor ez nintzalakoan nengoan. Agindu egizu berbaz, eta nire morroia osatua izango da. <sup>8</sup> Neuk be, iñoren menpeko nazanarren, badodaz gudariak nire agindupean; eta bati, «oa!» dirautsat, eta joan egiten da; eta besteari, «ator!», eta etorri egiten da; eta nire morroiari, «au egik!», eta egin egiten dau». <sup>9</sup> Ori entzutean, Jesus aretzaz arrituta gelditu zan; eta, jarraitzen eutsan laguntaldeagana biurturik, auxe esan eban: «Benetan dirautsuet; Israel'en bertan be ez dot onenbesteko sinismenik aurkitu». <sup>10</sup> Bialdutakoak etxera biurtu ziranean, morroia osatuta aurkitu eban.

**Naim'go emakume alargunaren semea osatzen dau.**

<sup>11</sup> Jarraian, Naim izeneko urira yoian, eta beragaz batera bere ikasleak eta laguntalde aundia yoiazan. <sup>12</sup> Uriko atera urreratzen zala, ildako bat ataraten eben illobiratzera, ama alargun baten semea bera; eta uriko laguntalde aundia yoian alargunagaz. <sup>13</sup> Jaunak alarguna ikustean, erruki izan yakon, eta auxe esan eutsen: «Ez negarrik egin». <sup>14</sup> Eta urreraturik, ilkutxa\* ikutu egin eban. Ilkutxa erioenak gelditu egin ziran; eta Jesus'ek auxe esan eban: «Gazte, zeuri dirautsut: jagi zaitez». <sup>15</sup> Ildakoa jagi ta berba egiten asi zan; eta Jesus'ek amari emon eutsen. <sup>16</sup> Guztiak bildurak artu ebazan, eta Jaungoikoa goratzen eben, esanez: «Igarle aundi bat agertu da gure artean», eta, «Jaungoikoak bere erriari ikustaldi bat egin dautso». <sup>17</sup> Eta Judea osoan eta inguruko lurralde guztian zear zabaldu zan Jesus'i buruz esaten zana.

**Yon Bateatzailearen itauna ta Jesus'en autorra**

(Mt. 11, 2-15).

<sup>18</sup> Barri guztiok eroan eutsuezan Yon'i beronen ikasleak. Orduan Yon'ek, areitariko biri dei egiñik, <sup>19</sup> Jaunari auxe esatera bialdu ebazan: «Zeu zara etortekoa, ala beste baten zain egon bear dogu?». <sup>20</sup> Gizon areik, Jesus'egana eldurik, auxe esan eutsen: «Zuri auxe esan dagitzugun bialdu gaitu Yon Bateatzaileak: 'Zeu zara etortekoa, ala beste baten zain egon bear dogu?'. <sup>21</sup> Orduantxe bertan, Jesus'ek askoak osatu ebazan euren geiso ta gatxetatik, eta gogo gaiztoetatik, eta itsu askoi ikusmena emon eutsen. <sup>22</sup> Eta auxe erantzun eutsen: «Zoaze, eta esan egiozue Yon'i ikusi ta entzun dozuena: Itsuak ikusi egiten dabe, errenak ba-dabiz, legenardunak garbi gelditzen dira, gorrak entzun egiten dabe, ildakoak biztu egiten dira, bearsuai Barri Ona iragarten yake. <sup>23</sup> Eta zoriotsua, nigan galbiderik izan ez dagiana!».

\* Ilkutxa: ataúd.

<sup>24</sup> Yon'ek bialdutakoak urrundu ziranean, Jesus laguntaldeari Yon'i buruz berba egiten asi yakon: «Zer ikustera urten zaree basamortura? Aizeak darabilen kaiñaberen bat? <sup>25</sup> Zer ikustera urten zaree, bestela? Apain jantzitako gizonen bat? Ez! Apain-apain jazten eta bigunkieretan bizi diranak, jauregietan egoten dira. <sup>26</sup> Zer ikustera urten zaree, ba? Igarleren bat? Bai, benetan dirautsuet, baina igarlea baiño aundiagoa be. <sup>27</sup> Auxe berau da beronetaz idatzita dagoan au: *Begira: neure aingerua bialtzen dotzure aurretik, aurretiaz bidea atonduko dautsuna*. Auxe dirautsuet: emakumegandik jaiotakoen artean, ez da iñor Yon baiño aundiagorik. Alan be, Jaungoikoaren Erreñuan txikiena, a baiño aundiagoa da».

<sup>29</sup> Ori entzun eutsan erri guztiak, baina zerga-batzailleak be, Jaungoikoaren zuzentasuna ontzat artu eben, Yon'en bateoa arturik. <sup>30</sup> Pariseuak eta lege-irakasleak, berriz, Yon'en bateoa ez arteaz, euronaganako Jaungoikoaren asmoa ondatu egin eben.

**Bere gizaldiari agiraka** (Mt. 11, 16-19).

<sup>31</sup> «Noren parean jarriko dodaz gizaldi onetako gizonak? Eta noren antzeko dira? <sup>32</sup> Plazan jesarrita dagozan mutikoen antzekoak dira, alkarri deadarka dirautsoenean: *Guk txistua jo dautsuegu, eta zuek ez dozue dantzarik egin; guk negar-soiñuak asi, eta zuek negarrik egin ez*. <sup>33</sup> Izan be, etorri da Yon Bateatzailea, ez ogirik jaten, ez ardaorik edaten ez ebalá, eta, «deabrua dauko», diñozue zuek. <sup>34</sup> Etorri da Gizasemea, jan-edan egiten dauala, eta «orra gizon jatun eta moskorra, zerga-batzaille ta pekatarrien adiskidea», diñozue. <sup>35</sup> Eta Jakiturari\* bere semea guztiak emon dautsoe izen ona».

**Emakume pekatari batek Jesus'i oiñak garbitzen dautsaz.**

<sup>36</sup> Pariseo batek beragaz bazkaldu egiala eskatu eutsan Jesus'i; eta, pariseuaren etxean sarturik, maian jarri zan.

\* Jakiturari = Jaungoikoari.



<sup>37</sup> Urian emagaldtu bat zan; eta Jesus'ek pariseuaren etxean bazkaritan ziarduala jakitean, usaingarriz beterik artzuri-ontzi\* bat artu eban; <sup>38</sup> eta atzean, Jesus'en oiñetan jarrita, negarrez asi zan; eta oiñak bere negar-malkoakaz bustiten eutsazan eta bere buruko uleakaz sikatzen; Aren oiñai mun egiten eutsen eta usaingarriaz igurtziten ebazan.

<sup>39</sup> Jesus'i dei egin eutsan pariseuak ori ikustean, auxe iñoan berekautan: «Au igarle ba'litz, jakingo leuke onek nor eta zelako emakumea dan ikutzen dautsan emakume ori, emakume pekataria da-ta». <sup>40</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsan: «Simon, ba-dot, ba, zerbait zuri esateko». «Esan, ba, Irakasle», esan eban Simon'ek. <sup>41</sup> «Diru-aurreratzaille batek zordun bi ebazan. Batek bosteun denario zor eutsazan, eta besteak berrogetamar. <sup>42</sup> Zorra garbitzekorik ez eben-eta, biai parkatu egin eutsen. Bietarik nok izango ete-dau a maiteago?». <sup>43</sup> «Nire ustez, geiago parkatu yakonak», erantzun eutsan Simon'ek. <sup>44</sup> «Ondo ebatzi dozu», esan eutsan Jesus'ek. Eta emakumeagana biurturik, Simon'i auxe esan eutsan: «Ikusten dozu emakume au? Ni zure etxean sartzean, ez daustazu oiñetarako urik emon; onek, ostera, nire oiñak bere negar-malkoakaz busti ta bere uleakaz sikatu dauz. <sup>45</sup> Ez daustazu laztanik emon; au, ostera, sartu danetik (\*), ez da aspertu nire oiñai mun egitez. <sup>46</sup> Zuk ez daustazu burua orioaz igurtzi; onek, ostera, oiñak usaingarriaz igurtzi daustaz. <sup>47</sup> Orregaitik, auxe dirautsut nik; maitasun aundia agertu daualako, bere pekatu ugariak perkatuta gelditzen yakoz (\*). Gutxi parkatzen yakonak, maitasun gutxi agertzen dau» (\*). <sup>48</sup> Eta emakumeari auxe esan eutsan: «Parkatuta gelditzen dirā zure pekatuak». <sup>49</sup> Mai-lagunak eurokautan esaten asi ziran: «Nor da pekatuak be parkatzen dauzan au?». <sup>50</sup> Baiña Jesus'ek emakumeari auxe esan eutsan: «Zeure sinismenak salbatu zaitu. Zoaz bakean».

\* Artzuri-ontzi: frasco de alabastro.

## VIII

**Jesus'en lagunak.** (Mt. 4, 23; 9, 35; Mk. 1, 39).

<sup>1</sup> Gero, uri ta errietan zear Jaungoikoaren Erreñua iragarten eta zabaltzen ziarduan; Amabiak yoiazan Jesus'egaz, <sup>2</sup> baita gogo gaizto ta geisoetatik osatutako emakume batzuk be; Madalen eritxon Mari, zazpi debru urten izan yakozana, <sup>3</sup> eta Yone, Erodes'en etxezain Kusa'ren emaztea; Susana, eta beste asko, euren ondasunakaz Jesus'i lagun egiten eutsoenak.

**Ereillearen ipuiña** (Mt. 13, 1-9; Mk. 4, 1-9).

<sup>4</sup> Laguntalde aundia batu zala, eta uri guztietatik Beragana etorriarik, ipuiñetan auxe esan eban: <sup>5</sup> «Ereille bat bere azia ereitera urten zan; eta azia ereitean, azi batzuk bide-ondoan jausi ziran, zapalduak izan ziran, eta zeruko egaztiak jan ebezan; <sup>6</sup> beste azi batzuk arkaitz-gaiñean jausi ziran; eta erneta gero, igartu egin ziran, bustirik ez eben-eta; <sup>7</sup> beste batzuk sasi-artean jausi ziran; eta arekaz batera sasiak azirik, ito egin ebezan. <sup>8</sup> Eta beste azi batzuk lur onean jausi ziran, eta azirik, bateko eun emon eben». Au esanda, deadarka esan eban: «Entzuteko belarriarik euki dagianak, entzun dagiala».

**Zegaitik ipuiñetan?** (Mt. 13, 10-11; Mk. 4, 10-12).

<sup>9</sup> Ipuin onek zer adierazo eikean itanduten eutsoen bere ikasleak; <sup>10</sup> Jesus'ek auxe esan eutsen: «Jaungoikoaren Erreñuko ezkutua ezagutzea emon yatzue zuoi; besteai, ipuiñetan emoten yake: *ikusirik, ikusi ez dagien, eta entzunik, ulertu ez dagien*».

**Ereillearen ipuiña azaltzen daute**  
(Mt. 13, 18-23; Mk. 4, 14-20).

<sup>11</sup> «Ipuin onek auxe adierazoten dau: Azia, Jaungoikoaren berb(e)a da. <sup>12</sup> Bide-ondoan jausitakoak, berba ori entzun dabenak dira; gero, deabrua ba-dator eta ba-daroa berba ori arein biotzetik; bada-epada be sinistu ta ze-

ruratu (*salbatu*) ez daitezten. <sup>13</sup> Arkaitz-gaiñekoak, itza entzutean, pozik artzen dabenak dira; baiña oneik ez dauke zusterrik; sinistu, bai, egiten dabe apur baten, baiña zirikaldian (*tentaziñoan*) atzeruntz egiten dabe. <sup>14</sup> Sasietan jausi zan azia, itza entzun ebenak dira; baiña, bidean doazala, bizitzako buruauste, aberastasun eta atsegiñak dirala-ta, ito egiten dira, eta ez dira eltzen. <sup>15</sup> Lur onekoa, itza entzunda gero, biotz onez eta zuzenez gordeten dabenak dira; eta oneik, ekiñez-ekiñez, frutua dakarre».

#### Argi-ontziaren ipuiña

(Mk. 4, 21-22; Mt. 5, 15; 10, 26; 13, 12; 25, 29; Mk. 4, 24-25).

<sup>16</sup> «Ez dau iñok argia iziotu ta ontzi bat az estaltzen, edo oge-pean ipinten, bestetara baiño: argi-ontzi-gaiñean ipinten dau, sartu daitezanak argia ikusi dagien. <sup>17</sup> Izan be, ez dago ezer be gordeta, gero agirian geldituko ez danik; ezta isilpekorik be, ezagutua ta agertua izango ez danik. <sup>18</sup> Begira, ba, zelan entzuten dozuen: euki daukanari, emor egingo yako-ta; ez daukanari, ostera, ba-daukala sinisten dauana be kendu egingo yako».

#### Jesus'en benetako senitarlea

(Mt. 12, 46-50; Mk. 3, 31-35).

<sup>19</sup> Bere ama ta anaiak (*senideak*) etorri ziran Jesus'egana; baiña, laguntaldea zala-ta, ezin eldu ziran beragana. <sup>20</sup> Dei au bialdu eutsoen: «Zure ama ta anaiak kanpoan dagoz, eta zeu ikusi nai zaitue». <sup>21</sup> Baiña, Jesus'ek auxe erantzun eutsen: «Jaungoikoaren itza entzuten eta beteten dabenak dira nire ama ta anaiak».

#### Ekatzá, baretuta

(Mt. 8, 23-27; Mk. 4, 35-41).

<sup>22</sup> Egun baten, Jesus bere ikasleakaz txalupa batera igo zan, eta auxe esan eutsen: «Goazan zingiraren\* beste er-

\* Zingira; lago.

tzera». Eta itxasora jo eben. <sup>23</sup> Eta itxasoan yoiazala, Jesus loak artu eban. Zingira-gaiñera aize-aldia jatsi zan; txalup(e)a ondatzen asi ta arriskuan egozan. <sup>24</sup> Orduan, Jesus'egana urreraturik, iratzartu egin eben, esanez: «Irakasle, galduak gara!». Iratzartu, eta aize ta olatuai agindu egin eutsen, eta gelditu egin ziran, eta barealdi ederra egin zan. <sup>25</sup> Orduan, auxe esan eutsen: «Nun da zuen sinismena?». Areik, bildurrez heterik, arrituta egozan, alkarri zirautoela: «Nor da, gero, au?, aizeai ta urari aginduta, oneik esana egiten dautsoen au?».

#### Jerasa'ko deabruduna

(Mt. 8, 28-34; Mk. 5, 1-20).

<sup>26</sup> Galilea'ren aurrez-aurre dagoan Jerasatarren lurraldera eldu ziran. <sup>27</sup> Oiñak legorrean jartean, uritik gizon bat etorri yakon bidera; gizon ori deabruak artuta euken, eta aspaldian ez eban soiñekorik jazten, ezta etxean bizi be ez zan egiten, illobietan baiño. <sup>28</sup> Jesus ikustean, aurrean auzpatu yakon, deadarka baten zirautsala: «Zer dot nik zutzaz, Jesus, Jaungoiko Gorengoaren seme orretzaz? Ez nagizula oiñazetu eskatzen dautsut». <sup>29</sup> Gizon aregandik urten zedilla agintzen eutsan Jesus'ek gogo zikiñari-ta. Izan be, deabruak sarritan artzen eban; kataiz eta burdiñazko estunez lotzen eben, zaintzeko; baiña kataiak ausirik, deabruak basamortura egiten eutsan bultza. <sup>30</sup> «Zelan dozu izena?», itandu eutsan Jesus'ek. «Taldea», erantzun eutsan arek; aregan deabru asko sartu ziran-eta. <sup>31</sup> Eta ez egizala lezara bialdu, eskatzen eutsoen Jesus'i.

<sup>32</sup> Txarri-talde aundi bat egoan an, mendian larrean (*jaten*); eta eurakana sartzen itxi egiela eskatu eutsoen deabruak; eta Jesus'ek itxi egin eutsen. <sup>33</sup> Deabruak gizon aregandik urten eta txarriakan sartu ziran, eta txarri-taldea amiltegitik zingirara jausi ta ito egin zan. <sup>34</sup> Txarri-zaiñak, jazo zana ikusirik, iges egin eta barria uri ta base-rietan zabaldu eben. <sup>35</sup> Urten ziran, ba, jazorikoa ikustera, eta, Jesus'egana eldurik, deabruak urten izan yakozañ



gizona aurkitu eben, jesarrita, jantzita eta bere senera biurtuta, Jesus'en oiñetan; eta bildurrez bete ziran. <sup>36</sup> Jazorikoa ikusi izan ebenak, deabruduna zelan izan zan osatua azaldu eutseen. <sup>37</sup> Orduan, Jerasatarren erri-aldeko laguntalde guztiak eurakandik alde egiteko eskatu eutsoen Jesus'i, bildurrez be bildurrez egozala-ta. Jesus txalupara igo ta biurtu egin zan.

<sup>38</sup> Deabruak urten izan yakozan gizonak, beragaz egoten izteko eskatzen eutsan Jesus'i; baiña Jesus'ek bialdu egin eban, esanez: <sup>39</sup> «Biurtu zaitetz etxera ta Jaungoikoak egin dautsun guztia azaldu egizu». Eta uri guztian zear joan zan, Jesus'ek egin izan eutsan guztia iragarten.

#### **Odol-jarieduna osatzen dau, eta Jairo'ren alab(e)a biztuten**

(Mt. 8, 18-26; Mk. 5, 21-43).

<sup>40</sup> Jesus biurtu zanean, abegi onez artu eban laguntaldeak; guztiak Aren zain egozan-eta. <sup>41</sup> Sinagogako buru zan Jairo izeneko gizon bat etorri zan; eta, Jesus'en oiñetan auzpazturik, bere etxean sartu zedilla eskatzen eutsan: <sup>42</sup> amabiren bat urteko alaba bakarra il-zorian eukala-ta. Joan yoian artean, laguntaldeak Jesus estutu ta estutu egiten eban.

<sup>43</sup> Orduan, amabi urte areitan odol-jarioz geisorik egoan emakume batek, iñok be osatu eziniik egoan emakume batek, (\*) <sup>44</sup> atzetik urreratu ta soingaiñeko ertza ikutu eutsan Jesus'i; eta bat-batean odol-jarioa gelditu egin yakon. <sup>45</sup> Jesus'ek auxe esan eban: «Nok ikutu nau?». Guztiak ezetz iñoen ezker, Pedro'k eta onegaz egozarak auxe esan eben: «Irakasle, laguntaldeak estutu ta sakatu egiten zaitue». <sup>46</sup> Baiña Jesus'ek euxe esan eban: «Norbaitek ikutu egin nau, nigandik indarra urten dala somatu dot-eta». <sup>47</sup> Emakumea, bere burua agirian egoala ikusirik, ikara-ikara urreratu zan; eta Jesus'en aurrean auzpazturik, erri guztiaren aurrean esan eban Jesus zegai-

tik ikutu eban, eta bat-batean zelan izan zan osatua. <sup>46</sup> Jesus'ek auxe esan eutsan: «Alaba, zeure sinismenak osatu zaitu; zoaz bakean».

<sup>49</sup> Berba egiten ziarduan artean, sinagogako nagusiaren etxetik norbait dator, esanez: «Zure alab(e)a il egin da. Ez egiozu, onezker, Irakasleari gogaitik eragin». <sup>50</sup> Jesus'ek ori entzun eta auxe esan eutsan: «Ez bildurtu; izan egizu sinismena bakar-bakarrik, eta osatua izango da». <sup>51</sup> Etxera eldurik, ez eban itxi iñor beragaz sartu zedin, Pedro, Yon, Santiago, eta neskatoaren aita ta ama izan ezik. <sup>52</sup> Neskatoagaitik, guztiak negarrez eta samifiez egozan; baiña Jesus'ek auxe esan eban: «Ez negarrik egin: ez da il; lo dago». <sup>53</sup> Eta irri ta barre egiten eutsoen, ba-ekien ilda egoana-ta. <sup>54</sup> Jesus'ek, neskatoari eskutik oraturik, abots argiz esan eban: «Neskato, jagi zaitetz». <sup>55</sup> Barriro etorri yakon arnasa, eta jagi egin zan bat-batean: eta neskatoari jaten emon egioela agindu eutsen. <sup>56</sup> Neskatoaren gurasoak arrituta gelditu ziran; eta jazo izan zana iñori be ez esateko agindu eutsen Jesus'ek.

## IX

**Amabien egikizuna** (Mt. 10, 5. 9-14; Mk. 6, 7-13).

<sup>1</sup> Amabiai (\*) dei egiñik, deabru guztiari buruzko indar eta eskubidea emon eutsen, geisoak osatu egiezan be bai; <sup>2</sup> eta Jaungoikoaren Erreñua iragartera ta geisoak osatzera bialdu ebazan. <sup>3</sup> Eta auxe esan eutsen: «Ez artu ezer biderako, ez makillarik, ez zorrerik, ez ogirik, ez dirurik, ezta barruko jantzi birik be ez euki. <sup>4</sup> Etxe baten sartu zaitenez, gelditu bertan eta izan daitela andixek zuen urteera. <sup>5</sup> Onartu ez zagiezenai buruz, barriz, uri aietatik urtenik, astindu egizue zuen oiñetako autsa, arein kontrako agirizat».

<sup>6</sup> Andik urtenik, ba, erririk erri ibili ziran, alde guztietan Barri Ona iragarten eta geisoak osatzen.

**Erodes eta Jesus** (Mt. 14, 1-2; Mk. 6, 14-16).

<sup>7</sup> Erodes tetrarka jazoten zan guztiaren jakitun egin zan, eta ez baitan egoan: Yon biztu zala illen artetik, iñoen batzuek-eta; <sup>8</sup> beste batzuek, Elias agertu zala; eta beste batzuek, antxiñako igarletariko bat biztu zala. <sup>9</sup> Erodes'ek auxe esan eban: «Yon'i buruz, neuk moztu neutsan burua. Nor da, ba, orretzaz onelakoak entzuten dodazan ori?». Eta Jesus ikusteko gogoia eban.

**Ogien lenengo ugaritzea**

(Mt. 14, 13-21; Mk. 6, 30-44. 45; Yn. 6, 1-13).

<sup>10</sup> Apostoluak biurtu ziranean, eurak egin izan eben guztia azaldu eutsoen. Eta Jesus'ek, beragaz arturik, Betsaida izeneko uriruntz baztatu zan. <sup>11</sup> Baiña laguntaldeak jakin egin eben, eta jarraitu egin eutsoen; eta Jesus'ek, abegi onez arturik, Jaungoikoaren Erreiñuari buruz egiten eutsen berba; eta osasunaren bearrean egozanak, osatu egiten ebazan.

<sup>12</sup> Baiña, eguna illuntzen asi zan; eta Amabiak urreraturik, auxe esan eutsoen: «Bialdu egizu laguntalde au, inguruko erri ta baserrietara joan daitezcan eta ostatua ta jatekoa billatu dagien: emen, basamortuan gagoz-ta». <sup>13</sup> Jesus'ek auxe esan eutsen: «Zeuok emon egiezue jaten». Baiña areik auxe erantzun eben: «Bost ogi ta arrain bi baiño ez daukaguz; laguntalde guzti onentzat janariak erostera geu joan ezik...». <sup>14</sup> Bost millaren bat gizon ziran-eta. Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen: «Agindu egiezue jarri daitezala berrogetamarnaka-edo». <sup>15</sup> Ikasleak alantxe egin eben, eta guztiak jesarrerazo ebezan. <sup>16</sup> Orduan, bost ogiak eta arrain biak artu ebazan; eta zerura begiraturik, bedeinkatu ta zatitu egin ebazan, eta ikasleai emoten eutsezcan, oneik laguntaldeari banandu egiezan. <sup>17</sup> Guzti-guztiak jan eben, bete arte. Gelditu yakezan ondakiñez amabi otzara-bete batu ziran.

**Pedro'ren autorra** (Mt. 16, 13-16. 20; Mk. 8, 27-30).

<sup>18</sup> Jesus'ek otoitz egiten ziarduala, ikasleak beragaz egozan; eta itaun au egin eutsen: «Nor nazala diño laguntaldeak?». <sup>19</sup> Areik auxe erantzun eutsoen: «Batzuek. Yon Bateatzaillea zar(e)ala; beste batzuek. Elias; beste batzuek. antxiñako igarletariko bat, biztuta». <sup>20</sup> Jesus'ek auxe esan eutsen: «Eta zuek, nor nazala diñozue?». Pedrok auxe erantzun eutsan: «Jaungoikoaren Kristo'a». <sup>21</sup> Baiña, orretzaz iñori be berbarik ez egiteko agindu eutsen gogor be gogor.

**Bere Nekaldia aurretiaz iragarten dau**

(Mt. 16, 21; Mk. 8, 31).

<sup>22</sup> Auxe esan eban: «Gizasemeak oiñaze aundiak eroan bear dauz, eta zaarrak, abadeburuak eta idazlariak ezetsi (baztatu) egin bear dabe, eta eriotzara galdu; eta irugarren egunean biztu egingo da».

**Jesus'i jarraitzeko bidea**

(Mt. 16, 24-27; Mk. 8, 34-38; Mt. 10, 38-39; Yn. 12, 25; Mt. 10, 33).

<sup>23</sup> Guztiai auxe zirautsen: «Norbaitek jarraitu nai ba'daust, bere burua ukatu, bere gurutzeta egunero artu, eta jarraitu beist: <sup>24</sup> bere bizia gorde nai dagianak, galdu egingo dau-ta; bere bizia neugatik galdu dagianak, barriz, orrek gorde egingo dau. <sup>25</sup> Izan be, zetako izango yako gizonari mundu guztia irabaztea, bere burua galtzen eta ondatzen da'dau? <sup>26</sup> Izan be, nitzaz eta nire berbai buruz lotsatu daitena, orrelako orretzaz Gizasemea lotsatu egingo da, bere aintzaz eta bere Aitaren eta aingeru santuen aintzaz etorri daitenean. <sup>27</sup> Auxe dirautsuet benetan-eta: Emen dagozanen artean ba-dira batzuk, Jaungoikoaren Erreiñua ikusi arte, eriotzarik artuko ez dabenak».

**Jesus'en irudi-aldatzea** (Mt. 17, 1-9; Mk. 9, 2-10).

<sup>28</sup> Berbok esanda zortzi bat egun geroago, Jesus'ek Pedro, Yon eta Santiago beragaz artu ta mendira igo zan,



otoitz egitera.<sup>29</sup> Eta otoitz egiten ziarduan artean, bere arpegi-itxur(e)a aldatu egin zan, eta bere jantziak zuri-diztiratsuak ziran.<sup>30</sup> Eta aral, gizon bi beragaz berbetan: Moises eta Elias ziran.<sup>31</sup> Oneik aintzaz agertzen ziran, eta Jerusalem'en jazotekoa zan Jesus'en eriotzaz ziarduen berbetan.<sup>32</sup> Pedro ta onen lagunak lo-guraz beterik egozan, baiña iratzarrik irauten eben (\*), eta Jesus'en aintza ta Beronegaz egozan gizonezko biak ikusi ebezan.<sup>33</sup> Eta oneik Jesus'egandik alde egiten ebela, Pedro'k Jesus'i auxe esan eutsan: «Irakasle, ederto gagoz emen, ba; egin dagiguzan iru txabola: bat zeuretzat, beste bat Moises'entzat, eta beste bat Elias'entzat». Ez ekian zer iñoan be.

<sup>34</sup> Ori esaten ziardua, laiño bat etorri ta gerizpean batu ebazan; eta, laiñotan sartzean, bildurrez bete ziran.<sup>35</sup> Laiñotik abots au entzun zan, esanaz: «Auxe da nire Semea, nire Aukeratua (\*); entzun egiozue». <sup>36</sup> Eta abots ori entzunda gero, Jesus egoan bakar-bakarrik. Areik isildu egin ziran, eta iñori be ez eutsoen ikusitakorik egun areitan esan.

#### **Deabrudun bat osatzen dau**

(Mt. 17, 14-18; Mk. 9, 14-27).

<sup>37</sup> Biaramonean, menditik jatsi ziranean, laguntalde aundi bat urten yaken bidera.<sup>38</sup> Laguntalde arteko gizon bat deadarka asi zan: «Irakasle, begiratu egizu nire seme au, bakarra dot-eta; <sup>39</sup> gogo (*espíritu*) batek artzen dau ta bat-batean garrasika asten da, biurrerazo egiten dau bitsa dariola, eta nekez be nekez aldentzen yako, astin-astin eginda itxirik. <sup>40</sup> Jaurti egie la eskatu dautset zure ikasleai, baiña ezin izan dabe». <sup>41</sup> Jesus'ek auxe erantzun eban: «Au bai gizaldi sinisogor eta gaiztoa! Noiz arte egongo ete-naz zuekaz eta noiz arte eroan bear ete-zaituet? Ekarrri ona zure seme ori!». <sup>42</sup> Urrerutzen zala, deabruak mutikoa lurrean zear jaurti ta astin-astin egin eban; baiña Jesus'ek gogo zikiñari agindu, mutikoa osatu ta aitari biur-

tu eutsan; <sup>43</sup> eta guztiak ikaratuta gelditu ziran Jaungoikoaren aunditasunaren aurrean.

#### **Bere Nekaldia bigarrenez iragarten dau**

(Mt. 17, 22; Mk. 9, 30-32).

Egiten ebazan guztiak zirala-ta, guztiak arrituta egozala, bere ikasleai auxe esan eutsen: <sup>44</sup> «Entzun ondo berbok: Gizasemea gizonen eskuetan itxia izango da». <sup>45</sup> Areik, ostera, ez eben au ulertzen; areintzat estalduta egoan, egon be, eta ez eben ulertzen, eta onetzaz Berari itanduteko be bildur ziran.

#### **Nor da aundiena?**

(Mt. 18, 1-5; Mk. 9, 33-37; Mt. 10, 40; Yn. 13, 20).

<sup>46</sup> Euretari aundiena nor ete-zan, alkarregaz eztabaida sortu zan. <sup>47</sup> Jesus'ek, arein bururakizunak ezaguturik, ume bat artu, bere ondoan ipiñi, <sup>48</sup> eta auxe esan eban: «Ume au neure izenean artu dagianak, neu artzen nau; eta ni artu nagianak, neu bialdu nauana artzen dau; zuen guztion artean txikiena dana, orixe da aundiena-ta».

#### **Jesus'en izena erabilten.**

<sup>49</sup> Orduan Yon'ek, berba arturik, auxe esan eban: «Irakasle, deabruak zeure izenaz jaurtiten ikusi dogu gizon bat, eta galerazo egin nai izan dautsagu (\*), ez dator gugaz-ta». <sup>50</sup> Baiña Jesus'ek auxe esan eutsan: «Ez egiozue galerazo: zuen kontra ez dagoana, zeuon alde dago-ta».

#### **Samaritar-erri batek ez dauz ondo artzen.**

<sup>51</sup> Bere jasote-egunak\* beteten yakozala, Jerusalem'era joateko erabagia artu eban, <sup>52</sup> eta mandatariak bialdu ebazan bere aurretik; oneik joan eta samaritarren erri baten sartu ziran, Jesus'i ostatua atontzeko. <sup>53</sup> Baiña, Jerusalem'era joateko asmoa ebela-ta, ez ebezan onartu. <sup>54</sup> Bere ikasle

\* Jasote-egunak: lurretik alde egiteko egunak.

Santiago'k eta Yon'ek ori ikustean, auxe esan eben: «Jauna, nai dozu zerutik sua jatsi daitela ta orreik kiskaldu dagizala esan dagigun?». <sup>55</sup> Baiña Jesus'ek, arekana biurturik, asarre egin eutsen. <sup>56</sup> Eta beste erri batera joan ziran.

**Jesus'en jarraitzaileak** (Mt. 8, 18-22).

<sup>57</sup> Bidean yoiazala, batek auxe esan eutsan: «Joan zaitzezan edonora jarraituko dautsut». <sup>58</sup> Jesus'ek auxe esan eutsan: «Azeriak euren gorde-lekuak daukez, eta zeruko egaztiak euren apiak; Gizasemeak, barriz, ez dauko buru ezarteko lekurik».

<sup>59</sup> Beste bati auxe esan eutsan: «Jarraitu egidazu». Arek auxe erantzun eutsan: (\*) «Itxi egidazu lenengo, nire aitari lurra emotera joaten». <sup>60</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsan: «Itxi egiezu illai euren ildakoak lurperatzen; zu, zoaz Jaungoikoaren Erreiñua iragartera».

<sup>61</sup> Beste batek auxe esan eutsan: «Jarraituko dautsut, Jauna; baiña, itxi egidazu lenengo nire etxekoai agur egiten». <sup>62</sup> Jesus'ek auxe esan eutsan: «Gold(e)ari eskua ezarri ta atzeruntz begiratzen dauan iñor be ez da Jaungoikoaren Erreiñurako gei».

## X

**Irurogeta amabi ikasleak.**

<sup>1</sup> Orren ondoren, Jaunak beste irurogeta amabi aukeratu ebazan, eta bere aurretik biñan-biñan bialdu ebazan, bera joateko zan uri ta leku guztietara. <sup>2</sup> Eta auxe esan eutsen: «Solo-aria ugaritsua da, eta langilleak gutxi. Otoitz egiozue, ba, solo-ariaren Jabeari, bere solora langilleak bialdu dagizan. <sup>3</sup> Zoaze; bildotsak otso artera lez bialtzen zaituet, gero! <sup>4</sup> Ez egizue zorrorik, ez zakaturik, ez oiñetakorik eroan. Eta bidean iñori agurrik ez egin. <sup>5</sup> Sartu zaitzezan etxean, esan lenengo: «Bakea etxe oni». <sup>6</sup> Eta an ba-

ke-semerik ba'lego, zuen bakea aren gainean geldituko da: bestela, zeuokana biurtuko da. <sup>7</sup> Etxe aretan bertan gelditu zaiteze, euki dagiena jaten eta edaten; langilleak bere lan-saria jasoteko eskubidea dauko-ta. Ez ibili etxe batekik bestera. <sup>8</sup> Sartu zaitezen urian ondo artu ba'zagieze, jan egizue ekarri dagitzuena; <sup>9</sup> osatu egizue angos geisoak, eta auxe esan egiezu: 'Urreratu yatzue Jaungoikoaren Erreiñua'. <sup>10</sup> Sartu zaitezen urian ondo artu ez ba'zagieze, euren plazetara urten eta esan egizue: <sup>11</sup> 'Zuen uri onetan oiñetan itsasi\* yakun autsa be, zeuontzat astintzen dogu. Jakin egizue, orraitino, Jaungoikoaren Erreiñua ur dagoana'. <sup>12</sup> Egun aretan Sodoma'rentzako zoria, uri arentzat baiño bigunagoa izango dala dirautsuet.

(Mt. 11, 21-24).

<sup>13</sup> Zure zoritxarra, Korazain! Zure zoritxarra, Betsaida! Izan be, zuenean egin diran mirariak Tiron eta Sidon'en egin ba'litzaz, zaku-autsetan jesarrita aspaldian garbatuko litzakezan. <sup>14</sup> Orregaitik, epai-egunean, Tiro ta Sidon'i zuoi baiño bigunago egingo yake. <sup>15</sup> Eta zuk, Kafarnaum, zerruragiño azi bear dozu, ala? *Inpernuraiño ondatuko zara!*

(Mt. 10, 40; Mk. 9, 37; Yn. 13, 20).

<sup>16</sup> Zuei entzuten dautsuenak, neuri entzuten daust; eta zuek baztarten zaituenak, neu baztarten nau; eta ni baztertzen nauanak, ni bialdu nauana baztarten dau».

**Apostoluak barriro datoz.**

<sup>17</sup> Irurogeta amabiak pozez beterik etorri ziran barriro, esanez: «Jauna, zure izenaz deabruak eurak be menpean jarten yakuz». <sup>18</sup> Jesus'ek auxe esan eutsen: «Oiñaztarria lez ikusten neban Satanas zerutik jausten. <sup>19</sup> Sugeak eta lupuak\* eta arerioen indar guztiak zapaltzeko eskubidea

\* Itsasi: pegarse, adherirse. \* Lupu: escorpión.



emon dautsuet, eta ez dautsue ezek be kalterik egingo.  
<sup>26</sup> Baiña, ez zaiteze poztu gogoak (*deabruak*) zeuon menpean dagozala-ta; poztu zaiteze, ostera, zuen izenak zeruari idatzita dagozalako».

**Jesus'ek Aitari eskerrak emoten dautsaz** (Mt. 11, 25-27).

<sup>21</sup> Une aretan, Jesus Espiritu Santuagan pozez bete zan, eta auxe esan eban: «Bedeinkatu egiten zaitut, Aita, zeruaren eta lurraren egille ori, gauza oneik jakintsuai ta zuurrai estaldu ta txikiak agertu dautsezuzalako. Bai, Aita, zuk orrelaxe nai izan dozu-ta. (\*).<sup>22</sup> Neure eskuetan itxi dau, dana nire Aitak, eta Semea nor dan inok ez daki, Aitak izan ezik; ezta Aita nor dan be, Semeak eta Semeak agertu nai dagionak izan ezik».

**Ikasleen eskubidea** (Mt. 13, 16-17).

<sup>23</sup> Ikasleakana bihurturik, bakarrean auxe esan eutsen. «Zorionsuak zuek ikusten dozuena ikusten dabenak!  
<sup>24</sup> Esan be ba-dirautsuet; Igarle ta errege askok ikusi nai izan eben zuek ikusten dozuena, baiña ez eben ikusi; baita zuek entzuten dozuena entzun be, baiña ez eben entzun!».

**Agindurik nagusiena** (Mt. 22, 34-40; Mk. 12, 28-31).

<sup>25</sup> Lege-gizon bat jagi zan, azpikeriz zirautsala: «Irakasle, zer egin bear dot betiko bizitza irabazteko?». <sup>26</sup> Jesus'ek auxe esan eutsan: «Zer dago Legean idatzita? Zer irakurten dozu?». <sup>27</sup> Arek auxe erantzun eban: «Zure Jaungoiko Jauna biotz-biotzez, gogo-gogoz, zure indar guztiaz eta zure adimen guztiaz maitatuko dozu; eta zure lagun-urkoa zeure burua lez» (\*). <sup>28</sup> Orduan, Jesus'ek auxe esan eutsan: «Ederto erantzun dozu. Orixe egizu, eta bizi izango zara».

**Samaritar zintzoaren ipuiña.**

<sup>29</sup> Arek, ostera, bere burua zuritu nairik, auxe esan eutsan Jesus'i: «Eta, nor da nire lagun-urkoa?». <sup>30</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsan: «Gizon bat Jerusalem'dik Jeriko'ra jatsiten zala, lapurren eskuetan jausi zan; eta oneik, arek eroian guztia kendu ari ta astin-astin eginda gero, erdi illik itxirik, joan egin ziran. <sup>31</sup> Bide aretatik beera, ain zuzen be, abade bat etorren; eta gizona ikustean, ingurutik aurrera jo eban. <sup>32</sup> Leku aretatik yoian lebitar batek be ikusi bai, ikusi egin eban, baiña ingurutik aurrera jo eban. <sup>33</sup> Bidean yoian samaritar bat, ostera, aren ondora eldu zan; eta, gizona ikustean, erruki izan yakon; <sup>34</sup> eta urreraturik, zauriak lotu eutsazan, orioaz eta ardaoaz igurtzirik; eta bere asto-gaiñean ipiñirik, ostatura eroan eta bere ardurapean artu eban. <sup>35</sup> Biaramonean, denario bi atarata, ostalariari emon eutsazan, eta auxe esan eutsan: 'Zaindu egizu gizon au; eta gastu geiago egiten ba' dozu, ona biurtu naitenean ordainduko dautsut'. <sup>36</sup> Irurotariko nor uste dozu lapurren eskuetan jausitakoaren lagun-urkoa izan zala?». <sup>37</sup> Arek auxe esan eban: «Erruki izan yakona» (\*). Jesus'ek auxe esan eutsan: «Zoaz eta egizu zeuk be bardin».

**Marta ta Maria.**

<sup>38</sup> Bidean yoiala, erri baten sartu zan (\*); eta Marta ize-neko emakume batek bere etxean artu eban. <sup>39</sup> Onek, Mari eritxon aizta bat eukan; eta onek, Jaunaren oiñetan jesarrita, Jesus'en itza entzuten ziarduan, <sup>40</sup> Marta arazo askotan arduratsu ziarduan artean. Jesus'egana urreraturik, auxe esan eban: «Jauna, ez dautsu ardurarik nire aitz(e)ak lanean bakarrik itxi nagian? Esan egiozu, ba, lagun egin daistala». <sup>41</sup> Jaunak auxe erantzun eutsan: «Marta, Marta: arduraz eta urduri diarduzu gauza askotan; <sup>42</sup> eta gutxi dira bearrezkoak, edo-ta obeto, bat bakarrik (\*). Ma-

ri'k arlorik onena aukeratu dau, eta ez yako egundo kenda izango» (\*).

## XI

**Aita Gurea** (Mt. 6, 9-13).

<sup>1</sup> Jesus toki baten otoitz egiten ziarduala, amaitu ebanean, bere ikasletariko batek auxe esan eutsan: «Irakasle, irakatsi egiguzu otoitz egiten, Yon'ek bere ikasleai irakatsi eutsenez». <sup>2</sup> Jesus'ek auxe esan eutsen: «Otoitz egin dagizuenean, auxe esan egizue: Aita, santifikatua izan bedi zure izena, betor zure Erreiñua, <sup>3</sup> emon egiguzu egunero bear dogun ogia, <sup>4</sup> eta parkatu egiguzuz gure pekatuak, geuk be zor daukun edonori parkatu egiten dautsagu-ta; eta ez gagizuz zirikaldian itxi».

**Adiskide gogaikarria.**

<sup>5</sup> Auxe be esan eutsen: «Zuetariko batek adiskide bat ba'dau ta, aregana gaberdian joanik, ba-dirautso: 'Adiskide, itxi egidazuz iru ogi: <sup>6</sup> nire adiskide bat, bidez yoiala etxera etorri yat, eta ez daukat ari eskintzekorik ezer be-ta'. <sup>7</sup> Besteak, barriz, barrutik auxe erantzuten dautso: 'Ez zakidaz gogaikarri izan; atea itxita dago, eta ni ta nire semeak ogean dagoz; ezin jagi naiteke zuri ogiak emotera'. <sup>8</sup> Benetan dirautsuet; eskatutako ogiak emotera adiskide dalako jagiten ez ba'da be, gogaikarri izan ez dakion beintzat, jagi ta arek bear dagian guztia emongo dautso».

**Otoitzaren indarra** (Mt. 7, 7-11).

<sup>9</sup> «Auxe dirautsuet; Eskatu egizue, eta emon egingo yatzue; ibili billa, eta aurkitu egingo dozue; atea jo, eta zabaldu egingo yatzue: <sup>10</sup> eskatzen dauan edonok, artu egiten dau-ta; billa dabillanak, aurkitu egiten dau; eta atea jotzen dauanari, zabaldu egingo yako-ta. <sup>11</sup> Nor da zuen

artean, bere semeak ogia eskatzen ba'dautso, arri bat emongo dautsan aitarik?; <sup>12</sup> edo-ta, arrain bat eskatzen ba'dautso, arraiñaren ordez suge bat emongo dautsanik?; edo-ta, arrautza bat eskatzen ba'dautso, lupu\* bat emongo dautsanik? <sup>13</sup> Beraz, zuek, gaiztoak izanarren, zuen semeai gaza onak emoten ba'dakizue, zenbat areago ez ete-dautse Espiritu Santua emongo zuen Aitak, eskatzen dautsenai?».

**Jesus eta Beelzebul**

(Mt. 12, 22-29; Mk. 3, 22-27; Mt. 16, 1; Mk. 8, 11; Mt. 12, 30).

<sup>14</sup> Deabru mutu bat jaurtiten ziarduan; deabrua urten zanean, mutua berba egiten asi zan, eta laguntaldeak arritu egin ziran. <sup>15</sup> Euretarike batzuek, ostera, auxe esan eben: «Beelzebul deabru-nagusiaren indarrez jaurtiten dauz orrek deabruak». <sup>16</sup> Beste batzuek, barriz, zirikatze-ko, zerutiko ezaugarri bat eskatzen eutsoen. <sup>17</sup> Baiña Jesus'ek, arein bururakizunak ezaguturik, auxe esan eutsen: «Bere buruaren kontra bananduta dagoan edozein erreñu, ondatuta gelditzen da, eta etxea etxearen gaiñera jausten da. <sup>18</sup> Beraz, Satanas be bere buruaren kontra bananduta ba'dago, zelan iraungo dau bere erreñuak?, deabruak Beelzebul'en indarrez jaurtiten dodazala diñozue-ta. <sup>19</sup> Eta deabruak nik Beelzebul'en indarraz jaurtiten ba'dodaz, zuen semeak noren indarraz jaurtiten dabez? (\*). Orregaitik, eurak izango dira zuen epaille. <sup>20</sup> Baiña, deabruak nik Jaungoikoaren atzamarrak jaurtiten ba'dodaz, Jaungoikoaren Erreiñua eldu yatzue, benetan. <sup>21</sup> Bere jauregia gizon errime ta armadun batek zaintzen dauanean, bere ondasunak ondo gordeta dadoz; <sup>22</sup> baiña, bera baiño indartsuagoa etorri ta burrukan irabazten ba'dautso, besteari uste osoa emoten eutsoen armak kendu egiten dautsaz eta aren ondakiñak banandu egiten dauz. <sup>23</sup> Nigaz ez dagona, neure kontra dago; eta nigaz batzen ez dauanak, sakabanatu egiten dau».

\* Lupu: escorpión.



**Satanas'en jokabidea** (Mt. 12, 43-45).

<sup>24</sup> «Gogo zikiña gizonagandik urtetan danean, toki legorretan zear ara-onaka dabil atsedena-billa; eta atsedena ez aurkitzean, auxe diño: 'Urten nintzan neure etxera joango naz barrero'. <sup>25</sup> Eta ara eltzean, garbi ta apain aurkitzen dau. <sup>26</sup> Orduan, ba-doa, eta beste zazpi gogo (*espiritu*), bera baiño gaiztoagoak, beragaz artzen dauz; etxean sartu ta bertan gelditzen dira (\*); eta alako gizonaren azken-aldia, asiera baiño txarrago da».

**Benetako zoriona.**

<sup>27</sup> Jesus'ek berbok esaten ziarduala, erriko emakume batek deadarka asi ta auxe esan eutsan: «Zorionsua zu eroan zenduzan sabela ta zu azi zenduezan bularrak!». <sup>28</sup> Baiña, Jesus'ek auxe esan eban: «Zorionsuagoak, orraitio, Jaungoikoaren itza (*berbea*) entzuten eta beteten dabena».

**Jonas'en ezaugarria** (Mt. 12, 38-42).

<sup>29</sup> Laguntaldea batu zala, Jesus auxe esaten asi zan: «Gizaldi au, gizaldi gaiztoa da; ezaugarri baten billa dabil, eta Jonas'en ezaugarria baiño beste ezaugarririk ez yako emongo. <sup>30</sup> Izan be, Ninibetarrentzat Jonas ezaugarri izan zanez, olantxe izango da Gizasemea be gizaldi onentzat. <sup>31</sup> Egoi-aldeko Erregiña auzi-egunean gizaldi onetako gizonakaz batera jagi ta galdu egingo dauz: Salomon'en jakituria entzuteru lurreko mugetatik etorri zan-eta. Ona emen, barriz, Salomon baiño zerbait geiago dana. <sup>32</sup> Ninibetarrak Auzi-egunean gizaldi onegaz batera jagi ta gizaldi au galdu egingo dabe: Jonas'en iragar-teaz areik garbatu egin ziran-eta; ona emen, barriz, Jonas baiño zerbait geiago dana».

**Argi-ontziaren ipuiña barrero be**

(Mt. 5, 15; Mk. 4, 21; Mt. 6, 22-26).

<sup>33</sup> «Iñok ez dau argia iziotzen daunean, leku ezkutuan

ipinten, ezta imillaun-pean\* be, argi-ontziaren gaiñean baiño: barrera sartu daitezana, argia ikusi dagien. <sup>34</sup> Zure gorputzaren argi-ontzia, zeure begia da. Zure begia onik ba'dago, zure gorputz osoa argitan egongo da; zure begia geisorik ba'dago, barriz, zure gorputza be illunetan egongo da. <sup>35</sup> Begira, ba, zuga dozun argia illuntasuna izan ez daiten. <sup>36</sup> Beraz, zure gorputza oso-osorik argitsua ba'da, gorputz-atalik illun ez dozula, oso-osorik argitsua izango da, argi-ontziak bere argiaz argitzen zaituanean lez».

**Pariseuen kontra**

(Mt. 23, 25-26; 23. 6-7; 27, 4. 29-31; 34-36, 13; Mk. 12, 38-39).

<sup>37</sup> Itzaldia amaitu ebanean, pariseu batek beragaz bazkaltzera joan zedilla eskatu eutsan; beraz, etxean sarturik, maian jarri zan. <sup>38</sup> Baiña, Jesus'ek jan-aurretiko garbiketak ez ebazala egin ikusirik, pariseua arrituta gelditu zan. <sup>39</sup> Jaunak, barriz, auxe esan eutsan: «Ederto! Zuok, pariseuok, edontziak eta azpillak (*platerak*) azaletik garbitzen dozuez; barrutik, barriz, lapurkeriz eta gaiztakeriz beteta zagoze. <sup>40</sup> Burubageok! Azalekoa egin ebanak, ez eban, ba, barrukoa egin? <sup>41</sup> Egizue limosna, orraitio, ba-dauka-zuenetik, eta orrela, gauza guztiak zuentzat garbiak izango dira (\*). <sup>42</sup> Baiña, zuen zoritxarra, pariseuok!, aizpata\*, boskoitz\* eta ortu-ari guztien amarrenak emon bai, eta zuzentasuna ta Jaungoikoaganako maitasuna alde batera izten dozuez-ta! Auxe da egizuez bete bear zana, besteak aztu bagarik, baiña. <sup>43</sup> Zuen zoritxarra, pariseuok!, sinagotetan lenengo jarlekua ta plazetan agurtuak izatea maite dozuez-ta. <sup>44</sup> Zuen zoritxarra, ikusten ez diran illobiak la-koak zareenok!: gizonak, eurak ez dakiela, illobi-gaiñetik ibiltzen dira-ta!».

\* Imillaun: celemín.

\* Aizpata: menta.

\* Boskoitz: ruda.

<sup>45</sup> Lege-irakasle batek auxe erantzun eutsan: «Irakasle, orrela berba egiñez, geuri be irain egiten dauskuzu!». <sup>46</sup> Baiña, Jesus'ek auxe esan eban: «Zoritxarrekoak zuok be, lege-irakasleok!, gizonai, ezin eroan daikeezan sortak ezarten dautsuezanok; zuek, barriz, atzamar bataz be ez dozuez sortok ikutzen! (\*)». <sup>47</sup> Zoritxarrekoak zuok, zuen gurasoak ildako igarleen illobiak egiten dozuezanok! <sup>48</sup> Beraz, zuen gurasoen egiñak autortu ta onartu egiten dozuez: izan be, areik igarleak il egin ebezan, eta zuek illobiak egiten dozuez.

<sup>49</sup> Onexegaitik esan eban Jaungoikoaren Jakituriak: 'Igarleak eta apostoluak bialduko dautsedaz, eta batzuk il eta aurrean erabiliko dabez: <sup>50</sup> gizaldi onek munduaren asierarik isuritako profeta guztien odolaz erantzun dagian: <sup>51</sup> Abel'en odoletik asi ta Jaunaren Etxetik altarara bitartean il zan Zakarias'en odolerañño. Bai, ba-dirautsuet: odol orren erantzuna gizaldi oni eskatuko yako.

<sup>52</sup> Zoritxarrekoak zuok, lege-irakasleok, jakintzaren gilitza eroan dozuenok! Zuek sartu ez, eta sartu nai dabenai galerazo egiten dautsazue!» (\*).

<sup>53</sup> Eta andik urten zanean, idazlariak eta pariseuak Jesus'i gogor be gogor egiten asi yakozan eta berba askoaz berba eragiten, <sup>54</sup> zirika-zirika, Aren agotik urtendako berben bat artu naiez.

## XII

### Bildur bagarik berba egin

(Mt. 16, 6, 12; 10, 26-27; Mk. 8, 15; 4, 22).

<sup>1</sup> Onetan, millaka ta millaka lagun batu zirala, alkar zapaltzeraiño batu be, Jesus berba egiten asi yaken, eta bere ikasleai lenengo: «Zaindu egizuez zuen buruok pariseuen legamiñetik, edo bardin dana, azaluskeritik. <sup>2</sup> Ezer be ez dago estalduta, agiri izango ez danik; ezta ezkutuan be,

jakingo ez danik. <sup>3</sup> Izan be, zuek illunetan esan zendue-na, argi-argitan entzuna izango da; eta bakotxaren geletan belarrira esan zenduena, etxe-gaiñietatik iragarria izango da.

(Mt. 10, 28-31).

<sup>4</sup> Zeuoi dirautsuet, nire adiskideoi: Ez izan bildurrik gorputza il baiño ezin egin daikeenai. <sup>5</sup> Irakatsiko dautsuet nori bildur izan: gorputza il ondoren, su-lezara (*inpernura*) jaurtiteko eskubidea daukanari bildur izan egiozue; bai, ba-dirautsuet: orrexeri izan egiozue bildur.

<sup>6</sup> Ez ete-dira bost txoritxo txanpon bitan saltzen? Alan be, areitariko bat bakarrik be ez dago aztuta Jaungoikoaren aurrean. <sup>7</sup> Zuen buruko uleak be guzti-guztiak dagoz zenbatuta (*kontauta*). Ez bildurrik izan. Txoritxo askok baiño geiago balio dozue zuek.

(Mt. 10, 32-33; Mk. 8, 38; Mt. 12, 32; Mk. 3, 29).

<sup>8</sup> Gizonen aurrean neure alde agertu daiten edonor. Gizasemea be alakoaren alde agertuko da Jaungoikoaren aingeruen aurrean. <sup>9</sup> Gizonen aurrean ukatu nagiana, barriz, ukatua izango da Jaungoikoaren aingeruen aurrean. <sup>10</sup> Gizasemearen kontra berba bat esan dagian edonor! parkatu egingo yako; Espiritu Santuaren kontra biraoa esan dagianari, barriz, ez yako parkatuko.

(Mt. 10, 17-20; Mk. 13, 11).

<sup>11</sup> Sinagogetara, auzi-gizonen eta agintarien aurrera eroan zagiezenean, ez arduratu zer zelan erantzungo, edo-ta zer esango dozuen: <sup>12</sup> esatea egoki yatzuena, Espiritu Santuak irakatsiko dautsue une aretan bertan-eta.

### Ez pillatu aberastasunik

<sup>13</sup> Laguntaldeko batek auxe esan eutsan: «Irakasle, esan egiozu nire anaiari, bere oiñordekotasuna nigaz erdibana egin dagiala». <sup>14</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsan: «Gi-



zon!, nok jarri nau ni zuen arteko ebazle edo erdibana-tzaille?». <sup>15</sup> Eta auxe esan eutsen: «Begira ta gorde zuen buruok diru-gosetatik: gaitzka eukiarren be, norbere bizitza ez dago bere ondasunetan indartuta-ta».

<sup>16</sup> Ipuin au esan eutsen: «Gizon aberats baten soloak frutua ugari ekarri eben; <sup>17</sup> eta berekautan auxe ifioan: 'Zer egingo dot nik, nire frutuak gordeteko lekurik ez daukat-eta? <sup>18</sup> Auxe egingo dot -esan eban- : nire garautegiak lurrera bota, beste aundiago batzuk jaso ta antxe batuko dodaz nire gari ta ondasun guztiak; <sup>19</sup> eta nire arim(e)ari auxe esango dautsat: 'Arima, ondasun asko daukuz batuta urte askotarako. Atsedean artu, jan, edan, oparo bizi'. <sup>20</sup> Baiña Jaungoikoak auxe esan eutsan: 'Zoro ori! Gaur gabean berton eskatuko dautsue arim(e)a; atondu dazuzan gauzak, norentzat izango ete-dira?'. <sup>21</sup> Olakoxea da aberastasunak beretzat pillatu bai, baiña Jaungoikoari buruz aberasten ez dana» (\*).

**Ez izan lurreko ondasunen ardurarik** (Mt. 6, 25-33).

<sup>22</sup> Auxe esan eutsen bere ikasleai: «Orrexegaitik dirautsuet: Ez arduraz ibili bizi izateko zer jango dozuen, ezta gorputza zerez jantziko dozuen be: <sup>23</sup> bizitza, janaria baiño geiago da-ta, baita gorputza be jantzia baiño geiago. <sup>24</sup> Begira belak: ez dabe ereiten, ez batzen; ez dauke janaritegirik, ezta garautegirik be, eta Jaungoikoak emoten dautse jaten. Egaztiak baiño geiago balio dozue, orraitifio, zuek! <sup>25</sup> Zuetariko nok, barriz, aletin guztiak egifarren be, luzatu daike bere biziak ukondo bete? (\*). <sup>26</sup> Beraz, txikiena be ezin daikezuen ezkerre, osterantzekoetan zegaitik ibili arduratsu? <sup>27</sup> Begira lirioak: ez dabe goruetan egiten, ez eunik eioten (\*). Alan be, ba-dirautsuet: Salomon be- ra be, bere aunditasun aundienean be, ezin jantzi izan zan orreitariko bat lez. <sup>28</sup> Beraz, gaur zelaian egon eta biar labara jaurtiten dan bedarra Jaungoikoak orrela jazten ba'dau, ez ete-dau askozaz geiago egingo zuokaitik, sinis-

men otzeko gizonokaitik? <sup>29</sup> Ez ibili, ba, zer jango edo zer edango ete-dozuen billa, eta ez estutu: <sup>30</sup> gauza guztion billa munduko jentillak ibiltzen dira-ta. Zuen Aitak, barriz, ba-daki guztion bearrean zagozena. <sup>31</sup> Billatu egizue, billatu, Jaungoikoaren Erreñua, eta gauza guztiok gaitzka emongo yatzuez. <sup>32</sup> Ez izan bildurrik, artaldetxo orrek!, atsegin izan yako zuen Aitari Erreñua zeuoi emotea-ta».

### Egin limosna

<sup>33</sup> «Saldu zuen ondasunak eta egin limosna. Egin zeuontzat zaartzen ez diran zorroak, zeruetan utsik egingo ez dautsuen dirutza: an ez da lapurrik, ezta ondatzeko sistsik be: <sup>34</sup> zuen ondasuna dagoan lekuan, zuen biotza be antxe egongo da-ta».

**Iratzarrik egozan morroiak** (Mt. 13, 35; 24, 43-51).

<sup>35</sup> «Begoz zuen gerriak lotuta eta argi-ontziak iziotuta; <sup>36</sup> eta, eztegutik euren ugazaba noiz biurtuko dan zain dagozan gizonen antzekoak izan zaitezte: a etorri ta atea joala, berealaxe zabaldu dagioen. <sup>37</sup> Zoriontsuak, ugazaba etortean, iratzarrik aurkitzen dauzan morroiak! Benetan dirautsuet: bere gerria lotu, arei maian jarteko agindu, eta banan-banan jaten emongo dautse. <sup>38</sup> Eta bigarren gaualdian, naiz irugarrenean ba'dator, eta morroiak alan aurkitzen ba'dauz, zoriontsuak morroi areik! (\*). <sup>39</sup> Ulertu ondo au: lapurra zein ordutan etorriko yakon etxaunak ba'leki, ez leuke bere etxea zulatzen itxiko. <sup>40</sup> Egon zaitezte gertu: gutxien uste dagizuenean etorriko da Gizasemea-ta».

<sup>41</sup> Pedro'k auxe esan eban: «Jauna, ipuin ori geuretzat, ala guztientzat diñozu?» (\*). <sup>42</sup> Jaunak auxe erantzun eutsan: «Nor da, ba, etxezain zintzo ta zuurra, Jaunak morroiburu egingo dauana, aldi egokian bakotxari dagokion jatekoa emon dagitsen? <sup>43</sup> Zoriontsua, ugazabak, eldu daitenean, alan egiten aurkitu dagian morroia! <sup>44</sup> Benetan di-

rautsuet: bere ondasun guztien buru jarriko dau. <sup>45</sup> Baiña, morroi arek bere biotzean ba'diño: 'Nire ugazaba berandu dator', eta morroi-neskameak joten, jaten eta edaten, eta moskortzen asten ba'da, <sup>46</sup> uste ez dauan egunean eta ez dakian orduan ugazaba etorriko yako, banandu egingo dau, eta gaiztoai zor yaken zoria emongo dautso.

<sup>47</sup> Bere ugazabaren gogoa jakinda, aren naitara ezer gertatu ez, ezta egin be egin ez dauan morroiak, zigorkada asko artuko dauz; <sup>48</sup> ugazabaren gogoa ezagutu ez, eta zigorkadak artzeko lain diran egitadak egin dauzanak, zigorkada gutxi artuko dauz. Asko emon izan yakonari, asko eskatuko yako; eta gordeteko asko itxi izan yakonari, geiago eskatuko yako».

#### Jesus, bere Nekaldi-aurrean.

<sup>49</sup> «Sua ekartera etorri naz lurrera (\*), eta nik bai nai neukela su ori onezkero iziotuta egotea! <sup>50</sup> Bateoaz bateatua izan bear dot, eta bateo ori bete arte, au bai larrialdia! (\*). <sup>51</sup> Lurrera bakea ekartera etorri nazala uste dozue? Ez, orixe; benetan dirautsuet: bakea ez, banaketa baiño (\*). <sup>52</sup> Aurrerantzean, izan be, etxe baten bost lagun izan, eta bananduta egongo dira; iru biren kontra, eta bi iruren kontra; <sup>53</sup> aita semearen kontra ta semea aitaren kontra; ama alab(e)aren kontra ta alab(e)a amaren kontra; amagiñarreb(e)a erraiñaren kontra ta erraiña amagiñarrebaren kontra».

#### Aldien ezaugarriak (Mt. 16, 2-3; Mt. 5, 25-26).

<sup>54</sup> Laguntaldeari auxe be ba-zirautsan: «Sortzaldean laiño bat agertzen ikusten dozuenean, bereaxe diñozue: 'Euria dator'; eta alantxe jazoten da. <sup>55</sup> Eta ego-aizeak joten dauanean, 'gaur sargori', diñozue; eta alantxe jazoten da. <sup>53</sup> Azalutok! Ba-dakizue zeruaren eta lurraren arpegia eza gutzen; zelan ez dozue azterten, ba, oraingo aldi au? (\*). <sup>57</sup> Zegaitik ez dozue zuek zeuenez zuzena dana ebazten? <sup>58</sup> Izan be, zure arerioagaz auzitegiko gizonagana zoaza-

nean, bidean aregaz bakeak egiteko alegiñak egizuz: epaillearen aurrera eroan eta epailleak ertzaiñaren\* eskuetan itxi, eta ertzaiñak giltzapean sartu ez zagizan. <sup>59</sup> Auxe dirautsuet: ez zara andik urtengo azkenengo txanpona ordaindu arte».

### XIII

#### Damurako deia

<sup>1</sup> Une aretan norbaitzuk Jesus'egana etorri ta Galilearrana azaldu etsoen: onein odola opariakaz naastu izan ebalu Pilato'k (\*). <sup>2</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsen: «Galilearrok orrelako ezbearra izan dabelako, beste Galilearrek baiño gaiztoagoak zirala uste dozue? <sup>3</sup> Ez, orixe; neuk dirautsuet; garbatzen ez ba'zaree, bardin-bardin galduko zaree guztiok. <sup>4</sup> Siloe'ko torrea gaiñera jausi ta il ebazan amazortzi areik, Jerusalem'en bizi ziran beste gizonak baiño pekatariagoak zirala uste dozue, ala? (\*). <sup>5</sup> Ez, orixe; neuk dirautsuet; eta garbatzen ez ba'zaree, bardin-bardin galduko zaree guztiok».

#### Pikondo agorra.

<sup>6</sup> Ipuin au esan eutsen: «Gizon batek bere maastian iko-ARBOLA bat eukan sartuta; eta frutu-billa etorri yakon eta ez eutsan ezer be aurkitu. <sup>7</sup> Orduan, maastizaiñari auxe esan eutsan: «Ba-dira iru urte piko-ARBOLA onetara frutu-billa natorrela, eta ez dautsat ezer be aurkitzen; ebagi egizu. Lurrean alperrik zetako egongo da, ba?'. <sup>8</sup> Baiña, maastizaiñak auxe erantzun eutsan: 'Jauna, itxi egizu aurten be; eta bitartean, inguruan lurra atxurtu ta ongarria jarriko dautsat, <sup>9</sup> orrela aurrerantzean, bearbada, frutua ekarriko dau; emoten ez ba'dau, barriz, ebagi egingo dozu».

\* Ertzain: alguacil, guardia.



**Makur-makur eginda egoan emakume bat osatzen dau.**

<sup>10</sup> Zapatu baten, sinagogan irakasten ziarduan. <sup>11</sup> Eta amazortzi urte areitan gogo (*espíritu*) batek geisorik eukan emakume bat zan an: makur-makur eginda egoan, bere gorputza ezelan be zuzen jarri ezinik (\*). <sup>12</sup> Jesus'ek ikusi ebanean, ari dei egin eta auxe esan eutsan: «Emakume, zure geiso orretatik askatuta zagoz». <sup>13</sup> Eta eskuak ezarri eutsazan. Eta emakumea bat-batean zuzen jarri zan, eta Jaungoikoa goratzen eban.

(Mt. 12, 11).

<sup>14</sup> Sinagogako nagusiak, barriz, Jesus'ek zapatuz osatu ebala-ta, asarraturik, laguntaldeari auxe zirautsan: «Ba-dira sei egun lan egiteko; etorri, ba, egun orreitan eta osatuak izango zaree, eta ez zapatuz». <sup>15</sup> Jaunak auxe erantzun eutsan: «Azalutsok! Ez dozue guztiok zuen idia edo astoa zapatuz askatik askatzen, edatera eroateko? <sup>16</sup> Eta Satanás'ek amazortzi urte dirala lotu eban Abraham'en alaba oni, ezin eitekiola lokarri ori zapatuz askatu?». <sup>17</sup> Eta orrelakoak esaten ziarduan artean, Jesus'en arerioak lotsaz gorri-gorri egozan; laguntalde guztia, ostera, Jesus'ek egiten ebazan egintza miragarriak zirala-ta, poztu egiten zan.

**Ziape-aziaren ipuiña** (Mt. 13, 31-32; Mk. 4, 30-32).

<sup>18</sup> Eta auxe iñoan: «Zeren antzekoa da Jaungoikoaren Erreiñua? Zeren antzeko dala egingo dot? <sup>19</sup> Gizon batek artu ta bere ortuan sartu eban ziape-aziaren antzekoa da; eta arbola egiteraino azi zan, eta zeruko egaztiak aren adarretan apiak egiten dabez».

**Legamiñarena** (Mt. 13, 33).

<sup>20</sup> Auxe be esan eban: «Jaungoikoaren Erreiñua, zeren antzeko egingo dot? <sup>21</sup> Legamiñaren antzekoa da: emakume batek artu ta iru negurri-urunetan sartzen dau, ora guztia jagi arte».

**Ate estua** (Mt. 7, 13-14; Mt. 25, 10-12; 7, 22-23).

<sup>22</sup> Jerusalem'eruntz yoiala, uririk uri ta erririk erri irakasten ziarduan. <sup>23</sup> Batek auxe esan eutsan: «Gutxi al dira salbatzen diranak?». Jesus'ek auxe esan eutsan: <sup>24</sup> «Alegiñak egizuez ate estutik sartzen, auxe dirautsuet-eta; askok izango dabe sartzeko gogoa, baiña ezin sartu izango dira. <sup>25</sup> Etxeko ugazaba jagi daitenean eta atea itxi dagianean, kanpoan gelditu zareenok ate-joka asiko zaree, esanez: 'Jauna, zabaldu egiguzu!'. Eta auxe erantzungo dautsue: 'Ez dakit nungoak zareen'. <sup>26</sup> Orduan, zuek auxe esaten asiko zaree: 'Zeugaz jan eta edan dogu, eta geure plazetan irakatsi zenduan'; <sup>27</sup> eta barriro be auxe esango dautsue: 'Ez dakit nungoak zareen. Alde nigandik gaiztakeri-egille guztiok!'.

(Mt. 8, 11-12; Mt. 19,30; 20, 16; Mk. 10, 31).

<sup>28</sup> An izango da negar eta agin-karraskada, Abraham, Isaak eta Jakob eta igarle guztiak Jaungoikoaren Erreiñuan ikusi dagizuezan, eta zuek andik kanpora jaurtiak izan zaitezenean! <sup>29</sup> Eta eguzki-sortzaldetik eta sartzaldetik, iparraldetik eta ego-aldetik etorriko dira, eta maian jarriko dira, Jaungoikoaren Erreiñuan. <sup>30</sup> Eta azkenak lenengo izango dira, eta lenenak azken izango dira».

**Erodes**

<sup>31</sup> Une aretan, pariseo batzuk urreratu ta auxe esan eutsen: «Urten eta zoaz emendik, Erodes'ek il egin nai zaitu-ta» (\*). <sup>32</sup> Eta Jesus'ek auxe esan eutsen: «Zoaze azeri guri esatera: Nik deabruak jaurtiten eta geisoak osatzen diardut gaur eta biar; eta irugarren egunean nire burua oparizat emongo dot. <sup>33</sup> Gaur eta biar eta etzi, aurrera egin bear dot: Jerusalem'dik kanpora iltea igarleari ez dagokio-ta».

**Jerusalen, Jerusalem!** (Mt. 23, 37-39).

<sup>34</sup> «Jerusalen, Jerusalem! Igarleak il eta zugana bialdu-takoai arrika egiten dautsezun ori! Amaikatxo bidar batu nai izan dodaz, ba, zure semeak, oilloak bere txitak egapean batzen dauzanez, eta zuek ez dozue nai izan! <sup>35</sup> Orra, ba: etxea utsik geldituko yatzue (\*). Benetan dirautsuet: ez nozue barriro ikusiko, *'Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena'*, esan dagizuen arte.

#### XIV

**Gizon ur-geiso bat osatzen dau** (Mt. 12, 11).

<sup>1</sup> Jesus pariseo nagusienetariko baten etxean zapatuz bazkaltzera sartu zala, areik Jesus zaintzen ziarduen. <sup>2</sup> Jesus'en aurrean gizon ur-geiso bat egoan. <sup>3</sup> Orduan, Jesus'ek lege-irakasle ta pariseuai itaun au egin eutsen: «Zapatuz iñor osatzea, legezko da, ala ez?». <sup>4</sup> Areik, barriz, isilik. Orduan, geisoari oratu, osatu ta bialdu egin eban. <sup>5</sup> Eta arei auxe esan eutsen: «Zuetariko bati semea (\*) edo idia oxifera zapatuz jausi eskero, zuetariko nok ez leuke berealaxe atarako?». <sup>6</sup> Eta areik ezin emon eutsoen orretzaz erantzunik.

**Jarlekuak aukeratzea**

<sup>7</sup> Mailagunak lenengo tokiak aukeratzen ebezala ikusirik, ipuin au esan eutsen: <sup>8</sup> «Norbaitek eztegora dei egin dagitzunean, ez zaitetz lenengo tokian jarri: bearbada, zu baiño nagusiagoren bat deitua izanda, <sup>9</sup> zuri ta ari dei egin dautsuena etorri ta esan ez dagitzun: 'Itxi oni tokiá'; eta orduan zuk, lotsaz beterik, azkenengo tokia artu bear izango zeuke. <sup>10</sup> Bestetara bai: bazkal-deia artu dagitzunean, joan eta azken-tokian jesarri zaitetz: zuri dei egin dautsunak esan dagitzun: 'Adiskide, igo zaitetz gorago'. Eta au goragarri izango yatzu zugaz maian dagozan zuz-

tien aurrean. <sup>11</sup> Goratzen dana, beeratua, eta beeratzen dana goratua izango da-ta».

**Nori dei egin bazkaritarako?**

<sup>12</sup> Bazkal-deia egin eutsanari, auxe be esan eutsan: «Bazkaria edo aparria egin dagitzunean, ez dei egin zure adiskideai, ez zure anaiai, ez zure senideai, ezta zure auzoko aberatsai be: eurak be zuri atzera dei egiñik, zeure saria artu ez dagizun (\*). <sup>13</sup> Bazkaria egin dagitzunean, dei egiezu beartsu, elbarri, erren eta itsuai; <sup>14</sup> eta, orreik ordaiña ezin biurtu daiketuzen ezkerro, zorionsu izango zara, zintzoen biztueran artuko dozu saria-ta».

**Apari aundia** (Mt. 22, 2-10).

<sup>15</sup> Mai-lagun batek, ori entzunda, auxe esan eutsan: «Zorionsua, Jaungoikoaren Erreñuan jan daikena!». <sup>16</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsan: «Gizon batek aparri eder bat egin eban, eta askoi dei egin eutsen. <sup>17</sup> Apalorduan, bere morroia bialdu eutsen, deituai esatera: 'Etorri zaitetze, gertu dago guztia-ta'. <sup>18</sup> Baiña, guztiak batera, aiko-maikoetan asi ziran. Lenengoak auxe esan eutsan: 'Solo bat erosi dot, eta ikustera joan bear dot; parkatu, ba, mesedez'. <sup>19</sup> Eta beste batek auxe esan eban: 'Bost idi-buztarri erosi dodaz, eta areik aztertzer a noa; parkatu, ba, mesedez'. <sup>20</sup> Beste batek auxe esan eban: 'Ezkondut egin naz, eta orregaitik, ezin joan naiteke'.

<sup>21</sup> Morroia biurtu ta bere ugazabari azaldu eutsan. Orduan, etxeko jabeak, asarratuta, bere morroiari auxe esan eutsan: 'Urten bereala uriko plaza ta kaleetara, eta beartsu ta elbarri, eta itsu ta errenak sarrerazo egizuz ona'. <sup>22</sup> Morroiak auxe esan eban: 'Jauna, egin dot zure agindua, eta craindiño lekua dago'. <sup>23</sup> Jaunak morroiari auxe esan eutsan: 'Urten bide ta esietara, eta gogorrean izanda be, sarrerazo egizuz, nire etxea bete arte'. <sup>24</sup> Benetan dirautsuet-eta: deitutako gizon areitariko batek be ez dau nire aparria miaztuko (*jango*)».



**Jesus'i jarraitzeko bidea** (Mt. 10, 38; 16, 24; Mk. 8, 34).

<sup>25</sup> Laguntalde aundia yoian Jesus'egaz; eta arekana biurturik, auxe esan eutsen: <sup>26</sup> «Norbait neugana ba'dator, eta bere aitari, bere amari, bere emazteari, bere seme-ala-bai, bere anaiai, bere arreba ta bere buruari be gorroto ez ba'dautse (\*), ezin izan daiteke nire ikasle. <sup>27</sup> Bere gurutzea artu ta jarraitzen ez daustana, ezin izan daiteke nire ikasle».

#### **Ondasunak ukatu-bearra**

<sup>28</sup> «Izan be, zuetariko batek torre bat egin nai ezker, ez al dau aurretiaz eralgi bear dauana astiro ataraten, bere lana amaitzeko naikoa daukan ala ez? <sup>29</sup> Oñarriak ezarrita gero, ezin amaiturik, ikusten daben guztiak barre egin ez dagioen, esanez: <sup>30</sup> Gizon au etxea egiten asi ta ezin amaitu izan eban'. <sup>31</sup> Edo-ta, errege batek beste errege baten kontra urteten danean, ez al dau aurretiaz astiro asmatzen, amar milla gizonegaz gogor egingo ete-leuskion ogei milla gizonegaz gaiñera datorkionari? <sup>32</sup> Eta bestela, a oraindiño urrun dagoala, mandatariak bialtzen dauz, bakea eskatzeko. <sup>33</sup> Olantxe, ba: zuetariko edonok bere ondasun guztiak ukatzen ez ba'dauz, ezin izan daiteke nire ikasle».

**Gatzaren ipuiña** (Mt. 5, 13; Mk. 9, 30).

<sup>34</sup> Ona da gatza; baiña gatza gazatzen ba'da, zerez gatzitu? <sup>35</sup> Ez lurrerako, ez sastegirako da gauza; kanpora jaurtiko dabe. Entzuteko belarririk euki dagianak, entzun dagiala».

## XV

#### **Errukizko iru ipuiñak**

<sup>1</sup> Zerga-batzaille ta pekatari guztiak Jesus'egana urratzen ziran, Beroni entzutera; <sup>2</sup> eta pariseuak eta idazlariak mormoxetan ziarduen, esanez: «Orrek, pekatariak

onartu ta eurakaz jaten dau». <sup>3</sup> Orduan, ipuin au esan eutsen:

**Ardi galdua** (Mt. 18, 12-14).

<sup>4</sup> «Eun ardi izan, eta oncitariko bat galdu ezker, zuetariko nor ez doa, larogeta emeretzia basamortuan itxita, galduaren billa, aurkitu arte? <sup>5</sup> Eta aurkitzen dauanean, bere lepoan artzen dau; <sup>6</sup> eta etxera eldurik, adiskide ta senideai dei egin eta ba-dirautse: 'Poztu zaitze nigaz batera, aurkitu dot galdu yatan ardia-ta!'. <sup>7</sup> Ba-dirautsuet: era berean, zeruan poz aundiagoa izango da garbatu daiten pekatari bategaitik, damu-bearrik ez daben larogeta emeretzia zintzoakaitik baiño.

**Drakma galdua**

<sup>8</sup> «Edo-ta, zein emakumek, amar drakma euki ta bat galtzen ba'dau, ez dau argi-ontzia iziotzen eta etxea garbitzen eta arduraz billa ibiltzen, drakma a aurkitu arte? <sup>9</sup> Eta aurkitzen dauanean, bere adiskide ta auzokoai dei egiten dautse, esanez: 'Poztu zaitze nigaz batera, aurkitu dot galdu neban drakma-ta!'. <sup>10</sup> Ba-dirautsuet: orrelaxe pozten dira Jaungoikoaren aingeruak garbatzen dan pekatari bategaitik».

**Seme ondatzaillea.**

<sup>11</sup> Auxe esan eban: «Gizon batek seme bi ebazan. <sup>12</sup> Eta areitariko gazteenak aitari auxe esan eutsan: 'Aita, emon egidazu ondasunetatik dagokidan zatia. Eta *aitak* banandu egin eutsezan ondasunak. <sup>13</sup> Egun gutxi barru, seme gazteena, gauza guztiak batuta, urruneko lurralde batera joan zan; eta an, nasaikeritan bizi izanik, bere ondasun guztiak eralgi ebazan.

<sup>14</sup> Guztiak eralgi izan ebanean, lurralde aretan gosete gorria sortu zan, eta bear izaten asi zan. <sup>15</sup> Orduan, joan eta lurralde aretako erritar baten morroi jarri zan, eta arek

bere landetara bialdu eban, txarrizain. <sup>16</sup> Eta txarriak jaten ebezan ezkurrez sabela bete gura eban, baiña ez eutsazan inok emoten. <sup>17</sup> Eta bere senera bihurturik, auxe esan eban: 'Nire aitaren amaikatxo morroik ba-dauke ogia ugari; ni, barriz, emen goseak illik! <sup>18</sup> Jagi ta neure aitagana joango naz, eta auxe esango dautsat: Aita, pekatu egin neban zeruaren kontra ta zure aurrean; <sup>19</sup> nik ez dot, arrezkero, zure seme deitzerik merezi; artu nagizu zure morroietariko bat lez'. <sup>20</sup> Eta jagirik, bere aitagana joan zan.

Oraindiño urrun egoala, bere aitak ikusi ta, errukiz beterik, ariñeketan joan, semeari samatik eldu ta lazandu egin eban. <sup>21</sup> Semeak auxe esan eutsan: 'Aita, pekatu egin neban zeruaren kontra ta zure aurrean; nik ez dot, arrezkero, zure seme deitzerik merezi' (\*). <sup>22</sup> Baiña, aitak bere morroiak auxe esan eutsen: 'Ekarri egizue bizkor soiñekorik onena ta jantzi egiozue; erestuna eskuan eta oiñetakoak oiñetan ipiñi egiozue. <sup>23</sup> Zekor gizona ekarri ta il egizue, eta jan eta jai egin dagigun: <sup>24</sup> nire seme au ilda egoan eta biztu egin da-ta; galduta egoan eta aurkitua izan da-ta'. Eta ospatzen asi ziran.

<sup>25</sup> Aren seme nagusia soloan zan; eta biurtzerakoan, etxera urreratu zanean, soiñu ta dantzak entzun ebazan; <sup>24</sup> eta morroietariko bati dei egiñik, guzti a zer izan zeitekean itandu eutsan. <sup>27</sup> Onek auxe esan eutsan: 'Zeure anaia etorri da, eta zure aitak zekor gizona il dau, semea barriro onik etxeratu yakolako'. <sup>28</sup> Semea asarratu egin zan, eta ez eban sartu nai. Bere aita urten, eta erreguka asi yakon. <sup>29</sup> Baiña, arek aitari auxe erantzun eutsan: 'Onenbeste urtetan morroi nakizu, eta ez dot egundo zure agindurik ausi; olan be, antxume bat be ez daustazu inoiz emon, nire adiskideakaz ospatzeko. <sup>30</sup> Eta zure ondasunak emagalduekaz eralgi dauzan zure seme orrentzat, etorri danekoxe, zekor gizona il dozu!'

<sup>31</sup> Baiña *aitak* auxe esan eutsan; 'Seme, zu beti neugaz

zagoz, eta nire guztia zeurea da; <sup>32</sup> egoki zan, ba, ospatu ta poztutea: zure anai au ilda egoan, eta bizitzara biurtu da-ta; galduta egoan, eta aurkitua izan da-ta».

## XVI

### Etkezain gaiztoa.

<sup>1</sup> Auxe be ba-zirautsen bere ikasleai: «Gizon aberats batek etkezain bat eban; eta ondasunak ondatu egin eutsazala-ta, ugazabari salatu egin eutsoen. <sup>2</sup> Ugazabak beragana dei egin eta auxe esan eutsan: 'Zer da zutzaz dirautsen ori? Garbitu egidazuz etkezaintza orren artu-emonak, onezkero nire etkezain ezin izan zaitezke-ta'. <sup>3</sup> Etkezaiñak berekautan auxe esan eban: 'Zer egingo dot nik nire ugazabak etkezaintza kentzen daustan ezkeror? Ezin egin daiket atxurran; lotsatu egiten naz eskean ibiltan. <sup>4</sup> Ba-dakit zer egin, etkezaintza kendu daistenean, beste batzuek euren etxeetan artu nagien'. <sup>5</sup> Eta bere ugazabaren zordunai banan-banan dei egiñik, lenengoari auxe esan eutsan: 'Zenbat zor dautsazu nire ugazabari?' <sup>6</sup> 'Eun orio-negurri', erantzun eutsan arek (\*). 'Artu zure ordain-agiria -esan eutsan etkezaiñak-, jesarri arin eta idatzi berrogetamar'. <sup>7</sup> Gero, beste bati auxe esan eutsan: 'Zuk, zenbat zor dozu?' 'Eun gari-negurri', erantzun eban arek (\*). Etkezaiñak dirautso: 'Artu zure ordain-agiria ta idatzi laroge'. <sup>8</sup> Ugazabak etkezain a goratu egin eban, maltzurkiro jokatu ebalako (\*): mundu onetako semeak, euren artu-emonetan, argiaren semeak baiño maltzurragoak dira-ta».

### Ondasunak ondo erabili (Mt. 25, 21).

<sup>9</sup> «Auxe dirautsuet: Egizue adiskideak aberastasun zuzenbageen lepotik; diru bagarik aurkitu zaitezenean, betiko bizitokietan artu zagiezan. <sup>10</sup> Gauza txikietan zintzoa



dana, aundietan be zintzoa da; eta gauza txikietan zuzenbagea dana, aundietan be zezunbagea da. <sup>11</sup> Beraz, aberastasan zuzenbageetan zintzoak izan ez ba'zaree, benetakoa aberastasanok nok jarriko dauz zuen zainpean? <sup>12</sup> Eta besterenaz zintzoak izan ez ba-zaree, nok emongo dautsue zuena?

(Mt. 25, 24).

<sup>13</sup> Ugazaba biren morroi, ezin iñor izan daiteke; izan be, edo batari gorroto izango dautso, eta bestea maite izango dau; edo-ta, batari lotu egingo yako ta bestea ez dau ontzat artuko. Jaungoikoaren eta Diruaren morroi ezin izan zaitekeze».

#### Pariseo diruzaleen kontra.

<sup>14</sup> Pariseo diruzaleak ori entzuten ziarduen, eta Jesus'iri ta barre egiten eutsuen. <sup>15</sup> Eta Jesus'ek auxe esan eutsen: «Zuek, gizonen aurrean zuzentzat agertzen dozuez zuen buruak; baiña, ezagutzen dauz Jaungoikoak zuen biotzak: gizonai goragarri yakena, Jaungoikoaren aurrean iguin-garri da-ta».

#### Erreiñua irabazten (Mt. 11, 12-13).

<sup>16</sup> «Legea ta igarleak Yon'ganaiño eltzen dira; arrezke-ro, Jaungoikoaren Erreiñua zabaltzen da, eta guztiak indarka (\*) diardue bertan sartzeko».

#### Legea, betiko (Mt. 5, 18).

<sup>17</sup> «Zerua ta lurra igarrotea errazago da, izpitxo bat be Legetik jaustea baiño».

#### Ezkontza, askatu-eziña (Mt. 5, 32; 19, 9).

<sup>18</sup> «Bere emaztea itxi ta beste bategaz ezkontzen danak, ezkontza naasten dau; eta senarrak itxitakoagaz ezkontzen danak, ezkontza naasten dau».

#### Aberats gaiztoa ta Lazaro eskekoa.

<sup>19</sup> «Gizon aberats bat zan, purpura ta liñuz jantzi ta egunero jai ederrak egiten ebazana. <sup>20</sup> Baita Lazaro izereko eskeko bat be ba-zan, aberats aren ate-aurrean zauriz beterik etzunda egoten zana. <sup>21</sup> Aberatsaren maitik jausten zanaz ase (*bete*) nai eban... Txakurrak be etorri ta zauriak miazkatzen eutsoezan (\*). <sup>22</sup> Ara, ba: eskekoa il egin zan, eta aingeruak Abraham'en altzora eroan eben. Aberatsa be il egin zan, eta obiratua izan zan. <sup>23</sup> Lezan (*inpernuan*) oiñazetan egoala, begiak jaso ta urrunean Abraham ikusi eban, baita onen altzoan Lazaro be. <sup>24</sup> Eta deadarka, auxe esan eban: 'Aita Abraham, erruki zakidazl, eta bialdu egizu Lazaro, bere atzamar-ertza uretan busti ta nire miiña oztu dagian, sugar onetan oiñazetan nago-ta'. <sup>25</sup> Baiña Abraham'ek auxe erantzun eutsan: 'Seme, gogoratu egizu zure bizitzan ondasunak artu zenduzala, eta Lazaro'k, barriz, atsekabeak. Orain, ba, au pozik dago, eta zu oiñazetan. <sup>26</sup> Eta gaiñera, gure ta zuen artean leza aundi bat dago; eta nai izan ezkerro be, ezin igaro daiteke iñor emendik zuekana, ezta ortik gugana be'.

<sup>27</sup> Aberatsak auxe erantzun eutsan: 'Aita!, Lazaro ori beiniik-bein neure aitaren etxera bialdu dagizula eskatzen dautsut, <sup>28</sup> bost anai dodaz-ta: emengoa esan dagitsen, eta eurak be oiñaze-toki onetara etorri ez daitezat'. <sup>29</sup> Abraham'ek auxe esan eutsan: 'Ba-dabez Moises eta igarleak: entzun dagiezala!' <sup>30</sup> 'Ez, Aita Abraham -esan eban arek -; ildako artekoren bat joaten ba'yake, garbatu egingo dira'. <sup>31</sup> Abraham'ek auxe erantzun eutsan: 'Moises'i eta igarleai jaramonik egiten ez ba'dautse, ildakoren bat biztuarren be, ez dabe sinistuko'».

#### XVII

#### Gaizpidea (Mt. 18, 6-7; Mk. 9, 42; Mt. 18, 15).

<sup>1</sup> Auxe esan eutsen bere ikasleai: «Eziñezkoa da gaizpiderik ez izatea; baiña, gaizpidea emoten dauanaren zo-

ritzarra! <sup>2</sup> Obe leuke orrelako orrek errota-arri bat samatik lotu ta itxasora jaurtia izatea, txikitxo oneitariko bati gaizpidea emotea baiño. <sup>3</sup> Gorde egizuez zuen buruak».

**Alkarren uts-egiñak zuzentzea** (Mt. 18, 21-22).

«Zure anaiak pekatu egiten ba'dau, asarre egiozu; eta garbatzen ba'da, parkatu egiozu. <sup>4</sup> Eta zure kontra egunean zazpi bidar pekatu egin eta zazpi bidar ba'datorkizu, «damu dot» esanez, parkatu egingo dautsazu».

**Sinismenaren indarra** (Mt. 17, 20; 21, 21; Mk. 11, 23).

<sup>5</sup> Apostoluak Jaunari auxe esan eutsoen: «Geitu egizu zu sinismena». <sup>6</sup> Jaunak auxe esan eban: «Ziape-azia bes-teko sinismena ba'zeukee, masustondo\* orri 'zusterretik urten eta itxasora alde egizu' esango zeuskioe zuek, eta esana egingo leuskizue».

**Morroï apalak izan.**

<sup>7</sup> «Zuetariko norbaitek morroi bat goldetan edo artzaintzan dozuela, eta solotik datorrenean, 'etorri arin eta jarri zaitex maian', esango ete-dautso? <sup>8</sup> Ez ete-dautso beste au esango: 'Gertatu egidazu zerbait aparitarako, jantzi egizu amantala gerrian ni otseintzeko, jan eta edan dagidan arte, eta gero jan eta edango dozu zuk?' (\*). <sup>9</sup> Morroiari eskerrik zor ete-dautso, agindu yakona bete daualako? <sup>10</sup> Orrelaxe zuek be: agindutako guztia egin dagizueanean, auxe esan egizue: 'Morroi ezerezak gara; egin bear gendua egin dogu'».

**Amar legendarunak.**

<sup>11</sup> Jesus Jerusalem'era yoiala, Samaria ta Galilea'ko mugetan zear yoian; <sup>12</sup> eta erri baten sartzean, amar gizon legendarun urten yakozan bidera; eta urrun geldituta, <sup>13</sup> deadarka asi yakozan, esanez: «Jesus Irakasle, erriki zalgizul!». <sup>14</sup> Jesus'ek, areik ikustean, auxe esan eutsen:

\* Masustondo: masustak emoten dauzan landara.

«Zoaze ta abadeakana aurkeztu zaitexe». Eta bidean yoiazala, garbituta gelditu ziran. <sup>15</sup> Areitariko batek, bera osatu egin zala ikusirik, atzeruntz egin eban, Jaungoikoa dea-darka goratzen ebala; <sup>16</sup> eta Jesus'en oiñetan auzpazturik, eskerrak emoten ziarduan; eta gizon au Samaritarra zan. <sup>17</sup> Jesus'ek berba egin eta auxe esan eban: «Ez dira, ba, amarrak garbituta gelditu? Nun dira, ba, beste bederatziaik? <sup>18</sup> Arrotz au baiño ez da izan Jaungoikoa goratzeko etorri danik?». <sup>19</sup> Eta auxe esan eutsan: «Jagi ta zoaz; zeure sinismenak osatu zaitu».

**Jaungoikoaren Erreiñuaren etorrera.**

<sup>20</sup> Jaungoikoaren Erreiñua noiz etorriko ete-zan itandu eutsoen pariseuak; eta Jesus'ek auxe erantzun eutsen: «Jaungoikoaren Erreiñua igarri bagarik dator. <sup>21</sup> 'Ona emen edo ara an' be ez dabe esango, Jaungoikoaren Erreiñua zeuon artean dago-ta» (\*).

**Gizasemearen eguna** (Mk. 13, 21; Mt. 24, 23. 26-27).

<sup>22</sup> Bere ikasleai auxe esan eutsen: «Etorriko da, bai, Gizasemearen egun bat beñik-bein ikusi gura izango dozuen aldia, eta ez dozue ikusiko. <sup>23</sup> Eta 'ikusi an, ikusi emen', esango dautsue. Ez joan zuok, ezta atzetik ibili be. <sup>24</sup> Oiñaztuak, diz-diz egitean, zeru osoa alde batetik bestera bere argiaz igaroten dauanez, alantxe izango da Gizasemea be bere egunean. <sup>25</sup> Baiña lenengo, neke aundiak igaro bear izango dauz, eta gizaldi onek ezetsi (bartzartu) egin bear izango dau.

(Mt. 24, 37-39).

<sup>26</sup> Noe'ren egunetan jazo zanez jazoko da Gizasemearen egunetan be: <sup>27</sup> jaten, edaten, emaztea ta senarra artzen ziarduen, Noe kutxan sartu zan egunerarte; uriola etorri ta guzti-guztiak iruntsi ebazan. <sup>28</sup> Bardin-bardin jazo zan Lot'en egunetan be: jaten, edaten, erosten, saltzen, lan-



datzen\*, eta etxeak egiten ziarduen; <sup>29</sup> baiña, Lot Sodomatik urten zan egunean, sua ta arlarua\* zerutik jatsi ta guzti-guztiak galdu ebazan. <sup>30</sup> Bardin-bardin jazoko da Gizasemea agertu daiten egunean.

(Mt. 24, 17-18; 10, 39; 24, 40-41. 28; Mk. 13, 15-16).

<sup>31</sup> Egun aretan, etxe-gaiñean egon daitena ta bere gauzak etxean euki dagizana, ez daitela areik batzera jatsi: eta bardin, landan egon daitena, ez daitela atzera etorri. <sup>32</sup> Ekarri egizue gogora Lot'en emaztea. <sup>33</sup> Bere bizia gorde nai dagianak, galdu egingo dau; eta bere bizia galdu dagianak, gorde egingo dau. <sup>34</sup> Neuk dirautsuet; gau aretan, bi egongo dira oge baten: bata eroana ta bestea itxia izango da; <sup>35</sup> errotan alkarrekaz emakume bik jardungo dabe eioten: bata eroana ta bestea itxia izango da». (<sup>36</sup> Solon bi egongo dira: bata eroana ta bestea itxia izango da»). (\*). <sup>37</sup> Eta areik auxe esan eutsoen: «Nun, Jauna?» Jesus'ek auxe erantzun eutsen: «Gorpua egon daiten tokian, antxe batuko dira saiak».

## XVIII

### Epaille lotsabagea ta emakume alarguna.

<sup>1</sup> Beti ta eten bagarik otoitz egin bear ebela adierazoteko, ipuin au esan eutsen: <sup>2</sup> «Uri baten, ez Jaungoikoari bildurrik, ez gizonai lotsarik eutsen epaille bat zan. <sup>3</sup> Uri aretan, emakume alargun bat be ba-zan; eta epailleagana etorririk, auxe esan eutsan: 'Egidazu zuzenbidea nire arerioaren kontra!'. <sup>4</sup> Ez eutsan egin nai izan luzaroan; gero, ostera, berekautan auxe esan eban: 'Jaungoikoari bildurrik ez ba'dautsat be, ezta gizonai lotsarik be, <sup>5</sup> alargun oni, orraitño, onen gogaikarri yatan ezkeru, zuzenbidea

\* Landatu: plantar.

\* Arlaru: azufre.

egingo dautsat: eten bagarik etorri ta gogaikarri izan ez dakidan'.

<sup>6</sup> Eta Jaunak auxe esan eban: «Entzun egizue epaille gaizto orrek diñoana. <sup>7</sup> Eta Jaungoikoak ez ete-dautse zuzenbiderik egingo, Berari gau ta egun deadarka diarduen bere aukeratuai?, edo-ta, itxaron eragingo ete-dautse, ba? <sup>8</sup> Benetan dirautsuet: bereala egingo dautse zuzenbidea. Gizasemea etorri daitenean, ostera, aurkituko ete-dau sinismenik lur-gaiñean?».

### Pariseua ta zerga-batzaillea.

<sup>9</sup> Euren buruak zintzotzat eta besteak gutxitzat ebezan batzui, ipuin au be esan eutsen: <sup>10</sup> «Gizon bi Jaunaren Etxera igo ziran, otoitz egitera: bata, pariseua; bestea, zerga-batzaillea\*. <sup>11</sup> Pariseuak, zutik, olantxe egiten eban otoitz berekautan: 'Eskerrak emoten dautsudzaz, ene Jaungoiko orri, beste gizonen antzera lapur, zuzenbage, eta ezkontza-nastaille ez nazalako, ezta zerga-batzaille ori lakoa be. <sup>12</sup> Astero birritan egiten dot barau; nire irabazi guztien amarrenak emoten dodaz'.

<sup>13</sup> Zerga-batzailleak, ostera, urrun egoala, begiak zerura jazoteko be ez eban arpegirik; eta bular-joka, auxe iñoan: 'Erruki zakidaz, Jaungoiko ori, pekatari naz-ta!' <sup>14</sup> Benetan dirautsuet: azkenengo au bere etxera zintzotuta bihurtu zan; ez, ostera, bestea: goratzen dana, beeratua izango da-ta; beeratzen dana, barriz, goratua».

Jesus eta umeak (Mt. 19, 13-15; Mk. 10, 13-16).

<sup>15</sup> Umetxo batzuk be ekarten eutsoezan, ikutu egizan; eta ikasleak, ori ikusirik, asarre egiten eutseen. <sup>16</sup> Jesus'ek, barriz, dei egin eutsen, esanez: Itxi umetxoak nigana etorri daitezcan, eta ez egiezue galerazo: Jaungoikoaren Erreñua orrelakoena da-ta. <sup>17</sup> Benetan dirautsuet: Jaungoikoaren

\* Zerga-batzailleak: zergak edo kontribuziñuak batzen ebezan gizonak.

Erreiñua umetxo baten antzera artzen ez dauana, ez da bertan sartuko».

**Gazte aberatsa** (Mt. 19, 16-22; Mk. 10, 17-22).

<sup>18</sup> Nagusietariko batek itaun au egin eutsan: «Irakasle on oril, zer egin bear dot nik oiñordekotzat betiko bizitza jaristeko?» <sup>19</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsan: «Zegaitik diraustazu niri ona? Iñor ez da ona, Jaungoikoa bakarrik baiño. <sup>20</sup> Ba-dakizuz aginduak: *Ez dozu ezkontzarik loituko, ez dozu iñor ilgo, ez dozu lapurretarik egingo, ez dozu guzurrezko autorrik esango, zure aita ta ama aintzat artuko dozuz.* <sup>21</sup> Arek auxe esan eutsan: «Guzti ori nik gaztetarik bete dot». <sup>22</sup> Jesus'ek, ori entzunik, auxe esan eutsan: «Zertxobait ez dozu oraindiño: Saldu daukazun guztia ta emon egiezu beartsuai, eta zeruetan dirutza izango dozu; gero, etorri ta jarraitu egidazu!». <sup>23</sup> Ori entzunik, gaztea naigabez heterik jarri zan, oso aberatsa zan-eta.

**Aberastasunen arriskua** (Mt. 19, 23-26; Mk. 10, 23-27).

<sup>24</sup> Gaztea ikusirik, auxe esan eban: «Bai dala benetan gaitz, ondasunak daukezanak Jaungoikoaren Erreiñuan sartzea! <sup>25</sup> Errazago da gamelua jostorratz-zulotik sartzea, aberats bat Jaungoikoaren Erreiñuan sartzea baiño». <sup>26</sup> Ori entzun ebenak, auxe esan eben: «Nor zeruratu daiteke, ba?» <sup>27</sup> Jesus'ek auxe erantzun eban: «Gizontentzatz eziñezkoa dana, Jaungoikoarentzatz eginkor da».

**Bearisuentzako saria** (Mt. 19, 27-29; Mk. 10, 28-30).

<sup>28</sup> Orduan, Pedro'k auxe esan eban: «Ikusten dozu, ba; guk, gure gauza guztiak itxi ta zeuri jarraitu dautsugul!» <sup>29</sup> Jesus'ek auxe esan eutsen: «Benetan dirautsuet; iñortxo be ez da, etxea, emaztea, anaiak, gurasoak, edo semeak Jaungoikoaren Erreiñuagaitik itxita, <sup>30</sup> askozaz geiago orain, eta betiko bizitza geroko aldian artuko ez dauanik».

**Bere Nekoldia irugarrenez iragarrien dau**

(Mt. 20, 17-19; Mk. 10, 33-34).

<sup>31</sup> Jesus'ek Amabiak beragaz arturik, auxe esan eutsen: «Begira: Jerusalem'era igoten diardugu, eta Gizasemeari buruz igarleak idatzi eben guztia beteko da. <sup>32</sup> Izan be, jentillen eskuetan itxia izango da, irri ta barre egingo dautsoe, iraindu ta txistua jaurtiko dautsoe; <sup>33</sup> eta zigorkadaz astindu ondoren, il egingo dabe, eta irugarren egunean biztu egingo da». <sup>34</sup> Areik (*Apostoluak*) ez eben onetarikoko ezer be ulertu; berbaera ori areintzatz estalduta egoan, eta ez eben ulertzen Jesus'ek esan izan nai eutsena.

**Jeriko'ko itsua** (Mt. 20, 29-34; Mk. 10, 46-52).

<sup>35</sup> Jesus Jeriko'ra urreratzean, itsu bat egoan bide-baztarrean jesarrita, eskean. <sup>36</sup> Andik igaroten zan laguntaldea entzutean, a zer izan zeitekean itandu eban. <sup>37</sup> Jesus Nazaretarra igaroten zala esan eutsoen. <sup>38</sup> Orduan, deadarka asi zan, esanez: «Jesus, Dabid'en seme ori, erruki zakidaz!» <sup>39</sup> Aurretik yoiazanak asarre egiten eutsoen, isildu zedin. Arek, ostera, gero ta deadar geiago egiten eban: «Dabid'en seme ori, erruki zakidaz!» <sup>40</sup> Jesus'ek, gelditurik, itsua beragana ekarteko agindu eban; eta urreratu zanean, itaun au egin eutsan: <sup>41</sup> «Zer nai dozu egin dagitzudan?» Arek auxe esan eban: «Jauna, ikusi dagidala!» <sup>42</sup> Jesus'ek auxe esan eutsan: «Ikusi egizu. Zeure sinismenak osatu zaitu». <sup>43</sup> Eta bat-batean ikusi egin eban, eta Jesus'i jarraitzen eutsan, Jaungoikoa goratuez. Eta erri guztiak, ori ikustean, Jaungoikoa goratzen eban.

## XIX

**Zakeo.**

<sup>1</sup> Jesus Jeriko'n sartuta, urian zear yoian. <sup>2</sup> Zakeo izeneko gizon bat zan, zerga-batzailleen buru ta aberatsa. <sup>3</sup> Jesus nor zeitekean ikusi nai eban; baiña ezin eban,



gizatalde aregaitik, gorputzez txikia zan-eta. <sup>4</sup> Ariñeketan aurrea artu ta astigar batera igo zan, Jesus ikusteko, andixek igaro bear eban-eta. <sup>5</sup> Eta Jesus'ek, toki aretara eldu zanean, begiak jasorik, auxe esan eutsan: «Zakeo, jatsi arin: gaur zeure etxean gelditu bear dot-eta». <sup>6</sup> Beingo baten jatsi zan, eta poz-pozik artu eban etxean. <sup>7</sup> Ori ikustean, guztiak mormoxetan ziarduen, esanez: «Orrek, ostatutzat, pekatari baten etxea artu dau». <sup>8</sup> Zakeo'k, zutundurik, auxe esan eutsan: «Jauna, nik nire ondasunen erdia bear-tsuai emongo dautset; eta norbaiti zerbait bide txarrez kendu ba-dautsat, lau alako biurtuko dautsat». <sup>9</sup> Jesus'k auxe esan eutsan: «Gaur etorri da osasuna etxe onetara, au be Abraham'en seme da-ta: <sup>10</sup> Gizasemea, galdutakoa billaztera ta osatzera etorri da-ta».

**Amar minen\* ipuiña** (Mt. 25, 14-30).

<sup>11</sup> Laguntaldeak berbok entzuten ziarduala, Jesus'ek beste ipuin bat be esan eutsen, Bera Jerusalem'dik ur egoan-eta; areik, barriz, Jaungoikoaren Erreiñua laster agertuko zalakoan egozan. <sup>12</sup> Auxe esan eban, ba: «Aundiki bat urruneko lurralde batera joan zan, ango erreñu bat beraganatu ta barriri etorteko. <sup>13</sup> Bere amar morroiri dei egitiñik, amar mina emon eta auxe esan eutsen: 'Jarri egizuez irabazitan, neu etorri artean'. <sup>14</sup> Baiña bere erritarrak gorroto eutsoen, eta atzetik mandatariak bialdu eutsoezan, auxe esan egien: 'Ez dogu ori gure errege izaterik nai'.

<sup>15</sup> Erreiñua artuta gero, barriri etorri zanean, dirua emon izan eutsen bere morroi arei dei egiteko agindu eban, bakotxak zenbat irabazi eban jakiteko. <sup>16</sup> Lenengoa etorri ta auxe esan eban: 'Jauna, zure minak amar mina emon dauz'. <sup>17</sup> Jaunak auxe erantzun eutsan: 'Ederto, morroi zintzo oril: gutxi-gutxian zintzoa izan zar(e)an ezkerro, artu egizu amar uriren agintaritzaz'. <sup>18</sup> Bigarrena etorri ta auxe esan eban: 'Jauna, zure minak bost mina emon dauz'.

\* Mina: eun pesetako urrezko dirua lez.

<sup>19</sup> Oni auxe esan eutsan: 'Jarri zaitetz zu be bost uriren agintaritzan'

<sup>20</sup> Bestea etorri ta auxe esan eban: 'Jauna, emen daukazu zure mina: zapi baten gordeta euki dot. <sup>21</sup> Gizon zorrotza zar(e)ala-ta, bildur nintzakizun; ipiñi ez dozuna artzen, eta erein ez dozuna batzen dozu zuk'. <sup>22</sup> Jaunak dirautso: 'Zeure agotik epaituko zaitut, morroi gaizto ori. Ba-zekian ni gizon zorrotza nintzana, ipiñi ez nebana artzen, eta erein ez nebana batzen dodana; <sup>23</sup> zegaitik ez zenduan, ba, nire dirua diru-etxean jarri?, eta nik, etortean, irabaziaz batera jaso izango neukean'. <sup>24</sup> Eta aurrean egozanai auxe esan eutsen: 'Kendu egiozue mina ori, eta emon egiozue amar mina daukazanari'. <sup>25</sup> Areik auxe esan eutsoen: 'Jauna, orrek ba-daukaz len be amar mina-ta...'. <sup>26</sup> Jaunak auxe esan eban: 'Benetan dirautsuet: ba-daukan edonori, emon egingo yako; eta ez daukanari, ba-daukana be kendu egingo yako. <sup>27</sup> Ni euren errege izatea nai izan ez eben arerioak, barriz, ekarri ona ta il egizuez nire aurrean».

**Jesus ospez heterik sartzen da Jerusalem'en**  
(Mt. 21, 1-11; Mk. 11, 1-11; Yn. 12, 12-16).

<sup>28</sup> Eta ori esanda gero, aurretik yoian, Jerusalem'era igoten. <sup>29</sup> Eta Betfaje ta Betania-ondora eltzean, Oriemendi-barrenera, bere ikasletariko bi bialdu ebazan, <sup>30</sup> esanez: «Zoaze aurrean dagoan errira; eta, bertan sarturik, oraindiño gizonik gaiñean jarri ez yakon astakume bat aurkituko dozue; askatu ta ekarri egizue. <sup>31</sup> Eta norbaitek, 'zegaitik askatzen dozue?' itanduten ba'dautsue, auxe esango dozue: 'Jaunak bear daualako'».

<sup>32</sup> Joan ziran, ba, bialdutakoak; eta esan izan yakenez aurkitu eben. <sup>33</sup> Astakumea askatzen asi ziranean, jabeak auxe esan eutsen: «Zegaitik askatzen dozue astakumea?».

<sup>34</sup> Areik auxe esan eutsoen: «Jaunak bear daualako».

<sup>35</sup> Eta Jesus'egana eroan eben; eta euren soingaiñekoak as-

takumearen gainean ezarririk, Jesus gainean jarri eben.<sup>36</sup> Jesus aurrera yoiala, euren soingainekoak zabaltzen ebezan bidean zear.<sup>37</sup> Oriomendi-barren aldera urreratu ziranean, ikasle-talde guztia, pozez beterik, deadarka Jaungoikoa goratzen asi zan, ikusitako mirari guztiakaitik.<sup>38</sup> Auxe ifioen: «*Bedeinkatua Jaunaren izenean datorren Erregea. Bakea zeruan eta aintza goietan!*».

#### Jesus'ek ikasleen gorak onartu egiten dauz.

<sup>39</sup> Laguntalde artean egozan pariseotariko batzuek auxe esan eutsoen: «Irakasle, agiraka egiezu zure ikasleai».<sup>40</sup> Jesus'ek auxe erantzun eban: «Benetan dirautsuet: oneik isiltzen ba'dira, arriak egingo dabe deadar».

#### Jesus, negarrez.

<sup>41</sup> Urreratu ta uria ikustean, aregaitik negar egin eban.<sup>42</sup> esanez: «Zuk be ezagutu ba'zengi egun onetan bakera-ko deial (\*). Baiña, zure begientzat estalduta dago.<sup>43</sup> Zure arerioak esiak\* jaso, inguratu ta alde guztietatik estutuko zaituen egunak etorriko yatzuz-ta;<sup>44</sup> zu ta zure barruan dagozan semeak lurtean apurtuko zaitue, eta ez dabe zugar arririk arri-gaiñean itxiko: zuri egindako ikusaldia ezagutu ez dozulako».

#### Jaunaren Etxeko saltzailleak

(Mt. 21, 12-13; Mk. 11, 15-17; Yn. 2, 14-16).

<sup>45</sup> Jaunaren Etxean sarturik, an saltzen ziarduenak kan pora jaurtiten asi zan,<sup>46</sup> esanez: «Idatzita dago: *Nire etxea, otoi-etxe izango da; zuek, ostera, lapur-zulo egin dozue!*».

#### Jesus'ek Jaunaren Etxean irakasten diardu (Mk. 11, 18).

<sup>47</sup> Egunero Jaunaren Etxean irakasten ziarduan. Abadeburuak, idazlariak, baita erriko nagusiak be, Jesus il-

\* Esi: trinchera, cerca.

teko asmotan ziarduen;<sup>48</sup> baiña, ez eben aurkitzen ori egi-teko biderik, erri guztia Jesus'i entzuten agoa zabalik egoan-eta.

## XX

#### Jesus'en eskubidea (Mt. 21, 23-27; Mk. 11, 27-33).

<sup>1</sup> Egun baten, erriari Jaunaren Etxean irakasten eta Barrri Ona iragarten ziarduan. Abadeburuak eta idazlariak zaarrakaz batera urreratu,<sup>2</sup> eta itaun au egin eutsoen: «Esan egiguzu: ze eskubidez egiten dozu au?, edo-ta, nor da eskubide ori emon dautsuna?». <sup>3</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsen: «Neuk be itaun bat egingo dautsuet: Esan egidazue: <sup>4</sup> Yon'en bateoa, zerutikoa zan, ala gizonakandikoa?». <sup>5</sup> Areik alkarregaz asmatzen ziarduen: «'Zerutikoa' zala ba'diñogu, 'zegaitik ez zeutsoen, ba, sinistu?', esango dausku. <sup>6</sup> Baiña, 'gizonakandikoa' zala ba'diñogu, erri guztiak arrika egingo dausku, guztiak Yon igarletzat dabe-ta». <sup>7</sup> Beraz, ez ekiela nundikoa zan erantzun eben. <sup>8</sup> Orduan, Jesus'ek auxe esan eutsen: «Neuk be ez dautsuet esango au ze eskubidez egiten dodan».

#### Maastiko langille gaiztoak (Mt. 21, 33-46; Mk. 12, 1-12).

<sup>9</sup> Erriari ipuin au esaten asi yakon: «Gizon batek maasti bat landu ta nekazari batzui alogeran (*errentan*) itxi eutsen, eta urrunera joan zan luzaroko. <sup>10</sup> Aldi egokian, nekazariak morroi bat bialdu eutsen, maastiko frutuetarik egokiona emon dagioen. Baiña nekazariak, morroia zigorkadaz astinduta gero, esku-utsik bialdu eben. <sup>11</sup> Beste morroi bat bialdu eutsen barriri; baiña areik, morroia zauritu ta iraiñez beteta gero, esku-utsik bialdu eben. <sup>12</sup> Iru-garrena bialdu eutsen. Baiña areik, morroia zaurituta gero, andik jaurti egin eben. <sup>13</sup> Orduan, maastiaren jabeak auxe esan eban: 'Zer egingo dot? Neure seme maitea bial-



duko dautset; lotsa izango dautsoe, urrean'. <sup>14</sup> Baiña nekazariak, semea ikustean, alkarri auxe esan eutsoen: 'Auxe da oiñordekoa; il dagigun, oiñordekotasuna geurea izan daiten'. <sup>15</sup> Eta maastitik kanpora jaurtirik, il egin eben. Beraz, zer egingo ete-dautse maastiaren jabeak? <sup>16</sup> Etorri ta nekazari arei eriotza emongo dautse, eta maastia beste batzui emongo dautse».

Ori entzutean, auxe esan eben: «Ezetara be ez oril». <sup>17</sup> Baiña Jesus'ek, arekana begira-begira jarririk, auxe esan eban: «Zer dago idatzita, ba? *Etxegilleak baztartutako arria, giltzarri biurtu da*. <sup>18</sup> Arri orren gaiñera jausi daite-na, zatitu egingo da; eta arri ori gaiñera jausi dakiona, zapaldu egingo dau».

<sup>19</sup> Idazlariak eta abadeburuak Jesus lotu egin nai izan eben orduantxe, baiña erriaren bildur ziran: ipuin a eurentzat esan ebalda ezagutu eben-eta.

**Jaungoikoarena ta Zesar'ena** (Mt. 22, 15-22; Mk. 12, 13-17).

<sup>20</sup> Zaintzen gelditurik, salatari\* batzuk bialdu eutsoezan. zintzo-itxuraz: Jesus berberen baten zelan-alan artu ta erriko agintariaren eskuan eta menpean itxi al izateko. <sup>21</sup> Eta itaun au egin eutsoen: «Irakasle, ba-dakigu zuzen berba egiten eta irakasten dozuna, eta nor nor dan begiratu bagarik, Jaungoikoaren bidea zabal-zabal erakusten dozuna: <sup>22</sup> Zesar'i zerga\* emotea, bidezko yaku, ala ez?».

<sup>23</sup> Baiña Jesus'ek, arein maltzurkeria ezaguturik, auxe esan eutsen: <sup>24</sup> «Erakutsi egidazue denario bat. Norenak dira irudi au ta idazkun au?». «Zesar'enak», erantzun eben.

<sup>25</sup> Jesus'ek auxe esan eutsen: «Beraz, Zesar'ena Zesar'i biur-tu egiozue, eta Jaungoikoarena Jaungoikari». <sup>26</sup> Ez eben berba baten be artu al izan erriaren aurrean; eta Aren erantzunaz arrituta, isildu egin ziran.

\* Salatari: espía.

\* Zerga: tributo.

**Ildakoen biztuera** (Mt. 22, 23-33; Mk. 12, 18-27).

<sup>27</sup> Biztuerarik ez dagoala diñoen Saduzeotariko batzuk urreraturik, itaun au egin eutsoen: <sup>28</sup> «Irakasle, Moises'ek auxe itxi euskun idatzita: Seme bagariko anai ezkondua norbaiti ilten ba'yako, aren anaiak alarguna beretzat artu dagiala, anai zanari ondorengo izteko. <sup>29</sup> Zazpi anai ziran; lengoa ezkondu, eta seme bagarik il zan; <sup>30</sup> eta alarguna bigarrenak artu eban, <sup>31</sup> gero irugarrenak; alantxe, zazpi anaiak ondorengorik itxi bagarik il ziran guztiak. <sup>32</sup> Azkenez, emakumea be il egin zan. <sup>33</sup> Onetara, ba: biztueran, areitariko norena izango da emazte?, zazpirak izan eben emaztetzat-eta?».

<sup>34</sup> Jesus'ek auxe esan eutsen: «Mundu onetako semeak, bai, artzen dabe emaztea edo senarra; <sup>35</sup> baiña, beste munduko ta illen biztuerarako gei izatea jadetsi dagienak, ez gizonak artuko dabe emazterik, ez emazteak senarrik, <sup>36</sup> il be ezin il daitekez barriro; biztuera-semeak izanik (\*), aingeruak eta Jaungoikoaren semeak legetxe dira-ta. <sup>37</sup> Olakoak biztu egiten dirala, barriz, Moises'ek be adierazo dau sasiko atal aretan, Jaunari *Abrahan'en Jaungoikoa, Isaak'en Jaungoikoa, eta Jakob'en Jaungoikoa* dei egiten dau-tsanean. <sup>38</sup> Ez da ildakoen Jaungoikoa, biziena baiño, Arentzat guztiak bizi dira-ta».

(Mt. 22, 46; Mk. 12, 34).

<sup>39</sup> Idazlarietariko batzuek auxe esan eutsoen: «Irakasle, ederto egin dozu berba». <sup>40</sup> Eta ez eben ezer geiago itanduteko arpegirik.

**Kristo, Dabid'en seme ta Jaun**

(Mt. 22, 41-45; Mk. 12, 35-37).

<sup>41</sup> Jesus'ek itaun au egin eutsen: «Zelan diño Kristo'a Dabid'en seme dala? <sup>42</sup> Dabid'ek berak Eresi-liburuan auxe diño-ta: *Jaunak nire jaunari auxe esan eutsan: Jesarri zaitex nire eskumaldean*, <sup>43</sup> zure arerioak oinpean jarri

dagitzudazan arte. <sup>44</sup> Beraz, Dabid'ek Jaun dei egiten dau-  
ts; zelan izan daiteke, ba, bere (*Dabid'en*) seme?».

**Idazlarien azaluskeria** (Mt. 23, 6-7; Mk. 12, 38-40).

<sup>45</sup> Erri guztiak entzuten ziarduala, ikasleai auxe esan eutsen: «Gorde zaitze idazlariakandik: jantzi zabalaz ibil-tea atsegin yake, eta plazetan agurtuak izatea, sinagogetan lenengo tokiak eta bazkarietan lenengo jarlekuak artzea nai izaten dabe; <sup>46</sup> azalezko otoitz luzeen bidez, alargunen ondasunak iruntsiten dabez. Orreik epai zorrotzagoa izan-go dabe».

## XXI

**Alargunaren limosnatxoia** (Mk. 12, 41-44).

<sup>1</sup> Begiak jasorik, aberats batzuk ikusi ebazan, Diru-kutxan euren opariak izten. <sup>2</sup> Emakume alargun beartsu bat be ikusi eban, an txanpon bi izten; <sup>3</sup> eta auxe esan eban Jesus'ek: «Benetan dirausuet; emakume beartsu orrek, beste guztiak baiño geiago itxi dau: <sup>4</sup> gaiñezka dabenetik itxi dabe guztiak-eta; orrek, barriz, bizi izateko bear ebanetik, eukan guztia itxi dau».

**Jerusalen'en ondamedia** (Mt. 24, 1-3; Mk. 13, 1-4).

<sup>5</sup> Batzuek Jaunaren Etxea arri ederrez eta opariz apainduta egoala esaten ziarduen-eta, Jesus'ek auxe esan eutsen: <sup>6</sup> «Elduko dira egunak, bai, eta guzti onetatik ez da arri bat bestearen gaiñean lur jo bagarik geldituko». <sup>7</sup> Auxe itandu eutsoen: «Irakasle, noiz jazoko da ori? Eta guzti ori bete daiteneko ezaupidea, zein izango da?».

**Ezaugarriak** (Mt. 24, 4-14; Mk. 13, 5-13).

<sup>8</sup> Jesus'ek auxe esan eban: «Begira, gero!; ez zagieza-lā iñok azpikeriz eroan. Etorri be, asko etorriko dira neure

izena artu ta 'Neu naz' eta 'ur dago sasoiā' esanez. Ez egiezue jarraitu. <sup>9</sup> Guda (*gerra*) ta matxiñadai buruz berba egiten entzun dagizuenean, ez ikaratu: guztiok jazo bearrak dira lenengo-ta; ez da oraindiño azkena». <sup>10</sup> Orduan, auxe esan eutsen: «Erri bat beste erri baten kontra jagiko da, eta erreñu bat beste baten kontra. <sup>11</sup> Lurrikara aundiak, izurrite\* ta goseteak leku batzuetan; jazopen ikaragarriak eta ezaugarri aundiak izango dira zeruan.

(Mt. 20, 17-22).

<sup>12</sup> Baiña, guzti au jazo baiño len, eskuak ezarri ta aurrean erabiliko zaitue(ze), sinagogetan eta kartzeletan itxiez, eta erregeen eta agintarien aurrera eroanez nire Izen au dala-ta; <sup>13</sup> ori, autor egin dagizuen\* jazoko yatzue. <sup>14</sup> Zuen buruak aurretiaz ez zuritzeko erabagia artu egizue, ba, zuen biotzean: <sup>15</sup> zuen arerio guztiak ezin gogor egin eta erantzun al izango dautsoen berbetako etorria ta jakituria emongo dautsuet nik orduan-eta. <sup>16</sup> Gurasoak, anaiak, senideak eta adiskideak izango dozuez salatzaile, eta zuetariko batzui eriotza emongo dautse, <sup>17</sup> eta nire Izenagaitik, guztien gorrotagarri izango zaree. <sup>18</sup> Baiña, zuen buruko ule bat be ez da galduko. <sup>19</sup> Zuen arimak zeuon eroapenez zeruratuko dozuez.

**Jerusalen, inguratuta** (Mt. 24, 15-20; Mk. 13, 14-18).

<sup>20</sup> Jerusalem gudaroztez inguratuta ikusi dagizuenean, jakin egizue orduan aren ondamedia ur dagoana. <sup>21</sup> Orduan, Judea'n egon daitezanak, iges egin begie mendietara, eta uri-barruan egon daitezanak, ez daitezala an sartu: <sup>22</sup> egun areik zigorrezko egunak izango dira-ta; eta idatzita dagoan guztia beteko da. <sup>23</sup> Errukarriak, benetan, egun areitan seiña (*umea*) egiteko ta azten egon daitezanak!».

\* Izurrite: peste.

\* Autor egin: dar testimonio.



**Ondamendia ta jentillen saso'a** (Mt. 24, 21; Mk. 13, 19).

«Izan be, zoritxar aundia izango da lur-gaiñean, eta zigorra erri onen kontra; <sup>24</sup> ezpataz jota ilgo dira, eta atzerri guztietara joputzarako\* eroanak izango dira, eta jentillak Jerusalem ostikopetu egingo dabe, jentillen sasoia bete daiten arte».

**Gizasemearen etorrera** (Mt. 24, 29-30; Mk. 13, 24-26).

<sup>25</sup> «Eguzkian, illargian eta izarretan ezaugarriak izango dira; eta lurtean, laguntaldean estura, itxaso ta olatuen zarototsa dala-ta; <sup>26</sup> munduari jazo bear yakozanai begira, gizakumeak ikaraz eta larri ibiliko dira; zeruetako indarrak astinduak izango dira-ta.

<sup>27</sup> Eta orduan, indar eta aintza aundiaz laño baten etorten Gizasemea ikusiko dabe. <sup>28</sup> Olakoak jazoten asi daitezanean, adoretu zaiteze ta jaso egizue burua, zuen askatasuna ur dago-ta».

(Mt. 24, 32-35; Mk. 13, 28-31).

<sup>29</sup> Ipuin au esan eutsen gaiñera: «Begira pikondoa ta zugatz (*arbola*) guztiak: <sup>30</sup> ziltzen asten diranean, ori ikustean, ba-dakizue ud(e)a ur dagoana laster. <sup>31</sup> Orrelaxe zuok be: au jazoten ikusi dagizuenean, jakin egizue Jaungoikoaren Erreiñua ur dagoana. <sup>32</sup> Benetan dirautsuet: ez da gizaldi au igaroko, guzti au bete arte. <sup>33</sup> Zeru ta lurra igaro egingo dira, baiña nire berbak ez dira igaroko».

**Iratzarrik egon-bearra.**

<sup>34</sup> «Zaindu egizuez zuen buruak, nasaikeri, moskorke-ri ta arazoetan zuen biotzak astundu ez daitezkan, eta egun a bat-batean gaiñera jausi ez dakizuen, <sup>35</sup> sarea lez (\*): lurbira osoan bizi diran guztiai etorriko yake gaiñera-ta. <sup>36</sup> Iratzarrik egon, ba, beti otoitz egiten, indarra izan da-

\* Joputza: esclavitud.

gizuen eta etorteko dan guzti oni iges egin dagiozuen, eta Gizasemearen aurrean zutik egon al izan zaitezkan».

**Jesus'en azkenengo egunak.**

<sup>37</sup> Egunez Jaunaren Etxean irakasten eban; eta gaba igarotera, Oriotegi izeneko mendira igoten zan. <sup>38</sup> Eta erri guztia goizean-goiz joaten zan Jesus'egana, Jaunaren Etxean berari entzutera.

## XXII

### NEKALDIA

**Batzar Nagusiaren erabagia, eta Judas'en saldukeria**

(Mt. 26, 1-5; Mk. 14, 1-2; Yn. 11, 47-53).

<sup>1</sup> Ur zan Pazkoa izeneko Otil-jaieguna. <sup>2</sup> Abadeburu ta idazlariak Jesus zelan il eikeen billa ziarduen, erriaren bildur ziran-eta.

(Mt. 26, 14-16; Mk. 14, 10-11).

<sup>3</sup> Orduan, Iskariote izeneko Judas'egan Satanas sartu zan; Judas ori, barriz, Amabietariko bat zan; <sup>4</sup> eta abadeburu ta (*Jaunaren Etxeko*) zaintzaille nagusiakaz berba egitera joan zan, ia Jesus arein eskuetan zelan itxi eikean. <sup>5</sup> Areik poztu egin ziran eta dirua emongo eutsoela agindu eutsoen. <sup>6</sup> Judas'ek baiezkua emon eutsen; eta arrezkero, laguntaldearen ixillean, Jesus arei emoteko aukera Lilla ziarduan.

**Azken-aparitarako gertaerak** (Mt. 26, 17-19; Mk. 14, 12-16).

<sup>7</sup> Eldu zan Pazko-bildotsa oparizat ilteko Otil-eguna; <sup>8</sup> eta Pedro ta Yon bialdu ebazan, esanez: «Zoaze, eta gertatu eiguezue Pazkoa, jan dagigun». <sup>9</sup> Areik auxe esan eutsoen: «Nun nai dozu gertatu dagitzugun?». <sup>10</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsen: «Urian sartu zaitezenean, gizon bat

urtengo yatzue bidera, ur-edarra bat daroala; jarraitu egiozue sartu daiten etxeragiño, <sup>11</sup> eta auxe esan egiozue etxe-ko ugazabari: 'Auxe dirautsu Irakasleak: Nun dago jantokia, nire ikasleakaz batera Pazkoa jan dagidan?'. <sup>12</sup> Arek gela aundi bat erakutsiko dautsue atonduta, gorengo bizitokian: antxe gertatu». <sup>13</sup> Joan ziran eta esan izan eutse-nez aurkitu eben, eta Pazkoa gertatu eben.

#### **Pazko-aparia.**

<sup>14</sup> Ordua eldu zanean, apostoluakaz maian jarri zan; <sup>15</sup> eta auxe esan eutsen: «Gogo biziaz gura izan dot nekeak eroaten asi baiño len Pazko au zuekaz batera jatea. <sup>16</sup> Ba-dirautsuet: ez dot au barriro jango, Jaungoikoaren Erreiñuan bete daiten arte». <sup>17</sup> Eta edontzi bat arturik, eskerrak emon eta auxe esan eban: «Artu au ta banandu egizue zuen artean. <sup>18</sup> Ba-dirautsuet: onezkero, ez dot matsaren frututik barriro edango Jaungoikoaren Erreiñua bete daiten arte.

#### **Eukaristia** (Mt. 26, 26-28; Mk. 14, 22-24).

<sup>19</sup> Eta ogia artu, eskerrak emon, banandu ta emon egin eutsen, esanez: «Au neure gorputza da, zeuon alde eskiñiko dana; au, neure gomutaz egizue». <sup>20</sup> Eran berean egin eban edontziaz (*kalizaz*) be, apalondoa: «Edontzi au, Alkartasun Barria da nire odoletan, zeuon alde isuriko dana».

#### **Judas'en saldukeria agertzen dau** (Mt. 26, 20-25; Mk. 14, 17-21; Yn. 13, 21-30).

<sup>21</sup> «Ementxe dago, barriz, nigaz maian ni saltzen nauanaren eskua. <sup>22</sup> Izan be, Gizasemea ba-doa, erabagita dagoanez. Baiña, errukarria benetan, Gizasemea saltzen dauan gizona!». <sup>23</sup> Orduan, areik alkarregaz eztabaidan asi ziran, eurentariko nor ete-litzaken olakorik egin leikena.

#### **Buru diranak, menpeko izan bear dabe** (Mt. 20, 25-27; Mk. 10, 42-44).

<sup>24</sup> Eztabaida bat be sortu zan euren artean, ia nor ete-zeitekean eurentariko nagusiena (\*). <sup>25</sup> Jesus'ek auxe esan eutsen: «Errietako erregeak erria euren menpean dauke eskubide osodun jaunak lez; eta arein gain aginpidea dabena, Ongille izena emoten dautse. <sup>26</sup> Zuen artean, barriz, ez bedi orrela izan, bestetara baiño: zuetariko aundiena, txikiena lez izan daitela, eta agintzen dauana morroitzen diarduana lez. <sup>27</sup> Nor da, izan be, aundiago?, maian dagoana ala maian morroi dagoana? Maian dagoana, ezta? Emen, ba: ni zuen artean morroi lez diardut».

#### **Apostoluai agindutako saria** (Mt. 19, 28).

<sup>28</sup> «Zuek nire larrialdietan neugaz iraun dozue; <sup>29</sup> eta nik, nire aldetik, Erreiñua atontzen dautsuet, niri Aitak atondu daustanez: <sup>30</sup> nire Erreiñuan neure maian jan eta edan dagizuen, eta Israel'go amabi jatorriak epaitzeko auzi-jarlekuetan jesarri zaitezzen».

#### **Pedro'k ukatu egingo daua** (Mt. 26, 31-35; Mk. 14, 27-31; Yn. 13, 26-38).

<sup>31</sup> «Simon, Simon! (\*) Begira: zuek garia lez galbaatze-ko eskubidea eskatu dau Satanas'ek; <sup>32</sup> baiña, nik zeure alde erregutu dot, zure sinistea makaldu ez daiten (\*). Eta zuk, onbideratu zaitezanean, sendotu egizuz zure anaiak». <sup>33</sup> Pedro'k auxe esan eban: «Jauna, gertu nago giltzapera ta eriotzaraño be zeugaz joateko». <sup>34</sup> Jesus'ek, barriz, auxe esan eutsan: «Zeuri dirautsut, Pedro: ez dau gaur oillariak kurrurku egingo, zuk ni ezagutzen nozula iru bidar ukatu baiño len».

#### **Burrukan egiteko ordua.**

<sup>35</sup> Eta auxe esan eutsen: «Zakuto, bide-zorro ta oiñetako bagarik bialdu zenduedazanean, zerbaiten bearrik izan zenduen?». <sup>36</sup> «Ezerenik be ez», esan eben areik. Je-



sus'ek auxe esan eutsen: «Orain, barriz, zakutoa daukanak, artu dagiala, eta bardin bide-zorroa be; eta ez daukanak, bere soingaiñekoa saldu ta erosi begi ezpata bat (\*)».

<sup>37</sup> *Gaizkilletzat artua izan da, idatzitako au, neugan bete bear dala dirautsuet-eta. Izan be, nireak laster egingo dau».*

<sup>38</sup> Areik auxe esan eben: «Jauna, ona emen ezpata bi».

«Naiko da», esan eutsen Jesus'ek.

**Oriomendi-baratzeko otoitza** (Mt. 26, 36-46; Mk. 14, 32-42).

<sup>39</sup> Andik urten eta, oitura ebanez, Oriomendi'ra joan zan, eta ikasleak jarraitu egin eutsoen. <sup>40</sup> Ara elduta, auxe esan eutsen: «Otoitz egizue, zirikaldian jausi ez zaitezen».

<sup>41</sup> Eta arekandik arrikada bat bide-edo urrindu zan; ta belaunikotuta, otoitz egiten ziarduan, <sup>42</sup> esanez: «Aita, nai ba'dozu, kendu egidazu edontzi au; baiña, ez bedi nire gogoa egin, zeurea baiño!». <sup>43</sup> Orduan, zerutik aingeru bat agertu yakon, eta adorea emoten eutsan. <sup>44</sup> Eta larri gorritan jarrita, ekiñago ziarduan otoitzean. Izerdia odol-tantak lez egin yakon, lurrera jausten zirala.

<sup>45</sup> Otoitzetik jagirik, bere ikasleakana etorri ta naigabez lotan aurkitu ebazan; <sup>46</sup> eta auxe esan eutsen: «Zegaitik zagoze lo? Jagi ta otoitz egizue, zirikaldian sartu ez zaitezen».

**Jesus, lotuta daroe**

(Mt. 26, 47-56; Mk. 14, 43-50; Yn. 18, 3-11).

<sup>47</sup> Jesus'ek berbetan ziarduan artean, laguntaldea etorri zan. Guztien aurrean, Judas izeneko Amabietariko bat etorren, eta Jesus'egana urreratu zan laztan bat emotera.

<sup>48</sup> Jesus'ek auxe esan eutsan: «Judas, laztan bat az saltzen dozu Gizasemea?».

<sup>49</sup> Inguruan egozanak, an jazo zeitekeana ikusirik, auxe esan eben: «Jauna, ezpataz joko doguz?».

<sup>50</sup> Eta areitariko batek Abadeburuaren morroia zauritu ta eskumako belarria moztu eutsan. <sup>51</sup> Baiña, Jesus'ek auxe esan eutsan: «Itxi! Naiko da!». Eta belarria ikuturik, osatu egin eutsan.

<sup>52</sup> Jesus'ek, bere kontra etorri ziran abadeburu, Jaunaren Etxeko zaintzaille nagusi ta zaarrai auxe esan eutsen: «Lapur baten kontra lez urten zaree ezpataz eta makillaz?»

<sup>53</sup> Zuekaz egunero Jaunaren Etxean nengoala, ez zeusten eskurik ezarri; baiña, auxe da zuen lana ta illunpeen indarra».

**Pedro'ren ukatzeak**

(Mt. 26, 69-75; Mk. 14, 66-72; Yn. 18, 15-18. 25-27).

<sup>54</sup> Orduan, Jesus lotu, croan eta Abadeburuaren etxean sartu ziran. Pedro'k urrundik jarraitzen eutsan. <sup>55</sup> Ataurer-dian sua iziotu izan eben, eta inguruan jesarrita egozan; Pedro eurakaz jesarri zan. <sup>56</sup> Neskame batek, Pedro sutondoan jarrita ikustean, ari begira-begira jarri ta auxe esan eutsan: «Au be aregaz batera egoan».

<sup>57</sup> Baiña, Pedro'k ukatu egin eban: «Emakume, ez dot ezagutzen».

<sup>58</sup> Gerotxoago, beste norbaitek, Pedro ikusirik, auxe esan eban: «Zu be orreitarikoa zara». «Ez, gizon, ez naz!», esan eban Pedro'k. <sup>59</sup> Ordubetera-edo, beste batek auxe esan eban bein eta barrero: «Bai, bai, au be beragaz egoan, berrau be Galilearra da gaiñera-ta». <sup>60</sup> «Gizon! – esan eutsan Pedro'k –, ez dakit zertaz berba egiten diarduzun be». Eta bat-batean, Pedro'k oraindiño berbetan ziarduala, oillar batek kukurruku egin eban. <sup>61</sup> Eta Jaunak, biurtu ta Pedro'ri begirakune bat egin eutsan; eta Pedro'k Jaunaren itza gogora ekarri eban, esan eutsanean: «Gaur oillarrak kukurruku egin baiño len, zuk iru bidar ukatuko nozu».

<sup>62</sup> Eta kanpora urtenda, negarrez asi zan samifez beterik.

**Lenengo iraiñak** (Mt. 26, 67-68; Mk. 14, 65).

<sup>63</sup> Jesus lotuta euken gizonak, irri ta barre egiten eutsoen, eta iraindu be bai; <sup>64</sup> eta Jesus zapiaz estaldurik, itaun au egiten eutsoen: «Igarri egiozu! Nor da jo zaituana?».

<sup>65</sup> Eta iraindu egiten eben, beste berba asko esaten eutsoezala.

**Jesus, Batzarre Nagusiaren aurrean**

(Mt. 26, 57-66; 27, 2; Mk. 14, 53-64; 15, 1).

<sup>66</sup> Eguna argitu zanean, erriko Zaarren Batzarra, abadeburuak eta idazlariak batu ziran, Jesus euren auzitegi-  
ra eroan <sup>67</sup> eta auxe esan eutsen: «Zu Kristo'a ba'zara, esan egiguzu». Jesus'ek auxe erantzun eban: «Esaten ba'dautsuet, ez daustazue sinistuko. <sup>68</sup> Zerbait itanduten ba'dautsuet, ez daustazue erantzunik emongo. <sup>69</sup> Aurrerantzean, Gizasemea *jesarrita egongo da Jaungoikoaren indarraren eskumaldean*». <sup>70</sup> Guztiak auxe esan eben: «Beraz, zu Jaungoikoaren Semea zara?». «Zeuok diñozue – esan eutsen Jesus'ek –; neu naz». <sup>71</sup> Areik auxe esan eben: «Zetarako beste autorrik onezkero, geuk entzun dau-tsagu beronen agotik-eta?».

## XXIII

<sup>1</sup> Eta batzarreko guztiak jagirik, Pilato'gana eroan eben.

**Pilato'ren aurrean**

(Mt. 27, 11-14; Mk. 15, 2-5; Yn. 18, 29-38).

<sup>2</sup> Salatzen asi yakozan, esanez: «Gure erria naasten ar-tu dogu au, Zesar'entzako zergak galerazoten eta bera Kristo Erregea dala esaten». <sup>3</sup> Pilato'k itaun au egin eutsan: «Judarren Erregea zara zu?». «Zeuok diñozu», erantzun eutsan Jesus'ek. <sup>4</sup> Pilato'k abadeburuak ta laguntaldeari auxe esan eutsen: «Ez dausat nik gizon oni errurik aurkitzen». <sup>5</sup> Areik, ostera, gogorrigo ziarduen esaten: «Erria naasten diardu, Galilea'tik asi ta onaiño, Judea guztian zear irakasten». <sup>6</sup> Ori entzutean, gizon a Galilearra zan itandu eban Pilato'k. <sup>7</sup> Eta Erodes'en menpeko zala jakitean, Erodes'egana bialdu eban, au be egun areitan Jerusalem'en egoan-eta.

**Jesus, Erodes'en aurrean.**

<sup>8</sup> Jesus ikusi ebanean, Erodes pozez beterik jarri zan: Jesus'i buruz entzuten ebazanakaitik, A ikusteko gurariz egoan aspaldian-eta; gaiñera, mirariren bat egiten ikusiko ebala uste eban. <sup>9</sup> Eurrez egin eutsazan itaunak; baiña Jesus'ek ez eutsan ezer erantzun. <sup>10</sup> An ziarduen ekin eta ekin abadeburu ta idazlariak Jesus'en kontra salakuntzak egiten.

<sup>11</sup> Baiña Erodes'ek bere gudari-taldeagaz, Jesus ezetsi (*baz-tartu*) ta beronen lepotik irri ta barre egin ondoren, Jesus'i soingaiñeko eder bat jantzierazo ta Pilato'ri bialdu eutsan.

<sup>12</sup> Egun aretan, Erodes eta Pilato adiskidetu egin ziran, len alkarren arerio ziran-eta.

**Berriro be Pilato'gana daroe**

(Mt. 27, 15-26; Mk. 15, 6-15; Yn. 18, 39; 19, 16).

<sup>13</sup> Pilato'k abadeburu, agintari ta erria batu ebazan, <sup>14</sup> eta auxe esan eutsen: «Gizon au erri-naastaille dala-ta ekarri daustazue; baiña, nik zeuon aurrean itandu dau-tsat, eta gizon onen kontra diñozuezan salakuntza guztie-tan ez dot nik auzi-gairik aurkitu. <sup>15</sup> Ezta Erodes'ek be, barriro bialdu dausku-ta. Beraz, gizon onek ez dau erio-tzarakorik ezer egin. <sup>16</sup> Beraz, zigortu ta askatu egingo dot». (<sup>17</sup> Pilato'k Pazko-jaiegunean giltzapeko bat askatu bear eutsen). <sup>18</sup> Laguntalde guztia deadarka asi zan batera: «Kendu ori, eta Barrabas askatu eiguza!» <sup>19</sup> Barrabas au, uriko matxiñada bat zala-ta, baita norbait il ebala-ta, giltzapean sartua izan zan.

<sup>20</sup> Pilato'k, Jesus askatzeko alegiñak egiñik, barriro be berba egin eutsen; <sup>21</sup> baiña, areik deadarka baten ziar-duen: «Gurutzeria ori, gurutzeria!» <sup>22</sup> Irugarrenez, auxe esan eutsen Pilato'k: «Ze gaiztakeri egin dau, ba, onek? Nik ez dausat eriotzarako errurik aurkitzen. Beraz, zigortu ondoren, askatu egingo dot». <sup>23</sup> Baiña areik, deadar aundiagoz, gurutzeratua izan zedilla eskatzen eben, eta arein deadarrak gero ta gogorrigoak ziran. <sup>24</sup> Pilato'k arein es-



karia egitea erabagi eban. <sup>25</sup> Beraz, areik eskatu ebena, naastaille ta gizon-iltzailletzat giltzapean egoana, askatu egin eutsen, eta Jesus arein naitara itxi eutsen.

**Golgota-bidean** (Mt. 27, 32-34; Mk. 15, 20-23; Yn. 19, 17).

<sup>26</sup> Bidean eroiela, solotik etorren Zirene'ko Simon zalako bati eldu ta gurutzea leporatu eutsoen, Jesus'en atzetik eroan egian. <sup>27</sup> Erriko laguntalde aundiak jarraitzen eutsan Jesus'i, baita emakume-talde aundiak be negar-zotinka. <sup>28</sup> Jesus'ek, arekana bihurturik, auxe esan eutsen: «Jerusalen'go alabok: ez egin negarrik nigaitik, zeuokaitik eta zeuon semeakaitik baiño. <sup>29</sup> Etorri be etorriko dira egunak, eta orduan auxe esango dabe: 'Zorionsuak sabel-agorrak, umerik sortu ez eben sabelak eta umerik azi ez eben bularrak!' <sup>30</sup> Eta auxe asiko dira mendiai esaten: 'Jausi zaitez gure gaiñera!' Eta menditxoai: 'Estaldu gagi-zuezi!' <sup>31</sup> Izan be, egur ezetan (*berdetan*) au egiten ba'da-be, igarrean zer egingo ete-da?» <sup>32</sup> Beste gaizkille bi be ba-eroiezan, Jesus'egaz batera ilteko.

### Jesus gurutzean

(Mt. 27, 35-38; Mk. 15, 24-28; Yn. 19, 17-24).

<sup>33</sup> Kalbario izeneko lekura elduta, antxe josi eben gurutzean, baita gaizkilleak be, bata eskumaldean eta bestea ezkerrekaldean. <sup>34</sup> Jesus'ek auxe iñoan: «Aita, parkatu egiezu, ez dakie egiten diarduen-ta». Jesus'en jantziak bannandu egin ebezan, zotz egiñez.

### Jesus'i irainka.

<sup>35</sup> Erria begira egoan; agintariak barre egiten eutsoen, esanez: «Besteak askatu dauz, bai; askatu dagiala bere burua be, Jaungoikoaren Kristo'a, Aukeratua, ba-da». <sup>36</sup> Gudariarik be barre egiten eutsoen; eta urreraturik, ozpiña\* eskiñi <sup>37</sup> ta auxe zirautsoen: «Judarren Erregea ba'zara,

\* Ozpin: vinagre.

askatu egizu zure burua!» <sup>38</sup> Jesus'en gaiñean idazkun au egoan (\*): «Au, judarren Erregea da».

### Lapur ona.

<sup>39</sup> Eskegita egoan lapurretariako batek Jesus'i irainka ziarduan, esanez: «Ez zara, ba, zu Kristo'a? Askatu egizuz, ba, zure burua ta gureak!» <sup>40</sup> Baiña besteak asarre egin eutsan, esanez: «Zuk be ez dautsazu Jaungoikoari bildurrik, oiñaze bardiñetan zagozan orrek?» <sup>41</sup> Guri, bai, oiñazeok artez dagokiguz, gure egiñen bidezko ordaiña artzen dogu-ta; onek, ostera, ez dau okerrik egin». <sup>42</sup> Eta auxe iñoan: «Jesus, gomuta zaitez nitzaz zure Erreiñura etorri zaitezanean» (\*). <sup>43</sup> Jesus'ek auxe esan eutsan: «Benetan dirautsut: gaur nigaz batera Paradisuan izango zara».

**Jesus'en eriotza** (Mt. 27, 45-50; Mk. 15, 33-37; Yn. 19, 25-30).

<sup>44</sup> Seigarren ordu-aldean-edo (\*), eguzkia illuntzean, lur osoa illundu egin zan bederatzigarren ordurarte (\*). <sup>45</sup> Jaunaren Etxeko oiala erditik urratu egin zan. <sup>46</sup> Eta Jesus'ek, deadar aundi bat egiñik, auxe esan eban: «Aita, zeure eskuetan izten dot nire gogoia (*espiritua*)». Eta au esanda, azken-arnasa emon eban.

### Jesus ilda gero

(Mt. 27, 51-56; Mk. 15, 38-41; Yn. 19, 31-37).

<sup>47</sup> Euntariak\* jazoa ikustean, Jaungoikoa goratzen eban, esanez: «Zintzoa zan gizon au benetan». <sup>48</sup> Eta ikuspen aretara batu izan ziran laguntalde guztiak, jazoten zana ikustean, bular-joka biurtu ziran. <sup>49</sup> Antxe egozan urrundik begira Jesus'en ezagun guztiak eta Galilea'tik jarraitu izan eutsoen emakumeak be.

### Jesus'en illobiratzea

(Mt. 27, 57-61; Mk. 15, 42-47; Yn. 19, 38-42).

<sup>50</sup> Ba-zan Batzar Nagusiko gizon zintzo ta on bat, Jose izenekoa: <sup>51</sup> onek, besteen erabagiak eta egiñak ez eba-

\* Euntari: eun gudariren buru edo nagusi zana.

zan ontzat artu. Judea'ko Arimatea urikoa zan, eta Jaungoikoaren Erreñuaren zain egoan. <sup>52</sup> Onek, ba, Pilato'gana etorri ta Jesus'en gorpua eskatu eutsan; <sup>53</sup> eta Jesus gurutzetik eratsita gero, izar(e)az batu ta len iñor ipiñia izan ez zan arri bizian zulatutako illobi baten ipiñi eban. <sup>54</sup> Atontze-eguna zan (\*), eta zapatua asten.

<sup>55</sup> Galilea'tik Jesus'egaz etorritako emakumeak, atzetik yoiazan eta illobia be ikusi eben, baita Jesus'en gorpua zelán ipiñia izan zan be. <sup>56</sup> Eta etxera bihurturik, usain garriak eta mirra gertatu ebezan (\*). Eta zapatuan atsedena artu eben, legeak agintzen ebanez (\*).

## XXIV

### Illobia, utsik. — Aingeruaren barria

(Mt. 28, 1-8; Mk. 16, 1-8; Yn. 20, 1-2).

<sup>1</sup> Astearen lenengo egunean (\*), goizean-goiz, emakumeak illobira joan ziran, atondu izan ebezan usaingarriak eroiezala. <sup>2</sup> Baiña, arria illobitik kenduta egoala aurkitu eben, <sup>3</sup> eta barrura sartu ziran; baiña ez eben Jesus Jaunaren gorpua aurkitu. <sup>4</sup> Onetzaz zer bururatu ez ekiela, gizonetzko bi agertu yakeezan soiñeko argitsuz. <sup>5</sup> Emakumeak bildurrez beterik eta lurrera begira egoazala, gizonetzkoak auxe esan eutseen: «Zegaitik billatzen dozue illen artean bizirik dagoana? <sup>6</sup> Ez dago emen, biztu egin da. Gogoratu egizue zelán berba egin eutsuen oraindiño Galilea'n egoala, esanez: <sup>7</sup> 'Bearrezkoa da Gizasemea pekatarien eskuetan iztea ta gurutzean josia izatea, eta irugarren egunean biztutea'. <sup>8</sup> Eta emakumeak gogora ckarri ebezan, bai, Jesus'en berbok.

### Apostoluak ez dautsee emakumeai sinisten

(Mt. 28, 10. 17; Mk. 16, 10. 11. 14; Yn. 20, 18. 25. 29).

<sup>9</sup> Emakumeak, illobitik bihurturik, guztion barri emon eutseen Amaikai eta beste guztiai. <sup>10</sup> Barriok apostolui eka-

rri eutseezanak, Mari Madalen, Joana ta Mari Santiago'rena ta onekaz egozan besteak ziran. <sup>11</sup> Apostoluak, barriz, berba guztiok zorakeritzat artu ebezan, eta ez eutseen sinisten.

### Pedro, illobian (Yn. 20, 3-10).

<sup>12</sup> Pedro jagi ta illobira joan zan ariñeketan. Barrura, makurtu ta zapiak bakarrik ikusi ebazan, eta bere etxera biurtu zan, jazotakoaz ikaratuta.

### Emaus'ko ikasleak (Mk. 16, 12-13).

<sup>13</sup> Egun aretan bertan, euretariko (*ikasletariko*) bi, Jerusalem'dik irurogei estadiko (\*) bidean dagoan Emaus izeneko errira yoiazan, <sup>14</sup> eta jazo izan ziran guztiai buruz ziarduen alkarregaz berbetan. <sup>15</sup> Areik berbetan eta eztabaidan ziarduen artean, Jesus bera urreratu ta eurakaz joan zan bidelagun; <sup>16</sup> arein begiak, ostera, illunduta egozan Jesus ez ezagutzeko. <sup>17</sup> Jesus'ek auxe esan eutsen: «Zertaz diarduzue eztabaidan alkarregaz zoazen artean?» Areik gelditu egin ziran, arpegia naigabez beterik eukela; <sup>18</sup> eta areitariko batek, Kleofas izenekoak, auxe erantzun eutsan: «Zeu zara, ba, Jerusalem'go kanpotar bakarra, egurotan bertan jazo diranak ez dakizuzan ori?» <sup>19</sup> «Zertzuk?», esan eutsen Jesus'ek. Areik auxe esan eutsoen: «Jesus Nazaretar orrena: gizon igarlea, Jaungoikoaren eta erri guztiaren aurrean egiñez eta berbaz gizon altsua zala, <sup>20</sup> eta gure abadeburuak eta nagusiak ari eriotz-epaia emon eta gurutzean josi ebela. <sup>21</sup> Israel askatuko ebana, bera zala uste genduan guk; baiña, gauza guztiokaz, iru egun daroaguz onezkero, guzti au jazo zanetik. <sup>22</sup> Egia esan, gure arteko emakume batzuek arrituta itxi gaitue: izan be, goizaldean illobira joan ziran, <sup>23</sup> eta Aren porpua ez aurkitzean, aingeru batzuk be ikusi izan ebezala esanez etorri ziran, eta aingeru oneik Jesus bizi zala diñoela-ta... <sup>24</sup> Geuretariko batzuk be joan ziran illobira, eta



dana emakumeak esan ebenez aurkitu eben; baiña Bera ez eben ikusi».

<sup>25</sup> Jesus'ek auxe esan eutsen: «Zuok bai, gero, burubageak, eta igarleak esan eben guztia sinisteko biotz-motelak! <sup>26</sup> Ez ote-yakon, ba, bearrezkoa Kristo'ri nekeok igarotea ta olan bere aintzan sartzea?» <sup>27</sup> Eta Moises'egandik asita, igarlerik igarle, Liburu Santu guztietan Aretzaz idatzita egoana azaldu eutsen.

<sup>28</sup> Yoiazan errira urreratzean, aurrera yoiolakoa egin eban. <sup>29</sup> Baiña, areik eurakaz geratzeko beartu eben, esanez: «Gelditu zaitetz gugaz, illunabarra da ta eguna illundu da-ta». Eta eurakaz gelditzeko sartu zan. <sup>30</sup> Arekaz batera maian jarri zanean, ogia artu, bedeinkatu, zatitu ta banandu egiten eutsen. <sup>31</sup> Orduantxe zabaldu ziran arein begiak eta orduantxe ezagutu eben; baiña, Jesus ezkatutu egin yaken ondolik. <sup>32</sup> Areik alkarri auxe esan eutsen: «Ez genduan, ba, sugarretan biotza gure barruan, Arek bidean berba egiter, euskunean eta Liburu Santuak azaltzen euskuzanean?» <sup>33</sup> Eta berealaxe jagirik, Jerusalem'era biurtu ziran, eta Amaikak eta eurokaz egozanak aurkitu ebezan batuta, <sup>34</sup> auxe iñoela: «Egia da! Biztu egin da Jauna, eta Simon'i agertu yako!» <sup>35</sup> Eurak be bidean jazo zana azaldu eben, eta ogia zaittzean ezagutu ebela.

#### **Apostolui ageritzen yake.**

<sup>36</sup> Jazotakook esaten ziarduela, Jesus arein erdian agertu ta auxe esan eutsen: «Bakea zuekaz». <sup>37</sup> Larri ta ikaratuta, espirituren bat ikusten ebela uste eben. <sup>38</sup> Baiña, Jesus'ek auxe esan eutsen: «Zegaitik ikaratzen zaree, eta zegaitik sortzen dira zuen biotzean ezbaiok? <sup>39</sup> Begira nire esku-oïñok; neu naz. Ikutu ta ikusi nagizue; espirituak ez dauko aragirik ez azurrik; nik ba-daukadaz, ostera, zeuok ikusten daustazuezan». <sup>40</sup> Eta ori esanda, eskuak eta oïñak erakutsi eutsezan. <sup>41</sup> Pozaren pozez areik sinistu be egiten ez ebela ta ikaratuta egozala, Jesus'ek auxe esan

eutsen: «Ba-daukazue emen jatekorik?» <sup>42</sup> Areik arrain-erre zati bat eskini eutsen. <sup>43</sup> Jesus'ek artu ta euren aurrean jan eban.

#### **Azken-burubideak.**



<sup>44</sup> Gero, auxe esan eutsen: «Onexek dira, oraindiño zuekaz nengoala esan neutsuezan berbak: Bearrezkoa da Moises'en Legean, Igarleetan eta Eresietan\* nitzaz idatzita dagoan guztia betetea». <sup>45</sup> Eta orduan, adimena argitu egin eutsen, Liburu Santuak ulertu egiezan; <sup>46</sup> eta auxe esan eutsen: «Olantxe dago idatzita: Kristo'k nekeak igarero bear ebazala ta irugarren egunean illen artetik biztu egin bear ebala, <sup>47</sup> eta Aren izenean erri guztiai, Jerusalem'dik asita, pekatuen parkamenerako damua iragarri bear yakela. <sup>48</sup> Zeuok zaree gauza guztion autorle. <sup>49</sup> Orain, neure Aitaren agintzaria bialduko dot zuen gaiñera (\*). Bitartean, egon zaitetze urian (\*), goitik indarrez jantziak izan zaitezen arte».

#### **Zerura igokundea (Mk. 16, 19).**

<sup>50</sup> Jesus'ek Betania-ondoraino atara ebazan; eta bere eskuak jasorik, debeinkatu egin ebazan. <sup>51</sup> Eta bedeinkatzen ebazala, arekandik alde egin eta zerura eroana izan zan. <sup>52</sup> Areik, Jesus auzpaz gurtu ondoren, pozez beterik Jerusalem'era biurtu ziran; <sup>53</sup> eta beti Jaunaren Etxean egozan, Jaungoikoa goratzen ebela.



\* Eresiak; Salmos.



## JESUKRISTO'REN BARRI ONA

### Yon Deunak dakarrenez

Yon Ebanjelaria, bere aita Zebedeo lez, arrantzalea zan. Bere ama Salome, barriz, Jesus'en gurutze-ondoan egon zana bera.

Bere anai Santiago Nagusiagaz batera, aita, etxea, txalupa ta dana itxi ta Jesus'i jarraitu eutsan (*Mat. 4, 21-22*).

Jesus'ek geien maite eban ikaslea zan; eta gurutzean egoa-la, bere Ama emon eutsan, ardurapean artu egian.

Jesus'en ikasbidea Efeso'n iragarri ebala dirausku bere ikasle Polikarpo'k. "Agerpena" edo "Apokalpsis", Patmos'en egoa-la idatzi eban. Emendik barriro Efeso'ra joan eta antxe il zan, 100'garren urte-aldean, urteetan guztiz eldua.

Bere Barri Onean ikusten da argi-argi Yon zelakoa zan: beti agertu eban Jesus'eganako maitasun eta zintzotasun be-roa ta sinismen sendoa. Yon, gizon artegatsu ta adoretsua izan zan.

Barri Onaren asieran, Jesus'en jaungoikoazko jatorria azal-tzen dausku: Jesus, Jaungoikoagandik dator mundu onetara, aragia artu ta Aitagana doa barriro (*1, 1-18*). Gero, Yon Batea-tzaillearen autorra ta Jesus'ek lenengo ikasleai egin eutsen deia azaltzen dauz (*1, 19-51*); Jesus'en agiriko bizitza Judea'n eta Jerusalem'en (*2, 1-12, 50*); eta azkenez, Jesus'en Nekaldi. Eriotz eta Biztuera (*13, 1-21, 25*).

Yon'ek bere Barri Ona idaztean, aurrean erabilli eban elbu-rua, berak dirausku (*20, 31*): "Oneik, Jesus Kristo'a, Jaungoi-koaren Semea dala sinistu dagizuen idatzi dira; eta sinistuaz, Aren izenean *betiko* bizitza izan dagizuen".



## I

**Sarrera**

<sup>1</sup> Asieran Itza ba-zan (\*), eta Itza Jaungoikoagaz egoan, eta Itza Jaungoikoa zan. <sup>2</sup> Asieran Itza Jaungoikoagaz egoan. <sup>3</sup> Dana Beragaitik (*Itzagaitik*) egin zan (\*), eta Bera bagarik ez da egin egindakorik ezer. <sup>4</sup> Aregan bizitza egoan, eta bizitza gizonen argia zan, <sup>5</sup> eta argiak illunetan argi egiten dau, eta illunak ez eben azpiratu (\*). <sup>6</sup> Izan zan gizon bat Jaungoikoak bialdutakoa, Yon izenekoa.

Au, autorletzat etorri zan, argiaren autorra emotera, bere bidez guztiak sinistu egien (\*). <sup>8</sup> Bera ez zan argia. argiaren autorra emotekoa baiño. <sup>9</sup> Itza, egiazko argia zan, mundu onetara datorren edozein gizakume argitzen duan argia. <sup>10</sup> Munduan egoan (\*), eta mundua Berak egiña izan zan, eta munduak ez eban ezagutu. <sup>11</sup> Bere etxera etorri zan, eta bereak ez eben ondo artu (\*). <sup>12</sup> Bera artu eben guztiai, barriz, Aren izenagan sinistu eben guztiai, Jaungoikoaren seme egiteko eskubidea emon eutsen (\*). <sup>13</sup> Au ez da odoletik jaió (\*), ez aragi-guraritik, ez giza-guraritik, Jaungoikoagandik baiño. <sup>14</sup> Eta Itza aragi (*gizon*) egin zan, eta bere bizilekua geure artean jarri eban; eta geuk ikusi dogu bere aintza, Seme bakarrari dagokionez Aitagandik artzen dauan aintza, graziz eta egiz betea.

<sup>15</sup> Aretzaz Yon'ek egiten dau autor eta auxe diño deadarka: «Auxe zan Aretzaz esan neban au: Nire ondoren datorrena, neure aurretik jarri da, ni baiño lenago zan-eta».

<sup>16</sup> Bere betetasunetik artu dogu guztiok-eta, eskerrik esker artu be (\*). <sup>17</sup> Legea Moises'en bidez izan zan emonata; grazia ta egia Jesukristo'ren bidez eldu yakuz. <sup>18</sup> Jaungoikoa ez dau iñok bein be ikusi. Seme bakarrak (\*), adierazo dau, Aitaren altzoan dagoanak berak.

**Yon'en autorra.**

<sup>19</sup> Auxe izan zan, Jerusalem'dik bialdutako abade ta lebitarrak «Nor zara zu?» itaunka joan yakozanean, Yon'ek

emon eutsen autorra. <sup>20</sup> Arek autortu egin eban, bai, eta ez eban ukatu: «Ni ez naz Kristo'a», autortu eban. <sup>21</sup> Eta auxe itandu eutsoen: «Zer, ba? Elias ete-zara?». Yon'ek auxe esan eban: «Ez naz». «Igarlea ete-zara, ba?» «Ez, erantzun eban. <sup>22</sup> Orduan, auxe esan eutsoen: «Nor zara, ba, bialdu gaituenai erantzuna emon dagitsegun? Zer diñozu zutzaz?» <sup>23</sup> Yon'ek auxe esan eban: «*Basamortuan deadarka diarduan abotsa naz ni: Laundu egizuez Jaunaren bideak*, Isaias igarleak esan eban (\*). <sup>24</sup> Areik, pariseuak bialdutakoak ziran. <sup>25</sup> Itaun au be egin eutsoen gaiñera: «Zegaitik bateatzen dozu, ba, ez Kristo, ez Elias, Igarle be ez ba'zara?» <sup>26</sup> «Nik uraz bateatzen dot –erantzun eutsen Yon'ek–; baiña zeuon artean dago zuek ezagutzen ez dozuen norbait; <sup>27</sup> Orixe da nire atzetik datorrena, eta orren oiñetakoen lokarria askatzeko be ez naz ni nor». <sup>28</sup> Betania'n jazo zan au, Jordan'ez bestekaldean, Yon bateatzen ziarduan tokian.

<sup>29</sup> Biaramonean, Yon'ek Jesus beragana etorten ikusten dau, eta ba-diño: «Orra or Jaungoikoaren Bildotsa, munduaren pekatua kentzen dauana. <sup>30</sup> Orrexegaitik esan neban nik au: *Gizon bat dator nire atzean, neure aurrean jarri dana, ni baiño len zan-eta*. <sup>31</sup> Nik neuk ez neban ezagutzen; alan be, uraz bateatzera etorri naz ni, Bera Israel'i agertu dakion». <sup>32</sup> Eta Yon'ek autor au egin eban. esanez: «Espiritu (*Santua*) ikusi dot uso-antzean zerutik jatsiten, eta orretxen gaiñean gelditzen. <sup>33</sup> Nik neuk ez neban ezagutzen; baiña, uraz bateatzera bialdu nanduanak, auxe esan eustan: 'Norbaitegana Espiritu (*Santua*) jatsiten eta aren gaiñean gelditzen ikusten ba'dozu, axe da Espiritu Santuaz bateatzen dauana'. <sup>34</sup> Eta neuk ikusi dot, eta autortu be bai, orixe dala Jaungoikoaren Aukeratu» (\*).

**Lenengo ikasleak.**

<sup>35</sup> Biaramonean, antxe egoan barriro Yon bere ikasle-tariko bigaz. <sup>36</sup> Jesus'i begira-begira jarririk – ibiltzen yoian-

-eta -, ba-diño: «Orra or Jaungoikoaren Bildotsa». <sup>37</sup> Ikasle biak entzun eben Yon olan berba egiten, eta Jesus'i jarraitu eutsoen. <sup>38</sup> Jesus'ek atzerantz egiten dau; eta, jarraitu egiten dautsoela ikustean, auxe dirautse: «Zer nai dozue?». Rabbí -edo bardin dana, «Irakasle» -, nun bizi zara?, erantzun eutsoen areik. <sup>39</sup> Jesus'ek auxe esan eutsen: «Etorri zaitetze ta ikusiko dozue». Joan ziran, ba, nun bizi zan ikusi eben eta Beragaz gelditu ziran egun aretan. Amargarren ordua-edo zan (\*).

<sup>40</sup> Yon'en herbak entzun eta Jesus'i jarraitu eutsoen bietariko bat, Ander zan, Simon Pedro'ren anaia. <sup>41</sup> Onek goizaldean (\*). Simon bere anaia aurkitu ta ba-dirautso: «Mesias aurkitu dogu» -edo bardin dana, «Kristo'a». <sup>42</sup> Eta Jesus'egana eroan eban. Jesus'ek, ari begira-begira jarririk, auxe esan eutsan: «Simon zara zu, Yon'en semea; Kepa izango da zure izena», -edo bardin dana, «Arria».

<sup>43</sup> Biamonean, Galilea'ra joan nai izan eban. Felipe aurkitu ta ba-dirautso: «Jarraitu egidazu». <sup>44</sup> Felipe au, Betsaida'koa zan, Ander eta Pedro'ren urikoa. <sup>45</sup> Felipe'k Natanael aurkitzen dau (\*), eta ba-dirautso: «Moises'ek Legean idatzi ebana, baita igarleak be, axe bera aurkitu dogu: Jesus, Jose'ren semea, Nazaretarra». <sup>46</sup> Natanael'ek auxe erantzun eutsan: «Nazaret'etik zer onik urten daiteke, gero?». «Etorri ta ikusiko dozu», dirautso Felipe'k.

<sup>47</sup> Natanael Jesus'ek beragana etorten ikusi ta auxe esan eban aretzaz (\*): «Orra or Israeldar jator bat; ez dago orregan maltzurkeririk». <sup>48</sup> Natanael'ek ba-dirautso: «Non-dik ezagutzen nozu, ba?». Jesus'ek auxe erantzun eutsan: «Felipe'k zuri dei egin orduko, zu pikondo-pean zengozala, ikusi zaitut». «Rabbí» (*Irakasle*) -erantzun eutsan Natanael'ek -, Jaungoikoaren Semea zara zu, Israe'l'go Erregea zara zu». <sup>50</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsan: «Pikondo-pean ikusi zendudazala esan dautsudalako sinisten dozu? Aundiagoak ikusi bear dozuz». <sup>51</sup> Eta auxe esan eutsan gaiñera: «Benetan dirautsut: zerua

ikusiko dozue zabalik, baita aingeruak be Gizasemearen gaiñera igoten eta jatsiten».

## II

**Kana'ko eztegua.**

<sup>1</sup> Iru egun geroago, Galilea'ko Kana'n eztegu bat ospatzen zan, eta antxe egoan Jesus'en ama. <sup>2</sup> Baita Jesus be ezteguna deitua izan zan, bere ikasleakaz batera. <sup>3</sup> Eta ardaoak uts egin ebala-ta, Jesus'i bere amak auxe esan eutsan: «Ardaorik ez dauke». <sup>4</sup> «Andra -erantzuten dautso Jesus'ek -, zuri ta niri zer? (\*). Ez da oraindiño nire ordua eldu». <sup>5</sup> Jesus'en amak mai-morroiai auxe dirautse: «Egizue esan dagitzuena».

<sup>6</sup> Ba-egozan an arrizko sei kantxin (*marmita*) judarren garbiketarako ipiñita, bakotxak bi edo iru suil\* artzen ebazala. <sup>7</sup> Jesus'ek ba-dirautse: «Ontziok urez bete egizuez». Eta goragiño bete ebezan. <sup>8</sup> «Orain atara -dirautse - ta eroan egiozue mai-zaiñari». Areik eroan egin eutsoen. <sup>9</sup> Mai-zaiñak ardaoa biurtu zan ura miaztu (*artu*) ebanean, ez ekian nungoa zan-eta -bai, orraitño, mai-morroiak, ura atara ebenok -, senargeiari dei egin <sup>10</sup> eta auxe dirautso: «Ardao ona, guztiak asierarako ataraten dabe; eta gero, mailagunak ondo edanda dagozanean, txarragoa. Zuk, barriz, ardao ona oraintxe arte gorde dozu».

<sup>11</sup> Olantxe emon eutsen asiera mirariak Jesus'ek, Galilea'ko Kana'n. Eta bere aintza agertu eban; eta Beragan sinistu eben bere ikasleak. <sup>12</sup> Gero, Jesus Kafarnaum'era jatsi zan bere ama ta anaiakaz (*senideakaz*) (\*); baiña ez ziran gelditu an egun askorako.

**Jaunaren Etxearen garbikundea.**

(Mt. 21, 12-13; Mk. 11, 11, 15-17; Lk. 19, 45-46).

<sup>13</sup> Judarren Pazko-eguna laster zan, eta Jesus Jerusa-

\* Suil: metreta (ura artzeko arrizko ontzia).



len'era igo zan. <sup>14</sup> Eta Jaunaren Etxean idi. ardi ta uso-saltzailleak eta diru-aldatzailleak aurkitu ebazan euren jarlekuetan. <sup>15</sup> Lokarriaz zardai\* bat egiñik, guztiak Jaunaren Etxetik kanpora jaurti ebazan, ardi ta idiakaz; diru-aldatzailleen txanponak lurrean zear isuri ta maiak itxuli egin ebazan; <sup>16</sup> eta usoak saltzen ziarduenai auxe esan eutsen: «Kendu au emendik. Ez egin nire Aitaren Etxea salerosle-etxe». <sup>17</sup> Aren ikasleak, idatzita egoan au ekarri eben gogora: *Zure etxeaganako zaletasunak iruntsi egingo nau* (\*).

<sup>18</sup> Orduan, judarrak erantzun eta auxe esan eutsoen: «Ze ezaugarri erakusten daukuzu, ba, olan egiteko?». <sup>17</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsen: «Lurrera eratsi\* egizue Toki Santu au, eta iru egunean jasoko dot». <sup>20</sup> «Berrogeta sei urte igaro dira Etxe Santu au egiten –erantzun eutsoen judarrak–, eta zuk iru egunean jaso?». <sup>21</sup> Jesus'ek, barriz, bere gorputzaren Etxe santuatuz egiten eban berba. <sup>22</sup> Illen artetik biztu zanean ekarri eben gogora Aren ikasleak, orixe zala Jesus'ek esan nai ebana, baita sinistu be Liburu Santuetakoa ta Jesus'ek esandakoa.

### Jerusalen'en.

<sup>23</sup> Pazko-egunean Jerusalem'en egoan artean, Jesus'en izena askok sinistu eben, egiten ebazan mirariak ikustean. <sup>24</sup> Baiña, Jesus bera ez yaken bete-beteen zabaltzen, guzti-guztiak ezagutzen ebazan-eta; <sup>25</sup> ez eban, gaiñera, iñoren bearrrik gizonen barri jakiteko, berak ezagutzen eban gizonagan dagoana-ta.

### III

#### Nikodemo'gaz alkar-ikustea.

<sup>1</sup> Pariseuen artean, Nikodemo izeneko gizon bat zan, judarren nagusietariko. <sup>2</sup> Gabez Jesus'egana joan zan eta

\* Zardai: látigo.

\* Eratsi: derribar, destruir.

auxe esan eutsan: «Rabbi (*Irakasle*), ba-dakigu Jaungoikoagandik zatozana irakasle lez: zuk egiten dozuzan mirariok, iñok ezin egin daikez-ta, Jaungoikoa beragaz egon ezik. <sup>3</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsan: «Bene-benetan dirautsut: goitik jaioten ez danak, ezin ikusi daike Jaungoikoaren Erreiñua». <sup>4</sup> «Zelan jaiio daiteke, ba –dirautso Nikodemo'k–, aguratu ezker? Sartu ete-daiteke, ba, iñor barriri amaren sabelean eta atzera jaiio, ala?». <sup>5</sup> «Bene-benetan dirautsut –erantzun eban Jesus'ek–: uraz eta Espirituaz jaioten ez dana, ezin sartu daiteke Jaungoikoaren Erreiñuan (\*). <sup>6</sup> Aragitik jaiotakoa, aragi da; Espirituagandik\* jaiotakoa, espiritu da. <sup>7</sup> Ez zaitetz ikaratu goitik jaiio bear dozuela esan dautsudala-ta. Nai dauan tokian joten dau aizeak, entzun be bai egiten dozu aren otsa; baiña, ez dakizu nundik datorren, ezta nora doan be. Alantxe da Espirituagandik jaioten dan guztia».

<sup>9</sup> Nikodemo'k auxe erantzun eban: «Ori, zelan izan daiteke?». <sup>10</sup> «Irakasle zara Israel'en –erantzun eutsan Jesus'ek–, eta ez dakizu ori? <sup>11</sup> Bene-benetan dirautsut: ba-dakiguna diñogu guk eta ikusi doguna autortzen dogu; zuek, ostera, ez dozue gure autorra ontzat artzen. <sup>12</sup> Lurreko gaiak esatean, zuek sinisten ez ba'daustazue, zelan sinistuko daustazue, ba, zeruko gaiak esaten ba'daustuedaz? <sup>13</sup> Zerura ez da iñor igo, zerutik jatsi dana izan ezik, zeruan dagoan Gizasemea izan ezik. <sup>14</sup> Eta Moises'ek basamortuan sugea gora jaso ebanez, bearrezkoa da Gizasemea be (*gurutzean*) jasoa izatea, <sup>15</sup> sinistu dagian edonok betiko bizitza izan dagian (\*) <sup>16</sup> Izan be, Jaungoikoak mundua, bere Seme bakarra emoteraiño maite izan du: Beragan sinistu dagian iñortxo be galdu ez daiten, betiko bizitza izan dagian baiño (\*). <sup>17</sup> Izan be, Jaungoikoak bere Semea mundura ez dau mundua epaitzeko bialdu, beronen bidez mundua zeruratu (*salbatu*) daiten baiño. <sup>18</sup> Beronegan sinisten dauana, ez da galtzen; sinisten ez daua-

\* Espirituagandik: Espiritu Santuagandik.

na, ostera, galduta dago, Jaungoikoaren Seme bakarraren izena ez dau sinistu-ta. <sup>19</sup> Auzi-gaia, barriz, auxe da: mundura argia etorri zala, eta gizonak, argia baiño illuna maiteago izan ebela,, arein egiñak okerrak ziran-eta. <sup>20</sup> Izan be, gaiztakeria egiten dauan edonok, argiari gorroto dautso ta ez doa argitara, bere egiñak txartzat artuak izan ez daitezana. <sup>21</sup> Egia egiten dauanak, ostera, argitara doa, bere egitadak Jaungoikoak agintzen dauanez egiñak dirala agertu daiten».

#### Yon'en azken-autorra.

<sup>22</sup> Onen ondoren, Jesus bere ikasleakaz Judea'ko lurraldera joan zan; eta antxe egoan arekaz batera, eta bateatu egiten eban. <sup>23</sup> Yon'ek be Aion'en, Salim-ondoan, bateatzen ziarduan, an ura ugari zan-eta; laguntaldea, barriz, etorri ta bateatu egiten zan. <sup>24</sup> Oraindiño Yon ez zan giltzapean sartua izan-eta.

<sup>25</sup> Garbiketa zala-ta (\*), eztabaida bat sortu zan Yon'en ikasleen eta judar baten artean (\*). <sup>26</sup> Yon'egana joan eta auxe esan eutsoen: «Rabbi (*Irakasle*), Jordan'ez bestekaldean zeugaz egoana, aren alde autorra egin zenduana bera, bateatzen diardu, eta guztiak beragana doaz». <sup>27</sup> Yon'ek auxe erantzun eban: «Iñok ezin artu daike ezer beretzat, zerutik emon ez ba'yako (\*). <sup>28</sup> Zeuok zaree nik esan neban onen autorle: 'Ni ez naz Kristo'a, beronen aurretik bialdutakoa baiño'. <sup>29</sup> Emaztegeia daukana, senargeia da; senargeiaren adiskideak, barriz, onen languntzaille ta esnaren zain dagoanak, poz aundia artzen dau senargeiaren abotsaz. Auxe da, ba, nire poza, eta bete-betea da, izan be. <sup>30</sup> Ari, azitea dagokio; niri, barriz, txikitzea\*. <sup>31</sup> Goitik datorrena, guztien gaiñetik dago (\*); lurretikoa dana, lurrekoa da, eta lurrekoatzaz egiten dau berba. <sup>22</sup> Zerutik datorrena, guztien gaiñetik dago: ikusi ta entzun dauana autortzen dau, baiña aren autorra iñok ez dau onartzen.

\* Txikitu: disminuir.

<sup>33</sup> Aren autorra onartzen dauanak, Jaungoikoa egizale dala autortzen dau. <sup>34</sup> Jaungoikoak bialdu dauanak, Jaungoikoaren berbak esaten dauz, Jaungoikoak Espiritua negurri bagarik emoten dautso-ta. <sup>35</sup> Aitak Semea maite dau, eta beronen eskuan itxi dau dana. <sup>36</sup> Semeagan sinisten dauanak, betiko bizitza dauko; Semea ukatzen dauanak, ez dau bizitza ikusiko\*, bestetara baiño: Jaungoikoaren asarrea izango dau bere gaiñean».

#### IV

#### Jesus eta emakume samaritarra.

<sup>1</sup> Jesus'ek Yon'ek baiño ikasle geiago egiten eta bateatzen ebazala entzun eben pariseuak; eta Jesus (\*) bari onen jakitun egin zanean - <sup>2</sup> bateatzaileak, orraitño, ikasleak ziran, ez Jesus bera -, <sup>3</sup> Judea itxi ta Galilea'ra joan zan barriro; <sup>4</sup> Samaria'n zear igaro bear eban. <sup>5</sup> Si-kar deritxon Samaria'ko errira etorri zan, ba, Jakob'ek bere seme Jose'ri emondako solo-ondora. <sup>6</sup> Jakob'en patinña egoan an. Jesus, bidean nekata eta etorrela, patin-ondoan jesarri zan. Seigarren ordua-edo zan (\*). <sup>7</sup> Samaria'ko emakume bat ura ataratera dator. Jesus'ek dirautso: «Ura emon egidazu». <sup>8</sup> Jesus'en ikasleak, jatekoa erostera, urira joan ziran-eta. <sup>9</sup> Emakume samaritarra ba-dirautso: «Zu judarra izanik, zelan eskatzen daustazu edatekorik niri, amaritarra nazan oni?». (Izan be, judarrak ez dabe artu-emonik samaritarraz). <sup>10</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsan: «Jaungoikoaren doia ezagutu ba'zengi, eta «ura emon egidazu» dirautsuna nor dan ba'zeki, zeuk eskatuko zeuskio ari, eta arek ur bizia emongo leuskizu» (\*). <sup>11</sup> «Jauna - dirautso emakumeak -, ezer be ez dozu ura

\* Bizitza edo betiko bizitza ikusiko = izango, lortuko, jadedtsiko. "Bizitza" emen zer zeatza (*concreta*) danez, "bizitarrik" jarrea baiño zuzenago dago, antza.



atarateko, eta patiña sakona da; nundik dozu, ba, ur bi-zi ori? <sup>12</sup> Jakob gure aita baiña aundiagoa ete-zara, ba? Berak emon euskun patin au, eta bertotik edan eben berak eta bere semeak eta bere abereak». <sup>13</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsan: «Ur onetatik edaten dauan edonor, barriri be egarri izango da (\*); <sup>14</sup> baiña, nik emon dagiodan uretatik edan dagiana, ez da egundo egarrituko: nik emon dagiodan ura, ostera, betiko bizitzaraiño txirrista-ka darion ur-iturri izango yako». <sup>15</sup> «Jauna -dirautso emakumeak-, emon egidazu ur orretatik, barriri egarritu ez nadin, eta ur-eske ona etorri bearrik izan ez dagidan». <sup>16</sup> «Zoaz -dirautso Jesus'ek-, dei egiozu zure senarrari ta etorri zaitetz barriri ona». <sup>17</sup> «Ez dot senarrik», erantzun eban emakumeak. «Ondo esan dozu ez dozula senarrik -dirautso Jesus'ek-, <sup>18</sup> bost senar izan dozuz-ta; orain dozuna, barriz, ez da zure senarra; orrc-tan egia esan dozu».

<sup>19</sup> «Jauna -dirautso emakumeak-, ikusten dot igar-le zar(e)ana. <sup>20</sup> Gure gurasoak Jaungoikoa mendi onetan gurtu eben; zuek, ostera, Jerusalem'en gurtu bear dala diñozue» (\*). <sup>21</sup> «Sinistu egidazu, andra -dirautso Jesus'ek-: eldu da sasoi, eta orduan ez dozue Aita gurtuko mendi onetan ez Jerusalem'en. <sup>22</sup> Ezagutzen ez dozuen gurtzen dozue zuek; ezagutzen doguna gurtzen dogu guk, osasuna judarrakandik dator-eta. <sup>23</sup> Baiña eldu da sasoi -eta auxe da, izan be-, eta benetako gurtzailleak Aita gogoz (*espirituz*) eta egiz gurtuko dabe, olakoxe gurtzailleak nai dauz Aitak-eta. <sup>24</sup> Jaungoikoa espirtu da, eta gurtzen dabenak (\*), gogoz eta egiz gurtu bear dabe Jaungoikoa».

<sup>25</sup> Emakumeak dirautso: «Ba-dakit Kristo deritxon Me-sias etorteko dana. Etorri daitenean, berak irakatsiko dauku dana». <sup>26</sup> «Neu naz -dirautso Jesus'ek-, zugaz berbetan diardudan au».

<sup>27</sup> Orduantxe etorri ziran bere ikasleak, eta arrituta

gelditu ziran emakume bategaz berbetan ziardualako. Alan be, ez eutsan ifiok esan: «Zer nai dozu?», edo-ta, «Zer-taz berba egiten dozu orregaz?». <sup>28</sup> Emakumeak, bere edarr(e)a itxirik, urira arin joan eta auxe esan eutsan la-guntaldeari: <sup>29</sup> «Etorri zaitetze, nik egin dodan guztia esan daustan gizon bat ikustera. Kristo'a ez ete-da, gero, be-rau?». <sup>30</sup> Uritik urten eta Jesus'egana yoiazan.

<sup>31</sup> Bitartean, ikasleak Jesus'i esan eta esan egiten eut-soen: «Rabbi (*Irakasle*), jan egizu, ba». <sup>32</sup> Baiña, Jesus'ek auxe esan eutsen: «Zuek ez dakizunen janari bat daukat nik jateko». <sup>33</sup> Ikasleak alkarri auxe zirautsoen: «Jatekoa ekarri ete-dautso, ba, norbaitek?». <sup>34</sup> «Nire jatekoa -di-rautse Jesus'ek-, bialdu naunanaren gogoa egitea ta be-re lana burutzea da. <sup>35</sup> Ez dozue zuek esaten, ba: lau ille-bete barru, gari-ebagitea? Ona emen, ba, nik dirautsue-dan au: jaso begiok eta ikusi soloak, onezkero igiterako (*ebagiteko*) zurituta dagoz-ta. <sup>36</sup> Igitariak egun-saria jasoten dau, eta betiko bizitzarako frutua batzen; orrela, erei-lla ta igitaria bardin poztuten dira. <sup>37</sup> Izan be, onetan egia da esakera au: bat dala erei-lla ta beste bat igitaria. <sup>38</sup> Landu ez dozuen batzera bialdu zaituet. Besteak lana egin, eta arein lana zuei ondo etorri yatzue».

<sup>39</sup> Uri aretako samaritar askok, emakumeari «egin do-dan guztia esan daust» autor au entzunda, Jesus'en sinis-tera jo eben. <sup>40</sup> Samaritarrak Jesus'egana etorri ziranean, eurakaz gelditu zeitela eskatu eutsoen. Eta antxe gelditu zan egun bian. <sup>41</sup> Eta askok geiagok artu eben sinismena Jesus'i entzundakoaz; <sup>42</sup> eta emakumeari auxe zirautsoen: «Onezkero ez dogu zuk esandakoagaitik sinisten: geuk entzun dogu ta ba-dakigu auxe dana benetan munduaren Salbatzaillea-ta».

**Errege-etxeko baten semea osatzen dau.**

<sup>43</sup> Egun biak igarota, andik urten eta Galilea'ra joan zan: <sup>44</sup> igarlea bere errian ez dala onartua izaten esan

eban Jesus'ek berak-eta. <sup>45</sup> Galilea'ra etorri zanean, galilearrak abegi onez artu eben, jai-egunean Jerusalem'en Jesus'ek egin izan eban guztia ikusi izan eben-eta: eurak be jaiegunera joan izan ziran-eta.

<sup>46</sup> Orduan, ura ardao biurtu izan eban Galilea'ko Kana'ra etorri zan barriro. Errege-etxeko bat zan Kafarnaum'en, semea geisorik eukana. <sup>47</sup> Jesus Judea'tik Galilea'ra etorri izan zala jakin ebanean, Beragana joan zan, eta bere semea osatzera jatsi zedilla eskatzen eutsan, ilzorrian egoala-ta. <sup>48</sup> Orduan, Jesus'ek auxe esan eutsan: «Ezaugarriak eta arrigarriak ikusten ez ba'dozuez, ez dozue sinisten (\*). <sup>49</sup> Errege-etxekoak dirautso: «Jatsi zaitetz, Jauna, nire semea il baiño len». <sup>50</sup> «Zoaz - dirautso Jesus'ek -, zure semea bizi da-ta». Gizonak sinistu egin eban Jesus'ek esandakoa, eta etxerako bidea artu eban. <sup>51</sup> Bidean beera yoiala, bere morroiak bidera urten eta bere semea bizi zala esan eutsoen. <sup>52</sup> Orduan, ohera egin eban ordua itandu eutsen arek. «Atzo zazpigarren orduan joan yakon sukarra», esan eutsoen areik (\*). <sup>53</sup> Orduantxe igarri eutsan aitak, ordu aretan bertan esan eutsala Jesus'ek: «Bizi da zure semea»; eta berak eta bere etxeko guztiak sinistu egin eben.

<sup>54</sup> Auxe izan zan Judea'tik Galilea'ra barriro etorri zanean, Jesus'ek egin eban bigarren miraria.

## V

### Bezata'ko urtegiaren elbarri bat osatzen dau.

<sup>1</sup> Orren ondoren, judarren jai bat izan zan, eta Jesus Jerusalem'era igo zan. <sup>2</sup> Ardi-ate-ondoan, eberkeraz Bezata (\*) deritxon urtegi bat dago bost aterpeaz (\*). <sup>3</sup> Aterpe oneitan, geiso, itsu, erren eta elbarri askoak egozan, uraren eragin-aldiaren zain. <sup>4</sup> Izan be, Jaunaren aingeruak, urte-gira noizean-bein jatsirik, urari eragin egiten eutsan, eta

eragindako uretan lenen sartzen zana, edozein gatxez egoana be, osatuta gelditzen zan. <sup>5</sup> Ogeta amazortzi urtean geisorik egoan gizon bat zan an. <sup>6</sup> Jesus'ek, gizon a etzunda ikusirik eta aspaldian antxe egoala jakiñik, ba-dirautso: «Osatu nai dozu?». <sup>7</sup> Geisoak auxe erantzun eutsan: «Jauna, ez dot gizonik, ura eragiten asten danean urtegiaren sartu nagianik; eta ni noan bitartean, besteren bat jatsiten da ni baiño len». <sup>8</sup> «Jagi zaitetz - dirautso Jesus'ek -, artu zure ogetxo ori ta ibili zaitetz». <sup>9</sup> Eta bat-batean, geisoa osatuta gelditu zan, eta bere ogetxoa artu ta ibiltzen asi zan.

Baiña, egun a zapatua zan. <sup>10</sup> Orregaitik, judarrak osatuari auxe zirautsoen: «Zapatua da, eta ez yatzu bidezko ogetxo ori eroatea. <sup>11</sup> Arek auxe erantzun eutsen: «Osatu nauanak esan daust: Artu ogetxo ori ta ibili zaitetz». <sup>12</sup> Areik auxe itandu eutsoen: «Nor da 'artu zure ogetxo ori ta ibili zaitetz' esan dautsun ori?». <sup>13</sup> Baiña, osatuak ez ekian nor zeitekean, toki aretan egoan laguntalde-artetik Jesus ezkutatu egin zan-eta.

<sup>14</sup> Geroago, Jesus'ek gizon a Jaunaren Etxean aurkitu ta ba-dirautso: «Entzun: osatuta zagoz; ez egin pekatu-rik geiago, okerragoren bat jazo ez dakizun». <sup>15</sup> Gizona judarrakana joan zan, bera osatu izan ebana Jesus zala esatera. <sup>16</sup> Zapatuz orrelakoak egiten ebazalako erabilten eben aurrean judarrak Jesus. <sup>17</sup> Baiña, Jesus'ek auxe erantzun eutsen: «Nire Aitak lan egiten diardu beti, eta neuk be lan egiten diardut». <sup>18</sup> Judarrak Jesus'i bizia kentzeko amorratuta ebizan: zapatua austen ebalako bakarrik ez, laita Jaungoikoari bere Aita dei egiten eutsalako be, bere burua Jaungoikoagaz bardinduz.

### Semearen lana.

<sup>19</sup> Beraz, Jesus'ek, itza arturik, auxe zirautsen: «Benebenetan dirautsuet; Semeak, bere buruz, ezin ezer egin daike, bere Aita egiten ikusi ezik (\*); Beronek egiten dau-



ana, orixe berori egiten dau Semeak be. <sup>20</sup> Izan be, maite dau Aitak Semea, eta berak egiten dauan guztia crakusten dautso; oneik baiño egiteko aundiagoak be erakutsiko dautsaz, eta zuek ikaratu egingo zaree. <sup>21</sup> Ain zuzen be, Aitak ildakoak biztu ta arei bizitza emoten dautsenez, Semeak be berak nai dautsenai emoten dautse bizitza (\*). <sup>22</sup> Izan be, Aitak ez dau iñor epaitzen: epaibide guztia, ostera, Semeari emon dautso, <sup>23</sup> Aita goratzen dabenez goratu dagien Semea be. Semea goratzen ez dauanak, bera bialdu dauan Aita be ez dau goratzen. <sup>24</sup> Bene-benetan dirautsuet: nire itza aditu ta ni bialdu nauanagan sinisten dauanak, betiko bizitza dauko, eta alakoa ez da epaiplean jarten: eriotzatik bizitzara aldatu da, ostera. <sup>25</sup> Bene-benetan dirautsuet: eldu da ildakoak (\*) Jaungoikoaren Semearen abotsa entzungo dabeneko ordua -eta oraingoxea da, izan be-, eta abots ori entzun dagienak, bizi izango dira. <sup>26</sup> Izan be, Aitak bizitza beragan daukanez, Semeari be bizitza beragan izatea emon dautso; <sup>27</sup> baita Gizasemea dan ezkerro (\*), epaitzeko eskubidea be emon dautso. <sup>28</sup> Ez ikaratu onetzaz: eldu da illobietan dagozan guztiak Aren abotsa entzungo dabeneko ordua (\*); <sup>29</sup> eta ona egin izan dagien guztiak, bizitzarako biztuko dira; eta gaiztakeria egin izan dægienak, ondapenerako biztuko dira. <sup>30</sup> Ezin ezer egin daiket nire buruz: entzuten dodanez ebazten dot (\*); eta nire epaia zuzena da, ez dot nire naia billatzen-eta, ni bialdu nauanaren naia baiño. <sup>31</sup> Nire buruaren autorpena neuk emon ba'nengi, nire autorrak ez leuke indarrik izango. <sup>32</sup> Beste bat (\*) da nitzaz autor egiten dauana, eta nik ba-dakit nitzaz emoten dauan autorra egiazkoa dana. <sup>33</sup> Zuek Yon'i mandatariak bialdu zeutsezan, eta arek egia- ren autorra emon eban. <sup>34</sup> Nik ez dot, gero, iñungo gizonen autorrik billatzen; au ba'dirautsuet, zeruratu (*salbatu*) zaitezen dirautsuet. <sup>35</sup> Yon, erreten dagoan eta argi egiten dauan argi-ontzia zan, eta zuek aren argiaz apu

baten poza artu nai izan zenduen. <sup>36</sup> Baiña, Yon'en autorra baiño ohea daukat nik; izan be, Aitak burutzeko emon daustazan egitekoak, neuk egiten dodazan lanok, eurok egiten dabe autor nitzaz, ni Aitak bialdu nauala. <sup>37</sup> Eta ni bialdu nauan Aita da nitzaz autor egiten dauana. Aren abotsik zuek ez dozue iñoiz be entzun, ezta arei arpegirik ikusi be, <sup>38</sup> eta bizi be ez da bizi Aren itza zuekan, Arek bialdu dauanari ez dautsazue sinisten-eta. <sup>39</sup> Aztertu egizuez Liburu Santuak (\*), betiko bizitza rexetan dozuela uste dozuen ezkerro: eurok dira nitzaz autor egiten dabena; <sup>40</sup> eta zuek ez dozue nigana etorri nai bizitza izateko. <sup>41</sup> Nik ez dot aintzarik artzen gizonakandik. <sup>42</sup> Ba-dakit nik Jaungoikoaren maitasunik ez dauka- zuena zuekan.

(Mt. 8, 5-13; Lk. 7, 1-10).

<sup>43</sup> Neure Aitaren izenean etorri naz ni, eta ez nozue onartzen; beste norbait bere buruaren izenean ba'dator, ori bai, ori onartu egingo dozue. <sup>44</sup> Zelan sinistu daik- zue zuek, alkarregandik gorapena artzen dozuenok, eta Jaungoikoagandik bakarrik (\*) datorren aintza billatzen ez dozuenok? (\*). <sup>45</sup> Ez uste izan, Aitaren aurrean neuk sal- latuko zaituedanik. Moises'egan jarri dozue zuen itxaro- pena eta Moises bera izango da zuen salatzaile. <sup>46</sup> Izan be, zuek Moises'i sinistu ba'zengioe, neuri be sinistuko zeuskide, neutzaz idatzi eban arek-eta. <sup>47</sup> Baiña, aren ida- tziai sinisterik emoten ez ba'dautsazue, zelan emongo dau- tsazue, ba, nire berbai? (\*).

## VI

**Ogien ugaritzea.** (Mt. 14, 13-21; Mk. 6, 32-44; Lk. 9, 10-17).

<sup>1</sup> Orren ondoren, Jesus Galilea'ko edo Tiberiades'ko itxasoaz bestekaldera joan zan; <sup>2</sup> eta laguntalde aundiak jarraitzen eutsan, geisoakan ebazan mirariak ikusten ebe-

zan-eta. <sup>3</sup> Jesus mendira igo ta antxe jesarri zan bere ikasleakaz batera. <sup>4</sup> Laster zan Pazkoa, judarren jai-eguna.

<sup>5</sup> Jesus'ek begiak jasotean eta laguntalde aundia beragana etorrela ikustean, Felipe'ri dirautso: «Zelan erosiko dogu ogia, oneik jan dagien?». <sup>6</sup> Ori, zirikatzeiko zirautsan, ogia bear ebana ba-ekian berak-eta. <sup>7</sup> Felipe'k auxe erantzun eutsan: «Berreun denarioren ogia ez da naiko bakotxak apur bat artu dagian». <sup>8</sup> Bere ikasletariko batek, Ander'ek, Simon Pedro'ren anaiak, ba-dirautso: <sup>9</sup> «Bost garagar-ogi ta arrain bi daukazan mutil bat ba-dago emen; baiña, oneik zer dira onenbestentzat?». <sup>10</sup> «Jesarri daitela agindu egiozu laguntaldeari», esan eban Jesus'ek. Toki aretan bedarra ugari zan. Jesarri ziran, ba, bost millaren bat gizon. <sup>11</sup> Orduan, Jesus'ek ogiak artu ta, eskerrak emonda gero, jesarrita egozanean artean banandu ebazan, eta bardin-bardin arraiñak be, bakotxak nai eban beste. <sup>12</sup> Bete ziranean, bere ikasleai auxe dirautse: «Batu egizue gelditu diran zatiak, ezer galdu ez daiten». <sup>13</sup> Batu ebezan, ba; eta jan izan ebenai gelditu yakezan bost garagar-ogiren zatiakaz, amabi otzara bete ebezan. <sup>14</sup> Jesus'ek egin izan eban miraria laguntaldeak ikustean, ba-iñoan: «Auxe da, benetan, mundura etorteko dan igarlea». <sup>15</sup> Jesus'ek, bera errege egiteko, berari indarrez oratzera etorri nai ebela konturaturik, barriro be mendira egin eban iges (\*) bakar-bakarrik.

**Jesus, ur-gaiñean ibiltan.** (Mt. 14, 22-33; Mk. 6, 45-52).

<sup>16</sup> Illunabarrean, Jesus'en ikasleak itxasertzera jatsi ziran; <sup>17</sup> eta txalupara igorik, itxasoaz bestekaldera yoiazan, Kafarnaum'era. Orduko illunduta egoan, eta Jesus arekana etorri bagarik egoan. <sup>18</sup> Aizeak indar aundia artu eban eta itxaso arrotzen asi zan. <sup>19</sup> Ogetabost edo ogetamarren bat estadio arraunketan egin ebenean, Jesus ikusten dabe itxas-gaiñean ibiltan eta txalupara urrerrazten, eta bildurtu egin ziran. <sup>20</sup> Baiña, Jesus'ek auxe esan

eutsen: «Neu naz; ez bildurtu». <sup>21</sup> Txalupan sartu nai izan eben, eta berealaxe eldu zan txalup(e)a curak yoiazan tokira.

#### **Kafarnaum'go sinagogan itzaldia.**

<sup>22</sup> Biaramonean, itxasoaz bestekaldean gelditu zan laguntaldeak, an txalupa bat baiño ez zala egon ikusi eban, eta Jesus ez zala bere ikasleakaz txalupan sartu, ikasleak soillik joan zirala baiño. <sup>23</sup> Txalupa batzuk, barriz, Tiberiades'tik eldu ziran, ogia jan izan eben toki-ondora (\*). <sup>24</sup> Jesus an ez egoala, ezta aren ikasleak be ez egozala ikusi ebanean laguntaldeak, txalupetara igo ta Kafarnaum'era joan ziran, Jesus'en billa. <sup>25</sup> Itxasorean bestekaldean aurkitu ebenean, auxe esan eutsoen: «Rabbi (*Ira-kasle*), noiz etorri zara, ba, ona?». <sup>26</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsen: «Bene-benetan dirautsuet; ogiak jan eta bete zintzazalako zabize nire billa; ez, ostera, mirariak ikusi dozuezalako (\*). <sup>27</sup> Lan egizue, ez alperrik galtzen dan janariagaitik, betiko bizitzaraiño irauten dauan janariagaitik baiño: auxe emoten dautsue Gizasemeak (\*), auxe da Aita Jaungoikoak bere ezaugarriaz izentatu dauana-ta» (\*).

<sup>28</sup> Areik auxe esan eutsoen: «Zer egin bear dogu, ba, Jaungoikoaren lanak egiteko?». <sup>29</sup> «Auxe da Jaungoikoaren egitekoa – erantzun eutsen Jesus'ek –: Berak bialdu dauanagan sinistu dagizuela». <sup>30</sup> Orduan, areik auxe esan eutsoen: «Ze ezaugarri egingo dozu, ba, ikusi ta zeugan sinistu dagigun? Ze eginbear-asmu dozu, ba? <sup>31</sup> Gure gurasoak basamortuan mana jan eben, idatzita dagoanez: *Zerutiko ogia emon eutsen jaten*» (\*). <sup>32</sup> «Bene-benetan dirautsuet – erantzun eutsen Jesus'ek –: zerutiko ogia ez eutsuen Moises'ek emon; neure Aita da zerutiko benetako ogia emoten dautsuena: <sup>33</sup> izan be, zerutik jatsiten dana ta munduari bizia emoten dautsana da Jaungoikoaren ogia».

<sup>34</sup> Orduan, auxe esan eutsoen: «Jauna, emon egizuzu



beti ogi ori». <sup>35</sup> Jesus'ek dirautse: «Neu naz bizitza-ogia. Nigana etorri daitena, ez da gose izango; eta nigan sinistu dagiana, ez da egundo egarri izango. <sup>36</sup> Baiña, esan dautsuet: ikusi, bai, egin nozue, eta ez dozue sinisten. <sup>37</sup> Aitak emoten daustan edonor, neugana etorriko da: eta nigana etorri daitena (\*), ez dot nik kanpora jaurtiko: <sup>38</sup> ez naz zerutik neure gogoa egiteko jatsi-ta, bialdu nauanarena egiteko baiño. <sup>39</sup> Eta auxe da bialdu nauanaren gogoa: emon daustan guztitik, nik ezertxo be ez dagidala galdu, azken-egunean biztu dagidala baiño. <sup>40</sup> Nire Aitaren gogoa auxe da-ta: Semea ikusi ta beronegan sinistu dagianak, betiko bizitza izan dagiala eta neuk biztu dagidala azken-egunean».

<sup>41</sup> Judarrak, barriz, Aretzaz mormoxetan ziarduen, «neu naz zerutik jatsitako ogia» esan ebalako. <sup>42</sup> Eta auxe iñoen: «Ez da, ba, au Jesus, Jose'ren semea, eta ez doguz, ba, onen aita ta ama geuk ezagutzen? Zelan esan daike, ba, orain: Zerutik jatsi naz?» <sup>43</sup> «Ez egin mormoxetan alkarregaz -erantzuen eutsen Jesus'ek-. <sup>44</sup> Ezin etorri daiteke iñor nigana, bialdu nauan Aitak erakarten ez ba'dau; eta neuk biztuko dot azken-egunean. <sup>45</sup> Idatzita dago Igarleetan: *Jaungoikoak irakatsiak izango dira guzti-guztiak* (\*). Aitari entzuten eta aren irakaspena irakasten dauan edonor, neugana dator. <sup>46</sup> Aita ez dau iñok ikusi izan, ez; Jaungoikoagandik etorri danak bakarrik ikusi dau Aita. <sup>47</sup> Bene-benetan dirautsuet: sinisten dauanak, betiko bizitza dauko. <sup>48</sup> Neu naz bizitza-egia. <sup>49</sup> Zuen gurasoak basamortuan mana jan eben eta il egin ziran: <sup>50</sup> auxe da zerutik jatsiten dan ogia, jan dagien eta il ez daitezkan. <sup>51</sup> Neu naz ogi bizia, zerutik jatsia. Ogi onetatik jaten dauana, betiko bizi izango da; eta nik emongo dautsadan ogia, munduaren bizirako neure aragia da» (\*).

<sup>52</sup> Judarrak alkarregaz eztabaidan ziarduen, eta auxe iñoen: «Zelan emon daikegu onek bere aragia jateko?»

<sup>53</sup> »Bene-benetan dirautsuet -esan eutsen Jesus'ek- : G: zasemearan aragia jaten eta beronen odola edaten ez ba'dozue, ez dozue bizitzarik zuekan. <sup>54</sup> Nire aragia jaten eta nire odola edaten dauanak, betiko bizitza dauko, eta neuk biztuko dot alakoa azken-egunean. <sup>55</sup> Izan be, nire aragia benetako janari da, eta nire odola benetako edari. <sup>56</sup> Nire aragia jaten eta nire odola edaten dauana, neugan dago, eta ni beragan (\*). <sup>57</sup> Bizi dan Aitak bialdu nenduan ez eta ni Aitagaitik bizi nazanez, ni jan nagiana be neugandik bizi izango da. <sup>58</sup> Auxe da zerutik jatsitako ogia; ez, gero, gure gurasoak jan eben lakoa (\*); areik il egin ziran. Ogi au jan dagiana, betiko bizi izango da».

<sup>59</sup> Ori, Kafarnaum'en esan eban, sinagogan irakasten ziarduala. <sup>60</sup> Bere ikasletariko askok, ori entzutean, auxe esan eben: «Gogorra da berbaera au. Nok entzun daike olakorik?» <sup>61</sup> Jesus'ek, bere ikasleak onetzaz mormoxetan ziarduena bere barruan jakiñik, auxe esan eutsen: «Gaizpidea emoten dautsue onek?» <sup>62</sup> Eta Gizasemea len egoar: tokira egoten ikusi dagizuenean?... <sup>63</sup> Espiritua da bizitza emoten dauana; aragia ez da ezetako be. Nik esan dautsuedazan berbok, espiritu ta bizitza dira.

<sup>64</sup> Baiña, ba-dira zuen artean sinisten ez dabon batzuk». Jakin be, ba-ekian Jesus'ek asierarik, sinisten ez ebenak nortzuk ziran, eta bera salduko ebana nor zan. <sup>65</sup> Eta auxe esan eutsen gaiñera: «Orrexegaitik esan dautsuet, ezin etorri daitekela iñor nigana, grazi ori (*neure*) Aitak emoten ez ba'dautso». <sup>66</sup> Arrezkero, bere ikasletariko askok atzeruntz egin eben, eta gero ez ebizan Jesus'egaz.

#### **Pedro'ren autorra.**

<sup>67</sup> Orduan, Jesus'ek Amabiai auxe esan eutsen: «Zuek be alde egin nai dozue?» <sup>68</sup> Simon Pedro'k auxe erantzun eutsan: «Jauna, nogana joango gara? Zuk, betiko bi-

\* Beste era batera: "Okerbidera erooten zaitue onek?"

zitzako berbak dozuz,<sup>69</sup> eta guk sinistu egiten dogu ta ba-dakigu zu Jaungoikoaren Santua zar(e)ana» (\*).<sup>70</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsan: «Ez zaituet, ba, nik Ama-biok aukeratu? Alan be, zuetariko bat deabru bat da». <sup>71</sup> Judas, Simon Iskariote'ren semeari buruz iñoan ori, axe zan Bera salduko ebana-ta, Amabietariko bat.

## VII

**Jesus Jerusalem'era doa, Txabola-egunera.**

<sup>1</sup> Orren ondoren, Jesus Galilea'n zear ebillen, eta ezin zetekean Judea'n zear ibili (\*), Judarrak bera ilteko asmotan ziarduen-eta.

<sup>2</sup> Laster zan judarren Txabola-jaiia (\*).<sup>3</sup> Eta bere anaiak (*senideak*) ba-dirautsoe: «Urten zaitetz emendik eta zoaz Judea'ra, zuk egiten dozuzan lanok zeure ikasleak be (\*) ikusi dagiezan: <sup>4</sup> ezkutuan ez dau iñok ezer egiten, ezagutua izatea nai dauanean-eta. Olakoak egiten dozuzan ezkerro, agertu zakioz munduari». <sup>5</sup> Aren anaiak (*senideak*) eurak be ez eben Aregan sinisten. <sup>6</sup> Orduan, Jesus'ek auxe esan eutsen: «Nire sasoi (\*) ez da oraindiño eldu; zuen sasoi, oster, beti dago elduta. <sup>7</sup> Munduak ezin izan daiketuzue gorrotorik; niri bai, niri gorroto daust: bere egiñak gaiztoak dirala autortzen dautsadalako. <sup>8</sup> Igo zeuok jai orretara; ni ez naz igoko (\*) jai orretara, nire sasoi ez da oraindiño bete-ta».

<sup>9</sup> Ori esanda, bera Galilea'n gelditu zan. <sup>10</sup> Baiña, bere anaiak (*senideak*) jai-egunera igo ziranean, bera be igo egin zan, ez agirian, gero, ezkutuan baiño. <sup>11</sup> Judarrak Jesus'en billa ebizan jai-bitartean, eta auxe iñoen: «Nun egongo da ori?» <sup>12</sup> Laguntaldeak Aretzaz zurrumurrua erabillan. «Zintzoa da», iñoen batzuek. Beste batzuek, barriz: «Ez, erria naasten diardu». <sup>13</sup> Alan be, judarrakanako bildurrez, iñok ez eban Aretzaz barbarik agirian egiten (\*).

<sup>14</sup> Jaiaren erdialdean, Jesus Jaunaren Etxera igo ta irakasten asi zan. <sup>15</sup> Judarrak, arrituta, auxe iñoen: «Zelan ete-dakiz onek Liburu Santuak, iñun ikasi bagarik?» <sup>16</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsen: «Nire irakatsia ez da nire, ni bialdu nauanarena baiño. <sup>17</sup> Aren gogoia egin nai dauanak, ikusiko dau nire irakaspena Jaungoikoagandik dan, ala neure buruz diñodan. <sup>18</sup> Bere buruz berba egiten dauanak, bere buruaren gorapena billatzen dau; bialdu dauanaren aintza billatzen dauana, barriz, egizale da: ez dago azpikeririk aregan. <sup>19</sup> Ez da, ba, Moises Legea emon eutsuena? Alan be, zuetariko batek be ez dau Legea beteten.

Zegatik il nai nozue?» <sup>20</sup> Laguntaldeak auxe erantzun eban: «Deabrua daukazu zuk. Nok il nai zaitu zu?» <sup>21</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsen: «Egintza bat bakarrrik egin dot (\*), eta guztiok ikaratu egiten zaree. <sup>22</sup> Orregaitik, Moises'ek erdaintzua\* emon eutsuen – ez Moises'egandik datorrelako, erri-gurasoakandik\* baiño – eta zuek zapatuz erdaintzen dozue edonor. <sup>23</sup> Moises'en Legea ez austearren, gizonaren erdaintzua zapatuz egin, eta zapatuz gizon bat guztiz osatu dodalako asarratu egiten zaree nire kontra? <sup>24</sup> Ez ebatzi azaletik. Zuzenbidez ebatzi egizue» (\*).

**Errikoen artean eztabaidak.**

<sup>25</sup> Jerusalem'go batzuek auxe iñoen: «Au ez da, ba, il nai ebena? <sup>26</sup> Begira zelan egiten dauan berba zabal-zabal eta ez dautsoe ezer esaten. Gure agintariak (\*) eza-gutu ete-dabe benetan, ba, au Kristo'a dana? <sup>27</sup> Au, oster, ba-dakigu nungoa dan; Kristo'a etorri daitenean, barriz, ez dau iñok jakingo nungoa dan» (\*). <sup>28</sup> Jesus'ek Jaunaren Etxean irakasten eban artean, auxe esan eban eadadarka: «Ni ezagutzen nozue ta ba-dakizue nungoa na-

\* Erdaintzua: circuncisión.

\* Erri-gurasoak: patriarcas.



zan (\*). Baiña, ni ez naz neure buruz etorri; eta bialdu nauana, egizale da; baiña, zuek ez dozue A (*Jaungoiko Aita*) ezagutzen. <sup>29</sup> Nik, barriz, bai, ezagutzen dot, bera-gandik nator (\*) eta bera da bialdu nauana-ta». <sup>30</sup> Orduan, Jesus'i eltzea nai izan eben, baiña iñok ez eutsan eskurik gainean ezarri, Aren sasoia ez zan oraindiño eldu-ta.

### Jesus'i eltzeko asmotan.

<sup>31</sup> Eta laguntaldearen arteko askok sinistu eben Jesus'eggan, eta auxe iñoen: «Kristo'a etorri daitenean, onek egiten dauzan baiño ezaugarri geiago egingo ote-dauz?» <sup>32</sup> Pariseuak jakitun egin ziran laguntaldeak Jesus'i buruz berba egiten ebalá, eta (\*) zaintzailleak bialdu ebezan Jesus'i eltzeko. <sup>33</sup> Orduan, Jesus'ek auxe esan eutsen: «Aldi gutxirako egongo naz oraindiño zuekaz, bialdu nauanagana noa-ta (\*). <sup>34</sup> Neure billa ibiliko zaree, eta ez nozue aurkituko. Ni egon naiten tokira, zuek ezin etorri zaitekeze». <sup>35</sup> Judarrak alkarri auxe zirautsoen: «Nora joango ete-da, ba, au, guk ezin aurkitu al izateko? Gerkarren artean zabaldua dagozanen artera joango ete-da, ba, gerkarrai irakastera? <sup>36</sup> Zer da esan dauan ori: 'Neure billa ibiliko zaree, eta ez nozue aurkituko?', eta, 'ni egon naiten tokira, zuek ezin etorri zaitekeze'?».

### Ur bizia agintzen dau.

<sup>37</sup> Azkenengo jaiegunean, egunik aundienean, Jesus'ek auxe esan eban deadarka, zutik: «Norbait egarri ba'da, etorri daitela nigana, eta edan dagiala <sup>38</sup> neugan sinistu dagianak», Liburu Santuak diñoanez: *Ur bizizko erreka jariongo yakoz bere sabeletik* (\*). <sup>39</sup> Beragan sinistu egienak artu bear eben Espirituagaitik esan eban ori (\*). Ain zuzen be, ez zan artetan\* Espiritua emon, Jesus artetan ez zan goratua izan-eta.

\* Artetan: todavía, aún.

### Jesus dala-ta, laguntalde-arteko eztabaidak.

<sup>40</sup> Laguntaldeko askok, berbok entzun izan eutsoezan-eta, auxe iñoen: «Igarlea da au, benetan». <sup>41</sup> «Kristo'a da au», iñoen beste batzuek. Beste batzuek, barriz, auxe iñoen: «Galilea'tik etortekoa ete-da, ba, Kristo'a? <sup>42</sup> Liburu Santuak ez diño, ba, Dabid'en jatorritik eta 'Belen'go erritik' etorriko dala Kristo'a?» (\*). <sup>43</sup> Beraz, Jesus zala-ta, laguntaldean eztabaidak sortu ziran. <sup>44</sup> Areitariko batzuek Jesus'i oratzea nai eben, baiña iñok ez eutsan eskurik gainean ezarri.

<sup>45</sup> Zaintzailleak, abadeburu ta pariseuakana biurtu ziran. Oneik auxe esan eutseen: «Zegaitik ez dozue ekarri?» <sup>46</sup> Zaintzailleak auxe erantzun eben: «Gizon orrek lez ez dau egundo gizonek berba egin». <sup>47</sup> Pariseuak auxe erantzun eutseen: «Zer, zorabiotu egin zaitue zuok be, ala? <sup>48</sup> Agintari edo pariseo batek be sinistu dau orregan, ala? <sup>49</sup> Legea ezagutzen ez daben laguntaldekoak, barriz, mardarikatu batzuk dira». <sup>50</sup> Areitariko batek, Nikodemo'k, bein Jesus'egana etorri izan zanak, ba-dirautse: <sup>51</sup> «Gizonik epaitzen ete-dau, gero, gure Legeak, berari entzun bagarik eta zer egiten dauan jakin bagarik?» <sup>52</sup> Areik auxe erantzun eutsoen: «Zu be Galilearra zara, ala? Aztertu (*Liburu Santuak*) eta ikusiko dozu Galilea'tik ez dana igarlerik sortu» (\*). <sup>53</sup> Eta bakotxa norberaren etxera biurtu zan.

## VIII

### Emazte ezkontza-nastaillea.

<sup>1</sup> Jesus Oriomendi'ra joan zan. <sup>2</sup> Baiña goizean-goiz, Jaunaren Etxean aurkeztu zan barriro, eta erri guztiak beragana joten eban. Orduan, jesarri ta irakasten asi yaken. <sup>3</sup> Idazlari ta pariseuak ezkontza austen artutako emakume bat Beragana eroan, erdian jarrazo <sup>4</sup> ta auxe di-

rautsoe: «Irakasle, emakume au ezkontza urratzen aurkitu dogu agiri-agiritan. <sup>5</sup> Onelako emakumeak arrika ilteko agindu euskun Legean Moises'ek. Zer diñozu zuk?» <sup>6</sup> Ori, zirikatzeke zirautsoen, zerbaiten salatu al izateko. Baiña Jesus'ek, makurturik, atzamarraz lurrean idazten asi zan. <sup>7</sup> Baiña, areik itaunka ekin eutsoen-eta, zutundu ta auxe esan eutsen: «Zuen artean pekatu bagarik egon daitenak, jaurti dagiola lenengo arria». <sup>8</sup> Eta barrero makurturik, lurrean idazten ziarduan. <sup>9</sup> Berbok entzutean, banaka-banaka alde egiñez yoiazan, zaarrenetatik asita; eta Jesus bakar-bakarrik gelditu zan, emakumea aurrean egoala. <sup>10</sup> Jesus'ek, zutundurik, auxe esan eutsen: «Andra, nun dagoz, ba? Ez zaitu iñok be galdu?» <sup>11</sup> «Iñok be ez, Jauna», erantzun eban arek. «Neuk be ez zaitut galduko –esan eutsan Jesus'ek–. Zoaz, eta ez egin pekatu aurrerantzean» (\*).

#### Jesus, munduaren argi.

<sup>12</sup> Beste bein, Jesus'ek berba egin eutsen, esanez: «Neu naz munduaren argia; niri jarraitu daistana, ez da illuntan ibiliko, bestetara baiño: bizitza-argia izango dau». <sup>11</sup> Pariseuak auxe esan eutsoen: «Zuk zeutzaz egiten dozu autor: zure autorrak ez dau indarrrik». <sup>14</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsen: «Nik neutzaz autor egiñarren be, ba-dauko indarra nire autorrak, nundik etorri nazan eta nora noan ba-dakit-eta; zuek, ostera, ez dakizue nundik natoren, ezta nora noan be. <sup>15</sup> Zuek aragi-bidez epaitzen dozue; nik ez dot iñor epaitzen\*»: <sup>16</sup> eta epaitzen ba'dot, nire epaiak balio dau, ez nago ni bakarrik-eta, neu ta ni bialdu nauan Aita baiño. <sup>17</sup> Eta zuen Legean idatzita dago. gizon biren autorrak balio daua. <sup>18</sup> Neu naz nitzaz autor egiten dodana, eta ni bialdu nauanak be, Aitak, nitzaz autor egiten dau». <sup>19</sup> Orduan, auxe zirautsoen: «Nun dago zure Aita?» Jesus'ek auxe erantzun eban: «Ez ni ez nire

\* Epaitu: galdu (*condenar*).

Aita ezagutzen gauzue; ni ezagutu ba'nengizue, neure Aita be ezagutuko zeukee».

<sup>20</sup> Berbok, diru-toki ondoan esan ebazan Jesus'ek, Jau-naren Etxean irakasten ziarduan artean. Eta ez eutsan iñok oratu, Aren ordua ez zan artetan etorri izan-eta.

#### Judar sinisgogorrai dirautsena.

<sup>21</sup> Jesus'ek auxe esan eutsen barrero: «Ni ba-noa, eta zuek neure billa ibiliko zaree, eta zeuon pekatuan ilgo zaree. Ni noan tokira, zuek ezin joan zaitekeze». <sup>22</sup> Judarrak alkarri auxe zirautsoen: «Onek bere burua ilgo ete-dau, ba?, 'ni noan tokira zuek ezin joan zaitekeze' diño-ta?» <sup>23</sup> Jesus'ek auxe esan eutsen gaiñera: «Zuek, bekoak zaree; ni goikoa naz. Zuek, mundu onetakoak zaree; ni ez naz mundu onetakoa. <sup>24</sup> Zeuon pekatuetan ilgo zareela esan dautsuet, izan be, ni ba-nazala sinisten ez ba-dozue, zeuon pekatuetan ilgo zaree» (\*). <sup>25</sup> Orduan, «Nor zara, ba, zu?», itandu eutsoen (\*). Jesus'ek auxe erantzun eutsen: «Lenengo ta bein (\*), zuei esaten diardudana. <sup>26</sup> Zuei buruz, ba-dot nik esatekorik eta erabagitekorik naikoa; baiña, bialdu nauana, egizale da; eta Berari entzun dautsadana da munduari dirautsadana» (\*).

<sup>27</sup> Areik ez eutsoen igarri Aitari buruz berba egiten ziarduanik (\*). <sup>28</sup> Beraz, Jesus'ek auxe esan eutsen: «Gizasemea gora jaso dagizuenean (\*), orduantxe jakingo dozue ba-nazana ni (\*), eta nire buruz ez dodana ezer be egiten; bestetara baiño: Aitak irakatsi eustana, orixe diñodana. <sup>29</sup> Eta ni bialdu nauana, neugaz dago; ez nau bakarrik itxi, Berari atsegin yakona egiten dot nik beti-ta».

<sup>30</sup> Olan berba egitean, askok sinistu eben Aregan.

#### Jesus eta Abraham.

<sup>31</sup> Beragan sinistu eben judarrai, Jesus'ek auxe esan eutsen: «Nire esanetan zintzo-zintzo irauten ba-dozue, neurc ikasle izango zaree benetan, <sup>32</sup> eta ezagutu egingo do-



zue egia, eta egiak askatu egingo zaitue». <sup>33</sup> Areik auxe erantzun eutsoen: «Gu Abraham'en jatorriko gara eta ez gara egundo iñoren morroi izan. Zelan diñozu, ba, zuk, 'Askatu egingo zaree?'» (\*). <sup>34</sup> «Bene-benetan dirautsuet –erantzun eutsen Jesus'ek–: pekatu egiten dauan edonor, morroi da (\*). <sup>35</sup> Eta morroia ez da etxean betiko gelditzen; semea, ostera, betiko gelditzen da. <sup>36</sup> Beraz, Semeak askatasuna emoten ba'dautsue, zeuon eskuko (*libre*) izango zaree benetan. <sup>37</sup> Ba-dakit Abraham'en jatorriko zareena; baiña, bizia kendu nai daustazue, nire berba onek zuekan tokirik aurkitzen ez daualako. <sup>38</sup> Neure Aitarenean ikusi dodana dirautsuet nik; eta zuek, zeuen aitarenean entzun dozuena egiten dozue».

<sup>39</sup> «Gure Aita, Abraham da», erantzun eutsoen areik. Jesus'ek dirautse: «Abraham'en semeak ba'zintzaze, Abraham'en egiñak egingo zendukez (\*). <sup>40</sup> Zuek, barriz, Jaungoikoagandik entzun neban egia esan dautsuedalako, il egin nai nozue ni. Ori ez eban Abraham'ek egin. <sup>41</sup> Zuek, bai, zuek zeuen aitaren egintzak egiten dozuez». «Gu ez gara sasikume –erantzun eutsoen areik–; Jaungoikoa baiño beste aitarik ez dogu». <sup>42</sup> «Jaungoikoa zeuen Aita ba'litz –erantzun eutsen Jesus'ek–, neu be maite izan nendukezue; ni Jainkoagandik sortu ta etorri naz-ta; ni ez naz neure buruz etorri, Berak bialduta baiño. <sup>43</sup> Zegaitik ez dozue nire berbaera ulertzen? Nire itza ezin entzun daikezuelako. <sup>44</sup> Deabrua da zuen aita, eta zeuen aitaren gurariak bete nai dozuez. Ori, gizon-iltzaillea zan asierarik, eta ez eban egitan irauñ (\*), egirik aregan ez dago-ta; guzurra diñoanean, barrutik urteten yakona diño, guzurtia ta guzurraren aita da-ta (\*). <sup>45</sup> Niri, barriz, egia dirautsuet-eta, ez daustazue sinisten. <sup>46</sup> Zuetariko nok agertu daike ni pekatari nazanik? Egia ba'diñot, zegaitik ez daustazue sinisten? <sup>47</sup> Jaungoikoagandik danak, Jaungoikoaren berbak entzun egiten dauz; zuek Jaungoikoagandikoak ez zareelako ez dozuez berbok entzuten».

<sup>48</sup> Judarrak auxe erantzun eutsoen: «Ez ete-dogu, ba, guk zuzen esaten, zu samaritarra zar(e)ala ta deabru bat daukazula?». <sup>49</sup> «Nik ez daukat deabrurik –erantzun eban Jesus'ek–; nik neure Aita goratzen dot, eta zuek iraindu egiten nozue. <sup>50</sup> Nik ez dot nire aintzarik billatzen; ba-da beste bat ori billatzen dauana eta epaia emongodetan dauana. <sup>51</sup> Benetan dirautsuet: Norbaitek nire itza gordeten ba'dau, ez dau eriotzarik egundo ikusiko\* (\*). <sup>52</sup> Judarrak auxe esan eutsoen: «Oraintxe, bai, ziur gagoz deabru bat daukazuna. Abraham il egin zan, eta igarleak be bai; eta zuk auxe diñozu: 'Norbaitek nire itza gordeten ba'dau, ez dau eriotzarik egundo ikusiko'. <sup>53</sup> Gure Aita Abraham baiño aundiagoa zara, ala? A il egin zan, igarleak be il egin ziran. Nor egiten dozu zuk zure burua?». <sup>54</sup> «Nik neure burua goratu ba'negi –erantzun eban Jesus'ek–, nire gorapena ez litzake ezetako gauza; neure Aita da ni goratzen nauana, 'Bera da gure Jaungoikoa' diñozuen ori; <sup>55</sup> zuek, ostera, ez dozue Ori ezagutzen. Nik, bai, nik ezagutu egiten dot; ez dodala ezagutzen esan ba'negi, zuek baizen guzurti izango nintzake. Baiña, nik A ezagutu egiten dot, eta Aren itza gorde egiten dot. <sup>56</sup> Zuen aita Abraham, neure eguna ikusi naiez, pozez beterik jarri zan; ikusi egin eban eta poztu egin zan».

<sup>57</sup> Orduan, judarrak auxe esan eutsoen: «Berrogeta amar urte be ez dozuz oraindiño, eta Abraham ikusi dozula?». <sup>58</sup> «Bene-benetan dirautsuet –erantzun eutsen Jesus'ek–: Abraham jaio baiño len be ba-naz ni». <sup>59</sup> Orduan, areik arriak artu ebezan Jesus'i jaurtiteko; baiña, Jesus ezkutatu eta Jaunaren Etxetik urten egin zan.

\* Eriotza ikusi: il (*morir*).

## IX

**Jaiotez itsua zana osatzen dau.**

<sup>1</sup> Jesus'ek, bidez yoiala, jaiotez itsua zan bat ikusi eban. <sup>2</sup> Eta bere ikasleak itaun au egin eutsoen: «Rabbi (*Irakasle*), ori itsu jaioteko, nok egin eban pekatu? orrek, ala orren gurasoak?». <sup>3</sup> Jesus'ek auxe erantzun eban: «Ez eban orrek pekaturik egin, ezta orren gurasoak be; Jaungoikoaren lanak orrexegan agertu daitezana da ori. <sup>4</sup> Egun argi dan bitartean, bialdu nauanaren lanak (\*) egin bear dodaz nik (\*). Ba-dator gaba, eta iñok ezin lanik egin daike (\*). <sup>5</sup> Munduan nagoan artean, munduaren argi naz.

<sup>6</sup> Ori esanda, txistua jaurti eban lurrera, bere txistuaz lokatza apur bat egin, eta lokatz(e)a itsuaren begietan ezarri eban, <sup>7</sup> eta auxe esan eutsan: «Zoaz, eta garbitu zaitetz Siloe'ko urtegian – Siloe itzak, «Bialdua» adierazoten dau –. Itsua joan, garbitu ta ikusten ebala etorri zan barriri. <sup>8</sup> Eskekoa zan-eta, auzokoak eta len ikusten ebenak auxe iñoen: «Ori ez da, ba, limosna eskatzeko jesarrita egoten zana?». <sup>9</sup> «Bai, bera da», iñoen batzuek, «Ez, ez da – iñoen beste batzuek –, bere antzeko bat baiño». Itsuak, ostera, «Neu naz», iñoan. <sup>10</sup> Orduan, auxe esan eutsoen: «Zelan edegi yatzuz, ba, begiak?». <sup>11</sup> Arek auxe erantzun eban: «Jesus izeneko gizon orrek lokatza egin, begiak igurtzi eustazan eta auxe esan eustan: 'Zoaz Siloe'ra ta garbitu zaitetz'. Ni joan, garbitu nintzan eta ikusi egin neban». <sup>12</sup> Arek auxe esan eutsoen: «Nun dago ori?». «Ez dakit», erantzun eutsen itsuak.

<sup>13</sup> Len itsu izandakoa pariseuakana daroe. <sup>14</sup> Jesus'ek lokatza egin eta begiak edegi eutsazan eguna, zapatua zan. <sup>15</sup> Ikustea zelan artu eban itandu eutsoen pariseuak be. Arek auxe esan eutsen: «Begietan lokatza ezarri eustan, garbitu nintzan, eta ikusi egiten dot». <sup>16</sup> Pariseo batzuek auxe iñoen: «Gizon ori ez dator Jaungoikoagandik, za-

patua ez dau gordeten-eta». Beste batzuek, ostera, auxe iñoen: «Baiña, zelan egin daikez pekatari batek olake ezaugarriak?» (\*). Eta alkar bananduta egozan. <sup>17</sup> Orduan, itsuari auxe dirautsoe barriri: «Eta, zuri begiak edegi dautsuzan ezkerero, zer diñozu zuk orretzaz?». «Igarle bat dala», erantzun eutsen arek.

<sup>18</sup> Judarrak ez eben sinistu gizon a itsua izan zanik eta ikustea lortu ebanik, bere gurasoai dei egin <sup>19</sup> eta itandu eutseen arte: «Au da zuen semea?, itsu jaio zala diñozuena? Zelan ikusten dau, ba, orain?». <sup>20</sup> Aren gurasoak auxe erantzun eben: «Ba-dakigu au geure semea dana ta itsu jaio zana. <sup>21</sup> Orain zelan ikusten dauan, ostera, ez dakigu guk; begiak nok edegi eutsazan ba ez dakigu guk (\*). Ba-dau adiña (*sasoia*); berak egin daike berba bere buruatzaz». <sup>22</sup> Judarren bildur ziralako esan eben ori itsuaren gurasoak; izan be, judarrak orduko alkartuta egozan, norbaitek Jesus Kristo'tzat artzen ba'eban, alakoa sinagogatik kanpora jaurtiteko. <sup>23</sup> Orrexegaitik esan eben itsuaren gurasoak: «Ba-dau sasoia; berari itandu egiozue».

<sup>24</sup> Judarrak itsu izandakoari barriri dei egin eta auxe esan eutsoen: «Emon egiozu aintza Jaungoikoari (\*). Guk ba-dakigu gizon ori pekatari bat dana». <sup>25</sup> «Pekatori dan ala ez, nik ez dakit – erantzun eutsen itsuak –. Nik auxe bakarrik dakit: itsua nintzala, eta orain ikusi egiten dotala». <sup>26</sup> Orduan, auxe esan eutsoen: «Zer egin eutsun? Zelan edegi eutsuzan begiak?». <sup>27</sup> Arek auxe erantzun eban: «Len be esan dautsuet, eta ez daustazue aditu\*. Zegaitik entzun nai dozue barriri? Zuok be bere ikasle egin nai dozue, ala?». <sup>28</sup> Arek itsua iraiñez bete eben, eta auxe esan eutsoen: «Zeu zara gizon orren ikasle; gu Moises'en ikasle gara. <sup>29</sup> Guk ba-dakigu Moises'i Jaungoikoak berba egin eutsana; ori, ostera, ez dakigu nungoa dan». <sup>30</sup> Itsuak

\* Aditu ez: entzun-gor egin, sinistu ez.



auxe erantzun eutsen: «Orixe bai dala arrigarria!: zuek ori nungoa dan ez jakitea ta begiok berak zabaldu daus-tazala. <sup>31</sup> Ba-dakigu Jaungoikoak ez dautsena pekatariari entzuten; norbait Jaungoikoazale ba'da ta Jaungoikoaren gogoa beteten ba'dau, orri entzun egiten dautso (\*). <sup>32</sup> Egundo ez da entzun, itsu jaiorearen begiak inok edegi dauzanik. <sup>33</sup> Ori Jaungoikoagandik ez ba'letor, ezin ezer egin leikean». <sup>34</sup> Areik auxe erantzun eutsoen: «Pekatu utsetan jaiio zintzazan, eta zuk guri irakatsi?». Eta kanpo-ra jaurti eben.

<sup>35</sup> Jakin eban Jesus'ek gizon au kanpora jaurti ebena; eta, aregaz aurkiturik, auxe esan eutsan: «Sinisten dozu zuk Gizasemeagan?». <sup>36</sup> Arek auxe erantzun eban: «Eta nor da ori, Jauna, beragan sinistu dagidan?». <sup>37</sup> Jesus'ek auxe esan eutsan: «Ikusi dozu zuk a; zugaz berbetan diarduan auxe da». <sup>38</sup> Orduan, arek auxe esan eban: «Sinisten dot, Jauna». Eta auzpaztu egin yakon. <sup>39</sup> Eta Jesus'ek auxe esan eban: «Auzi batera etorri naz ni mundu onetara: ikusten ez dabenak, ikusi dagien; eta ikusten dabena, itsu bihurtu daitezana». <sup>40</sup> Jesus'egaz egozan pariseo batzuek ori entzun eta auxe esan eutsoen: «Gu be itsuak ete-gara, ba?». <sup>41</sup> «Itsuak ba'zintzaze -erantzun eutsen Jesus'ek-, ez zeukee (*zendukee*) pekatu izango; baiña, 'Ikusten dogu guk' diñozue-ta, zuen pekatuak iraun egiten dau».

## X

**Artzain ona.**

<sup>1</sup> «Bene-benetan dirautsuet: arditegira atetik sartu bearean, beste alde batetik igoten dana, lapurra ta arrapatzailea da; <sup>2</sup> atetik sartzen dana, barriz, artzaiña da. <sup>3</sup> Oni atezaiñak atea zabaldu egiten dautso, eta ardiak artzaiñaren abotsa entzun egiten dabe; eta bere ardiai bakotxean

bati dei egiten dautse, eta kanpora ataraten dauz. <sup>4</sup> Bere ardiak ataraten dauzanean, euren aurretik doa, eta bere ardiak jarraitu egiten dautsoe, aren abotsa ezagutzen dabe-ta. <sup>5</sup> Baiña, arrotzari ez dautsoe jarraituko, bestetara baiño; iges egingo dautsoe, kanpotarren abotsik ez dabe ezagutzen-eta (\*).

<sup>6</sup> Jesus'ek ipuin au esan, bai, esan eutsen; baiña, areik ez eben ulertu esan nai cutsena. <sup>7</sup> Orduan, Jesus'ek auxe esan eban: «Bene-benetan dirautsuet; neu naz ardien atea. <sup>8</sup> (\*) Etorri diran guztiak, lapurrak eta arrapatzaileak dira; baiña ardiak ez eutseen entzun. <sup>9</sup> Neu naz atea; norbait neugandik sartzen ba'da, onik urtengo da; sartu-urtenak egingo dauz, eta larra aurkituko dau. <sup>10</sup> Lapurra ez dator, ostuteko, ilteko ta ondatzeko baiño. Ni bizitza (\*) izan dagien etorri naz, eta izan be ugari izan dagien. <sup>11</sup> Neu naz artzain ona. Artzain onak bere bizia ardien alde emoten dau. <sup>12</sup> Alogerekoak\*, barriz, artzain ez danak, ardien jabe ez danak, otsoa etorten ikusi, ardiak bertan bera itxi ta iges egiten dau, eta otsoak ardiai eldu ta uxatu egiten dauz, <sup>13</sup> morroia alogerekoa dalako ta ardien ardurarik bape ez daualako egiten dau iges. <sup>14</sup> Neu naz artzain ona; ezagutzen dodaz nik nire ardiak eta neureak be ezagutzen nabe ni, <sup>15</sup> Aitak ni ezagutzen nauanez eta nik Aita ezagutzen dodanez, eta nire bizia ardien alde emoten dot. <sup>16</sup> Ba-dodaz artalde onetakoak ez diran beste ardi batzuk be; orreik be eroan egin bear dodaz eta entzungo dabe nire abotsa; artalde bakarra (\*) izango da. artzain bakarra. <sup>17</sup> Neure bizia emoten dodalako maite nau Aitak, nire bizia barriro artzeko. <sup>18</sup> Ez daust inok niri bizia kentzen; neuk emoten dot neure gogoz. Bizia emoteko eskubidea dot, baita barriro artzeko be (\*); orixe da nire Aitagandik artu dodan agindua».

<sup>19</sup> Berbok zirala-ta, judarren artean eztabaida sortu

\* Alogereko: mercenario.

zan (\*). <sup>20</sup> Areitariko askok auxe iñoen: «Deabru bat dauko ta zoratuta dago. Zegaitik entzuten dautsazue?». <sup>21</sup> Beste batzuek, barriz, auxe iñoen: «Berkok ez dira deabrudunarenak. Edegi daike, gero, deabruak itsuen begirik?».

### Jesus'ek, bera Jaungoikoaren Semea dala diño.

<sup>22</sup> Aldi aretan, Jerusalem'en Eskintza-jaieguna ospatu zan (\*). Negua zan. <sup>23</sup> Jesus Jaunaren Etxean ibilli ebillen, Salomon-aterpean. <sup>24</sup> Judarrak inguratu egin eben, eta auxe zirautsoen: «Noiz arte izango gaituzu ezpaitan? Zu Kristo'a ba'zara, esan egiguzu zabal-zabal». <sup>25</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsen: «Esan be egin dautsuet, baiña ez daustazue sinisten. Nire Aitaren izenean egiten dodazan egintzak dira nitzaz autor egiten dabenak; <sup>26</sup> zuek, barriz, ez dozue sinisten, ez zaree nire ardiatarikoak-eta (\*). <sup>27</sup> Nire ardiak entzun egiten dabe nire abotsa; nik ezagutu egiten dodaz eta areik jarraitu egiten dauste. <sup>28</sup> Nik betiko bizitza emoten dautset, eta ez dira iñoiz be gelduko; iñok be ez dauz nire eskutik kenduko. <sup>29</sup> Niri emon daustazan Aita, guztiak baiño aundiagoa da (\*), eta iñok be ezin kendu daike ezer nire Aitaren eskutik. <sup>30</sup> Aita ta ni bat gara» (\*).

<sup>31</sup> Judarrak arriak artu ebezan, Ari arrika egiteko. <sup>32</sup> Jesus'ek auxe esan eutsen: «Aitagandik datozen egintza on asko erakutsi dautsuedaz. Egintza orreitariko zeingaitik egin nai daustazue arrika?». <sup>33</sup> Judarrak auxe erantzun eutsen: «Egintza on bategaitik be ez dautsugu arrika egin nai, biraoagaitik baiño; zu gizona izanik, zure burua Jaungoiko egiten dozulako». <sup>34</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsen: «Ez dago, ba, zuen Legean idatzita: *Neuk esan dot: Jaungoiko zaree zuek?* (\*). <sup>35</sup> Jaungoikoaren itza zuzendu yaken arei jaungoiko ba'deritxe - eta Liburu Santuak ezin utsik egin daike -, <sup>36</sup> Jaungoikoak santutu ta mundura bialdu dauanari birao egiten dauala esango

dautsazue, ba, 'Jaungoikoaren Semea naz' esan dodalako? <sup>37</sup> Nire Aitaren egintzak egiten ez ba'dodaz, ez egidazue sinistu; <sup>38</sup> baiña egiten ba'dodaz, niri sinistu ezarren be, sinistu egizue egiñakaitik: eta orrelaxe jakingo ta ezagutuko dozue Aita neugan dagoana ta ni Aitagana goana».

<sup>39</sup> Jesus'i eltzea nai eutsoen (\*), baiña alde egin eutsen eskuetatik (\*). <sup>40</sup> Jordan'ez bestekaldera joan zan barriro, len Yon'ek bateatzen jardun izan eban lekura, eta antxe gelditu zan. <sup>41</sup> Lagun asko etorri yakozan, eta auxe iñoen: «Yon'ek ez eban ezaugarririk bat be egin; baiña, arek onetzaz esan eban guztia, egia zan». <sup>42</sup> Eta an askok sinistu eben Jesus'egan.

## XI

### Lazaro'ren biztuera.

<sup>1</sup> Lazaro izeneko gizon bat geisorik egoan; Betania'koa zan, Mari'ren eta beronen aizta Marta'ren errikoa. <sup>2</sup> Mari au, Jauna usaingarriz igurtzi ta oiñak bere uleakaz sikatu eutsazana zan; geisoea, bere neba Lazaro zan. <sup>3</sup> Arrebak Jesus'i mandatu au bialdu eutsoen: «Jauna, zuk maite dozuna, geisorik dago». <sup>4</sup> Jesus'ek, ori entzutean, auxe esan eban: «Geisoe ori ez da eriotz-geisoea, Jaungoikoaren aintzarako baiño, orren bidez Jaungoikoaren Semea goratua izan daiten».

<sup>5</sup> Maite ebazan, bai, Jesus'ek Marta, onen aizta ta Lazaro.

<sup>6</sup> Aren geisoea jakinda gero, egoan tokian beste egun bi geiago gelditu zan. <sup>7</sup> Egun biok igarota gero, bere ikasleai auxe dirautse: «Goazan Judea'ra barriro be». <sup>8</sup> Ikasleak ba-dirautsoe: «Rabbi (*Irakasle*), judarrak oraintsu arrika egin nai eutsuen, eta barriro be araxe zoaz?». <sup>9</sup> Jesus'ek auxe erantzun eban: «Amabi ez dira, ba, egu-



naren orduak? Egun-argiz dabillena, ez dabil itsumustuan. mundu onetako argia ikusi egiten dau-ta; <sup>10</sup> gabez dabilena, barriz, itsumustuan dabil, argirik ez dauko-ta».

<sup>11</sup> Ori esan eta beste au esan eutsen gaiñera: «Lazaro gure adiskidea loak artu dau; baiña, iratzartzera noakio».

<sup>12</sup> Ikasleak auxe esan eutsen: «Jauna, lo ba'dago, osatuko da». <sup>13</sup> – Jesus'ek aren eriotzaz egin izan eban berba, baiña areik loak-artzeatzaz egiten ebalá berba uste izan eben –. <sup>14</sup> Orduan, Jesus'ek argi ta garbi esan eutsen: «Lazaro il egin da, <sup>15</sup> eta zeuokaitik poztutzen naz an ez egoteaz, sinistu dagizuen. Baiña, goazen aregana». <sup>16</sup> Orduan, Didimo eritxon Tomas'ek beste ikasleai auxe esan eutsen: «Goazan geu be, onegaz batera il gaitzezan».

<sup>17</sup> Jesus eldu zanean, Lazaro lau egun areitan illobian egoala aurkitu eban. <sup>18</sup> Betania, Jerusalem'dik amabosten bat estadiora egoan (\*). <sup>19</sup> Judar asko etorri izan ziran Marta ta Maria'ren etxera, euron nebagaitiko samiña arintzera. <sup>20</sup> Jesus etorri izan zala Marta'k jakin ebanean, bidera joan yakon, Mari etxean gelditzen zan artean. <sup>21</sup> Marta'k Jesus'i auxe esan eutsan: «Emen egon izan ba'zintzaz (\*), nire neb(e)a ez litzakean ilgo. <sup>22</sup> Oraintxe be ba-dakit, orraitíño, Jaungoikoari eskatu dagiozun edozer, Jaungoikoak emon egingo dautsuna». <sup>23</sup> Jesus'ek ba-dirautso: «Biztuko da zure neb(e)a». <sup>24</sup> Marta'k auxe erantzun eutsan: «Ba-dakit biztuko dana azken-egunean, biztueran». <sup>25</sup> «Neu naz biztuera ta bizitza –erantzun eutsan Jesus'ek –. <sup>26</sup> Neugan sinisten dauana, illarren be, bizi izango da; eta nigan bizi ta sinisten dauana, ez da egundo ilgo. Sinisten dozu au?». <sup>27</sup> «Bai, Jauna –dirautso Marta'k –; sinisten dot mundu onetara etorteko zan Kristo'a, Jaungoikoaren Semea, zeu zar(e)ana».

<sup>28</sup> Ori esanda, bere aizta Mari'ri dei egitera joan zan, eta auxe esan eutsan belarrira: «Irakaslea ortxe dago, eta dei egiten dautsu». <sup>29</sup> Mari'k ori entzutean, bat-batean jagi ta Jesus'egana joan zan. <sup>30</sup> – Jesus ez zan artetan erri-

ra eldu izan-eta, bestetara baiño: Marta'k aurkitu izan eban tokian bertan egoan –. <sup>31</sup> Etxean Mari'ri samiña arintzen ziarduen judarrak, Mari bat-batean jagiten eta kanpora urteten ikusi ebanean, jarraitu egin eutsen, illobira negar egitera yoialakoan.

<sup>32</sup> Mari, Jesus egoan tokira eldu zanean, Jesus ikustean, oiñetan auzpazu yakon, eta auxe esan eutsan: «Jauna, emen egon izan ba'zintzaz, nire neb(e)a ez litzakean ilgo». <sup>33</sup> Jesus'ek Mari negarrez, eta onegaz etozan judarrak be negar egiten ebela ikustean, Jesus'i barrua dardaraka asi eta biotza erdibitu egin yakon, <sup>34</sup> eta auxe esan eban: «Nun jarri dozue?». «Etorri ta ikusi, Jauna», erantzuten dautsoe. <sup>35</sup> Jesus'ek negar egin eban. <sup>36</sup> Orduan, judarrak auxe iñoen: «Benetan maite eban, gero!». <sup>37</sup> Areitariko batzuek, barriz, auxe esan eben: «Itsuaren begiak edegi ebazan onek, ezin galerazo eikean gizon orren eriotza?». <sup>38</sup> Jesus'i bere barrua dardaraka asi yakon barriro be, eta illobira joan zan. Illobi au artzulo bat zan, gaiñean arlosa bat ebalá. <sup>39</sup> Jesus'ek ba-diño: «Kendu egizue arlosa ori». Marta'k (\*) auxe erantzuten dautso: «Jauna, onezkero atsa dario; laugarren eguna da». <sup>40</sup> Jesus'ek dirautso: «Ez dautsut esan, ba, sinisten ba'dozu, Jaungoikoaren aintza ikusiko dozula?» (\*). <sup>41</sup> Kendu eben, arlosa. Orduan, Jesus'ek begiak (\*) jaso ta auxe esan eban: «Aita, eskerrak emoten dautsudaz entzun nozulako. <sup>42</sup> Ba-nekian nik beti entzuten nozuna; baiña, inguratzen nabenokaitik, esan dot, zeuk bialdu nozula siristu dagien».

<sup>43</sup> Ori esanda, deadar aundi bat egin eban: «Lazaro, urten kanpora!». <sup>44</sup> Eta ildakoa urten egin zan, esku-oiñak zapiz lotuta eta arpegia miesaz batuta, Jesus'ek dirautse: «Askatu ta itxi ibilten».

#### Judarren nagusiak Jesus il nai.

<sup>45</sup> Mari'ren etxera etorri izan ziran judarretariko as-

kok, Jesus'ek egin izan ebana ikusirik, Jesus'egan sinistu eben. <sup>46</sup> Alan be, areitariko batzuk pariseuakana joan eta Jesus'ek egin izan ebana azaldu eutseen. <sup>47</sup> Orduan, abadeburuak eta pariseuak batzarra egin eben, eta auxe inoen: «Zer egiten dogu? Gizon orrek mirari asko egiten dauz-ta. <sup>48</sup> Onela, jarraitzen izten ba'dogu, guztiak sinistuko dabe Beragan; erromarrak etorri ta ondatu egingo dabe gure Tokia ta gure erria». <sup>49</sup> Baiña, areitariko batek, urte aretan Abade Nagusi zan Kaifas izenekoak, auxe esan eutsen: «Zuek ez dakizue ezer, <sup>50</sup> eta konturatu be ez zaree egiten (\*) gizon bat bakarrik erriagaitik il daiten obe dana, erri osoa galdu daiten baiño». <sup>51</sup> Ori ez eban arek berez esan: Abade Nagusi zan-ata (\*), Jesus erriagaitik ilgo zala iragarri eban aurretiaz, <sup>52</sup> eta erriagaitik bakarrik ez, sakabanatuta egozan Jaungoikoaren semeak batean batzeko be bai. <sup>53</sup> Egun onetatik, Jesus iltea erabagi eben. <sup>54</sup> Orregaitik, arrezkero Jesus ez zan judarren artean agirian ibilten; eta andik basamortu-ondoko lurraldera baztatu zan, Efrain izeneko urira eta antxe gelditu zan bere ikasleakaz batera.

<sup>55</sup> Judarren Pazkoa laster zan. Lurralde aretako asko Jerusalem'era igo izan ziran (\*), euren buruak garbitzera. <sup>57</sup> Jesus'en billa ebizan, eta Jaunaren Etxean egozala, auxe zirautsoen alkarri: «Zer deritxazue? Ez ete-da etorriko, ba, jai-egunetara?». <sup>57</sup> Abadeburu ta pariseuak agindu au emon eben: Jesus nun egon zeitekean norbaitek ba'leki, agertu egiala, Ari eltzeko.

## XII

**Betania'n: Mari'k Jesus'i oiñak garbitzen dautsaz.**  
(Mt. 26, 6-13; Mk. 14, 3-9).

<sup>1</sup> Pazkoa baiño sei egun lenago, Jesus Betania'ra joan zan, Jesus'ek illen artetik biztu izan eban Lazaro egoan tokira. <sup>2</sup> An, apari bat eskeiñi eutsuen. Marta'k maian

neskame-lanetan ziarduan, eta Jesus'egaz maian egoan bat Lazaro zan. <sup>3</sup> Mari'k, libra bat akara\* usaingarri jator eta onenatarikoa arturik, Jesus'i oiñak igurtzi ta bere uleakaz sikatu eutsazan. Eta etxea usaingarriz bete zan. <sup>4</sup> Ikasletariko batek, Jesus salduko eban Judas Iskariote'k, ba-diño: <sup>5</sup> «Usaingarri au, zegaitik ez da irureun denariotan saldu, gero beartsuai emoteko?». <sup>6</sup> Ori ez eban esan arek beartsuen ardurarik ebalako, lapurra zalako baiño; eta diru-zorroa berak eukiten eban-eta, ara sartzen ebena beretzat artzen eban. <sup>7</sup> Jesus'ek auxe esan eban: «Itxi egiozu bakean, gorde dagiala nire obiratze-eguneko (\*). <sup>8</sup> Ez zan be, beartsuak beti izango dozuez zuekaz; ni barriz, ez nozue beti izango».

<sup>9</sup> Judarretariko askok jakin eben Jesus an egoana, eta araxe jo eben: Jesus'egaitik bakarrik ez, illen artetik biztu izan eban Lazaro ikustearren be bai. <sup>10</sup> Abadeburuak Lazaro be iltea erabagi eben; <sup>11</sup> au zala-ta, judar askok arekandik (*judarren artetik*) alde egin eta Jesus'egan sinistuen eben-eta.

**Jesus ospez beterik sartzen da Jerusalem'en.**  
(Mt. 21, 1-9; Mk. 11, 1-10; Lk. 19, 28-38).

<sup>12</sup> Biaramonean, jai-eguna etorri izan ziran laguntalde aundiak, Jesus Jerusalem'era etorrela jakin ebenean, <sup>13</sup> palma-adarrak artu ta bidera urten yakozan deadarka: «*Hosanna! (Aintza). Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena, Israel'go Erregeal.*»

<sup>14</sup> Astakume bat aurkiturik, Jesus aren gaiñean jartu zan, idatzita dagoanez: <sup>15</sup> *Ez bildurtu, Sion'go alaba ori: or datorkizu zure Erregea, astakume baten gaiñean jarrita.* <sup>16</sup> Jesus'en ikasleak ez eben ori orduan ulertu; baiña, Jesus goratua izan zanean, orduantxe konturatu ziran ori Aretzaz idatzita egoala ta orixe zala egin izan eutsuena. <sup>17</sup> Lazaro illobitik deitu ta illen artetik biztu ebanean, Je-

\* Akara: nardo.



sus'egaz egon izan ziranak eurak egiten eben autor. <sup>18</sup> Mirari a Jesus'ek egin izan ebalá entzun izan ebelako, laguntaldea be bidera urten yakon. <sup>19</sup> Orduan, pariseuak alkarri auxe zirautsoen: «Ikusten dozue? Ezer ez dozue aurreratzen; guztiak atzetik doakioz» (\*).

**Bere gorapena eriotzaren bidez izango dala iragarten dau.**

<sup>20</sup> Jai aretan gur egitera igo ziranen artean, gerkar batzuk ziran. <sup>21</sup> Oneik, Galilea'ko Betsaida'koa zan Felipe' gana jo ta erregu au egin eutsoen: «Jauna, Jesus ikusi nai dogu». <sup>22</sup> Felipe Ander'i esatera joan zan; Ander eta Felipe Jesus'i esatera joan ziran. <sup>23</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsen: «Eldu da Gizasemea goratua izateko ordua. <sup>24</sup> Bene-benetan dirautsuet: Galgaraua lurrera jausi ta ilten ez ba'da, bera bakarrik gelditzen da; ilten ba'da, barriz, frutua ugari dakar. <sup>25</sup> Bere bizia maite dauanak, galdu egiten dau; mundu onetan bere biziari gorroto dautsanak, betiko bizitzarako gordeko dau. <sup>26</sup> Morroi izan dakidana, jarraitu daistala, eta neu egon naiten tokian (\*) egongc da nire morroia be. Nire morroi izan daitena, Aitak goratu egingo dau.

<sup>27</sup> Orain nire arim(e)a larri dago. Eta, zer esango dot? Aita, atara nagizu ordu onetatik? Baiña, onetarakoxe etorri naz ordu onetara-ta! <sup>28</sup> Aita, goratu egizu zure izena» (\*). Orduan, abots au etorri zan zerutik: «Goratu dot eta barrero goratuko dot».

<sup>29</sup> An egoan laguntaldea abots ori entzunda, trumoiá izan zala iñoan. Beste batzuek, «Aingeru batek berba egin dautso», iñoen. <sup>30</sup> Jesus'ek auxe erantzun eban: «Abots ori ez da nigaitik etorri, zeuokaitik baiño. <sup>31</sup> Oraintxe da mundu onen auzia; mundu onetako nagusia orain beera (\*) jaurtia izango da. <sup>32</sup> Ni lurretik gora jasoa izan naitenean, neugana ekarriko dodaz guztiak» (\*). Zelako eriotzaz ilgo zan adierazoteko iñoan ori. <sup>34</sup> Laguntaldea auxe erantzun eutsan: «Kristo'ak betiko irauten dauala

ikasi dogu guk Legean. Zelan diñozu, ba, zuk, bearrezkoa dala Gizasemea gora jasoa izatea? Nor da Gizaseme ori?». <sup>35</sup> Jesus'ek auxe esan eutsen: «Oraindiño, apur baten, ba-dago argia zuen artean. Ibili zaitezte argia dozuen artean, illunak artu ez zagiezan; illunetan dabilenak, ez daki nora doan. <sup>36</sup> Argia dozuen artean, argiari sinistu egiozue, argiaren seme izan zaitezten».

Ori esanda, Jesus andik urten eta arekandik gorde egin zan.

**Judarren sinisgogorkeria.**

<sup>37</sup> Jesus'ek arein aurrean arenbesteko mirari aundiak egin izan ebazanarren, areik ez eben Jesus'egan sinisten, <sup>38</sup> Isaias igarleak aurretiaz esandako au bete zedin: *Jauna, nok sinistu dauz gure berbak? Eta Jaunaren besoa, nori agertu yako?»* (\*). <sup>39</sup> Ezin sinistu eben, beste au be esan eban Isaias igarleak-eta: <sup>40</sup> *Itsutu egin dautsez begiak, eta biotza gogortu: euren begiakaz ikusi ez dagien, eta euren biotzaz ulertu ez dagien, garbatu ez daitezcan, eta nik osatu ez dagidazan* (\*). <sup>41</sup> Aren aintza ikusi ta Aretzaz berba egin ebanean esan eban ori Isaias'ek. <sup>42</sup> Alan be, nagusien artean be askok sinistu eben Aregan, baiña pariseuakanako bildurragaitik ez eben autortzen, sinagogatik jaurtiak izan ez zeitezcan: <sup>43</sup> Jaungoikoaren aintza baiño gizonen aintza naiago eben-eta.

<sup>44</sup> Jesus'ek deadar errimeaz auxe esan eban: «Nigan sinisten dauanak, ez dau nigan sinisten, ni bialdu nauanagana baiño. <sup>45</sup> Eta ni ikusten nauanak, ni bialdu nauana ikusten dau. <sup>46</sup> Ni munduari argi egitera etorri naz: nigan sinistu dagianik bat be illunetan gelditu ez daiten. <sup>47</sup> Norbaitek nire berbak entzun bai eta gordeten ez ba'dauz, nik ez dot alakoá galduko: ni ez naz mundua galtzera etorri-ta, mundua salbatzera baiño. <sup>48</sup> Ni baztatu ta nire berbak onartzen ez dauzanak, ba-dauko orrek nok galdu: nik iragarri dodan irakatsiak berak galduko dau

alakoa azken-egunean. <sup>49</sup> Izan be, nik ez dot nire buruz berbarik egin, bestetara baiño: ni bialdu nauan Aitak agindu daust esan eta berba egin bear dodana. <sup>50</sup> Eta ba-dakit nik aren agindua betiko bizitza dana. Orregaitik, nik diñodazan berbak, Aitak esan daustazanez diñodaz nik».

## XIII

**Jesus'ek bere ikasleen oiñak garbitzen dauz.**

<sup>1</sup> Pazko-jai aurrean, Jesus'ek, mundu onetatik Aitagana joateko ordua etorri izan yakola jakiñik, munduan egozan bereak maite izanda, azken-azkeneraiño maite izan ebazan. <sup>2</sup> Aparitan (\*), deabruak Simon Iskariote'ren semea zan Judas'i Jesus saltzeko asmoa orduko sartu izan eutsanean (\*), <sup>3</sup> Aitak guztia eskuetan itxi izan eutsala jakiñik, baita Jaungoikoagandik urten izan zala ta Jaungoikoagana yoiala be, <sup>4</sup> maitik jagi, soingaiñekoa kendu ta, esku-zapi bat arturik, gerrian lotu eban. <sup>5</sup> Gero, ontzi baten ura ipiñi ta ikasleen oiñak garbitzen eta gerrian eukan esku-zapiaz sikatzen asi zan (\*).

<sup>6</sup> Simon Pedro'gana eldu zan; eta onek ba-dirautso. «Jauna, zuk niri oiñak garbitu?» <sup>7</sup> «Nik egiten dodana -erantzun eutsan Jesus'ek -, zuk ez dakizu orain; gerrogo jakingo dozu». <sup>8</sup> Pedro'k dirautso: «Egundo ez daustazuz oiñak garbituko». «Garbitzen ez ba'zaitut -erantzun eutsan Jesus'ek -, ez dozu nigaz artu-emonik». <sup>9</sup> Simon Pedro'k dirautso: «Jauna, oiñak bakarrik ez, baita eskuak eta burua be». <sup>10</sup> Jesus'ek dirautso: «Uretan egon danak, ez dauko garbitu bearrik (\*); guztiz garbi dago. Eta zuek garbi zagoze, guztiok egon ezarren». <sup>11</sup> Be-ekian nok salduko eban, eta orrexegaitik esan eban «ez zagoze guztiok garbi».

<sup>12</sup> Arei oiñak garbitu ta bere soingaiñekoa artuta gero, barriro maian jarri zan, eta auxe esan eutsen: «Ulertzen

dozue egin dautsuedana? <sup>13</sup> Zuek, «Irakasle» ta «Jauna» dei egiten daustazue, eta ederto esanda, izan be ba-naz-ta. <sup>14</sup> Beraz, zuen Jauna ta Irakaslea nazan onek zuei oiñak garbitu ba'daustuedaz, zeuok be alkarri garbitu bear daustazue oiñak. <sup>15</sup> Ikasbidea emon dautsuet, nik zuoi egin dautsuedanez egin dagizuen zuek be. <sup>16</sup> Bene-benetan dirautsuet: morroia ez da bere ugazaba baiño nagusiago, ezta bialdua be bialdu dauana baiño nagusiago. <sup>17</sup> Au jakiñik, zoriontsuak izango zaree zuek ori egiten ba-dozue. <sup>18</sup> Ez diñot au guztiokaitik; ezagutzen dodaz nik auke-ratu dodazanak; baiña, Liburu Santuko au bete bearra da: *Nire ogia jaten dauanak, bere orpoa neure kontra jaso dau*. <sup>19</sup> Oraindixek dirautsuet, jazo baiño len: jazo daitenean, ni ba-nazala sinistu dagizuen. <sup>20</sup> Bene-benetan dirautsuet: nik bialdu dagidana onartu dagianak, neu artzen nau; eta ni onartu nagianak, ni bialdu nauana artzen dau».

**Judas'en saldukeria iragariten dau.**

(Mt. 26, 21-25; Mk. 14, 18-20; Lk. 22, 21-23)

<sup>21</sup> Berbok esan ebazanean, bere barruan larri baten jarri zan, eta auxe autortu eban: «Bene-benetan dirautsuet: zuetariko batek saldu egingo nau». <sup>22</sup> Ikasleak alkarri begiratzen eutsoen, ori nortzaz iñoan ez ekiela. <sup>23</sup> Ikasletariko bat, Jesus'ek maite ebana, maian Jesus'en ondoan egoan. <sup>24</sup> Simon Pedro'k kiñu bat egin eta auxe esan eutsan: «Itandu egiozu ori nortzaz diñoan». <sup>25</sup> Arek, Jesus'en bular-geñera makurtuaz, ba-dirautso: «Jauna, nor da?» <sup>26</sup> Jesus'ek auxe erantzuten dautso: «Nik orain bustitera noan agokada bat emon dagiodana da». Eta agokada bat bustirik, artu ta Judas'i, Simon Iskariote'ren semeari emoten dautso. <sup>27</sup> Eta orduan, agokada ondoren, Satanas sartu yakon. Jesus'ek dirautso: «Egitekoa, egizu laster». <sup>28</sup> Baiña, mai-lagunetariko batek be ez eban ulertu ori zegaitik zirautsan. <sup>29</sup> Diru-zorroa Judas'ek eukan-eta, Jesus'ek auxe zirautsala uste eben batzuek: «Erosi egizu jai-



egunerako bear doguna», edo-ta, beartsuai zerbait emoteko agintzen eutsala. <sup>30</sup> Judas, agokad(e)a artuta batera, urten egin zan. Gaba zan.

<sup>31</sup> Judas urten zanean, Jesus'ek ba-diño: «Oraintxe izan da goratua Gizasemea, eta Jaungoikoa izan da goratua aregan. <sup>32</sup> Jaungoikoa orregan goratua izan ba'da, Jaungoikoak be beragan (\*) goratuko dau ori: eta laster goratuko dau».

#### Azken-agurrak.

<sup>33</sup> «Ene semetxoak: onezkero apur bateko nago zuekaz. Zuek neure billa ibiliko zaree; eta judarrai esan neutsenena bera dirautsuet orain zuoi be: ni noan tokira, zuek ezin etorri zaittekeze (\*). <sup>34</sup> Agindu barri bat emoten dau-tsuet: alkar maite dagizuela. Nik maite izan zaituedanez, zuek be alkar maite dagizuela (\*). <sup>35</sup> Onetantxe ezagutuko dabe guztiak neure ikasle zareena: zuek alkar maite izatean».

<sup>36</sup> Simon Pedro'k dirautso: «Jauna, nora zoaz?» «Ni noan tokira –erantzun eutsan Jesus'ek–, zuk orain ezin jarraitu daikedazu; geroago jarraituko daustazu». <sup>37</sup> Pedro'k dirautso: «Zegaitik orain ezin jarraitu daiketzut? (\*). Neure bizia emongo dot zugaitik». <sup>38</sup> Jesus'ek auxe erantzuten dautso: «Zeure bizia emongo dozula nigaitik? Benetan dirautsut: ez dau oillarrak kukurruru egingo, zuk ni iru bidar ukatu baiño len».

#### XIV

<sup>1</sup> «Ez bedi larritu zuen biotza. Jaungoikoagan sinisten dozue; neugan be sinistu egizue. <sup>2</sup> Nire Aitaren etxean bizitoki asko dagoz; ezezkoan, esango neuskizuen; zuei toki bat gertatzera noa-ta. <sup>3</sup> Eta joan eta tokia gertatu dagitzuedanean, atzera etorri ta neugaz artuko zaituet: ni

egon naiten tokian zeuok be egon zaitezen. <sup>4</sup> Eta ba-dakizue zuek ni noan tokirako bidea».

<sup>5</sup> Tomas'ek dirautso: «Jauna, ez dakigu nora zoazanik, eta zelan jakin daikegu, ba, bidea?» <sup>6</sup> Jesus'ek dirautso: «Neu naz Bidea eta Egia eta Bizitza. Aitagana ez doa iñor, neure bidez izan ezik. <sup>7</sup> Ni ezagutu izan ba'nenduzuen, neure Aita be ezagutuko zeukeen. Aurrerantzean, ezagutzen dozue, baita ikusi be egin dozue».

<sup>8</sup> Felipe'k dirautso: «Jauna, erakutsi eiguzu Aita, eta naikoa dogu». <sup>9</sup> Jesus'ek dirautso: «Onen luzaro zeuokaz egon, eta ez nozu ezagutzen, Felipe? Ni ikusi nauanak, Aita ikusi dau. Zelan diñozu, ba, 'erakutsi eiguzu Aita?' <sup>11</sup> Ez dozu sinisten (\*) ni Aitagan nagoanik eta Aita neugan dagoanik, ala? Nik dirautsuedazan berbok, ez diñodaz neure buruz: neugan dagoan Aita da lanak egiten dauzana. <sup>11</sup> Sinistu egidazue; ni Aitagan nago, eta Aita neugan dago. Sinistu egizue egiñakaitik, beñik-bein. <sup>12</sup> Benetan dirautsuet: nigan sinisten dauanak, herak be egingo dauz nik egiten dodazanak, eta aundiagoak be egingo dauz, ni Aitagana noa-ta. <sup>13</sup> Eta neure izenean eskatu dagizuen edozer, orixe egingo dot nik, Aita Semeagan goratua izan daiten. <sup>14</sup> Nire izenean zerbait eskatzen ba'daustazue, orixe egingo dot. <sup>15</sup> Ni maite ba'nozue, gordeko dozuez nire aginduak (\*); <sup>16</sup> eta nik Aitari eskatuko dautsat eta Poz-emoille bat emongo daitsue, beti zeuokaz egon daiten: <sup>17</sup> egiazko Espiritua da, munduak ezin artu dai-kena, ez dau ikusten ez ezagutzen-eta. Baiña zuok, bai, ezagutzen dozue, zeuokaz bizi ta zeuokan dago-ta (\*). <sup>18</sup> Ez zaituet umezurtz itxiko: etorriko nakizue barriro. <sup>16</sup> Laster ez nau munduak geiago ikusiko; zuek, barriz, bai, ikusiko nozue: ni bizi naz-ta, eta zuok be bizi izango zaree. <sup>20</sup> Egun aretan ulertuko dozue ni neure Aitagan nagoana, eta zuek neugan eta ni zeuokan. <sup>21</sup> Nire aginduak onartzen eta beteten dauzana, arexek maite nau; ta ni maite nauana, maite izango dau nire Aitak; eta neuk

be alakoa maite izango dot eta agertu egingo nakio» (\*).

<sup>22</sup> Judas'ek - Iskariote'k ez, gero -, auxe dirautso: «Jauna, zer dala-ta guri bai ta munduari ez zakiozala agertuko?» <sup>23</sup> «Norbaitek maite ba-nau - erantzun eutsan Jesus'ek -, neure itza beteko dau, eta nire Aitak maite izango dau alakoa, eta etorri egingo gakioz eta beragan egongo gara egotez. <sup>24</sup> Ni maite ez nauanak, ez dauz nire berbak gordeten. Eta nire itza ez da nirea (\*), ni bialdu nauanarena baiño (\*). <sup>25</sup> Berbok, zuon artean nagoala esan dautsuedaz. <sup>26</sup> Baiña, nire izenean Aitak bialduko dauan Espiritu Santu Poz-emoilleak irakatsiko dautsue guztia, eta nik esan dautsuedan guztia ekarriko dautsue gogora.

<sup>27</sup> Bakea izten dautsuet, neure bakea emoten dautsuet, ez dautsuet munduak emoten dauanez emoten. Ez bedi larritu zuen biotza, ezta kikildu be. <sup>28</sup> 'Ba-noa ta ba-natorkizue' esaten entzun nozue. Ni maite ba-nengizue, poz-tuko zintzakeze ni Aitagana joateaz; Aita ni baiño aundiagoa da-ta (\*) <sup>29</sup> Orregaitik, jazo baiño len esan dautsuet; jazo daitenean, sinistu dagizuen. <sup>30</sup> Onezkero, ez dot zuekaz berbaldi aundirik egingo, mundu onetako nagusia ba-dator-eta (\*). Arek ezin egin daike ezer nire kontra; <sup>31</sup> baiña, jakin egin bear dau munduak (\*), nik Aita maite dodana ta Aitak agindu daustanez egiten dodana nik. Jagi zaiteze. Goazan emendik».

## XV

### Benetako matsondoa.

<sup>1</sup> «Ni benetako matsondoa naz, eta nire Aita maasti-zaña da (\*). <sup>2</sup> Nigan fruturik ez dakarren edozein aien, ebagi egiten dau; eta frutua dakarrena, iñausi egiten dau, frutu geiago emon dagian. <sup>3</sup> Zuek, onezkero, garbi zagoze, iragarri dautsuedan itzari esker. <sup>4</sup> Iraun egizue nigan,

rik zuokan lez. Matsondoa egon ezik, aienak berez fruturik ezin ekarri daikenez, zuok be ezin daikezue neugan irauan ezik. <sup>5</sup> Ni matsondoa naz; zuek, aienak. Nik beragan lez, neugan irauten dauanak, frutua ugari dakar: nigandik aldenduta, ezertxo be ezin egin daikezue-ta. Norbaitek neugan irauten ez ba'dau, kanpora jaurtia izaten da, aiena lez, eta igartu egiten da; gero batu ta sutara jaurtiten dabez, eta erre egiten dira. <sup>7</sup> Neugan irauten ba'dozue, eta nire berbak zeuokan irauten ba-dabe, eskatu nai dagizuena, eta jadetsi egingo dozue. <sup>8</sup> Auxe da nire Aitaren gorapena: zuek frutua ugari emon dagizuena, eta orrela neure ikasle izango zaree (\*). <sup>9</sup> Aitak maite izan nenduanz maite izan zaituet neuk be; irauan egizue nire maitasunean. <sup>10</sup> Aginduak gordeten ba'dozue, neure maitasunean irauango dozue, neuk be nire Aitaren aginduak bete ta here maitasunean irauten dodanez. <sup>11</sup> Nire poza zeuokan egon daiten esan dautsuet au, eta zuen poza bete-betea izan daiten (\*). <sup>12</sup> Auxe da nire agindua: alkar maite dagizuena, nik zuek maite izan zaituedanez. <sup>13</sup> Bere adiskideen alde bere bizia emoten dauanak baiño maitasun aundiagorik iñok be ez dau. <sup>14</sup> Zuek neure adiskideak zaree, agintzen dautsuedana egiten ba'dozue. <sup>15</sup> Onezkero, ez dautsuet morroi izenaz dei egingo, ugazabak egiten dauana morroiak ez daki-ta; zuei, adiskide esan dautsuet, nire Aitari entzun dautsadan guztia ezaguerazo dautsuet-eta. <sup>16</sup> Ez nozue zuek ni aukeratu, nik zuek baiño; eta joan zaitezen eta frutua emon dagizuen aukeratu zaituet, eta frutu iraunkorra izan daiten aukeratu be, nire izenean Aitari eskatu dagiozuen edozer emon dagitzuen. <sup>17</sup> Auxe agintzen dautsuet: alkar maite dagizuena».

### Munduaren gorrotoa.

<sup>18</sup> «Munduak gorroto ba'dautsue, jakin egizue, zuei baiño len gorroto izan daustana niri. <sup>19</sup> Mundukoak ba'zintzaze, munduak berea maite izango leuke; baiña mundu-



koak ez zareen ezkeru, nik zuek aukeratzean mundutik atara egin zaituedaz-ta, orrexegaitik dautsue gorroto munduak.<sup>20</sup> Izan egizue gogoan esan dautsuedan berba au: Morroia ez da bere ugazaba baiña aundiagoa. Ni aurrean erabilili ba'nabe, zuok be aurrean erabiliko zaitue; nire itza bete ba'dabe, zuona be gordeko dabe.<sup>21</sup> Baiña guzti au neure izenagaitik egingo dautsue, bialdu nauana ez da-be ezagutzen-eta.<sup>22</sup> Ni etorri izan ez ba'nintz eta berbarik egin izan ez ba'neutse, ez leukeen pekaturik; orain, barriz, ez dabe euren pekatuarentzako atxakirik.<sup>23</sup> Niri gorroto daustanak, neure Aitari be gorroto dautso.<sup>24</sup> Ni arein artean beste iñok egin ez dauzan egiñak egin ez ba'neuz, ez leukeen pekaturik; orain, barriz, ikusi dabez, bai, eta Aitari ta niri gorroto daukue.<sup>25</sup> Baiña, olantxe beteten da arein Legean idatzita dagoan au: *Bide bagarik izan eusten gorroto* (\*).<sup>26</sup> Nik Aitagandik datorren eta bialduko dautsuedan Poz-emoillea ta benetako Espiritua etorri daitenean, berak egingo dau autor nitzaz.<sup>27</sup> Zuok be autor egingo dozue, asierarik neugaz zagoze-ta».

## XVI

<sup>1</sup> «Gaizpiderik artu ez dagizuen esan dautsuet au.<sup>2</sup> Sinagoetatik jaurti egingo zaitue. Eta orduan be etorriko da, il zagiezan edonok, orretan Jaungoikoa gurtzen diarduala uste izango dauana.<sup>3</sup> Eta ori, ez nire Aita, ez ni ezagutzen gaituelako egingo dabe.<sup>4</sup> Ordua etorri daitenean, neuk esan izan neutsuela gogoratu dagizuen esan dautsuet au».

**Espiritu Santuaren etorrera.**

«Au ez neutsuen asierarik esan, ni zeuokaz nengoan-eta.<sup>5</sup> Baiña orain, bialdu nauanagana noa, eta zuetariko batek be ez daust 'Nora zoaz?' itaunduten.<sup>6</sup> Baiña, au esan dautsuedalako, zuen biotzak naigabez bete dira.<sup>7</sup>

Baiña, nik egia dirautsuet: egoki yatzue ni joatea: ni joaten ez ba'naz, ez yatzue Poz-emoillea etorriko-ta; ni joaten ba'naz, barriz, neuk bialduko dautsuet;<sup>8</sup> eta etorri daitenean, berak jaurtiko dautso munduari arpegira pekatuari dagokiona, zuzentasunari dagokiona ta auziari dagokiona:<sup>9</sup> pekatuari dagokiona, nigan sinisten ez dabelako;<sup>10</sup> zuzentasunari dagokiona, Aitagana noalako ta aurrerantzean ikusiko ez nozuelako;<sup>11</sup> auziari dagokiona, mundu onetako Nagusia galduta dagoalako.<sup>12</sup> Ba-dot oraindiño zuei esatekorik naiko; baiña, orain ezin jaso daikezue zuek.<sup>13</sup> Baiña bera, benetako Espiritua etorri daitenean, berak eroango zaitue egi osotaraiño: ez dau bere buruz berba egingo-ta, entzuten dauan guztia esango dau, ostera, eta etorkizun dana iragarriko dautsue.<sup>14</sup> Arexek goratuko nau ni, neuretik artuko dau ta zeuoi irakatsiko dautsue-ta.<sup>15</sup> Aitak daukan guztia, neurea da. Orrexegaitik esan dot, neuretik artuko dauala ta zeuoi irakatsiko dautsuela».

**Laster etorriko dala iragarten dau.**

<sup>16</sup> «Laster, ez nozue geiago ikusiko, eta gerotxoago bariro ikusiko nozue» (\*).<sup>17</sup> Orduan, Aren ikasletariko batzuek alkarri auxe esan eutsoen: «Zer esan nai ete-dausku, 'laster ez nozue ikusiko, eta gerotxoago bariro ikusiko nozue', eta 'Aitagana noa' dirauskun orreaz?»<sup>18</sup> Eta auxe iñoen: «Zer ete-da 'laster' ori? (\*) Ez dakigu zer esan nai dauan».<sup>19</sup> Konturatu zan Jesus zerbait itandu nai eutsoela, eta auxe esan eutsen: «Alkarri itaunka diarduzue esan dautsuedan oni buruz: 'Laster, ez nozue ikusiko, eta gerotxoago bariro ikusiko nozue?'<sup>20</sup> Benetan dirautsuet: negar eta antzi (*zizpuru*) egingo dozue zuek, eta mundua poztu egingo da. Illun (*triste*) egongo zaree zuek, baiña zuen illunaldi ori poz biurtuko da.<sup>21</sup> Emakumea. seiña (*umetxoa*) egiteko dagoanean, larri dago, ordua eldu yako-ta; baiña, umetxoa jaiio yakonean, ez dau larritasun a gogora ekarten, munduan gizon bat jaiio dan pozagai-

tik. <sup>22</sup> Zuok be illun zagoze orain; baiña, barrero ikusiko zaituet, eta poztu egingo da zuen biotza, eta zuen poz ori iñortxok be ez dautsue kendu al izango. <sup>23</sup> Egun aretan ez daustazue itaunik egingo. Benetan dirautsuet: Aitari neure izenean eskatu dagiozuena, emon egingo dautsue. <sup>24</sup> Orain arte ez daustazue nire izenean ezer be eskatu. Eskatu egizue, eta artu egingo dozue, zuen poza bete-betea izan daiten. <sup>25</sup> Guzti au, ipuiñetan esan dautsuet. Ba-dator ordua, eta aurrerantzean ez dautsuet ipuiñetan berbarik egingo; argi ta garbi emongo dautsuet, ostera Aitaren barri. <sup>26</sup> Egun aretan neure izenean eskatuko dozue; eta nik ez dirautsuet Aitari zuon alde erregutuko dautsadanik (\*): <sup>27</sup> izan be, zuek maite izan nozuelako ta Jaungoikoagandik urten nintzala sinistu dozuelako maite zaitue Aitak berak-eta. <sup>28</sup> Aitagandik urten eta mundura etorri naz. Orain, mundua itxi ta Aitagana noa».

<sup>29</sup> Ikasleak auxe dirautsoe: «Oraintxe bai egiten dozula berba argi ta garbi, eta ez dozula ipuiñik esaten!» <sup>30</sup> Orain ba-dakigu guztia dakizuna ta ez dozuna iñoren itaun-bearrik. Orrexegaitik sinisten dogu Jaungoikoagandik etorri zar(e)ana». <sup>31</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsen: «Sinisten dozue orain? <sup>32</sup> Begira: ba-dator ordua -eldu be egin da -, eta zuek bakotxa bere aldetik bananduko zaree ta bakarrik itxiko nozue. Baiña, ez nago bakarrik. Aita neugaz dago-ta. <sup>33</sup> Gaiok, nigan bakea izan dagizuen esan dautsuedaz. Munduan estura izango dozue. Baiña, izan adorea!: neuk azpiratu dot mundua».

## XVII

### Jesus'en abade-otoitza.

<sup>1</sup> Olantxe egin eban berba Jesus'ek; eta begiak zerura jasorik, auxe esan eban (\*): «Aita, eldu da ordua; goratu egizu Semea, Semeak zeu goratu zagizan. <sup>2</sup> Aragi guztia-

ren gaiñeko eskubidea emon daustazun ezkerro, betiko bizitza be emon dagitsela zuk emon daustazuzan guztia: <sup>3</sup> Auxe da betiko bizitza: ezagutu zagiezela zu, egiazko Jaungoiko bakar ori, baita zuk bialdutako Jesukristo be. <sup>4</sup> Goratu zaitut nik lurrean, egiteko emon zeustan lana buruturik. <sup>5</sup> Orain, Aita, goratu nagizu zeuk, zeure ondoan, mundua izan baiño len zeure ondoan neukan aintzaz. <sup>6</sup> Agertu dautset nik zure izena mundu onetatik atarata emon daustazuzan gizonai. Zeureak ziran eta neuri emon zeustazan; eta zeure itza gorde dabe. <sup>7</sup> Orain ba-dakie, zuk emon daustazun guztia, zeugandik datorrena: <sup>8</sup> zeuk esan zeustana esan dautset-eta; areik benetan onartu dabe ni zeugandik natorrela, eta sinistu dabe zeuk bialdu nozuna. <sup>9</sup> Euren alde erregutzen dot; ez dot munduaren alde erregutzen, zeuk emon daustazuzan alde baiño, zeureak dira-ta. <sup>10</sup> Nire guztia reurea da, eta guztia neurea; eta ni orrexetan izan naz goratua. <sup>11</sup> Onezkero, ni ez nago munduan; oneik, barriz, munduan dagoz, eta ni zeugana noa. Gorde egizuz zure izenean, Aita santu orrek!, emon daustazuzanok (\*): gu biok lez bat izan daitezcan. <sup>12</sup> Ni onekaz nengoanean, neuk gordeten nebazan zure izenean zuk emon daustazuzanok. Neuk zaindu dodaz, eta ez da bat be galdu, ondapenseme izan ezik, Liburu Santua bete zedin. <sup>13</sup> Orain, barriz, zeugana noa; eta berbok munduan diñodaz, nire poza bete-betea eurakan izan dagien. <sup>14</sup> Nik zeure itza emon dautset, eta munduak gorroto izan dautse, ez dira mundukoak-eta. neu be mundukoa ez nazanez.

<sup>15</sup> Ez dautsut oneik mundutik atarateko eskatzen, Gaiztoagandik gorde dagizuzala baiño. <sup>16</sup> Oneik ez dira mundukoak, neu be mundukoa ez nazanez. <sup>17</sup> Santutu egizuz egitan: zure itza egia da. <sup>18</sup> Zuk ni mundura bialdu nozunez, neuk be mundura bialdu dodaz. <sup>19</sup> Eta eurokaitik neure burua eskintzen dot oparizat, eurok be egitan santutuak izan daitezcan (\*).



<sup>20</sup> Ez dot onein alde bakarrik eskatzen, onein itzaren bidez neugan sinistuko dabenen alde be erregutzen dautsut. <sup>21</sup> Guztiok bat izan daitezala, Zu, Aita!, nigan eta ni zugar bat gar(e)anez, eurok be bat izan daitezala gugar, zeuk bialdu nozula munduak sinistu dagian. <sup>22</sup> Zeuk emon zeustan aintza emon dautset nik, gu bat garanez, eurok be bat izan daitezkan: <sup>23</sup> ni onekan eta zu nigan, oso-osorik bat izan daitezkan, eta munduak ezagutu dagian zeuk bialdu nozula, eta zuk ni maite izan nozunez maite izan dodazala nik oneik (\*). <sup>24</sup> Aita, zuk emon daustazuzanok be, neugaz batera, neu egon naiten tokian egon daitezala nai dot: neure aintza, zeuk emon daustazuna, ikusi dagien, mundua egin izan aurretik maite izan nozu-ta. <sup>25</sup> Aita zuzen ori: munduak ez zaitu ezagutu; nik, barriz, bai, ezagutu zaitut, eta oneik ezagutu dabe zeuk bialdu nozuna. <sup>26</sup> Nik zeure izena agertu dautset eta arrrerantzean be agertuko dautset: maite izan nozun maitasuna eurokan egon daiten eta neu be bai eurokan».

## XVIII

## NEKALDIA

**Jesus, lotuta daroe.**

(Mt. 26, 30. 36. 47-56; Mk. 14, 26. 32. 43-52; Lk. 22, 39. 47-53).

<sup>1</sup> Ori esanda, Jesus bere ikasleakaz Zedron erreka bestekaldera igaro zan, eta bertako ortu baten sartu i-ran Jesus eta beronen ikasleak. <sup>2</sup> Judas'ek be, Jesus salduko ebanak, ezagutzen eban toki a, Jesus bere ikasleakaz an sarri batzen zan-eta. <sup>3</sup> Judas, ba, abadeburu ta pariseuak bialdutako gudari-talde ta zaintzailleakaz, araxe doa, kruselu, argizuzi ta iskilluakaz (*armakaz*). <sup>4</sup> Jesus'ek, gainera etorkion guztia ba-ekian-eta, aurreratu ta itaun au egiten dautse: «Nor billatzen dozue?». <sup>5</sup> «Jesus Nazare-

tarra», erantzun eutsoen. Jesus'ek dirautse: «Neu naz». Judas saltzaillea be eurakaz egoan. <sup>6</sup> «Neu naz» esan eutseanean, atzeraka egin eta lurrera jauzi ziran. <sup>7</sup> Barriro itandu eutsen: «Nor billatzen dozue?». «Jesus Nazaretarra», erantzun eutsoen. <sup>8</sup> Jesus'ek auxe erantzun eban: «Esan dautsuet neu nazana; beraz, neure billa ba'zatoze, itxi onei joaten» (\*). <sup>9</sup> Olantxe beteko zan len esan izan eban au: 'Zuk emon daustazuzenetatik bat bera be ez dot galdu' (\*).

<sup>10</sup> Orduan, Simon Pedro'k, berak eukan ezpata atara ta Abade Nagusiaren morroia zauritu ta eskumako belarria moztu eutsan. Morroiaren izena, Malko zan. <sup>11</sup> Jesus'ek Pedro'ri auxe esan eutsan: «Sartu ezpata ori zorroan. Aitak emon daustan ontzikoa ez dot edango, ala?».

**Jesus, Anas'en eta Kaifas'en aurrean. — Pedro'ren ukatzeak.**

<sup>12</sup> Orduan, gudari-taldeak, guda-buruak eta judarren zaintzailleak Jesus'i eldu ta lotu egin eben, <sup>13</sup> eta Anas'en etxera eroan eben lenengo, urte aretan Abade Nagusi zan Kaifas'en aitagiñarreba zan-eta. <sup>14</sup> Kaifas au, judarrai burubide au emon eutsena zan: 'Erriagaitik gizon bat bakarrik il daiten obe da'.

(Mt. 26, 58. 69-75; Mk. 14, 54. 67-72; Lk. 22. 54-62).

<sup>15</sup> Jesus'i Simon Pedro'k eta beste ikasle batek jarraitzen eutsoen. Ikasle au Abade Nagusiaren ezaguna zan, eta Jesus'egaz batera sartu zan Abade Nagusiaren jauregian, <sup>16</sup> Pedro kanpoan, ate-ondoan, gelditzen zan artean. Orduan, Abade Nagusiaren ezaguna zan beste ikaslea urten, neskame atezaiñari berba egin eta Pedro sartu egin eban. <sup>17</sup> Neskame atezaiñak Pedro'ri ba-dirautso: «Ez zara zu be gizon orren ikasletarikoa, ba?». «Ez naz», diño Pedro'k. <sup>18</sup> Otz egoan ezkerro, morroiak eta zaintzailleak txingar iziotu batzuk eukezan, eta berotzen ziarduen. Pedro be eurakaz egoan, berotzen.

<sup>19</sup> Abade Nagusiak Jesu'i beronen ikasle ta irakatsiari buruz itandu eutsan. <sup>20</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsan: «Agiri-agirian berba egin dot mundu guztiaren aurrean; judar guztiak batzen diran sinagogan eta Jaunaren Etxean irakatsi dot nik beti, eta isillean ez dot ezer esan. <sup>21</sup> Zegaitik itanduten daustazu, ba, niri? Itandu egiezu entzun daustenai nik berba egin daustedana; eurak dakie esan dodana». <sup>22</sup> Ori esanda batera, an egoan zaintzailletariko batek matraillako bat emon eutsan, esanez: «Olan erantzuten dautsazu Abade Nagusiari?». <sup>23</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsan: «Oker berba egin ba'dot, esan egizu okerra; zuzen berba egin ba'dot, barriz, zegaitik joten nozu?». <sup>24</sup> Orduan, Anas'ek Kaifas Abade Nagusiagana bialdu eban, lotuta.

<sup>25</sup> Simon Pedro antxe egoan, berotzen; eta auxe esan eutsoen: «Zeu be ez zara, ba, orren ikasletariko?». Arek ukatu egin eban, esanez: «Ez, ez naz». <sup>26</sup> Abade Nagusiaren morroietariko batek, Pedro'k belarria moztu izan eutsanaren senide zanak, ba-dirautso: «Neuk ez zaitut, ba, aregaz batera ortuan ikusi?». <sup>27</sup> Pedro'k barriro be ukatu, eta bat-batean oillar batek kukurruku egin eban.

#### **Jesus, Pilato'ren aurrean.**

(Mt. 27, 2. 11-26; Mk. 15, 1-5; Lk. 23, 1-7. 13-25).

<sup>28</sup> Kaifas'en etxetik auzitegira daroe Jesus. Goizaldea zan. Judarrak ez ziran auzitegian sartu, loitu ez zeitezan, eta Pazkoa jan al egien. <sup>29</sup> Orduan, Pilato'k arekana urten eta auxe esan eutsen: «Zer dakazue gizon onen kontua?». <sup>30</sup> «Au gaiztoa ez ba'litz -erantzun eutsoen areik-, ez geuskizun ekarriko». <sup>31</sup> Pilato'k auxe erantzun eban: «Zeuok artu, eta zeuon legebidez epaitu egizue». «Guk ez dogu inor ilteko eskubiderik», erantzun eutsoen judarrak. <sup>32</sup> Olantxe bete bearra zan Jesus'ek esan izan ebana, zelako eriotzaz ilgo zan adierazo ebanean.

<sup>33</sup> Orduan, Pilato barriro auzitegian sartu zan; eta Je-

sus'i dei egiñik, itaun au egin eutsan: «Judarren erregea zara zu?». <sup>34</sup> Jesus'ek auxe erantzun eban: «Ori zeure buruz diñozu, ala nitzaz beste batzuek esan dautsuelako?». <sup>35</sup> «Judarra naz, ba, ni, ala? -erantzun eban Pilato'k-. Zeure erriak eta abadeburuak ekarri zaitue nigana. Zer egin dozu?». <sup>36</sup> «Nire Erregetza ez da mundu onetakoa -erantzun eban Jesus'ek-. Nire Erregetza mundu onetakoa ba'litz, nire laguntaldeak gogor egingo leukeen, judarren eskuetan jausi ez nendin; baiña, nire Erregetza ez da emengoa».

<sup>37</sup> Orduan, Pilato'k auxe esan eutsan: «Beraz, errege zara zu?». «Bai, errege naz, zeuk diñozunez -erantzun eutsan Jesus'ek-. Onetarakoxe jaio naz ni, eta onetarakoxe etorri naz mundura: egia autortzeko. Egizale dan edonok, nire abotsa entzun egiten dau». <sup>38</sup> Pilato'k auxe itandu eutsan: «Zer da egia?». Eta ori esanda, barriro judarrakana urten zan, eta auxe esan eutsen: «Nik ez dot orregan errurik aurkitzen. <sup>39</sup> Oitura dozue Pazkoz nik bat askatzea. Nai dozue, ba, judarren erregea askatu dagitzuedan?». <sup>40</sup> Areik barriro be deadarka asi ziran, esanez: «Ori ez; Barrabas baiño!». Barrabas au lapurra zan.

#### **XIX**

(Mt. 27, 27-31; Mk. 15, 16-20).

<sup>1</sup> Orduan, Pilato'k Jesus artu ta zigorkadaz astintzeko agindu eban. <sup>2</sup> Gudariak arantzazko koroï bat egin, Ari buruan ezarri ta purpurazko soingaiñeko bat jantzi eutsoen; <sup>3</sup> eta Aregana urreraturik, «Agur, judarren errege orri!» zirautsoen. Eta matraillakoak emoten eutsoezan.

<sup>4</sup> Pilato'k, barriro kanpora urten eta auxe esan eutsen: «Begira, kanpora dakartzuet, (\*) errurik bape aurkitzen ez dodana jakin dagizuen». <sup>5</sup> Orduan, Jesus arantzazko koroïa ta purpurazko soingaiñekoa eroanez urten zan kanpora. Pilato'k dirautse: «Emen dozue gizona!».



° Abadeburuak eta zaintzailcak Jesus ikusi ebenean, deadarka esan eben: «Gurutzera ori, gurutzera ori!». Pilato'k dirautse: «Artu zeuok eta gurutzeratu, nik ez dot orregan errurik bat bera be aurkitzen-eta». <sup>7</sup> Judarrak auxe esan eutsoen: «Guk ba-dogu Legea, eta Legez, eriotza bear dau, bere burua Jaungoikoaren Seme egin dau-ta».

<sup>8</sup> Pilato'k herbok entzun ebazanean, geiago bildurtu zan. <sup>9</sup> Barriro auzitegian sartu ta Jesus'i auxe esan eutsan: «Nungoa zara zu?» (\*). Baiña, Jesus'ek ez eutsan erantzunik emon. <sup>10</sup> Pilato'k dirautso: «Ez dozu barbarik niretzat? Ez dakizu zu askatzeko eskubidea ta gurutzean josteko eskubidea dodana, ala?». <sup>11</sup> Jesus'ek auxe erantzun eban: «Ez zeuke eskubiderik nire kontra, goitik emon ez ba'litzakizu (\*); orregaitik, zure eskuetan jarri nauanak, pekatu aundiagoa dau».

#### Eriotz-epaia.

<sup>12</sup> Arrezkero, Pilato'k Jesus askatu naiez ziarduan. Baiña, judarrak deadarka esan eben: «Ori askatzen ba' dozu, ez zara Zesar'en adiskide; bere burua errege egi-ten dauan edonor, Zesar'en kontra jarten da». <sup>13</sup> Pilato'k herbok entzutean, Jesus kanpora atara eban, eta epai-maian jesarri zan, Losadura\* deritxon tokian -eberkeraz, Gabbatá\* -. <sup>14</sup> Pazkoa atontzeko eguna zan, seigarren ordu aldean. Pilato'k judarrai auxe dirautse: «Emen daukazue zuen erregea». <sup>15</sup> Areik auxe iñoen (\*): «Kendu, kendu ori! Gurutzera ori!». Pilato'k dirautse: «Zeuon erregea josiko dot, ba, gurutzean?». «Zesar baiño beste erregarik ez dogu», erantzun eben abadeburuak.

(Mt. 27, 26; Mk. 15, 15; Lk. 23, 24-25).

<sup>16</sup> Orduan, Jesus euren eskuetan itxi eban, gurutzean josia izan zedin.

\* Losadura: Litóstrotos.

\* Gabbatá: goia, goikaldea.

#### Jesus, gurutzean.

(Mt. 27, 31. 33. 37-38; Mk. 15, 20. 22. 25-27; Lk. 23, 33-38).

Beraz, Jesus artu egin eben (\*); <sup>17</sup> eta bere gurutzea gaiñean eroiala, Buruazurtegi edo eberkeraz Golgota deritxon tokirantz urten zan; <sup>18</sup> eta antxe josi eben gurutzean, eta beste bi be bai, albo bietan, eta Jesus erdian. <sup>19</sup> Pilato'k idazkun bat be egin eban, eta gurutze-buruan ipiñi eban. Idazkunak auxe iñoan: «Jesus Nazaretarra, judarren erregea». <sup>20</sup> Judar askok irakurri eben idazkun au, Jesus gurutzeratua izan zan tokia uri-ondoan egoan-eta; eberkeraz, latiñez eta gerkeraz idatzita egoan. <sup>21</sup> Judarren abadeburuak Pilato'ri auxe esan eutsoen: «Ez dozu idatzi bear 'Judarren erregea', beste au baiño: 'Onek auxe esan dau: Judarren errege naz ni'». <sup>22</sup> «Idatzi dodana, idatzita dago», erantzun eban Pilato'k.

#### Jesus'en jantziak banatzen.

(Mt. 27, 35; Mk. 15, 24; Lk. 23, 34).

<sup>23</sup> Gudariak, Jesus gurutzean josita gero, Aren jantziak artu ta lau zatitan banatu ebezan, gudari baktontzat bana. Soingaiñekoa be artu eben; soingaiñeko au josturabagea zan, goitik beeraiño dana eunduta. <sup>24</sup> Orregaitik, alkarri auxe esan eutsoen: «Ez daigun urratu; zotz egin dagigin ia norentzat dan». Liburu Santuko au bete zedin: *Nire jantziak euren artean banandu dabez, eta nire soingaiñekoa zotz egin dabe.* Eta gudariak orixe egin eben.

#### Jesus eta bere ama.

(Mt. 27, 55-56; Mk. 15, 40-41; Lk. 23, 49).

<sup>25</sup> Jesus'en gurutze-ondoan bere ama, eta bere amaren aizta Maria Klopas'ena (\*), eta Mari Madalen egozan. <sup>26</sup> Jesus'ek, bere ama ta beronen ondoan berak maite eban ikaslea ikusirik, bere amari dirautso: «Andra, or dozu zure semea». <sup>27</sup> Gero, ikasleai dirautso: «Or dozu zure

ama». Eta ordu aretatik ikasleak bere etxean artu eban Maria.

#### Jesus'en eriotza.

(Mt. 27, 48-50; Mk. 15, 36-37; Lk. 23, 46).

<sup>28</sup> Orren ondoren, Jesus'ek guztia bete zala jakiñik, Liburu Santukoa bete zedin, auxe esan eban: «Egarri naz». <sup>29</sup> Ba-zan an ontzi bat ozpiñez\* heterik. Belaki\* bat ozpiñetan bustita isopo-adar baten lotu ta agora urreratu eutsoen. <sup>30</sup> Jesus'ek ozpiña artu ebanean, auxe esan eban: «Guztia bete da» (\*). Burua makurtu ta azken-arnasa emon

#### Saietsa urratzen dautsoe.

<sup>31</sup> Gertatze-eguna zanez (\*), zapatuz gorpuak gurutzean gelditu ez zeitezan – zapatu a egun aundia zan-eta –, arein belauak ausi ta gorpuak kendu egizala eskatu eutsoen Pilato'ri judarrak (\*). <sup>32</sup> Joan ziran, ba, gudariak, eta lenengoari belauak ausi egin eutsoezan, baita onegaz batera gurutzean jositako besteari be. <sup>33</sup> Jesus'egana eltzean, barriz, ilda aurkitu eben-eta (\*), ez eutsoezan belauak ausi; <sup>34</sup> baiña gudarietariko batek aztamakillaz (*lantzaz*), saietsa alde batetik bestera zulatu eutsan, eta bat-batean odola ta ura urten ziran. <sup>35</sup> Ikusi dauanak berak autortzen dau au, eta bere autorra egiazkoa da, eta arek ba-daki egia diñoana, zuok be sinistu dagizuen. <sup>36</sup> Eta guzti au, Liburu Santuko au bete zedin jazo zan: *Ez yako azurrik ausiko*. <sup>37</sup> Eta beste Idatz-lerro batek be ba-diño: *Zulatu ebena ikusiko dabe* (\*).

#### Jesus'en illobiratzea.

(Mt. 27, 57-60; Mk. 15, 42-46; Lk. 23, 50-54).

<sup>38</sup> Orren ondoren, Arimatea'ko Jose'k, Jesus'en ikasle zanak (izan be, judarrakanako bildurrez ixilleko ikas-

\* Ozpin: vinagre.

\* Belaki: esponja.

le izanarren), Pilato'ri Jesus'en gorpua artzeko baimena eskatu eutsan. Pilato'k baiezkoa emon eutsan. Joan ziran, ba (\*), eta artu egin eben Jesus'en gorpua. <sup>39</sup> Nikodemo be joan zan, bein baten Jesus ikustera gabez joan izan zana. Mirraz eta sumintzaz\* egindako eunen bat libra naste bat eroian. <sup>40</sup> Jesus'en gorpua artu ta usaingarriz eta izaraz batu eben, judarrak illobiratzetan egin oi dabe-nez (\*). <sup>41</sup> Gurutzean josi izan zan tokian, ortu bat zan, eta ortuan illobi barri bat, ordurarte an iñor ipiña izan ez zan illobia. <sup>42</sup> Judarren Gertatze-eguna zan ezkerro ta illobia ur egoala-ta, Jesus antxe ipiñi eben.

## XX

### BIZTUERA-EGUNA

**Illobia, utsik.** (Mt. 28, 1-8; Mk. 16, 1-8; Lk. 24, 1-11).

<sup>1</sup> Asteko lenengo egunean, goizean-goiz, artean illun egoala, Mari Madalen illobira doa, eta arria illobitik kenduta egoala ikusten dau. <sup>2</sup> Ariñeketan asi, Simon Pedro'gana ta Jesus'ek maite eban beste ikasleagana ba-dator, eta auxe dirautse: «Jauna illobitik eroan egin dabe, eta ez dargigu nun ipiñi daben».

<sup>3</sup> Pedro ta beste ikaslea urten eta illobira joan ziran. <sup>4</sup> Biak batera yoiazan ariñeketan; baiña, beste ikaslea ariñago yoian, eta lenago eldu zan illobira. <sup>5</sup> Makurtu ta zapiak, bai, ikusi ebazan, baiña ez zan bera sartu. <sup>6</sup> Eltzen da Simon Pedro aren atzetik, illobian sartzen da ta onek be zapiak ikusten dauz, <sup>7</sup> eta Jesus'en burua estaldu eban miesa be bai, zapien ondoan ez, baiña, beste baztar baten tolostuta baiño. <sup>8</sup> Orduan, illobira lenen eldu izan zan beste ikasle a be sartu egin zan; ikusi ta sinistu egin eban: <sup>9</sup> Liburu Santuak iñoanez, Jesus illen artetik biztu

\* Sumin: áloe.



bearra zanik ez eben ordurarte ulertu izan-eta. <sup>10</sup> Orduan, ikasleak euren etxera biurtu ziran.

**Mari Madalen'i agertzen yako.** (Mt. 28, 9-10; Mk. 16, 9-11).

<sup>11</sup> Mari illobi-ondoan egoan negarrez, kanpokaldean. Eta negarrez egoala, illobiruntz makurtu zan; <sup>12</sup> eta Jesus'en gorpua egon izan zan tokian, aingeru bi zuriz jantzita ikusi ebazan, bata buru-aldean eta bestea oiñak-aldean jesarrita. <sup>13</sup> Areik auxe dirautsoe: «Emakume, zegaitik egiten dozu negar?» Mari'k auxe crantzuten dautse: «Nire Jauna emendik kendu ta nun ipiñi daben ez dakidalako». <sup>14</sup> Ori esanda, atzeruntz begiratu ta Jesus ikusi eban antxe; ez ekian, baiña, Jesus zanik. <sup>15</sup> «Emakume – dirautso Jesus'ek –, zegaitik egiten dozu negar? Noren billa zabiz?» Emakumeak, ortu-zaiña zalakoan, «Jauna – dirautso –, zuk eroan ba'dozu, esan egidazu nun ipiñi dozun, eta neuk artuko dot». <sup>16</sup> Jesus'ek dirautso: «Mari!» Emakumeak Jesus ezagutu (\*) ta eberkeraz auxe esan eutsan: «Rabbuní – edo bardin dana, «Irakasle» –. <sup>17</sup> Jesus'ek dirautso: «Itxi nagizu (\*), oraindiño ez naz Aitagana igo-ta. Zoaz anaiakana (\*), eta esan egiezu: «Neure Aitagana ta zeuon Aitagana noa, neure Jaungoikoagana ta zeuon Jaungoikoagana». <sup>18</sup> Joan zan Mari Madalen, eta auxe esan eutsen ikasleai: «Jauna ikusi dot», baita auxe ta auxe esan izan eutsala beroni.

**Jesus ikasleai agertzen yake.**

(Mk. 16, 14-18; Lk. 24, 36-49).

<sup>19</sup> Asteko lenengo egun aretan, illuntzean, judarrakana bildurrez ikasleak (\*) egozan tokiko ateak itxita egozala, Jesus agertu yaken erdian, eta auxe esan eutsen: «Bakea zuekaz». <sup>20</sup> Ori esanda, eskuak eta saietsa erakutsi eutsezan. Ikasleak poztu egin ziran Jauna ikusteaz. <sup>21</sup> Jesus'ek barriro esan eutsen: «Bakea zuekaz. Aitak bialdu nenduan ez bialtzen zaituet neuk be».

<sup>22</sup> Ori esanda, arein gaiñera putz egin eta auxe esan eutsen: «Artu egizue Espiritu Santua. <sup>23</sup> Zuek pekatuak parkatu dagiezuezanai, parkatuta gelditzen yakez; zuek pekatuak lotu dagiezuezanai, lotuta gelditzen yakez».

<sup>24</sup> Tomas, amabietariko bat, Didimo eritxona, ez egoan arekaz Jesus etorri zanean. Ikasleak (\*) auxe zirautsoen: «Jauna ikusi dogu». <sup>25</sup> Arek auxe erantzun eutsen: «Aren eskuetan untzeen ezaugarria ikusten ez ba'dot, eta nire atzamarra untzeen zuloan sartzen ez ba'dot, eta nire eskuak Aren saietsean sartzen ez ba'dot, ez dot sinistuko».

<sup>26</sup> Zortzi egun geroago, ikasleak barriro barruan egozan, eta Tomas arekaz batera. Ateak itxita egozala, Jesus agertu yaken erdian, eta auxe esan eutsen: «Bakea zuekaz». <sup>27</sup> Gero, Tomas'i dirautso: «Urreratu atzamar ori, eta emen dozuz nire eskuak; ekarri esku ori ta sartu nire saietsean; eta ez zaitez sinisgogor izan, fededun baiño». <sup>28</sup> «Neure Jaun eta neure Jaungoikoa!», erantzun eutsan Tomas'ek. <sup>29</sup> Jesus'ek dirautso: «Ikusi nozulako sinistu dozu. Zoriontsuak, ikusi ezarren be sinisten dabenak!»

**Azkena.**

<sup>30</sup> Liburu onetan idatzita ez dagozan beste ezaugarri asko egin ebazan Jesus'ek ikasleen aurrean. <sup>31</sup> Oneik, barriroz, Jesus Kristo'a, Jaungoikoaren Semea dala sinistu dagizuen idatzi dira; eta sinistuez, Aren izenean (\*) bitizta izan dagizuen.

## XXI

**Tiberiades'ko itxasertzean agertzen yake.**

<sup>1</sup> Orren ondoren, Jesus Tiberiades'ko itxasertzean agertu yaken barriro ikasleai. Olantxe agertu yaken. <sup>2</sup> Simon Pedro, Didimo eritxon Tomas, Natanael, Galilea'ko Kana'koa, Zebedeo'ren semeak eta beste ikasle bi alkarregaz

egozan. <sup>3</sup> Simon Pedro'k ba-dirautse: «Arraiñak artzera\* noa». «Geu be zeugaz goaz», erantzuten dautsoe areik. Joan eta txalupara igo ziran; baiña, gau aretan ez eben arraiñik bape artu.

<sup>4</sup> Eguna astean, Jesus itxasertzean egoan, baiña ikasleak ez ekien Jesus zanik. <sup>5</sup> Jesus'ek dirautse: «Mutillak, ba-daukazue arraiñik?» «Ez», erantzun eutsoen. <sup>6</sup> Arek auxe esan eutsen: «Jaurti egizue sarea txaluparen eskumaldera, eta aurkituko dozue». Jaurti eben, ba, sarea, eta ezin atara eben ainbeste arraiñez. <sup>7</sup> Jesus'ek maite eban ikasleak Pedro'ri dirautso: «Jauna da». Simon Pedro'k, «Jauna da» entzun ebanean, jantzia gerrian lotu – billoizik egoan-eta – ta zapart egin eban itxasora. <sup>8</sup> Beste ikasleak txalupan etorri ziran, sarea arraiñakaz ekarrela, legorretik berreunen bat ukondo baiño urrunago ez egozan.

<sup>9</sup> Legorrera eldu ziranean, txingar batzuk, txingarren gaiñean arrain bat, eta ogia egozala ikusi eben. <sup>10</sup> Jesus'ek dirautse: «Oraintxe artu dozuezan arraiñetariko batzuk ekarri egizuez». <sup>11</sup> Simon Pedro igo ta sarea legorrera atara eban, eun eta berrogeta amairu arrain aundiz beteta. Eta ainbeste izanarren, ez zan sarea urratu. <sup>12</sup> «Etorri ta jan», esan eutsen Jesus'ek. Ikasleetariko bat be ez zan azartu ari «nor zara zu?» itanduten, ba-ekien Jauna zana-ta. <sup>13</sup> Orduan, Jesus etorri, ogia artu ta emon egiten dautse; eta alantxe arraiña be. <sup>14</sup> Illen artetik biztuta gero, auxe izan zan Jesus'ek bere ikasleai egin eutsen irugarren agertaldia.

<sup>15</sup> Jan ebanean, Jesus'ek Simon Pedro'ri auxe esan eutsan: «Yon'en Simon, oneik baiño geiago maite nozu?» (\*). «Bai, Jauna – dirautso – : zuk ba-dakizu maite zaitudana». Jesus'ek dirautso: «Zaindu egizuz nire bildotsak».



\* «Arraiñak artzera»: gure itxasertzean, «arrantzara noa» esango leuke.

<sup>16</sup> Bigarrenez be ba-dirautso: «Yon'en Simon, maite nozu?» Pedro'k dirautso: «Bai, Jauna: zuk ba-dakizu maite zaitudana». Jesus'ek dirautso: «Zaindu egizuz nire ardiak». <sup>17</sup> Irugarrenez dirautso: «Yon'en Simon: maite nozu?» Jesus'ek «maite nozu?» iru aldiz esan eutsan-eta, Pedro illun (*triste*) jarri zan; eta auxe esan eutsan: «Jauna, zuk dana dakizu; zuk ba-dakizu nik maite zaitudana». Jesus'ek dirautso: «Zaindu egizuz nire ardiak. <sup>18</sup> Bene-benetan dirautsut: gazte zintzazanean, zeuk lotzen zenduan zure gerria, eta nai zenduan tokira joaten zintzazan; baiña, zaartu zaitezanean, zabaldu egingo dauz zure eskuak, eta beste batek lotuko dautsu gerria, eta nai ez dagizun tokira eroango zaitu».

<sup>19</sup> Jaungoikoa zetariko eriotzaz goratuko eban adierazoteko esan eutsan ori Jesus'ek. Ori esanda, beste au esan eutsan Pedro'ri: «Jarraitu egidazu». <sup>20</sup> Pedro'k, atzeruntz buurtuta, Jesus'ek maite eban ikasle a, aparitan Jesus'en bular-gaiñean etzunda egon izan zan a, eta «Jauna, nor da, ba, salduko zaituana?» itandu eutsan a atzetik jarraitzen ikusten dau. <sup>21</sup> Pedro'k, ikasle a ikusirik, Jesus'i auxe esan eutsan: «Jauna, eta ori zer?» <sup>22</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsan: «Ni etorri arte ori olan egotea nai ba'dot, zuri zer? Zuk, jarraitu egidazu». <sup>23</sup> Eta anaien artean surrumuru au sortu zan: ikasle a ez zala ilgo. Alan be, Jesus'ek ez eban «ez da ilgo» esan, beste au baiño: «Ni etorri arte ori olan egotea nai ba'dot» (\*).

<sup>24</sup> Orixe da au autortu ta idatzi dauan ikaslea, eta ba-dakigu guk beronen autorra egiazkoa dana. <sup>25</sup> Ba-dira, gaiñera, Jesus'ek egin ebazan beste gauza asko be. Orreik banan-banan azalduko ba'litzaz, mundu guztia be ez litzake naiko izango, nire ustez, idatziko litzakezan liburuak artzeko.





## OARRAK

## Mateo Deuna

- 1 16 "Jesus" itzak, "Salbatzaille" adierazoten dau. "Kristo" itzak, barriz, "igurtzia", eberkerazko *Mesias*'ek lez.
- 17 Izan, or diñozan belaualdiak baiño geiago dira. Eta obeto gogoratzeko, amalaunaka jarri dauz, iru sailletan. Jose, berez aitordeko izanarren, Legearen aurrean Jesus'en aita da. Eta Jose'k emoten dautso *Dabid'en seme* izena
- 23 Is. 7, 14.
- 24 Agiriko ezkontza egiñik, Jose'k bere etxera eroan eban.
- 25 Jose'k Maria'gaz "ezkontzako artu-emonik izan bagarik", edo bardin dana: ez eben aragizko artu-emonik be izan, ez seiña (umea) egin aurretik, ez gero; Maria beti garbia, neskutza (birjiña) izan zan. Jose'k ez eban iñoiz be bere emaztea erruduntzat izan; eta Maria'gan egin zan miraria ikusirik, isilpean bialtzeko asmotan ziarduan; baiña, aingeruak azaltzen dautso jazo zana.
- 2 1 Itxuraz, aztiok Persitarrak ziran, aundiki artekoak; izar-gaietan jakintsuak. Baiña, ez ziran, antza, erregeak, ezta sorgiñak eta izarterriak be. Eguzki-sortzaldean ikusitako izarra, jazo miragarria zan, eta olantxe autortzen dabe aztiak graziaren indarrez, jaiobarriaren ezaupidetzat. Persia'n be Salbatzaille baten ustez bizi ziran; eta ba-ekien, gaiñera, Israeldarrak be itxaropen antzekoa ebena.
- 5 Mik. 5, 2.
- 15 Os. 11, 1.
- 18 Jer. 31, 15.
- 23 Jesus jaio, Belen'en jaio zan; baiña gero, Nazaret artu eben euren erritzat: Nazaret'eko bizilagun egin ziran. Aurrerantzean, beti "Jesus Nazaretarra" eritxoen.

- 3 3 Yon Bateatzaillearen itzaldiko lenengo berbak, auxe adierazoten dabe: "aldatu egizue zuen pentzakera". Lenen, barruko garbiketa; gero —agiriko agerpe-  
nez—, pekatuen autorra ta bateoa. Ez eban bateo arek grazi donetzaillea emoten, orretarako gertatu baiño.
- 11 Espiritu Santuak, arimak sutu, garbitu ta donetu (santutu) egingo dauz.
- 12 Munduan onak eta gaiztoak naastuta dagoz; azkenengo auzi-egunean bananduko dauz; batzuk, garrautegirako, zerurako; besteak, sutarako, inpemurako.
- 4 1 Jerusalem eta Itxaso Illa'ren bitartean, basamortua dago. Ez zan toki atsedengarria, antza, pistiak be ba-ziran bertan-eta.
- 2 Moises eta Elias'en antzeko barau gelditu bagakoa izan zan, mirariz egindako baraua. Deabruari zirikatzen iztean, pekatuan izan ezik, gizonez geu lako-  
xea zala adierazoten dasku Jesus'ek.
- 4 Deut. 8, 3.
- 6-7 Ps. 90, 11, eta Deut. 6, 16.
- 10 Deut. 10, 13.
- 16 Is. 9, 1-2.
- 5 12 Itzaldi onetan, Jesus'ek bere irakaspeneko gai berez-  
ienak dirautsez bere ikasleai. Nunbaiten ikusteko-  
tan, ementxe ikusten da argien Kristo'ren irakas-  
penak eta munduarenak aurrez-aurre dagozala; len  
ontzat artzen ebena, Jesus'ek txartzat dauko; eta Je-  
sus'ek ontzat dauana, munduak txartzat artzen dau.  
Barri Onaren mamiña zorientasunetan dago.
- 27 Ex. 20, 14; eta Deut. 5, 18.
- 30 "Begia atara ta eskua ebagi", sortzaldetarren esake-  
rak dira: pekatuak bide guztietatik alde egin bear  
dogula adierazoten dau, orretarako buru-ukatze go-  
gorrak egin bear izanarren be.
- 31 Deut. 24, 1.
- 33 Ex. 20, 7; Num. 30, 3; Deut. 23, 22.
- 38 Leb. 24, 19. — Antxiña, eurrez beteten zan lege au  
sortzalde-errietan, baita lengo Erroma'n be. Zuzenta-  
sun-erro bat ba-daiteke izan; ez, ostera, goi-maitasu-  
nari dagokiona.

- 43 Leb. 19, 18.
- 6 33 Mundu onetako ondasunak negurriz artu ta erabili  
bear doguz. Zerurantz begiratu bagarik arekan us-  
tea jarri ezkeru, Jesus'ek esandakoaren kontra egitea  
izango litzake.
- 7 12 Igarleak = igarleak idatzi eben guztia.
- 8 4 Moises'ek "Abade-Idaztian" (Leviticum) agindutakoa  
beteteko dirautso. Jesus'ek, Legeari ta abadeai lotsa  
ta begirunea eutsen. Oneik, osatuari osatze-agiria  
emon bear eutsoen, au barrero gizarteko artu-emo-  
netan asi zedin. Onelako abadeak, gaiñera, Jesus'en  
nortasunaren ezaupidea artzen eben: euren onerako,  
onartu ezkeru; euren ondamentirako, Jesus'en kon-  
tra jarri ezkeru
- 5 Euntari: eun gudariren buru edo agintari zana. Itxu-  
raz, judarren artekoa zan, atzerritarra izanarren. Bai-  
ña, ori bai, sinismen beroa ta apaltasun aundia ager-  
tzen dauz, gero Jesus'ek diñoanez.
- 16 Is. 53, 4.
- 19 Gertasun adoretua idazlari onena! Jesus'en ikasleak  
edo jarraitzalleak, ezeren jabe ez izateko be gertu  
egon bear dau; eta naiago izan bear dau Kristo'ren  
arazoetan jardutea, munduarenetan astia alperrik gal-  
tzea baiño.
- 22 Jaungoikoaren arazoetan diarduenak, oneik itxi ta na-  
rretara ez dabe jatsi bear.
- 9 1 Jesus'ek beretzat aukeratutako uri ori, Kafarnaum  
zan.
- 9 Fariseuak zerga-batzaillea agiriko pekataritzat eben,  
eta ez eben nai izaten arekaz artu-emonik, loitu egi-  
ten zirala-ta. Loitu ez baiña, Jesus'ek osatu egiten  
ebazan. Opariak baiño errukia naiago dau.
- 13 Os. 6, 6.
- 20 Emakume onen geisosa, Legearen aurrean zer loia  
zan. Beraz, agirian ez eutsan eskatu Jesus'i osasuna,  
ixillean baiño
- 24 Berez ilda egoanarren, Jesus'entzat lo bai'litzan.  
Orrexegaitik arein irri-barrea.



- 10 6 Jesus bizi dala, lenen bere erritarrai, judarrai irakatsi nai dautse Barri Ona, osasuna arekandik etorri bearra zan-eta.
- 23 Edo-ta bardin dana: Izango dozuez uriak gordeteko ta irakasteko. Jesukristo'ren etorrera, Jerusalem'en ondamentia dala dirudi, 70'garren urtean jazo.
- 28 Laukoa: burdingorrizko (kobrezko) dirua: bost eunen edo zentimo.
- 34 Jesus eta bere aldekoak, ukatuak eta aurrean erabiliak izango dira lur onetan. Orrexegaitik diño ez zala hurrera bakea ekartera etorri.
- 11 3 Jesus'ek berak bere buruatzaz autor egian bialdu ebanzan oneik Yon Bateatzailleak; ez, ostera, ezpaitan edo zalantzan egoalako: onen ikasleak eta beste guztiak Jesus Mesias zala ezagutu ta autortu egien baiño.
- 10 Mal. 3, 1.
- 12 Indartsu oneik, Yon Bateatzailleari ta Jesus'i jarraiturik, pekatuen damua ta norbere burua ukatzen dabezanak dira; judar tematiak, barriz, ez ebezan Igarleak ulertu, eta Erreiñua zergabatzaileak eta pekatariak kendu eutsen.
- 19 Jakiturari = Jaungoikoari.
- 21 "Zaku-autsetan": lengoak, euren biotzeko miña ta damua agertzeko, zakuz edo soñeko latzaz jazten ziran, euren buruak sutako autsaz estaldurik.
- 24 Tiro, Sidon eta Sodoma, antxiñako uri gaizto ta ustelak ziran; Sodoma zeruko suaz ondatua izan zan. Korozaím, Betsaida ta Kafarnaum urien gaiztakeria be aundia dala dirautse Jesus'ek; ainbeste mirari ta arrigarri arein aurrean egiñarren, Mesias'tzat artu ez ebelako. Gaur, iru errion orma-ondarrak baiño ez da besterik ikusten an, Jesus'ek iragarritako zigorkada adierazoten.
- 25 Arroak eta lurkoiak ez dabez Jaungoikoaren jakin-garriak ikusten; otzan eta apalai, barriz, Jaungoikoak biozperaz agertzen dautsez.
- 12 7 Os. 6, 6.
- 8 Zapatuz garia jotea debekatuta egoan; ez, orraitíño, gosea kentzeko galburu batzuk artzea, pariseuak baietz esanarren.

- 33 Jesus'en egintzak onak ziran, eta iñok ez eban ukatu onak zirana. Beraz, Jesus bera be onartu egin bear eben, eta ez deabruaren laguntzat artu. Eurak ziran areik gaiztoak, eta, beraz, ezin egintza onik egin.
- 45 Deabruaren egikera, bideetako lapurraren antzekoa da: lapurra toki ezkutuan ixil-ixilik egoten da, lapurretan egiteko aukera etorri arte.
- 13 15 Is. 6, 9-10 Ezin artu eikeen bat-batean argi guztia; astiro-astiro emon bear yaken. Ipuñen bidez artzen eben Mesias'en izatea ta eginbearra, Mesias'i buruzko erriaren uste ta asmoak bestetarikoak ziran-eta, zuzenak eta benetarikoak izan bearrean.
- 33 Negurri orrek 30 litro artzen ebazan.
- 35 Ps. 77, 2.
- 55 *Senide* ta *senitarteko* esateko, "anai" itzaz azaltzen eben. Emen izentatzen diranak, Jesus'en lengusu-lengusiñak ziran.
- 14 9 Itxuraz, maiko azpil edo plater bat artu ta Yon'en burua antxe ekarri egiola eskatu eutsan.
- 25 Lau alditan banantzen eben len gaua; laugarren gau-aldia irurak-aldean asten zan.
- 15 2 Eskuak garbitu bagarik jatea, judarrentzat pekatu aundia zan; baiña, lege ori ez eban Jaungoikoak egin; eurak asmatutakoa zan. Beraz, ikasleak ez eben legerik austen. Beste orrenbeste ontzien eta janarien garbiketari dagokionez be.
- 4 Ex. 20, 12; eta Ex. 21, 17.
- 6 Gurasoi bizi izateko bear ebena ukatu ta Jaungoikoari eskintzea, ez zan bide zuzena. Idazlariak opari onek balio ebala iñoen; baiña, eurak be ez eben beteten.
- 9 Is. 39, 13.
- 27 Jaungoikoaren etxeko umeak: judarrak. Txakurkumak, barriz, kanpotarrak. Eta emakume ori kanpotarra zan. Elduko zan oneintzat be osatzeko ta zeruratze-ko aldia.

- 16 3 Euskeraz: "Arrats gorri, biar ozkarbi; goiz gorri, arrats-euri". Goi-Naparroa'n: "Arrats gorri, eguraldi; goiz gorri, eurilari". (Azkue, "Eusk. Yak.", 3gn. Idazt., 113 orri.).
- 8 Ikasleak lurreko gauzetan pentzetan ziarduen, eta ez ziran Mesias'en goi-indarrak konturatzen; ogiak artzeaz aztu egin ziran, eta zelan eta zer jango ete-eben, larri ta estu egozan.
- 16 Jesus, Mesias edo Kristo'a ta Jaungoikoa dala autortzen dau Pedro'k. Jaungoikoaren argiz bakarrik esan eikean ori Pedro'k. Judarrentzat, barriz, gaizpide zan orrelakorik esatea. Orrexegaitik gurutzeratu eben Jesus; alan be, ez eban okertu nai izan Aitak aukeratu eutsan Gurutzerako bide ori. Pedro'ri, barriz, Elizaren buru izango dala agintzen dautso.
- 22 Kristo gurutzean il bearra zanik, ez eben ezetara be sinisten judarrak, ezta Apostoluak be. Arein eritxiz, Mesias'ek gizon ospetsu ta garaillea izan bear eban. Jesus barriro biztu zan arte ez eben ulertu Aren nekaldia ta eriotza.
- 23 "Satanas oril": arerio oril
- 26 "Bere bizitza galdu": betiko ondatzea edo inperumura joatea adierazoten dau emen.
- 28 Ez da Kristo'ren azken-etorrera, lenagokoa baiño: Jesus'en Barri Onaren zabaltzea atzeritarren artean, antza.
- 17 24 Jaunaren Etzerako zerga edo tributua. Didrakma: 1,50 peseta; estater: 3 peseta.
- 18 11 11'garren ataltxo au, geitutakoa da: Lukas'enetik artuta, antza, 19,10.
- 16 Deut. 19, 15.
- 22 Edo-ta bardin dana: beti.
- 24 Amar milla talentu: 60 milloi peseta urrezko.
- 28 100 denario: 100 peseta gutxi gora-bera.
- 19 5 Gen. 2 24.
- 10 Onoimenaren (birtutearen) maitasunagaitik ezkondu bagarik gelditzea, ezkontza baiño baliotsuagoa da izan. Ikusi onetzaz Paulo deunaren Kor. 1.<sup>a</sup>, 7, 25 eta abar.

- 20 Geitutakoa: "gazitarik".
- 24 Egi bi dirauskuz emen Jesukristo'k: 1) aberatsak nekez sartuko dirala zeruan; 2) ori ez dala eziñezkoa Jaungoikoarentzat. Alan be, gaitz dana agirian dago. Izan dira, orraitio, aberats eta santu: biotza euren ondasunetan jarri ez dabelako. Gaitz da gizonarentzat ori be, eta obe Pedro'ren bidea artzea Jesus'i dirautsanean: "Guk guztia itxi ta zeuri jarraitu dautsugu", naiz-ta gutxi izan Pedro'k itxi ebazan ondasunak, arrantzalea ta txiroa zan-eta. Alan be, zeruetako Erreiñuan epaille izango dala agintzen dautso Jesus'ek.
- 30 Lenengo deituak, Israel'go agintari ta nagusiak izan ziran; baiña, ez eben deia onartu.
- 20 16 Mako-artekoa, geitutakoa da, antza.
- 21 5 Zak. 9, 9-10.
- 9 Ps. 117, 26.
- 13 Is. 56 7; eta Jer. 7, 11.
- 16 Ps. 8, 3.
- 19 Jesus'ek ez eban pikorik aurkitu nai, judar erriaren sinisgogorkeria ikasleai agertu baiño, irudi bizitzat pikondoa arturik: orriak, frutu bagarik.
- 42 Ps. 117, 22-23.
- 44 44'garren atal au, geitutakoa da, antza, Lukas'enetik artuta: Luk. 20, 18.
- 22 8 Euren erruz gei (duin) izan ez ziralako, baztartuak izango dira.
- 10 Guztitarikoak dagoz: onak eta gaiztoak; gaiztoak, bide zuzenera biurtu bear dabe, baztartuak izan ez daitezcan.
- 14 Deituak asko: judar guztiak izan ziran; baiña areitatik, gutxi izan ziran aukeratuak.
- 19 Txanpona eskatzen dau, erantzuna aren bidez indartzeko. Arrisku aundiko erantzuna: baiezkoa esan ezkerro, judar-erri osoa kontra jarriko litzakeo; ezezkoa esan ezkerro, barriz, agintari erromarrak eskua ezarriko dautsoe... Orrela iñoen pariseo areik.
- 24 Deut. 25, 5-6.



- 32 Ex. 3, 6.  
 37 Deut. 6, 4-5.  
 39 Leb. 19, 18.  
 40 "Igarleak be": Igarleak idatzirikoa be.  
 44 Ps. 109, 1.
- 23 14 Ataltxo au geitutakoa da, Mk. 12, 40 eta Lk. 20, 47 garrenetik artuta.  
 34 Orreik, Jesus'en ikasleak ziran.  
 39 Ps. 117, 26.
- 24 7 Geitutakoa: "eta izurrite..."  
 27 Kristo'ren bigarren etorrera, guzti-guztiak ezagutuko dabe, iñok esan bagarik.  
 29 "Zeruko indarrak": izarrak, antza.  
 30 "Gizasemcaren ezaugarria": gurutzea.  
 36 Jesus'ek ez daki *besteai esateko*, ori ez da esatekoa-ta.
- 25 15 Talentua: balio aundiko dirua zan; talentu bako-txak, 60 mina; eta mina bakoxtak, 100 peseta urrezko.
- 26 7 Simon, Jesus'ek osatu eban gizon bat zan; Mari, ba-  
 rriz, Jesus'ek biztu eban Lazaro'ren arreba.  
 11 Aldi aretan, beintzat, ba-ziran txiroak, beartsuak;  
 baiña ez diño gero be izango ziranik.  
 23 Egitada samurra be samurra Jesus'ek Judas'i egin  
 dautsana: ogi zati bat saldatan busti ta emon. Ju-  
 das'ek nai ba'leu, Jesus'en adiskidetasunean iraungo  
 leuke.  
 25 "Zeuk esan dozu": orrelaxe da, zeuk esan dozu-  
 nez. Baiña, ori Jesus'ek ixillean erantzun eutsan, eta  
 ez eben entzun beste ikasleak.  
 28 Vulgata'k geitutakoa: "au Alkartasun barriko neure  
 odola da,..."  
 31 Zak. 13, 17.  
 37 Jesus'en irudi-aldatzean be, iru Apostoluok egon zi-  
 ran.  
 55 Vugata'k: "zuen artean Jaunaren..."

- 57 Kaifas, Batzarre Nagusiko buru zan. Gabez egiten  
 dabe batzarra, legez kontra. Beste goizerako auzi  
 guztia gertu eukitea nai eban.
- 73 Pedro'ren izkera, Galilea'ko izkeltia (dialecto) zan.
- 27 2 Lendakariaren baimen bagarik, Batzarre Nagusiak  
 emondako eriotz-epaiak ez eban indarrik, ez eban  
 balio.  
 2 Aldakuntza: "Pontzio Pilato..."  
 6 Bide txarrez batutako diruak, ez ziran Jaunaren  
 Etxerako gordeten.  
 8 Vulgatak: "(arameoz, Hakeldama)".  
 10 Jer. 32, 6-9; Zak. 11, 13.  
 35 Geitutakoa: "Igarleak esandako au bete zedin: "Nire  
 soiñekoak euren artean banandu dabez, eta nire soin-  
 gaiñekoa zotzetara egin dabe". (Sal. 22, 19, eta Yon'ek  
 dakarrenetik artuta (19, 24).  
 45 Eguerdiko amabietatik arratsaldeko irurak arte.  
 46 Arratsaldeko iruretan. — Ps. 21, 2.  
 52 Mateo Ebanjelariak aurretiaz diño ildako zintzo onein  
 biztutea: Jesus biztu ondoren jazo zan mirari arri-  
 garri ori.  
 62 Paraskebe-urrengoan: zapatuan.
- 26 1 Astearen lenengo eguna: igandea, domeka.  
 1 Beste Mari: Santiago'ren Mari.  
 2 Lurrikara ori, emakumeak illobira eldu aurretik izan  
 zan.  
 6 Geitutakoa: "Jauna", *Bera* itzaren ordez.

### Markos Deuna

- 1 4 Aldakuntza: "Yon agertu zan, basamortuan batea-  
 tzen eta pekatuen..."  
 6 Aldakuntza: "Yon gamelu-ulez jantzita ebillen eta  
 gerrian narruzko gerrikoaz eta aren..."  
 11 Irutasun Deuna agertzen da emen: Aita, Semea ta  
 Espiritu Santua, iru notin edo persona ezbardiañak  
 eta Jaungoiko bakarra.

- 26 Deabruak, Jesus jaungoikozko indarra ta aginpidea autortzen dauz.
- 27 Beste era bat: "Irakaspen barri bat! Gogo zikiñai aginpidez agintzen dautse, ta areik...".
- 2 3 Palestina'ko etheen gainekaldea, lur-zapalduaz egiten eben. Gaiñera igoteko, kanpokaldetik mailladia euken. Etxeak txikiak ziran geienetan.
- 3 12 Jesus'ek ez eban nai orduan Bera Kristo zanik la-guntaldeak jakin egian, erriak ez eban ulertzen Mesias'en egikizuna-ta.
- 21 *Iñoen-eta'*ren ordez, beste onetara be bai; "esaten yaken-eta". — Jesus'en senide batzuek ez eben Are-gan sinisten, eta bere etxera biurto zedilla nai eben.
- 22 Beeltzebul: satsaren edo simaurraren jauna, deabru guztien burutzat eben.
- 29 Espiritu Santuaren kontrako pekatua, zer da? Jaungoikoak egindako mirariak, gaiztakeriz debruari ezar-tea, deabruak egin dauzala esatea. Onelako pekatariak arimaren begiak itxututa daukez-ta, ezin artu daikee sinismena, eta, beraz, ez dabe parkamenik, eta euren pekatuan ilten dira, Jaungoikoak mirariren bat egin ezik, beintzat
- 4 8 Vulgata'ko aldakuntza: "Azi ta aundi egiten zan frutua emoten eben: batzuek...".
- 12 Is. 6, 9.
- 26 Ipuin au, Markos deunak bakarrik dakar, eta Jaungoikoaren Erreinuaren —Elizaren— bizitasuna adierazoten dau. Eliza, bere barruko indarrez azi ta zabalduko da, gizaldiz-gizaldi.
- 40 Aldakuntza: "Ez dozue oraindiño sinismenik?".
- 5 1 Aldakuntza: "Gadara'tarren...".
- 7 Esaera oneaz, deabruak Jesus'eganako menpetasuna agertzen dau, baita Jesus'en aginpideari dautsan bildurra be.
- 20 Osatuak bere eskerrona agerturik, Jesus'i jarraitzea nai izan eban; baiña, Jesus'ek beste arazo baterako bialdu eban. Bakotxari bere bizibidea dagokio.
- 6 5 Ez miraririk egiteko almenik ez ebalako, mirarieren duin ez ziralako baiño.

- 13 Eguzki-sortzaldean erabillen osagarrietariko bat, orioa zan. Baiña, Apostoluak ez eben erabilli osagille lez, mirarigille lez baiño.
- 14 Aldakuntza: "Arek auxe iñoan...".
- 20 Vulgata'ko aldakuntza: "gauza asko egiten ebazan, eta...".
- 45 Geitutakoa: "Gadara'tarren...".
- 52 Ogie miraria ta beste ezaugarri batzuk ikusiarren be, ez eben Jesus ulertzen.
- 7 4 Aldakuntza: "euren buruak txipristintzen ez ba'da-bez;...".
- 15 "Entzun dagiala": ulertu dagiala.
- 24 Geitutakoa: "Tiro ta Sidon'go lurraldera...".
- 8 26 Itxuraz, itsua erritik kanpora bizi zan. Orregaitik, errian sartu bagarik joan zeitekean etxera.
- 9 14 Aldakuntza: "ikusi eben, eta...".
- 19 Naigabezko esaera da, bere ikasleak be ain sinismen otza dabela ikustean. Errukitu ta osatu egin dau, orraitaiño, deabruduna.
- 23 Aitak ez eban ziur-ziur sinisten bere semea osatuko ebanik. Eta Jesus'ek aitaren ezpaia kentzen dau lenengo, eta gero, aitaren sinismenaren indarrez, mutikoa be osatu egiten dau.
- 29 Aldakuntza: "otoitzaz eta barauaz izan ezik,...".
- 42 Geitutakoa: "Eta nigan sinisten...". — Emen diñoan lako errotarriari, astoak eragiten eutsoen.
- 48 Is. 63, 24.
- 10 7 Geitutakoa: "bere emazteari lotzeko...".
- 18 Ori, apaltasunez iñoan, edo-ta bere jaungoikotasuna ez agertzeko.
- 11 25 Geitutakoa: "26 Zuek parkatzen ez ba'dozue, ostera, zeruetan dagoan zuen Aitak be ez dantsuez zuen iraiñak parkatuko".
- 12 12 Ipuin onetan dago labur-labur Israel erriak Jaungoikoari buruz izan ebazan artu-emonak. Ondotxo ulertu eben entzuleak Jesus'ek esan nai eutsena. Moises'en kontra basamortuan jardun, Igarleak il, eta Mesias Jaungoikoaren Semea bera be, il egin nai dabe. Beraz, Israel'en etorkizuna be, pikondoarena la-koa izango da.



- 41 Jerusalem'go Jaunaren Etxean diru-kutxa bat zan, emakumeen atadian, amairu atabaka ebazala. An izten eben dirua, Jaunaren Etxeko bearrizanetarako izaten zan.
- 13 32 Jesus'ek ez daki *besteai esateko*, ori ez da esatekoa-ta
- 14 52 Ba-daiteke gazte au Markos Ebanjelari au berau izatea: lauretatik beronek bakarrik azaltzen dau jazo au-ta.
- 60 Beste onetara be bai: "Ez dautsazu ezer erantzuten oneik zure kontra diñoenari"?
- 61 "Bedeinkatuaren" eta "Altasunaren": Jaungoikoaren.
- 68 Vulgata'k geitutakoa: "Eta oillarrak kukurruku egin eban".
- 15 27 Geitutakoa: "28 Olantxe bete zan Liburu Santuak diñoan au: *Gaiztoen artean izan da jarria*" (Is. 53 12).
- 16 2 Aldakuntza: "eguzkia urtenda gero, illobira...".  
8 "Ifiori ez eutsoen ezer esan": bidean eta arrotzai ulertu bear da.
- 14 Ikusten danez, beingo-beingoan ez eben sinistu ikasleak Jesus'en biztuera; eta ori dala-ta, Jesus'ek asarre egiten dautse.
- 17 Aldakuntza: *Izkuntza barriak*'en orde. *izkuntzak* bakar-bakarrik.

### Lukas Deuna

- 1 9 Abade-sail bakotzak Jaunaren Etxeko egikizunak aste guztian bete bear ebazan, txandaka. Goiz ta arratsero sartzen zan elizan abade bat Jaunari intzentzia eskiñi ta erretera; eta zein abadek joan bear eban jakiteko, zotz egiten eben.
- 20 Aingeruak dirautsana Zakarias'ek sinistu ez daualako, Jaungoikoak zigortu egiten dau.
- 26 Yon Bateatzaillearen sortzearen sei illebetera.
- 28 Geitutakoa: "Bedeinkatua zara emakumeen artean".

- 30 Edo-ta bardin dana: "Jaungoikoaren ederra dozu-ta;".
- 34 Maria'k ez eban ezpairik izan; baiña, bere garbitasun-eskintzaren arduraz egoan.
- 35 "Jaungoikoaren Seme egingo dautsoe dei": Ebertarren esaera, *izango da* adierazoteko.
- 45 Beste era batera: "Eta zorionsua zu, sinistu dozun ori: Jaunaren izenean egin yatzun agintzaria, bete egingo da-ta". — Maria'ri zorionak emon eta Zakarias'en ezpaia adierazoten dau.
- 50 Jaungoikoaren errukiak ez dau amairik.
- 63 Antxiña, oltxoetan idazten eben, orain ingietan (pauletan) egiten danez; oltxo gainean argizaria ezarri ta ezten bataz idatzi.
- 67 Iragarri eban: Jaungoikoaren argiz aurretiaz esan eban.
- 2 5 Mesias Belen'en jaioko zala, iragarrita egoan-eta, Jaungoikoaren arduratasunak orretarako bideak zabalitzen dauz.
- 7 Len-semea, edo-ta bardin dana: *Ienen jaioa* esaten dan semea.
- 14 Edo-ta: "Arek maite dauzan gizonai". Beste adierazpen bat: "Eta bakea lurrean gogo oneko gizonai", Vulgata'k eta sartzaldeko adieratzaille geienak erabilli dabena.
- 21 Erdainkuntza: "circuncisión" erderaz, Israeldar mutikoai egiten eutsen zeremoni mingarri bat zan: naru apurtxo bat ebagiten eutsen, umeari izena ezarririk.
- 23-24 Ex. 13, 2, 12, 15. Leb. 12, 8; 5, 11. — Emen Maria'k lege bi bete ebazan: 1) bere buruaren garbitzea, eta 2) Jesus Umetxoaren eskintza.
- 35 Kristo, guztiok salbatzearren etorri zan; baiña, Ari jarraitu nai dagiona bakarrik zerurutzen da; Ari jarraitu ezik, barriz, edo-ta bardin dana, Aren irakatsiak bete ezik, betiko galdu. Orrexegaitik amaren oiñaze ta ezpata.
- 39 Jesus jaiou, Belen'en jaiou zan; baiña, gero Nazaret artu eben euren erritzat: Nazaret'eko bizilagun egin ziran. Aurrerantzean, beti "Jesus Nazaretarra" eritxoan.

- 42 Amabi urterik gorakoak iru bidar urtean Jerusalem'era joan bear izaten eben; eta arrezkero, mutikoak askatasun apur baten gei egiten ziran.
- 49 Beste batzuek beste onetara: "nire Aitaren etxean...". —Bebok azalez gogortxoegien antza ba'dabe be, Jesus'en esaera ta irri-barreak bigundu egingo ebazan, ziur-ziur.
- 4 18 Geitutakoa: "biotza ondatua daukenak osatzera,...".
- 7 35 "Jakiturari": Jaungoikoari.
- 47 Esakuntza au beste onetara ulertu bear da: "Maitasun aundia agertzen ba'dau, bere pekatu ugariak parkatu yakozalako da". — Gure santutasunaren asiera, beti Jaungoikoagandik datorkigu. Ez dakigu zelan eta noiz artuko eban emakume arek lenengo grazia; orain, bere eskerrona agertzen dautso Jesus'i, eta, beraz, mesede ugariagoak artzen dauz.
- 8 43 Aldakuntza: "bere diru guztia osagarrietan eralgi ondoren, inok ezin osatu izan eikean emakume batek,...".
- 9 1 Geitutakoa: "Amabi Apostolui...".
- 32 "Eta iratzarturik" baiña obeto.
- 35 Aldakuntza: "nire Seme maitea".
- 49 Aldakuntza: "eta galerazo egin dautsagu,...".
- 59 Geitutakoa: "Jauna"....
- 10 22 Geitutakoa: "Eta bere ikasleakana bihurturik, auxe esan eutsen: Neure...".
- 27 Deut. 6, 5; Leb. 19, 18.
- 37 Jesus'ek agiriz ez esanarren, ondotoxo ulertu eban legegizon arek lagun-urkoa nor zan.
- 38 Erritxo ori, Jerusalem'dik kilometru bi ta erdira egon eban Betania zan.
- 41 Aldakuntza: "baiña bat bakarrik da bearrezkoa". — Marta'k aukerako aldia eban orduan Jesus'ek inoana entzuteko; eta Jesus'ek une ori alperrik ez galtzeko adierazoten dautso. Mari'k, barriz, arazo obea artu dau, Jesus'en irakatsiak entzuten diardu-ta:
- 11 9 Zuen semeak: zuen jarraitzaileak.

- 41 Atabaka barrukotik limosna egin dagiela dirautse, maitasun-egintzak egiteko: arela, barruz garbi izango ziralata.
- 46 Ikasi daigun Jesus'egandik gure artekoen uts-egina zuzentzen, eta bear daitenean, asarre egiten be bai, gizonai lotsarik eta bildurrik izan bagarik.
- 52 Benetako jakintza, Jesus zan.
- 12 21 Aberats aren gaiztakeria, ondasunak beretzat bakarrik batzea zan, ez Jaungoikoa ez beartsua gogorturik.
- 25 Bizitzaz be beste orrenbeste jazoten da: eriotza etortean, nok luzatu bizitza egun bete be?
- 27 Aldakuntza: "ez dabe lanik egiten, ezta goruetan be".
- 38 Antxiñakoak gaua lau alditan banantzen eben, eta aldi bakoxta iruna orduko.
- 41 Ipuin au, guztiai dagokienez erantzuten dau Jesus'ek.
- 49 Su ori, Espiritu Santuaren sua da, biotzak erreteko sua.
- 50 Jesus'ek gogo sutsuz artu nai dauan bateo ori, bere Nekaldia ta Eriotza da.
- 51 Burruka ta banakuntza ori, Kristo'ren jarraitzaileen eta bere arerioen artekoa da.
- 56 Ezaugarri asko be asko ikusi ebezan Mesias'en aldia ezagutzeko; baiña, ez ebezan ezagutu nai, gaiztakeriz, doillorkeriz.
- 13 1 Judarrak Erromarren azpian egozan, eta, jakiña, gogo txarrez egon be. Noizean-bein, matxinadak be baziran. Onelakoren bat egin eben Jerusalem'en, itxuraz, Jaungoikoari opariak eskintzera joan ziranean; eta agintari erromarrak, Pilato'k, bere gudariak bialdu ta il egin ebezan.
- 4 Jerusalem'go torrea jausi ta amazortzi lagun artu ebezan azpian.
- 13 11 Aldakuntza: "ezin eban ezelan be bururik jaso".
- 31 Bildurra sartzearen asmatu eutsoen kontu ori. Baiña, Jesus ez da ikaratzten, eta bere bideari jarraituko dautso: Aitak erabagitako orduan ilgo da Jerusalem'en.



- 38 Jaunaren Etxea ondatuta geldituko dala iragarten dau, eta areik be bertan-bera itxiak, bide onera biurtu daitezcan arte.
- 14 5 Aldakuntza; "Zuetariko bati astoa edo idia...".  
12 Edo-ta, "ordaiña emon ez dagitzuen".
- 15 21 Geitutakoa: "nik ez dot, arrezkero, zure seme deitzerik merezi; artu...".
- 16 6 Onetariko upa bakotzak, 40 litro-edo artzen eban. Beraz, 4.000 litro orio ziran guttiz.  
7 Negurri bakotzak, 400 killo. Beraz, 40.000 killo gari guttiz.  
8 Ugazabak —Jesus'ek ez— etxezain aren zuurtasuna goratu egiten dau, baiña ez eban egin bidebagekeririk edo ostutzerik.  
16 "Indarka": Jaungoikoari otoitzaren bidez indar egin da, edo-ta norberaren burua ukatuta.  
21 Judarren artean, txakurrak miazkatzea zoritxarrik aundienetarikoa zan.
- 17 8 Jesus'ek orduko gizarteko oituraz egiten dau berba; ontzat artu bagarik, orraitino.  
21 Jaungoikoaren Erreñua lenengo etorreran ez da zarataz agertzen: geure barruan dago, geure ariman. Bigarren etorreran, barriz, azken-egunean, zarataz eta agiriz etorriko da. Baiña, orduan be, Noe'ren eta Lot'en egunetan lez bizi izaten aurkituko dauz Jesukristo'k gizonak.
- 19 42 "Zuk be": goraka diarduen beste orreik lez.
- 21 35 Aldakuntza: "sarea lez etorriko da-ta;"
- 22 24 Eztabaida ori, maian jarrita batera izan zan, iturraz. Ziztrinkeri orreik, Espiritu Santuaren etorreraz zeatz-zeatz ebagi ziran.  
31 Geitutakoa: "Eta Jaunak auxe esan eban: Simon..."  
32 Guztien alde egiten dau otoitz Jesus'ek, baiña Apostoluen Buru danaren alde batez be. Pedro'ren ukatzeak eta damua iragarten dauz.

- 36 Jesus arekaz bizi zan artean, ez eben ezeren bearririk; baiña, orain Jesus ba-doa, eta agiriko laguntza bagarik geldituko dira. Geroago, orraitino —barrio biztu ondoren—, Jesus'ek bere laguntasuna beti izango ebela agindu eutsen.
- 37 Is. 53, 12.
- 23 16 Geitutakoa: "17 Pilato'k pazko-jaiegunean giltzapeko bat askatu bear eutsen".  
37 Geitutakoa: "gerkeraz, latinez eta eberkeraz:"  
42 Aldakuntza: "zure Erreñuaz etorri zaitezanean".  
44 Seigarren ordua: eguerdiko amabiak. Bederatzigarren ordua: arratsaldeko irurak.  
54 Atontze edo gertatze-eguna: Pazko-aurreguna.  
56 Zapatua —jai-eguna— igaro ondoren, barriro illobira joan eta usaingarri ta miritzez Jesus obeto igurtziteko asmoz. Lege-arauz, inok ez eban jai-egunez, zapatuz, lanik egiten.
- 24 1 Astearen lenengo egunean: domekan.  
13 Irurogei estadi: 11 kilometro gutxi gora-bera.  
50 Aitarean agintzaria: Espiritu Santua. — Urian: Jerusalem'en.

### Yon Deuna

- 1 1 Itza: Jaungoikoaren Semea, Jesukristo.  
2 Itza, bizitzaren iturburua da.  
5 Kristo'ren autorle edo testigu, Yon izan zan, Mesias eta Jaungoikoaren Semea Jesus zala judarrai irakatsiez.  
10 Izakiak egiten eta zaintzen.  
11 Bereak: bere erriak, judarrak.  
12 Graziaren bidez, Jaungoikoaren seme ordeko egiten gara.  
13 Geienak beste onetara irakurten dabe: "Oneik ez dira odoletik jaio...". Lenengoan, Jaunaren sortze ta jaiotza ulertzen da; azken onetan, barriz, kristauen bizi-tza barria graziaren bidez.

- 16 Itzak —Jesukristo'k— goi-esker betea ta gaiñezka dau Beragan, eta Beragandik artzen dogu guk.
- 18 Aldakuntza: "Jaungoiko Seme bakarra..."
- 23 Is. 40, 3. — Yon Bateatzaillearen arazo edo eginbearra auxe da: Kristo'ri, Mesias'i, bidea gertatu. Onetarako, auxe egin bear eben: lenengo, euren pentzakera aldatu ta barruko garbitzea egin; gero, agiriko ezaupidetzat, euren pekatuen autortza egin eta bateoa artu. Yon'en bateoak ez eban grazi donetzaillea emoten, ori artzeko gertatu baiño.
- 3 Arratsaldeko laurak.
- 41 Aldakuntza: "goizaldean" ordez, "lenengo".
- 45 Bartolome, urrean.
- 47 Aldakuntza: "aretzaz", "Natanael'i buruz"; "auxe esan eutsan" be bai.
- 2 4 Berbok, azalez, gogortxoak dirudie; baiña, Jesus'ek esandako eraz, samurragoak biurtuko ziran ziuur-ziuur. Andra Mari'k ez dau itxaropenik galtzen, eta aurre-ra doa, bere eskaria lortu arte. Beraz, Jesus'ek ez eutsan ezezkorik emon.
- 6 Ontzi oneik "metretak" ziran: bakotzak 40 litro artzen ebazan. Sei kantxin: 480-720 litro guztiz, txikiagoak edo aundiagoak izan.
- 17 Ps. 68, 9.
- 3 5 Jaungoikoaren Erreiñua, zeruetako Erreiñua, Kristo'ren Erreiñua edo agintaritza edo jauntza, guztiak bat dira, eta geienetan Jesukristo'ren Eliza adierazoten dabe.
- 15 Aldakuntza: "Beragan sinistu..."
- 16 Euren eskuan dabe gizonak betiko zeruratzea, edo-ta betiko galtzea, bestela.
- 25 Garbiketa: bateoa, urrean.
- 27 Gizonak izan daiken ontasun guztia, Jaungoikoagandik datorkio. Ementxe dago benetako apaltasunaren egia.
- 31 Aldakuntza: "danaren gaiñetik dago;"
- 4 1 Aldakuntza: "Jesus" ordez, "Jauna".
- 6 Eguerdiko amabiak. Jesus izarditan eta nekatuta dago patin-ondoan, arima bat irabazi naiez.

- 10 Ur bizia: grazi donetzaillea.
- 13 Ur onek, grazi donetzaille onek bakarrik kentzen dauz biotzeko gurari ta zalekeri okerrak.
- 20 Edo-ta, "Jerusalen'en dagoala Jaungoikoa gurtu bear dan tokia (edo: etxea)".
- 24 Aldakuntza: "eta bera (Jaungoikoa) gurtzen dabenak..."
- 48 Jesus'ek sinismen bizia, gartsua, eskatzen dau.
- 52 Eguerdiko ordu batetan.
- 5 1 Aldakuntza: "Bezata" ordez, "Betesda", "Betsaida", "Belseta". — Olanxe eritxen abereak (ganaduak) oparitarako igaro bear eben atei.
- 19 Beraz, Aitaren egintzak Semearenak be ba-dira; iza-te bat dabe biak.
- 21 Jesukristo'k bizten dauz graziazko bizitzan ilda dagozanak.
- 25 Arimaren aldetik ilda dagozanak.
- 27 Gizasemea: Mesias, Kristo, Jaungoikoaren Semea gizon egiña. Berari dagokio epaitzeko eskubidea, Eroskudearen egintzari amaia emoteko.
- 28 Ildakoen biztuera azken-egunean.
- 30 Jesus'ek Aitak diñoana entzuten dau.
- 32 "Beste bat": Aita.
- 39 Beste itxulkera bat: "Zuek aztertzen dozuez, bai, Liburu Santuak..."
- 44 Aldakuntza: "eta Jaungoiko Bakarragandik datoren...". — Sinismena, griña txarrak eta lur-zalekeriak galerazoten dabe.
- 47 Maite dabela diñoen Moises sinisten ez ba'dabe, zelan sinistuko dabe gorroto dautsoen Jesus?
- 6 15 Aldakuntza: "mendira baztatu zan".
- 23 Geitutakoa: "Jaunak eskerrak emonda gero, ogia..."
- 26 Ogien banaketa ugaritsua dala-ta, Jesus'ek Eukaristi-Ogia iragarten dau.
- 27 Aldakuntza: "emongo dautsue Gizasemeak...". — Mirarien ezaugarri eta Jordan'eko zeruko abotsez izan zan izentatua.
- 31 Ps. 77, 24.



- 37 "Jesus'egana etorri edo joan": Jesus'egan sinistu.
- 45 Is. 54, 13; Jer. 31, 33-34.
- 51 Geitutakoa: "munduaren bizirako nik emongo dodan neure aragia da".
- 56 Ogi au jaten dauana, Kristo'gaz bat-bat egiten da, beronegandik jaungoikozko bizitza arturik.
- 58 Geitutakoa: "mana", edo-ta "basamortuan".
- 69 Aldakuntza: "Zu, Kristo zara, Jaungoikoaren Semea"; edo-ta, "Jaungoiko biziaren Semea".
- 7 2 Txabola-jaiia, jai guztietarik alaiena ta errikoiena zan. Udazkenean ospatzen zan, solo-ariakaitik Jaunari eskerrak emoteko, eta etorren azarorako euria eskatzeko. Egun oneitan, zugatz-adarrez egindako txaboletan bizi ziran.
- 6 "Sasoia": ordua.
- 8 Aldakuntza: "igoko oraindiño jai..."
- 12 Geitutakoa: "zurumuru aundia erabillen".
- 13 Judarrai eutseen bildurrez: judar agintariakanako bildurrez, oneik beti Jesus'en kontra ziarduen-eta.
- 21 Elbarriaren osatzea.
- 24 Jesus'ek zapatuz be osakuntzak egiten ebazala-ta, judarrak asarre ziran, eta Jesus'i arpegira jaurtiten eutsen ori.
- 26 Aldakuntza: "agintariak" ordez, "abadeburuak", edo "zaarrak".
- 27 Mesias ixil-ixilik, ezkutuan, etorriko zala uste eben, nundik jakin bagarik.
- 29 Aldakuntza: "bere ondoan nago eta..."
- 32 Aldakuntza: "eta pariseuak eta abadeburuak", edo, "areik eta abadeburuak..."
- 33 Bere eriotzaz diño. Geroago, judarrak Jesus'en billa ibiliko dira; baiña, alperrik. Billa ibiliko dira, bai; baiña, ez maitasunez, A aurrean erabilteko baiño.
- 38 Is. 44, 3; 55, 1; 58, 11. Ezek. 47, 1.
- 39 Geroago emongo yaken Espiritu Santua, Jesus bizituta gero.
- 42 Erregeen 2.<sup>a</sup>, 7, 12. Ps. 88, 3. — Geitutakoa: "eta Dabid zan Belen'go erritik..."

- 52 Oker iñoen, Galilea'n be igarleak izan ziran-eta. Gaiñera, Jesus Judea'ko Belen'en jaio zan, baita Jesus'en aurretikoak be.
- 8 11 Pekatua ondutzen dau, ez pekataria, Jesus zuzena da, baiña errukiorra be ba-da.
- 24 Neu nazala zuek itxaroten dozuen Salbatzaillea.
- 25 Lenago be esan eutsen nor zan, eta ainbat bidar esaten eutsen. Beste biurpen datzuk: "Lenengo ta bein, zegaitik berba egiten dautsuet"; "asierarik dirautsuedana"; "zearo dirautsuedana"; Vulgata'k: "Ni, zuei berba egiten diardudan au, asiera naz".
- 28 Vulgata'k: "Eta areik ez eutsoen igarri, bere Aitari Jaungoikoa zirautsanik". — "Gora jaso": gurutzean jaso. — "Ba-nazana": Jaungoikoaren indarra adierazoten dau esaera onek.
- 33 Olantxe erantzuten dabe laguntalde-arteko Jesus'en arerioak; egundo ez eben sinistu areik Jesus'ek iñoana.
- 34 Geitutakoa: "pekatuaren morroi da".
- 39 Aldakuntza: "Abraham'en semeak ba'zaree, Abraham'en egintzak egizuez".
- 44 Aldakuntza: "ez egoan egitan oiñarrituta". — Edo-ta, "guzurtiaren aita da-ta".
- 51 Eriotza ikusi: il. — Egintzak lagun dauzala, Kristo'gan sinisten dauanak, betiko bizitza izango dau.
- 9 4 Aldakuntza: "lanak" ordez, "ezaugarriak". — Beste aldakuntza bat: "egin bear doguz".
- 4 Eguna: bizitza; gaba: eriotza.
- 16 Ezaugarriak: mirariak.
- 21 Geitutakoa: "Berari itandu egiozue.
- 24 *Egi-egia esateko*, adierazoten dau esaera orrek.
- 31 Jaungoikoagana doan edonor, Arek abegi onez arzen dau.
- 10 5 Artalde, judar-erria da. Artzain gaiztoak, guzurrezko igarleak dira, pariseuak; oneik ez ziran artaldearen jagoleak, euren ondasunen zaintzailleak baiño.
- 8 Geitutakoa: "Ni baiño lenago etorri..."
- 10 Bizitza: betiko bizitza.


- 16 Aldakuntza: "arditegi bakarra..."
- 18 Gizonakaitik emoten dau bizitza, eta barriro artuko dau bizitu daitenean.
- 19 Geitutakoa: "barriro".
- 22 Eskintza-eguna: judarrak urtero ospatzen eben jai bat zan. Beñiola, Antioko Epifanes gaiztoak, Jerusalem'go Jaunaren Etxean sarturik, loitu ta zikindu egin eban. Judas Makabeo'k, barriz, bere arerioak Jerusalem'dik jaurti ondoren, garbitu ta barriro bedeinkatu eban. Jazopen onen gomutaz egiten eben judarrak jai au.
- 26 Judarrak, nai ez dabelako ez dabe sinisten.
- 29 Aldakuntza: "Nire Aitak emon daustana, ezer baiño aundiagoa da, eta..."
- 30 Izatez, bat; nortasunez, bi.
- 34 Ps. 81, 6.
- 39 Geitutakoa: "barriro, baiña...". — Ez yakon eldu arerioen eskuetan jarteko ordua.
- 11 18 Iru kilometru baiño gutxiago.
- 21 Geitutakoa: "Jauna, emen..."
- 39 Geitutakoa: "Marta'k, ildakoaren arreb(e)ak..."
- 40 Jaungoikoaren aintza: emen, miraria, Lazaro'ren biztuera.
- 50 Geitutakoa: "obe dana guretzat", edo "zuentzat..."
- 51 Geitutakoa: "urte aretan Abade Nagusi..."
- 55 Geitutakoa: "Pazko-aurrean, euren..."
- 12 7 Beste irakurte bat: "Neure obiratze-egunerako gorde dau-ta".
- 19 Itzez-itzez: "Mundu gutzia atzetik doakio".
- 26 Aitaren gorapenean, zeruan.
- 28 Zure izena: zure burua. Kodize batek edo bestek, *zure izena'ren ordez, Semea* dakar.
- 31 Aldakuntza: "beera" ordez, "kanpora".
- 32 Aldakuntza: "neugana ekarriko dot gutzia".
- 38 Is. 53, 1.
- 40 Is. 6, 9-10. — Jaungoikoak ez dau gizona itsu biurtzen, "itsutzen itxi" egiten dautso bakarrik; gizonak bere naietz itsutzen dau bere burua.


- 13 2 Aldakuntza: "Aparia amaituta, deabruak Simon Iskariote'ren semea zan Judas'en biotzean Jesus saltzeko asmoa orduko sartuta eukirik", edo "sartuta eukan-eta..."
- 5 Ugazabari oiñak garbitzea, morroien lana zan.
- 10 Geitutakoa: "oiñak garbitu baiño ez dau bear..."
- 33 Eriotzaren bidez izan ezik. Ikusi Yon 7, 33; 8, 21.
- 34 Agindu au ba-zan, baiña aurrerantzean indar aundiagoa izango dau: gizon guztiak artuko dauz; bearezko ba'litz, eriotza emon arteraiño maitasuna izan bear da, Jesus'ek egin eban antzera; eta au, Jaungoikoaganako maitasunagaitik.
- 37 Geitutakoa: "Jauna, zegaitik..."
- 14 7 Aldakuntza: "Ni ezagutu ba'nenduzue..."
- 10 Vulgata'k: "Ez dozue..."
- 15 Aldakuntza: "gorde egizue..."
- 17 "zeukan egongo da-ta".
- 21 Aitagaz aregana bizi izatera etorrita.
- 24 Aldakuntza: "Eta entzuten dozuen nire itza, ez da nirea, ni bialdu nauan Aitarena baiño".
- 28 Semea, Aita baiño txikiagoa da *gizona danez*.
- 30 Mundu onetako nagusia: emen, txerrena, deabrua. Deabruak, bere jarraitzaileak otsein biurtzen dauz. Baiña, Jesus'i ezin ezer egin daikeo, pekatu bagea da-ta, Jaungoikoa gaiñera.
- 31 Aitari dautsan maitasunaren doa eriotzara.
- 15 1 Emendik aurrerako itzaldi-zatia, Jetsemani'rako bi-dean esan eban Jesus'ek.
- 8 Aldakuntza: "eta neure ikasle izan zaitzela".
- 25 Ps. 34, 19; 68, 5.
- 16 16 Geitutakoa: "Aitagana noa-ta".
- 18 Geitutakoa: "Zer ete-da orrek diñoan 'laster' ori?".
- 26 Aldakuntza: "eta ez dautsat Aitari erregutuko..."
- 17 1 Ona emen Yon deunaren Barri Onaren laburpena: batasuna, maitasuna, egia, argia, ezaguera, bizitza. Kristo'k lurrekoai dakartsen Barria. Benetako Jaungoikoa danez, munduari agertu dagiola eskatzen dautso Jesus'ek Aitari; eta ori, eriotza, biztuera ta zerura igoeraren bidez.



- 11 Aldakuntza: "Gorde egizu emon daustasun zure izena".
- 19 Jesus'ek bere burua oparizat eskiñi ta santutzen dau, Bereak be santutu daitezau.
- 23 Aldakuntza: "maite izan dozuzala zuk oneik".
- 18 8 Emen Jesus'ek bere ikasleai dautsen ardura ta maitasun aundia erakusten dauskuz.
- 9 Ikusi 17, 12.
- 19 4 Geitutakoa: "orregan", edo "orren kontra errurik..."
- 9 Edo bardin dana: Nor zara zu? Zein da zure jatorri ezkutua?
- 11 Agintaritza Jaungoikoagandik dator erriagana, eta erriagandik gizonagana; eta artez eta zuzen jokatu ez dagianak, kontu gogorra be gogorra emon bear izango dautso Jaungoikoari.
- 15 Aldakuntza: "Areik deadar egiten (edo egin) eben:..."
- 16 Geitutakoa: "eta eroan egin eben;..."
- 25 Mari Klopas'ena: Salome, Zebedeo'ren semeen ama.
- 30 Bere egikizun guztia, Aitak esandako eginbear guztia bete ebala, amaitu, burutu ebala adierazo eban Jesus'ek; baita Mesias'i buruz Igarleak idatziriko guztia be.
- 31 Gertatze-eguna: barikua. — Belaunak ausi: al bait lasterren il zeitezau.
- 33 Aldakuntza: "ilda ikusi eben-eta,..."
- 36-37 Ex. 12, 46; Num. 9, 12. Zak. 12, 10.
- 38 Aldakuntza: "Joan zan, ba,..."
- 40 Judarren oitura zan gorpuak illobiratzean, usaingariz eta miritez igurtzea edo gantzutzea, eta oialez batzea.
- 20 16 Aldakuntza: "Emakumeak, atzeruntz biurtu ta..."
- 17 Aldakuntza: "Ez nagizu ikutu,..." — Aldakuntza: "nire anaiakana,..."
- 19 Geitutakoa: "batuta egozan..."
- 24 Geitutakoa: "Beste ikasleak auxe..."
- 31 "Aren izenean": Aregan. z

- 21 Azken-atalburu au, Yon'ek berak edo bere ikasle-  
ren batek Barri Onari geroago ezarritakoa da.
- 15 Jesus'en iru itaun, eta Pedro'ren iru erantzun, Je-  
sus'i iru maitasun-egitada egiten dautsaz, apaltasun  
zintzoz, iru ukatzeen orde. Eta orrela, Jesus'ek Eli-  
zaren Buru jarten dau.
- 23 Geitutakoa: "zuri zer?"





## JAKINGARRITZAT GEITUA

LEIZARRAGA (1571)

*Seme prodigoa.*  
(Luk. XV, 11-32)

- 11.—...Gizon batek zituen bi seme.
- 12.—Eta hetarik gaztenak erran ziezón aitári, Aitá, indak onhasunetik niri hel-tzen zaitadan partea. Eta parti zietzén onak.
- 13.—Eta egun guti-ren bu-ruan, guziak bildurik, seme gaztenor ioan zedin herri urrun bat-etara; eta han irion zezan bere onhasu-na, prodigo-ki vizi izanez.
- 14.—Guzia despendatu ukhan zuenean, egin izan zen go-sete gogor-bat herri har-tan, eta hura has zedin be-har izaten.
- 15.—Eta ioanik, lekhu harta-ko burgés batekin iar ze-din, eta hark igor zezan bere posesione-tara, urdén bazkatzera.

KEREXETA (1966)

*Seme ondatzaillea*

- 11.—...Gizon batek seme bi ebazan.
- 12.—Eta aretariko gazteenak aitari auxe esan eutsan: Aita, emon egidazu ondasu-netatik dagokidan zatia. Eta *aitak* banandu egin eutsezan ondasunak.
- 13.—Egun gutxi barru, seme gazteena, gauza guztiak ba-tuta, urruneko lurralde ba-tera joan zan; eta an, na-saikeritan bizi izanik, bere ondasun guztiak eralgi eba-zan.
- 14.—Guztia eralgi izan eba-nean, lurralde aretan gose-te gorria sortu zan, eta bear izaten asi zan.
- 15.—Orduan, joan eta lurralde aretako erritar baten morroi jarri zan, eta arek bere lan-detara bialdu eban, txarri-zain.



- 16.—Eta desir zuen urdék iaten zuten maginsh-etarik bere sabelaren bathatze-ra, eta nehork etzeraukan e-maiten.
- 17.—Eta bere buruari ohait zekionean, erran zezan, Zembat alokazer diraden ene aitaren etxean ogia frango dutenik, eta ni gosez hiltzen bainaiz!
- 18.—Iaikirik ioanen naiz neure aitagana, eta erranen draukat, Aitá, huts egin diat zeruaren kontra, eta hire aitzinean.
- 19.—Eta gehiagorik ez nauk digne hire seme deitzeko: egin nezak eure alokazer-etarik bat bezala.
- 20.—Iaikirik bada ethor zedin bere aitagana. Eta hura oraino urrun zela, ikhus zezan bere aitak, eta kompasione har zezan, eta laster eginik egotz zezan bere burua haren lephora, eta pot egin ziezon.
- 21.—Eta erran ziezón semeak, Aitá, hut egin diat zeruaren kontra eta hire aitzinean, eta gehiagorik ez nauk digne hire seme deitzeko.
- 22.—Orduan erran ziezén aíták bere zerbitzari-ei, Ekharzue arropa prinzipal-ena, eta iaunz ezozue; eta
- 16.—Eta txarriak jaten ebezan ezkurrez sabela bete gura eban, baiña ez eutsazan iñok emoten.
- 17.—Eta bere senera biurturik, auxe esan eban: Nire aitaren amaikatxo morroik ba-dauke ogia ugari; ni, barriz, emen goseak illik!
- 18.—Jagi ta neure aitagana joango naz, eta auxe esango dautsat: Aita, pekatu egin neban zeruaren kontra ta zure aurean;
- 19.—nik ez dot. arrezkero, zure seme deitzerik merezi; artu nagizu zure morroietariko bat lez.
- 20.—Eta jagirik, bere aitagana joan zan. Oraindiño urrun egoal, bere aitak ikusi ta, errukiz beterik, ariñeketan joan, semeari samatik eldu ta laztandu egin eban.
- 21.—Semeak auxe esan eutsan: Aita, pekatu egin neban zeruaren kontra ta zure aurean; nik ez dot, arrezkero, zure seme deitzerik merezi.
- 22.—Baiña, aitak bere morroiai auxe esan eutsen: Ekarri egizue bizkor soiñekorik onena ta jantzi

- emozue erhaztun bat bere esku-ra, eta zapatak oinetara.
- 23.—Eta ekharririk aretze gizona, hil ezazue; eta iaten dugula atsegin har dezagun.
- 24.—Ezen ene seme haur hil zen, eta harzara viztu da; galdu zen, eta eriden da. Eta has zitezen atsegin hartzen.
- 25.—Eta zen haren seme zahar-ena landán, eta ethorten zela, echeari urbildu zayonean, enzun zitzan melodiá eta dantzák.
- 26.—Eta deithurik zerbitzari-etarik bat, interroga zezan hura zer zen.
- 27.—Eta har erran ziezón, hire anaye ethorri izan duk, eta hil ukhan dik hire aitak aretze gizembat, zeren osorik hura rezebitu ziezon.
- 28.—Eta aserre zedin: eta etzén sarthu nahi izan; bere aíták bada ilkirik othoitz egin ziezon.
- 29.—Baiña hark ihardesten zuela erran ziezon bere aitari, Huná, hambat urthe dik zerbitza-tzen audala, eta egundano hire manurik eztiat iragan, eta egundano pitina bat eztrautak eman, neure adiskidekin atsegin hartzeko.
- egiozue; ertestuna eskuan eta oiñetakoak oiñetan ipiñi egiozuez.
- 23.—Zekor gizona ekarri ta il egizue, eta jan eta jai egin dagigun:
- 24.—nire seme au ilda egoan eta biztu egin da-ta; galduta egoan, eta aurkitu izan da-ta. Eta ospatzen asi ziran.
- 25.—Aren seme nagusia solloan zan; eta biurtzerakoan, etxera urreratu zanean, soiñu ta dantzak entzun eban;
- 26.—eta morroietariko bati dei egiñik, *guzti* a zer izan zeitekean itandu eutsan.
- 27.—Onek auxe esan eutsan: Zeure anaia etorri da, eta zure aitak zekor gizona il dau, *semea* barriri onik etxeratu yakolako.
- 28.—*Semea* asarratu egin zan, eta ez eban sartu nai. Bere aita urten, eta erreguka asi yakon.
- 29.—Baiña, arek aitari auxe erantzun eutsan: Onenbeste urtetan morroi nakizu, eta ez dot egundo zure agindurik ausi; olan be, antxume bat be ez daustazu iñoiz emon, nire adiskideakaz ospatzeko.

- 30.—Baina hire seme haur, zeinak iretsi ukhan baitu hire onhasun guzia putékin, ethorri izan denean, hil ukhan draukat humi aretze gizena.
- 31.—Eta har erran ziezón, Seme, hi bethi enekin aiz, eta ene guzia ihre duk.
- 32.—Eta atsegin hartu behar zuán eta alegeratu, zeren hire anaye haur hil baitzén, eta viztu baita, galdu baitzén, eta eriden baita.
- 30.—Eta zure ondasunak emagalduek eralgi dauzan zure seme orrentzat, etorri danekoxe, zekor gizena il dozu.
- 31.—Baiña, *aitak* auxe esan eutsan: Seme, zu beti neugaz zagoz, eta nire guztia zeurea da;
- 32.—egoki zan, ba, ospatu ta poztutea: zure anai au ilda egoan, eta bizitzara biurtu da-ta; galduta egoan, eta aurkitua izan da-ta.

*Aita gurea*  
(Mat. VI, 9-13)

- 9.—Gure Aita zeruétan aize-na, santifika bedi hire izena;
- 10.—Ethor bedi hire resumá. Egin bedi hire vorondatea zeruán bezala lurrean-ere.
- 11.—Gure eguneko ogia iguk egun.
- 12.—Eta kitta ietzaguk gure zorrak, nola guk-ere gure zordunéi kittatzen baitrauegu.
- 13.—Eta ezgaitzála sar erazi tentazonetan, baina delivra gaitzak gaitxtotik.
- 9.—...Gure Aita, zeruetan zarana, santifikatu bedi zure Izena;
- 10.—betor zure Erreiñua; egin bedi zure naia zeruan lez lurrean bere.
- 11.—Emoiguzu gaur gaurko ogia;
- 12.—parkatu gure zorrak, geuk bere gure zordunai parkatu egiten dautsegunez;
- 13.—eta ez gu tentaldira eroran, gatxetik atara baiño.

*Aita gurea*

## AURKIBIDEA

“Jesukristo’ren Barri Ona” Europa’ko izkuntzetan .....	5
Sarrera .....	7
Jesukristo’ren Barri Ona Mateo Deunak dakarrenez ...	11
” ” ” Markos Deunak dakarrenez ...	93
” ” ” Lukas Leunak dakarrenez ...	145
” ” ” Yon Deunak dakarrenez .....	233
Oarrak .....	295
Jakingarritzat geitua .....	321



1966'GARREN URTEKO  
URRILLEAN  
AMAITU ZAN  
'GRAFICAS IZARRA'  
IRARKOLAN  
DONOSTIA

LABAYRU-IKASTEGIA

BIBLIOTEKA - DEBIO

Sarr 9912/86

Gaia.

Tokia.

## ARGITARATZEKO ASMOTAN

ITUN BERRIA (gipuzkeraz: Orixé-Kerexeta-Zugazti).

JAINKOAREN BILLA (gipuzkeraz: Orixé; bizkaieraz: Kerexeta).

SALMUAK (bizkaieraz: Kerexeta; gipuzkeraz: Zugazti).

EUSKAL-ENTZIKLOPEDIA (seitik amar urterako neskato-mutikoentzat).

EUSKAL-IPUINAK (*Mañariko*'k eginda.—  
“*Mañariko* habrá sido, seguramente, la pluma de más rica fantasía escribiendo narraciones y cuentos vascos de sabor legendario”. “Para mí, *Mañariko* es lo mejor que tenemos como cuentista en la Literatura Vasca”, Carrasquedo Olarra'k diñoanez. Ikusi N. de Kortazar'en “Cien autores vascos”, 16'gn. orri. Colección Auñamendi).

UDAZKEN (Olerkiak).